

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA URRETXU

2020ko apirila

1. liburua

1. MEMORIA dokumentua

1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN EGIKARITZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA” dokumentua.

1.2. GEHIENEO ETA GUTXIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA dokumentua.

1.4. GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA dokumentua.

1.5. HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA dokumentua.



HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA URRETXU

2020ko apirila

“1. MEMORIA” dokumentua

“1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO
MEMORIA”.

ERANSKINAK



TALDE IDAZLARIA:

ZUZENDARITZA:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

IDAZLARIAK:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

KOLABORATZAILEAK:

Endara Ingenieros Asociados, S.L.
- Igor Martín Molina, BUPetako ingeniaria
- Garo Azkue San Emeterio, BUPetako ingeniaria
Iñigo Peñalba Arribas, arkitektoa
Madalen Gonzalez Bereziartua, arkitektoa
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa

GAINBEGIRATZE TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA

Maria José Begiristain Zabalo, udal-idazkaria.
Iñaki Mendizabal, udal-arkitektoa.
Udal Zerbitzuak, oro har.



AURKIBIDE OROKORRA.

1. Dokumentua. MEMORIA

- 1.1. Dokumentua. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA".
- 1.2. Dokumentua. GEHIENEO ETA GUTXIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA.
- 1.3. Dokumentua. INGURUMEN IRAUNKORTASUNEN TXOSTENA.INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA.
- 1.4. Dokumentua. GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA.
- 1.5. Dokumentua. HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA.

2. Dokumentua. HIRIGINTZA ARAUAK.

- 2.1. Dokumentua. HIRIGINTZA ARAU OROKORRAK.
- 2.2. Dokumentua. HIRIGINTZA EREMUEN HIRIGINTZA ARAU PARTIKULARRAK.
- 2.3. Dokumentua. KATALOGOA.

3. Dokumentua. AZTERKETA EKONOMIKOA.JARDUKETA PROGRAMA.

- 3.1. Dokumentua. EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA.
- 3.2. Dokumentua. EKONOMIA-IRAUNKORTASUNEN MEMORIA.
- 3.3. Dokumentua. JARDUKETA PROGRAMA.

4. Dokumentua. PLANOAK

5. Dokumentua. EGIKARITZE-LABURPENA

URRETXUKO HAPO

“1. MEMORIA” dok.

“1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA”

2020ko apirila



"1. MEMORIA" dokumentua

**"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA
JUSTIFIKATZEKO MEMORIA".**

ERANSKINAK



URRETXUKO HAPO

“1. MEMORIA” dok.

“1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA”

2020ko apirila



AURKIBIDEA

Orrialdea

I.-	<u>SARRERA</u>	1
I.1.	Xedea eta izapidetzea.....	1
I.2.	Lurralde-eremua eta bere eboluzioa.....	2
I.3.	Plangintza-aurrekariak.....	56
I.4.	Indarreko lege-esparrua.....	57
I.5.	Plangintza-irudiaren hautaketa.....	61
I.6.	Dokumentua idaztea eta izapidetzea. Informazio publikoa eta herritarren parte-hartzea	61
I.7.	Proiektuaren edukia.....	63
II.	<u>ANTOLAMENDU-PROPOSAMENA</u>	
II.1.	Diagnostiko-sintesia.....	64
II.2.	Udal-irizpideak eta -helburuak.....	66
II.3.	Euskal Autonomia Erkidegoko LAGek xedatutako irizpideak.....	71
II.4.	Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionaleko LZPetik eratorritako irizpideak.....	71
II.5.	Lurralde Arloko Planetatik eratorritako irizpideak.....	72
II.6.	Bizitegiak kuantifikatzeko irizpideak.....	73
II.7.	Beste irizpide eta helburu batzuk.....	74
II.8.	Aztertutako aukerak. Ingurumen-ebaluazioa eta soluzioen orientazioa.....	75
II.9.	Esku hartzeko proposamenaren azalpena.....	76
II.9.1.	Proposamena egiteko oinarriak.....	76
II.9.2.	Deskribapen orokorra.....	78
II.9.3.	Zonakatze orokorra.....	81
II.9.4.	Etxebizitza.....	94
II.9.5.	Ekonomia-jarduerak.....	100
II.9.6.	Mugikortasuna eta irisgarritasuna.....	102
II.9.7.	Espazio libreen sistema.....	106
II.9.8.	Komunitate-ekipamendua.....	109
II.9.9.	Hiri-zerbitzuen azpiegiturak.....	111
II.9.10.	Ibai-ibilguak.....	112
II.9.11.	Aukeratutako soluzioen justifikazioa.....	114
II.10.	Proiektuaren garapena eta egikaritzea.....	115
II.10.1.	Hirigintza Eremuen mugapena.....	115
II.10.2.	Udalerrri mugakideekiko plangintzaren koordinazioa.....	116
II.10.3.	Hirigintza-sailkapen arloko irizpideak, helburuak eta proposamenak. Lur hiritar eta urbanizagarrietan planteatutako hirigintza-garapenei atxikitako eskubide eta betebeharren erregimena.....	117
II.10.4.	Hirigintza-antolamendua egikaritzeko irizpideak eta proposamenak.....	121
II.10.5.	Tokiko hirigintza-estandarrak betetzearen justifikazioa.....	130

AURKIBIDEA (jarr.)	Orrialdea
II.11. Proposamenean aztertutako beste alderdi batzuk.	136
II.11.1.-Paisaia	136
II.11.2.-Eraikuntza landa-ingurunean.....	136
II.11.3.-Zarata	136
II.11.4.-Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	137
II.12.- Proposamenaren deskribapena eremuka.....	138
II.12.1.-Udalerrri-erdiguneko bizitegi-eremu hiritarra.	138
II.12.2.-Industria-garapenak.....	139
II.13.Katalogoa.	139
III. ARREIKUSITAKO GARAPENAK PROGRAMATZEKO IRIZPIDEAK	140
IV. ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIEN TAULAK	
1.- Lurzoruaren sailkapena	141
2.- Hirigintza Eremuen identifikazioa	141
3.- Zonakatze orokorra	142
V. AZKEN GOGOETA	143

MEMORIAREN 1. ERANSKINA

Urretxuko udalaren 2019ko urtarrilaren 31ko osoko bileraren erabakia, Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentua eta bere ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa idazteko prozesuaren jarraipenean kontuan izan beharreko irizpide, helburu eta soluzioak berresteari buruzkoa, udalaren hasierako onespena jaso behar duena eta gero jendaurrean jarri beharrekoa.

MEMORIAREN 2. ERANSKINA

Eusko Jaurlaritzaren (Barne Saila) txostena, arriskuei buruzkoa.

MEMORIAREN 3. ERANSKINA

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten kokalekuak.

4. MEMORIAREN ERANSKINA

LAGen araberako gehieneko bizitegi-ahalmena (2019).



I.- SARRERA.

I.1.- Xedea eta izapidetzea.

Urretxuko udalak 2012an onartutako udal-plangintzako Arau Subsidiarioen (aurrerantzean Arau Subsidiarioak) testu bategina berrikusteko lanei ekitea eta Hiri Antolamenduko Plan Orokor (aurrerantzean HAPO) bihurtzea erabaki du, aplikazioko lurzoru eta hirigintzaren legeria berrira egokituta.

Xede horrekin, 2017ko abenduaren 20an izenpetutako kontratuaren arabera, dokumentu hau izenpetzen dugun profesionaloi eskatu digu lan hori egiteko: Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez, arkitektoak, eta Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua. Prozesua martxan jarri da eta I.6 atalean emango da horren berri.

Horiek horrela, 2018ko urtarriletik 2019ko martxora bitartean askotariko jarraipen-batzordetan landu eta eztabaidatu zen HAPOren proposamena. Prozesu horren ondorioz, 2019ko martxoaren 25eko hirigintza-batzordean, 2019ko apirilaren 25eko hirigintza-batzordean, hasierako onespena jaso eta jendaurrean jarrita egon zen 2019ko apirileko HAPO dokumentuan jasotako hartu beharreko plangintza-soluzioak zehaztu ziren, 2019ko maiatzaren 13ko osoko bilkuran adostu zirenak.

Jendaurrean jartzearen ondorioz, bederatzi alegazio-idazki eta beste hainbeste txosten sektorial aurkeztu ziren, eta eztabaidak aurrera jarraitu zuen. Hori guztia kontuan hartuta, prozesua urtebetez landu ondoren, Udalak egindako batzorde eta bileretatik atera denaren arabera, 2020ko martxoan prozesuari buruzko txosten bat idatzi da. Txosten horren arabera, Plan Orokorraren dokumentu berri bat idatzi da, Udaleko Osoko Bilkurak onar dezan eta jendaurrean jar dadin.

HAPO honek plangintza-tresna honen berezko zehaztapan eta eduki guztiak ditu, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa barne, eta udalerrriaren etorkizun hurbilerako proiektua da, jendaurrean jartzeko aipatutako prozesu berritik ondorioztatzen denaren kalterik gabe.

Jendaurrean jartze horren testuinguruan, udalerrian zabalduko da proiektua, egin beharreko alegazioak jasotzeko xedez, Herritarrek Parte Hartzeko Programaren arabera. Halaber, prozedurarekin jarraitzeko, txosten sektorial osagarriak eskatuko zaizkie eskudunak diren Administrazioei eta Erakundeei.

Dokumentu hori egiteko orduan, lanak zuzentzen ari garenokin batera, taldea osatzen duten profesionalak ere lagundu dute; baita Udal Zerbitzu Teknikoek eta Udalbatzak berak ere, haren garapenaren aurrerapenak pixkanaka, unean-unean eta aldiro-aldiro ezagutu dituztelarik.

I.2.- Lurralde-eremua eta bere eboluzioa

I.2.1.- Sarrera

Idatzi behar den Plan Orokorrak Urretxuko udal-mugarte osoa du xede. Udalerriak 750 hektareatik gora ditu, eta 6.730 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1ean, Urretxuko Udala Erroldaren urteko berrikuspenaren arabera (EINen iturria, 1458/2018 Errege Dekretua, abenduaren 14koa). Horren kokapena I.1 planoan identifikatu da.

Informazio ofizial berrienaren arabera, biztanleria 6.756 biztanlera iritsi zen 2019ko urtarrilaren 1ean (743/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa). Hain zuzen ere, 3.429 emakume eta 3.327 gizonezko ziren.

Plan Orokorrak hartzen duen lurraldean, udal-proiektua definitu behar du, interes-gatazkak bateratu behar ditu, eta lehentasunak zehaztu behar ditu berorrek hartzen duen zortzi urteko denbora-mugan, interes publikoko gaiei erantzuna emateko. Xede horretarako, sakon aztertu da lurralde hori.

I.2.2.- Lekua. Ikuspegi geografikoa eta historikoa.

Urretxu Goierriko eremu funtzionalekoa da (Beasain-Zumarraga) lehen aipaturiko I.1 planoan irudikatuta dagoen bezala. Eremu funtzional horretan txertatuta dago Urola Garaia eskualdea, Urretxuk Ezkio eta Itsaso, Zumarraga eta Legazpi udalerriekin batera osatzen duena.

Udalerriak 7,53 km² inguruko azalera du, Goierri osoaren % 2,21 inguru eta Urola Garaia eskualdearen % 8,40. Beraz, Urola haranaren goialdean eta Urola ibaiaren ezkerrean dagoen azalera txikiko udalerria da. Ibaitek Irimo mendiaren tontorreraino hedatzen da. Urola harana zabaldu eta Zumarraga-Beasain korridorerantz azaltzen den lurraldea da.

Lekua bat dator bidegurutze batekin: itsasertzetik etorri eta Deba haranerantz jarraituz, Urolak eratzen duena eta Oria haranarekin komunikatzen duena. Lehen bide haiek bide eman diote Urolarekiko paralelo ipar-hego norabidean doazen GI-631 eta GI-2631 errepideen arteko bidegurutzeari eta GI-632 (Gipuzkoako "biribilgunearen" zati den A-636 autobide berria) eta GI-2632 errepideen arteko ekialde-mendebalde norabideko bidegurutzeari.

Ibaiaz eta errepideez gain, udalerriak Madril-Paris trenbidearen trazadura ere hartzen du, Zumarragan geltokia duena, Urola ibaiaren ondoan, eta baita Euskal Herriko Trenbide Sare Berriarena ere, udalerria tunel barruan zeharkatzen duena eta, Santa Luzian, Urretxutik hurbil, geltokia izatea aurreikusten dena. Bere garaian hiru trenbide hartu zituen: Urola trenbidea, Zumaiarainokoa; trenbide baskongadoa, Bergararainokoa; eta Patricio Echeberriaren trenbidea, Legazpirainokoa.



Urolaren aldameneko ibarrak udalerriko hiri-asantamendua hartzen du eta malda handiko Irimo mendiaren hegalek baserri sakabanatuak. Asentamendu horrek berezitasun bat du: ibaiaren eskuin aldean jarraipena duela, aldameneko Zumarraga udalerrinari dagokiona.

Udalerriak, mendebaldean, Antzuolarekin egiten du muga, Deskarga gainetik Urola ibairaino, Irimo tontoretik igaroz. Bestalde, hegoaldean, Legazpirekin egiten du muga, Deskarga gainaren eta Urola ibaiaren artean baita ere, baina kasu honetan Mendaratz errekararen (Urolaren ibaiadarra) trazadurari jarraituz. Azkenik, ekialdean eta iparraldean Zumarragarekin egiten du muga.

Urola ibaiaren trazadura urrundu egiten da Zumarragatik ia 7 kilometrotan eta hiri-asantamenduak jarraipena du bertan.

Udal-mugartea mugatzeko interpretazioan hainbat zehaztapen grafiko ikusi eta egin beharreko ikerketa egin ondoren, dokumentu honetako planoetan udal-muga zuzena identifikatu da (I.2 plano).

Hiribilduaren hirigunea Urola haranaren erdi-erdian dago; 2° 31"-komendebaldeko longitueda eta 43° 09'-ko ipar latitudea du eta 350 m inguruko garaiera itsas mailatik.

Irimo mendia da udalerraren puntu garaiena 896 m-ko altitudearekin, eta Karakate-Irukurutzeta-Irimo gailurreraren ekialdeko muturra da.

Urretxuko udalerrria bat dator gailur horretatik Mendaratz errekaraino hegoalderantz jaisten diren mendi-hegalekin eta Urola ibairaino ekialderantz eta iparralderantz. Lurraldeko punturik baxuena Larregi errekarak Urola ibaiarekin bat egiten duen tokia da (275 m-ko altitueda).

Mendi-hegal horiek erreka labur eta malda handikoak edo isurketa soilak hartzen dituzte, I.2 eta I.3 planoetan irudikatuta dagoen bezala. Horien artean daude Mendaraz, Txakolin, Pagoeta eta Erbizulo edo Sagastitxipi izenekoak.

I.2 plano horretan udal-mugartearen mugapena ere ageri da eta toponimo esanguratsuenak daude jasota. Udalerraren lurraldeakekialdetik mendebalderako 3 kilometro inguruko eta iparraldetik hegoalderako 4 kilometroko laukizuzena eratzen du.

Udal-mugartetik kanpo kokatzen diren arren, presentzia berezia dute Urretxuko paisaian, batetik, Aralar mendiguneak, Txindoki mendia elementu adierazgarriena duenak eta, bestetik, Aizkorri-Aloña mendiguneak, ondorengo irudian ageri denak.





Zumarraga, Urretxu eta Legazpi, Aizkorriren barrenean

Irudia Irimo tontorretik hartutakoa da.

Udalerriak Irimo tontorra du ardatz, iparraldera, ekialdera eta hegoaldera irekitako begiratokia. Hiri-asantamendua Urola ibaiaren aldamenean dago, udal-mugartearen mugan.


2017ko abenduaren 31n 6.746 biztanle zituen herriak¹.

Horien % 95,5 Urretxuko hirigunean bizi da. Gutxi dira landa-eremuan bizi direnak (oso jende gutxi bizi da nekazaritza-sektoreari lotuta eta ez dago landagune garrantzitsurik).

Udalerriko ekonomia-jarduera industrian eta zerbitzuetan oinarrituta dago. Mugatua da nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreen jarduera, erabilera horiek udal-barrutiaren zati garrantzitsua hartzen duten arren.

Hurrengo irudian udal-mugartearen erliebea ikus daiteke. Argi eta garbi erakusten du lurraldearen forma.

¹ 2019ko urtarrilaren 1ean 6.756 biztanle zituen herriak.



Udalerriaren irudikapen hipsometrikoaren grafikoa

Urretxuko biztanle gehienak Urola ibaiaren ezker aldean modu linealean garatzen den hirigunean bizi dira, Irimoren mendi-hegaletan baserri sakabanatuak egotearen kalterik gabe. Baserri horien kokapena I.2 planoan dago jasota, toponimia barne, eta baita I.3 planoan jasota dagoen ortofotoa ere.

Aztertzen ari garen eremua lurralde gorabeheratsua da, mendi-hegal aldapatsuen (lurraldearen % 60 baino gehiagok % 30etik gorako malda du) eta altitude handieneko lekuetan, lurralde-mugartearen mendebaldean eta ipar-mendebaldean, 900 m gainditzen ez dituzten mendien sistemak markatutako erliebea duena, kota baxuena ekialdeko eta iparraldeko 275 m-tan duena, Urola haranean.

Irimo mendia eta Urola harana dira lurralde honi nortasuna ematen dioten elementu geomorfologikoak, eta baita interes geologikoko hainbat puntu edo lekurekin (IGP/IGL) identifikatzen diren material bolkanikoak ere.

Hirigunea Erdi Aroko hiribilduak, bere errebaiek eta Urola ibaiaren ondoan bai iparralderantz eta batez ere hegoalderantz(Labeaga kalearen ardatza eta industria-garapenen luzapena) hazi den zabalgunek eratzen dute, denborak aurrera egin ahala Irimoren mendi-hegalaren beheko aldea okupatzen joan diren hazkundeen kalterik gabe.Azken urte hauetan, bizitegi-eraikin berriak batez ere hirigunearen iparraldean (Elizalde eta Gurutze auzoa) eta Irimoren mendi-hegalean (Lilibaso, Sorginzulo eta Basagasti) kokatu dira, hegoaldean Mugitegiko "industrialdea" garatu den bitartean, hori ere Irimoren mendi-hegalean. Garapen berri horren aldamenean haranean lehendik zeuden pabiloi industrialak, bestalde, hutsik eta jarduerarik gabe daude gehienak.

Urretxu ondo komunikatuta dago lurreko hainbat azpiegituraren bidez, bereziki Gi-632 (A-636), GI-631 eta Madril-Irun trenbidearen bitartez. Azken honek Zumarragako geltokia du, Urretxuko hiri-jarraituan.

Urretxuk, Joan I.a Gaztelakoak 1383ko urriaren 3an emandako hiri-gutunaren bidez lortu zuen hiribildu-izaera. Henrike III.a Gaztelakoak berretsi zuen 1391ko apirilaren 20an Madrilgo Gorteetan, Joan II.ak 1420ko apirilaren 12an, eta Errege-Erregina Katolikoek 1492ko azaroaren 28an.XV. mendea baino lehen Gipuzkoa osatzen zuten 26 hiribilduetako bat izan zen. Hala ere, kontsultatutako iturrien arabera, San Martín de Tourseko San Martini eskainitako parrokia-eliza hiribildua sortu aurrekoa zen.

I. Linazasororen arabera, "*pribilegio-gutunak eskumena eman zien Urretxuko lurretako antzinako biztanleei Villarreal izeneko hiribilduan bizitzen jartzeko, Salvatierra de Iraurgik (egungo Azpeitia) zituen foru, askatasun eta pribilegio beraiekin... eta, aldi berean, tokiko toponimoak erabiliz, udal-mugartea eta bere lerro banatzaileak finkatu zituen. Jurisdikzio kriminala ere eman zien eta eskribauak eta alkateak izendatzeko eskumena, Azpeitian erabilitako formularen arabera*".Hiribildu horri Gasteizko Forua aplikatu zitzaion, Gipuzkoa barrualdeko beste herri batzuei bezala. Horrek hainbat eskubide indibidual bermatzen zizkien hiribilduko biztanleei, esaterako, bizilekuaren bortxaezintasuna, herritarrak torturatzeko debekua, askatasun-bermea, mendi eta herri-larreen aprobetxamendu librea, eta soldaduskatik eta zerga-mota guztietatik libre geratzea, etxe bakoitzeko urtean bi soldata ordaintzekotik izan ezik.

P. Gorosabelen arabera, Zumarragako Santa Mariaren kolazioa 1383an gehitu zitzaion hiribilduko herritarrei eta Ezkiogako San Migelena 1385ean. Gertakari horiek tentsio handiak sortu zituen Segurako hiribilduarekin.Desadostasun horiek Henrike III.a erregeak 1405ean berretsitako epai baten ondoren amaitu ziren. Epaiaren arabera, hiribildu guztiak, Villarreal barne, Segurako hiribilduaren jurisdikziopean geratzen ziren.Baina sei urte geroago, Villarreal Segurarekiko mendekotasunetik libre geratu zen, hiribildu-izaera berreskuratuta.

Antzuolarekin ere auzia izan zuen Irimo mendiaren (*Irimo-sabea*) jabetza zela eta. Auzia Villarrealen alde ebatzi zen 1496ko epaiaren bitartez.Hala ere, 1696an elkartu egin ziren baso-baliabideak eta beste mota batekoak (probintziako batzarretara txandaka joatea) ustiatzeko, 1726 arte iraun zuen Irimoko Batasuna deiturikoa eratuz.



Bere historian zehar, Urretxuk desadostasunak izan ditu Zumarragarekin: 1534an Zubiberria eraikitzeari buruz; 1713an zubi bereko zubi-brankako bi harri ordeztuari buruz; 1776an, berriz, 1819an berriro zen fardel-zerbitzua zela eta, etab.Zumarragan Norteko trenbidea egiteak ere beste desadostasun bat ekarri zuen bi udalerrien muga zen Urola ibaiaren ibilgua aldatu behar izan zelako eta lehen Villarrealen (ezkerraldean) zegoen Zelaikoa baserria eskuin aldean kokatu behar izan zelako.Elizatik geltokirako bidea egiteak ere tirabirak sortu zituen eta baita Azkoititik Villarrealerako errepidea egiteak ere (kostaldeko herrietatik tren-geltokirako sarbidea), Villarrealak bere kaletik pasa zezan nahi zuelako. Horretarako, parrokia-elizaren burualdea eraitsi zuten eta udaletxearen zati bat kendu zuten leku hartan bidea zabaltzeko.Zumarragak beste ibilbide bat nahi zuen errepidearentzat eta aurka azaldu zen baina Azpeitiko 1862ko Batzarretan Villarrealak defendatzen zuen proiektua onartu zen. Urte bat lehenago, 1861ean, Zumarraga hiribilduari bat egiteko egindako proposamenak porrot egin zuen Villarrealgo biztanleei egindako kontsultaren ondoren.

Hiribildua Urola bailararen hondoan kokatu zen, herri horretan barrena igarotzen den meandro baten ezkerraldean, ekialdeko hegal osoan ibaiak dituen babes-abantailak eta bai kostaldera bai Gaztelara zihoazen bideen gurutzagunea kontrolatzeko abantailak aprobetxatuz.

Hiribilduaren plano zaharra angeluzuzena da, 1,6 hektareakoa, eta, Alvarez Urcelay et al.-en arabera, erromatarren kanpamentu militarretan jatorria izan zuen hirigintza-ideia baten ondoriozkoa da forma hori.Barrunbe osoa harresitua zegoen, eta XVI. mendearen erdialdean bazituen jada bi kale, Goiko kale eta Beko kale izenekoak, gaur egun Jauregi eta Iparragirre deiturikoak, hurrenez hurren.

Eraikinak fatxada-lerrokadura bati eutsi gabe joan ziren eraikitzen, eta zenbaki batekin izendatu beharrean, haien izenarekin izendatu ziren.Hiribildua sortu eta hainbat urtera orube hutsak egoteak errege-zedulak onartzea eragin zuen (1457 eta 1557 urteetan). Errege-zedulek harresitik kanpo etxeak eraikitzea debekatu zuen.

Hiribilduak, Erdi Aroko beste askok bezala,hainbat sute jasan zituen, hala nola 1658koa, non 26 etxe eta parrokiako dorrea eta ataria erre ziren.Hala, jatorriz bizitegi-lursail gotiko izandakoak jabari publikorako berreskuratzeko erabakiaren emaitza da egungo plaza handia, plazako fatxada osatzen dutenen antzekoak izanik.

Egungo Erdi Aroko gune historikoan eta inguru hurbilean oinetxe eta jauregi batzuk nabarmentzen dira, hala nola Corral-Ipeñarrieta (egungo Udaletxea) eta Areizaga jauregi-etxeak.Erlijio-arkitekturari dagokionez, Tourseko San Martin parrokia nabarmentzen da. Eraikin soila da, harriz eta egurrez egindakoa, eta barruan elementu errenazentistak, gotikoak eta barrokoak uztartzen ditu.

Halaber, nabarmentzeko modukoak dira jatorrizko bilbean dauden oinetxeak, bereziki Iparragirre kalean daudenak, hala nola Bikario-etxea, Faktorekoa, Galdosenea eta Barrenetxea.Nabarmentzeko modukoa da, bestalde, erdigunetik kanpo, Irimo mendi-magalean dagoen XVII. mendearen hasieran eraikitako Ipeñarrietarren jauregia.



Joan den mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan, biztanle berriak erakarri zituzten industria-jarduera garrantzitsuen ezarpenaren ondorioz, bilakaera bitxia izan zuen Urretxuk, hiri-kokalekuaren bilakaera bitxi eta azkarra berekin ekarri, bailararen hondo ia guztia betez, biztanle berriei ostatu emateko etxebizitzak eraikitzeke hegaletatik ere igoz.

Geroago, demokrazia iritsi ondoren, Urretxuk pixkanakako bilakaera izan du eta bilakaera horretan hiri-asantamenduaren berritze garrantzitsua ahalbidetu da, eta Urola ibaiaren ezkeraldeko ingurumen-kalitatea ere nabarmen hobetu da.

Egindako esku-hartzeek hobekuntza bereziak eragin dituzte. Dena den, Plan Orokor honek lagundu egin behar du prozesu horretan eta jarraipena eman behar dio, hurrengo hamarkadarako udal-proiektua eskainiz.

I.2.3.- Asentamenduak: biztanleria, etxebizitza eta jarduerak.

I.2.3.1. Sarrera.

Jatorrizko asentamendua bat dator Villa Real de Urrechua hiribilduaren 1383ko fundazioarekin. Inguruneke kokapen sakabanatuetan lehendik zeuden biztanleak bildu zituen.

Gaur egun, jatorrizko asentamendu hura hazi egin da haranean, Urola ibaiaren ezkeraldea okupatuz eta, aldi berean, ibaiaren eskuin aldean hedatu da hiri-jarraitu gisa Zumarragako nukleoa eratuz.

Gerra baseritik (ibaian behera) Kaminperaino (365 m-ko altitudea) Urola harana oso-osorik okupatu duen asentamendu jarraitua da, eta ibaian gora ere jarraitutasuna du Legazpin; eta, pixkanaka-pixkanaka mendebalderantz hedatu da Irimoren mendi-hegalean barrena. Batik bat bizitegi-asantamendu lineala da. Iparraldeko eta hegoaldeko muturretan daude ekonomia-jardueren zonak (Sagastitxipi eta Matxinporta iparraldean eta Ipeñarrieta, Mugitegi eta Kaminpe hegoaldean).

Biztanleriaren banaketari dagokionez, % 97,5 inguru hirigunean bizi da. Udalerriko ia etxebizitza guztiak ere hirigunean daude.

Horiek horrela, etxebizitzako batez besteko okupazio-ratioa 2,53koa da hirigunean eta 2,91koa landa-ingurunean. Etxebizitza okupatuko batez besteko indizea 2,54 biztanlekoa da.

Bestalde, etxebizitza hutsen kopurua 283 unitatekoa da, hau da, dauden etxebizitza guztien % 9 ingurukoa. Hala ere, zenbateko horretan etxebizitza okupatuak ere sartzen dira, batzuk ekonomia-jarduerak okupatutakoak, eta baita eraikitzen ari diren eta narriadura-egoera aurreratuan dauden etxebizitzak ere. Udal-informazioaren arabera, benetan hutsik dauden etxebizitzen kopurua 100 baino gutxiagokoa da eta nabarmen murrizten da udalerriko etxebizitza-premiari erantzuna emateko moduko hutsen kopurua. Horren arabera, etxebizitza hutsen parkea etxebizitza guztien % 3 baino gutxiagokoa da.



Hala, 2016ko datuen arabera Urretxuk 6.805 biztanle zituen arren, Urretxu, Zumarraga eta Legazpi udalerriek osatzen duten eta hiri-jarraitua eratzen duten hiri-asentamenduak 25.000 biztanletik gora ditu eta Goierriko buruetako bat osatzen du (bestea bat dator Beasain, Ordizia eta Lazkaoko hiriguneekin, 2016an 29.363 biztanle zituztenekin).

Beasain, Ordizia eta Lazkao (BOL) udalerrietako biztanleria azken hamarkadan hazi egin den arren, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi (ZUL) udalerrietako biztanleriak behera egin duela ohartarazten da.

Nabarmendu egin behar da Urretxu, 2010 arte hazi egin zen arren (6.957 biztanle), biztanle-kopurua txikitu egin dela berriro, 2008ko mailan kokatu arte.

Bi eskualdeetako biztanleriari erreparatzen badiogu, 1981ean, ZULEk 28.401 biztanle zituen eta BOLEk 26.736, baina egoera alderantzikatu egin da.

Eboluzio demografikoari buruzko bigarren behaketa hori ere kontuan hartu da udalerraren etorkizuneko proiektua formulatzerakoan.

Joerak alderantzikatu egin daitezke horretarako bitartekoak jartzen badira.

Nolanahi ere, asentamendu osoaren tamainak berezia egiten du Gipuzkoako hiri-sisteman, biztanle-kopuruaren beheranzko bilakaeraren inguruan ikusi denaren kalterik gabe, Gipuzkoako lurralde historikoko biztanleria, oso gutxi bada ere, hazi egin den aldi batean.

I.2.3.2. Biztanleriaren eboluzioa

Urretxuko Udal Erroldaren urteko berrikuspenak, 2018ko urtarrilaren 1ean egindakoak, (Abenduaren 14ko 1458/2018 Errege Dekretua) 6.730 biztanleko kopurua ematen du EINen iturri ofizialaren arabera. Biztanle gehien hiribilduko hirigunearan pilatzen dira (% 97,5), izan ere, biztanleria sakabanatua ozta-ozta iristen da guztiaren % 2,5era. Biztanle-dentsitatea 900 bizt./km² da, gutxi gorabehera.

Informazio ofizial berrienak dio biztanleria hazi egin dela eta, EINen arabera, 6.756 biztanlera iritsi zen 2019ko urtarrilaren 1ean.

XX. mende hasieratik gaur egun arte, hau da, 1900-2016 aldian izan duen eboluzio demografikoa positiboa izan da, % 1,57ko urteko hazkunde-tasarekin, Urola Garaian % 1,3koa, eskualdean % 1ekoa eta Lurralde Historikoan % 1,01ekoa izan denean. Erreferentziatzko gainerako lurraldeek baino hazkunde-erritmo handiagoa islatzen du horrek.



**URRETXU, UROLA GARAIA, GOIERRI ETA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA
(1900-2016)****EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE URRETXU, UROLA GARAIA, GOIERRI Y GIPUZKOA**


	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991	1996	2001	2011	2016
Urretxu	1.110	1.151	1.510	1.727	2.187	2.804	4.877	6.077	6.865	6.430	6.450	6.066	6.242	6.521	6.930	6.789
Goierri	21.390	23.747	25.944	29.846	31.680	35.463	50.933	67.279	70.637	69.248	67.449	64.757	64.651	63.828	68.048	69.567
Urola Garaia	5.786	5.724	6.219	7.028	9.117	11.238	19.168	28.411	30.028	28.984	28.928	27.600	26.382	26.210	26.230	25.689
Gipuzkoa	195.850	226.684	258.157	302.329	331.753	374.040	478.337	631.003	682.517	692.986	685.840	676.307	676.208	680.069	709.607	720.028

ITURRIA. Biztanleriaren Zentsuak eta Biztanleen Udal Erroldak. 1900.urteetik 1991.era: Biztanleriaren Zentsuak. 1986.urteko datuak (apirila 1) eta 1996.urtekoak (maiatza 1): Biztanleen Udal Erroldak. 2001.urteko datutik aurrera: Udal Erroldaren Berrikuspena (urtarrilaren 1ean), 2016. urtekoa izan ezik (abenduaren 31n). Geuk egina.

FUENTE: Censos de Población y Padrones de Habitantes. De 1900 a 1991: Censos de Población. Datos de 1986 (1 de abril) y de 1996 (1 de mayo): Padrones de Habitantes. De 2001 en adelante Revisión Padrónal (1 de enero), salvo el del año 2016 (31 de diciembre).

Elaboración propia.

Urretxuko biztanle-hazkundera 1910etik 1975era bitartean pilatu da (% 2,8ko urteko hazkundera). 1975etik aurrera galera demografikoak hasi ziren eta laurogeiko hamarkada osoan iraun zuten (1991n 1970ekoaren oso antzeko biztanle-errola zegoen). Laurogeita hamarrekoko hamarkadatik aurrera, atzeranzko joera hori aldatzen hasi zen, 2017ko amaieran 6.746 biztanlera iritsi arte (hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren erdi ingurukoaren oso antzeko kopurua). Gaur egun, azken urte hauetako datuak kontuan hartuta, atzeranzko beste une baten aurrean egon ginezke, ia berrehun biztanleko (184 pertsona) galera egon baita. Datuei erreparatuta, biztanle-errola handiena 2010ean izan zen, 6.957 biztanlerekin.



Estatistikako Institutu Nazionala (EIN), Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT), Gipuzkoako Foru Aldundia eta Urretxuko Udala. Biztanleriaren Zentsuak, Biztanleen Udal Erroldak eta Udal Erroldaren Zuzenketak. Geuk egina.

Fuente: Instituto Nacional de Estadística (INE), Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT), Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Urretxu. Censos de Población y Rectificaciones del Padrón Municipal. Elaboración propia.

XX. mendeko berrogeiko, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetako hazkunde demografiko handi horien arrazoia Gipuzkoa osoan eta are gehiago Urretxun izan zen garapen ekonomikoan eta bereziki industrialean bilatu behar da. Izan ere, Urretxu, enpresa handiak dituzten beste bi herri oso industrialen ondoan dado, hain zuzen ere, Zumarraga eta Legazpiren ondoan, eta Euskadiko eta Espainiako beste udalerrri batzuetatik etorritako langileen parte bat hartu zuen.

Urte horietako hazkunde-tasak, ondorengo taulan ikus daitezkeenak, ez dira berriro gertatu (Urretxu, berrogeita hamarreko hamarkadan, urtean % 5,69 hazi zen eta Urola Garaia % 5,5), eta oso deigarria izan zen Urola Garaiak hirurogeita hamarreko hamarkadan izan zuen % 4,01eko hazkunde.

(%)

Urteko hazkunde-tasak

	40-50	50-60	60-70
Urretxu	2,52	5,69	2,22
Goierri	1,13	3,69	2,82
Urola Garaia	2,10	5,50	4,01
Gipuzkoa	1,21	2,49	2,81

Iturria: EIN eta EUSTAT. Geuk egina.


Fuente: INE y EUSTAT. Elaboración propia.

70eko hamarkadan, bereziki 1975etik aurrera, hazkunde-erritmoa nabarmen moteldu zen (jaiotza-tasaren eta migrazio-saldoen beherakada), baina lurraldeek 1981etik aurrera eta hamarkada horretan zehar izan zituzten galera demografiko handiak. Eskualdeak izan zuen portaera okerrena, laurogeiko hamarkadan ere biztanleak galtzen jarraitu baitzuen (Urretxu zen ongien kokatutakoa, urteko % 0,73ko hazkundearekin 1991-2001 aldian, Urola Garaia % -0,52rekin, Goierriren % -0,14rekin eta Gipuzkoaren % 0,06rekin).

Hirurogeita hamarreko krisialdiak, industria-sektorean oso espezializatutako lurraldeetan enplegu industrial asko galtzeaz eta enplegu suntsipenean eragin zuzena izateaz gain, lehen aipaturiko faktore demografikoetan eragin zuen modurik zuzenenean (jaiotza-tasen beherakada, "itzulerako" emigrazioa deiturikoa protagonista izan zuten migrazio-saldo negatiboak, etab.). Horri, kultura-arloko beste arrazoi batzuk gehitu behar zaizkio, esaterako, biztanleen pentsamoldean izandako aldaketak (emakumeak lan-munduan txertatzea, etab.) eta pixka bat aurrerago biztanle-egitura bera hasi zen zahartzen (heriotza-tasen gorakada txikia).

Egungo egoerak galera demografikoak azaltzen ditu Urretxun eta Urola Garaian (% -0,34 eta % -0,35 hurrenez hurren 2011-16 aldian). Erroldako datuek adierazten dute 2010etik aurrera beheranzko joera hasi zela eta oraindik ere jarraitzen duela, gorabehera txiki batzuekin bada ere (6.957 biztanletatik 6.746 biztanlera pasatu zen 2017ko urtarrilaren 31n).





Iturria: EIN eta Urretxuko Udala. Udal Erroldaren Zuzenketak, Datu Ofizialak (urtarrilaren 1ean). Guk egina.

Fuente: INE eta Ayuntamiento de Urretxu. Rectificaciones de los Padrones de Habitantes, Datos Oficiales (1 de enero). Elaboración propia.

Hurrenez hurren, 2016ko eta 2001eko urtarrilaren 1eko udal-erroldaren berrikuspeneko biztanle-zifrak ofizialtzat jotzen dituzten abenduaren 2ko 636/2016 eta abenduaren 17ko 1420/2001 Errege Dekretuetako datuetan oinarrituta, Urretxuko egoera erreala udalaz gaindiko beste lurralde-eremu batzuen egoerarekin alderatzen da eta ikusten da azertzen ari garen eremuak autonomia-erkidegoaren antzeko hazkundeak izan dituela baina eskualdekoak, lurralde historikokoak eta Espainiakoak baino kaskarragoak. Urola Garaiak soilik izan zituen galera demografikoak aldi horretan.

URTEKO HAZKUNDE-TASAK
(%)
TASAS DE CRECIMIENTO ANUAL

Aldia/Período	Urretxu	Urola Garaia	Goierri	Gipuzkoa	Euskadi	España
2001-2016*	0,27	- 0,1	0,38	0,36	0,27	0,83

Iturria: EIN. * 2011ko eta 2012ko, abenduaren 31n urtarrilaren 1ean, * Udal Erroldaren Berrikuspenak. Geuk egina.

Fuente: INE. * Rectificaciones de los Padrones Municipales de Habitantes, 1 de enero de 2001 y 2016. Elaboración propia.

Urola Garaiaren portaera demografiko okerragoaren arrazoi nagusia Zumarraga eta Legazpi herri industrialek eta Gipuzkoako beste udalherri batzuek izandako biztanle-galera da, hala nola, Eibar, Sorluze, Bergara eta Arrasatek izandako galerak.


Hurrengo mapan ikus daitekeen bezala, hazkunde-mapa negatiboak dituzten Gipuzkoako udalherri gehienak barrualdean daude (ez dira kostako udalherriak), Pasaia izan ezik. Barrualdeko herri asko lurralde oso industrializatuak dira eta biztanleria-hazkunde handiak izan zituzten duela hainbat hamarkada eta, zenbait kasutan, baita azken urte eta hamarkada hauetan ere. Kostaldeko udalherriek, aldiz, hazkunde-erritmo jarraituagoa eta/edo orekatuagoa izan dute gaur egun arte.



Urretxu hazkunde-tasa positiboekin ageri da mapa horretan baina gaur egun ez litzateke azalduko azken bi urteetako datuak kontuan hartuta. Horrek berretsi egingo luke hazten jarraitzen duten kostaldeko udalerriek jendea erakartzeko duten ahalmena, duela hainbat hamarkadatarako hazkundeekin zerikusirik ez duen arren.

Kostaldearen eta barrualdearen arteko desoreka ezin izan da zuzendu azken urte hauetan, LAAek euskal hiri-sistemaren eredu orekatua bultzatzea proposatu duten arren.

Tasa de crecimiento anual, 2001-2008



Iturria: R. Galdos Urrutia (2008).

Urretxuko hiribilduak Urola Garaia osoan duen pisu erlatiboari dagokionez, etengabe eta pixkanaka-pixkanaka joan da handitzen 1900eko % 19,20tik 2016ko bukaerako % 26,4ra eta inoiz ez du protagonismorik galdu. Goierrin, aldiz, presentzia galdu du, (2016an % 9,8 zen, 1900etik 2011ra % 5,2tik % 10,2ra pasatu den arren).

Eta amaitzeko, Urretxuko biztanleriaren azterketa prospektiboa, Plan Orokor honen epean, 2000-17 aldiko hazkunde-erritmoari eustekoa da eta 6.900 biztanle inguruko kopurua eskaintzen du. Baina, bestalde, azken 8 urte hauetako eboluzioa, egungo egoera ekonomikoa, zahartutako bere biztanle-egituraren eta adin emankorrean dauden emakumeak gutxitzearen ondorioz murriztu egingo den ugalkortasun-indizearen ondorioak kontuan hartuta, egoera horrek ziurgabetasunak eragiten ditu.

Bestalde, azken 8 urte hauetako joera beherakorra kontuan hartzen bada, planaren epemugan populazioa 6.600 biztanleraino jaitsi daiteke, hau da, behera egin dezake egungoarekin alderatuta, gutxienean bada ere.

Bestalde, kontuan izan liteke lurraldeak eskaintzen dituen aukeren eta populazioa hartzeko eta etorkinak erakartzeko duen ahalmenaren ondoriozko ikuspegi demografiko optimistagoa. Egoera hori lehendik ari da gauzatzen eta neurri handiagoan gauza liteke udalerriko eta ingurunean enplegu-eskaintza finkatu eta hobetuko balitz. Hipotesi horretan, udalerriak Planaren epemugan 7.000 biztanletik gora lehen aldiz izan ditzakeela iragarri liteke, gehikuntza handiagorik espero ezin den arren.

Testuinguru horretan, formulatutako proposamenak aukera ematen du deskribatutako hiru agertokiei erantzuteko eskaintza koiunturara egokituz, enplegu-sorrera nahiz etxebizitza-eskaintza eragiten dituzten proposamenak egikaritzeak joera-aldaketa ahalbidetzearen kalterik gabe.

Goierriko Lurralde Plan Partzialak populazioaren atzeranzko bilakaera aurreikusten du, baina Plana 2009koa dela zehaztu behar da. 2009-2019 aldian aurreikuspen demografiko horiek ez dira bete eta Eustaten aurreikuspen demografikoak asko aldatu dira, oraintxe bizitzen ari garen egoera berritik atera daitekeenaren kalterik gabe.

1.2.3.3 Biztanleriaren egitura.

Egitura demografikoak biztanleriaren ezaugarri nagusiak erakusten ditu sexu eta adinaren araberrako osarari dagokionez. Biztanleriaren analisiak bere historia demografikoa, egungo egitura eta etorkizunerako itzaropenak islatzen ditu. Adierazle horrek ondorioak ditu ekonomia- eta gizarte-arloan, lurralde bateko eskulana neurtzeko erabiltzen da eta hainbat ondasun eta zerbitzuren premietan eragiten du.


Sexuen araberrako populazio-egituraren kasuan, Urretxu oso orekatuta dago (% 49,4 gizonezkoak eta % 50,6 emakumeak), eta baita Urola Garaia ere (% 49,9 eta % 50,1, hurrenez hurren). Gipuzkoan, aldiz, emakumeek presentzia handiagoa dute (% 51,2). 1986ko datuekin alderatuta, emakumeen presentzia pixka bat handitu da, duela 30 urte biztanle guztien % 49,1 zirelako. Lehen aipaturiko 2019ko azken datuen arabera, Urretxun finkatu egin da egoera hori (% 49,2 gizonezkoak eta % 50,8 emakumeak).

Adinaren araberrako populazio-egiturak adierazten du populazioak zahartzeko joera duela, hilkortasun-tasa, orokorra nahiz umeena, murriztu egin delako, jaiotza-tasa kontrolatzen delako eta bizi-itzaropena handitu egin delako. Aztertzen ari garen eremuan, 65 urtetik gorako biztanleak % 8,5 ziren 1986an eta % 21,1 2016an, egungo eskualdekoaren antzeko ehunekoa baina Gipuzkoako % 21,6 eta Urola Garaiko % 23,6 baino zerbait txikiagoa. Azterketa Ekonomikoen Institutuak Alemaniako Estatistika Bulego Federalaren datuetan oinarrituta 2016ko uztailearen 1ean egindako txostenaren arabera, populazio-multzo hori % 18,9 zen EBn eta % 18,5 Espainian, Italiatik eta Alemaniatik hiru puntura (% 21,7 eta % 21,1, hurrenez hurren), baina % 13-14 inguruko ehunekoak zituzten Irlanda, Zipre, Luxemburgeta Eslovakiמודuko herrialde gazteetatik urrun. Lurralde horien artean egoera okerrera Urola Garaiak zuen (% 23,6) Urretxuk baino bi puntu gehiagorekin.

20 urte baino gutxiagoko biztanle gazteen kopurua, adinaren araberrako egituraren zutabea eta etorkizuneko oinarria, murriztu baino ez da egin azken hamarkadetan. Ondo egituratutako biztanleria batean gazteek % 33 baino zerbait gehiago izan beharko lukete. Urretxu ia egoera horretan zegoen 1986an multzo horrek biztanleria osoaren ia % 31 hartzen zuenean, gaur egun baino ia hamar puntu gehiago. Nabarmentzekoa da gazteen multzoak, 2016an, 65 urtetik gorakoaren ia ehuneko bera izatea (biztanleria osoaren bosten bat baino zerbait gehiago, hurrenez hurren) eta egoera horrek okerrera egin dezakeela, baldin eta urte horretako piramideko multzo gazteenaren (0-4 urte) joera urteek aurrera egin ahala berresten bada.



Aztertzen ari garen eremuko azken hogeita hamar urte hauetako adin-talde handien araberako populazio-egiturako aldaketak oso ondo ikusten dira honako grafiko hauetan.




Iturria. EUSTAT eta GFA. Biztanleen Udal Errolda eta Biztanleen Udal Erroldaren Zuzenketa. Geuk egina.
Fuente: EUSTAT y DFG. Padrón Municipal de Habitantes y Rectificación del Padrón Municipal. Elaboración propia.

Zahartzaro-indizea aztertzen bada, 64 urtetik gorakoak 16 urtetik beherakoekin erlazionatzen dituen ehunekotan adierazita, 2016ko amaieran berriro Urola Garaia ageri da zahartze-sintoma kezkarrienak dituen lurralde gisa % 155,4ko indizearekin, Urretxu eta Goierriko % 125,2ko eta Gipuzkoako % 138,2kotik pixka bat urrunduta (EINen arabera % 137,3ko indizea 2017an). Espainiako balioak pixka bat hobeto daude baina arazoa hortxe dago (% 116,3 2016an eta % 118,4 2017an).

Nolanahi ere, kasu guztietan zahartze biologikoaren oso eredu adierazgarriak diren populazioez ariko ginateke hitz egiten. Jaiotza-tasa baxuek ez ezik, egungo bizi-itxaropen mailek ere eragina dute populazio horietan, 80,3 urtekoa gizonezkoentzat eta 85,6 urtekoa emakumeentzat, 1975ean 69,6koa eta 76,9koa zirenean, hurrenez hurren (I. Linazasororen arabera, 1900ean, Urretxun hildakoen batez besteko adina 40 urtekoa zen). Errealitate horrek agerian uzten du biztanle-talde horrek eska ditzakeen erretiroei eta asistentzia-zerbitzuei aurre egiteko baliabide-premia eta aktibo potentzialak diren pertsona gazteek bere populazio-egituran pisu txikia duten lurralde baten etorkizunaren aurrean sortzen den ziurgabetasuna. Ondorengo grafikoan ikusten da Gipuzkoa osoko duela hainbat urtetako egoera. Urretxu eta beste hainbat lurralderen egoerak okerrera egin duela ikusten da.

Índice de Vejez, 2008



64 urtetik gorako populazioaren mendekotasun-tasak, 64 urtetik gorako biztanleen eta 16-64 urteko biztanleen arteko zatidurak, ehunekotan emandakoak, orain arte adierazitakoa berresten du. Izan ere, 2016ko amaieran, aztertzen ari garen herriak % 33,9ko tasa zuen (1991n % 15,9koa zen), Gipuzkoak % 34,4koa, hau da, eskualdekoaren oso antzeko ehunekoa (% 34,3) eta berriro Urola Garaia ageri da egoera larrienarekin, hain zuzen ere % 38,4ko ehunekoarekin.

Baina udalerrriaren egungo egoeraren analisi zorrotzago baterako, 2016ko abenduaren 31ko populazio-piramidea azalduko da ondoren, 1986koarekin alderatuta. Piramide horretan argi eta garbi ikusten dira azken hamarkadetako fenomeno demografiko aipagarrienak, batzuk dagoeneko aipatu direnak, eta biek dituzten hain forma desberdinak (alderantzikatu balira bezala). Hor ikusten da 1986ko piramideak profil hedakorra duela eta populazio gaztea dagoela adierazten duela, oinarri zabalekoa eta erpinerantz estutu egiten dena eta 2016koak, aldiz, atzeranzko profila duela.

Baina hori bai, laurogeiko hamarkadako piramideak adierazten du hirurogeita hamarreko hamarkadatik biztanle gazteen kopurua (0 eta 14 urte arteko kohorteak) beheraka zihoala eta, horregatik, piramidea pixka bat estutzen hasita zegoela, batez ere jaiotza-tasaren beherakadaren eraginez (krisi ekonomikoa, emakumea lan-munduan sartzea, herritarren kultura-aldaketak, etab.).

1986ko piramidean, berrogeita hamarreko, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako hazkunde demografikoak eta 50-70 urteetako garapen ekonomiko handiaren garaian lanera etorritako etorkin-kopuru handia gehiago nabaritzen dira piramidearen oinarrian, hain zuzen ere 10 urtetik 24 urtera bitarteko kohortetan (1960-1975 artean jaiotakoak) eta 25 urtetik 34 urtera bitarteko kohortetan (berrogeita hamarreko hamarkadan jaiotakoak). Populazio-multzoz horiek bat datoz 2016ko 40-44 urte arteko kohortetik aurrera piramidearen erdialdean dagoen zabaltze esanguratsuekin (erditik gora "*pagoda forma edo forma hedakorra*" *duela esan liteke*, iraganeko aztarna horren ondorioz). Halaber, bizi-itxaropena handitzeak, handiagoa dena emakumeen artean gizonezkoen artean baino, eragina du adin handieneko multzoetan.

Bestalde, 2016ko piramidean atentzioa ematen dute, batetik, 20 urtetik 34 urtera bitarteko kohorteen sarguneez eta, bestetik, 5etik 20 urtera bitarteko irtenguneez, populazio gaztearen gehikuntzek (laurogeita hamarreko hamarkadako azken urteak eta XXI. mendeko lehen hamarka), seme-alabak izan dituzten etorkin gazteen etorrerarekin lotutakoak (bertako biztanleek baino jaiotza-tasa altuagoak dituzte).


Urretxuko gaur egungo piramidearen erraboi edo kutxa forma edo piramide alderantzikatuaren forma, erdigunea baino oinarri estuagoarekin eta zaharren ehuneko handi samarrarekin, populazio erregresiboen eta *Trantsizio Demografiko* deiturikoa amaitu duten herrialde garatuaren tipikoa da. Bi piramideak elkarren gainean jarrita ikusten da azken 30 urte hauetan ia "alderantzikatu" egin dela profila, baina 5 urtetik 19 urtera bitarteko adin-multzoek ondorengo multzoek (20-39 urte), populazio heldu gaztea deiturikoa baino pisu handiagoa dutela ikusten da. Hori oso positiboa izan da Urretxuko piramiderakoeman dion "gazte-ukituagatik", 0-4 urte arteko multzoak beste sargune bat izan duen arren.



"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"
2020ko apirila

Sexuaren araberako banaketa orekatu samarra dago (% 49,4 gizonezkoak eta % 50,6 emakumeak), baina emakumeen bizi-itxaropen handiagoa 60 urtetik aurrera nabaritzen da 2016ko adin-piramidean.


Urretxuko piramidea Urola Garaikoaren, Goierrikoaren eta Gipuzkoakoaren gainean jarrita ikusten da denek antzeko profilak dituztela. Beraz, aztertzen ari garen herriaren egungo piramiderako egindako azalpen asko beste hiruren piramideetara estrapolatu daitezke, izan ere, piramide alderantzikatuak dira, populazio erregresiboen eta erregimen demografiko modernoaren fasea amaitu duten herrialde garatueta tipikoak. Fase hori trantsizio demografikoaren teoriaren laugarren fasea da baina bere azken belaunaldiak fase horretan daude oraindik. Populazio horien adinen egiturak, bizi-itxaropena luzatzearen, ugalkortasunaren beharakadaren eta hazkunde demografikoa geldotzearen ondorioz, haiek zahartzeko joera du. 60-70eko hamarkadetako piramideen forma pixkanaka-pixkanaka eraldatzen ari da XX. mendeko azken bi hamarkadetatik hasi eta gaur egun arte, oinarrian kamustuz eta erdialdean eta goialdean edo erpinean zabalduz.



Iturria. EUSTAT eta GFA. Biztanleen Udal Errolda eta Udal Erroldaren Zuzenketa. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT DFG. Padrón de Habitantes y Rectificación del Padrón. Elaboración propia.

Urola Garaiarekin alderatuta, oinarrian eta erpinean ditu desberdintasun handienak, adin-talde gazteenek, 20 urtetik beherakoek, pisu handiagoa dutelako Urretxun eta 60 urtetik gorakoek, aldiz, garrantzi handiagoa dute Urola Garaian. Xehetasun horiek adierazten dute aztertzen ari garen eremuko biztanleria pixka bat gazteagoa dela.


"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"
2020ko apirila



Iturria. GFA.Udal Errolden Zuzenketak. Geuk egina.

Fuente. Diputación Foral de Gipuzkoa. Rectificaciones de los Padrones Municipales. Elaboración propia.

Goierriko piramidea ere ez da aztertzen ari garen eremuaren oso desberdina, zerbait gazteagoa den arren bere populazio-egituran 0-5 eta 20-39 urteko adin-taldeek duten pisu handiagoagatik. Urretxuko piramidean 40-59 eta 5-19 urteko adin-taldeek hartzen dute pisu demografiko handiagoa.60 urtetik gorakoen biztanleria antzekoa da bi lurralde-eremuetan.



Iturria. GFA.Udal Errolden Zuzenketak. Geuk egina.

Fuente. Diputación Foral de Gipuzkoa. Rectificaciones de los Padrones Municipales. Elaboración propia.



Lurralde Historikoari dagokionez, aldeak adin-talde gazteeneko multzoetan aurkitzen dira pisu handiagoa baitu Urretxun. Dena den, 0-4 urte arteko adin-taldeari erreparatzen badiogu, aldaketa bat adierazten ari dela esan genezake (Urretxun behera eta Gipuzkoan gora). Biztanleria heldu gazteak (20-39 urte), aldiz, pisu handiagoa du Gipuzkoako populazio-egituran, eta alderantziz gertatzen da talde heldu nagusien multzoan (40-59), presentzia handiagoa baitu Urretxun. Azkenik, 64 urtetik gorako biztanleek antzeko presentzia dute bi lurraldeetan.

I.2.3.4. Biztanleriaren mugimenduak.

I.2.3.4.1. Mugimendu naturala

Aipaturiko edozein lurralde-eremuren XXI. mendeko piramideetako batean ere oharkabean geratu ez dena XX. mendearen azken laurdeneko jaiotza- eta ugalkortasun-tasaren beherakada handia izan da, Espainiako populazioak izandakoa baino handiagoa. Hori izan da, dudarik gabe, dinamika naturalaren eboluzioaren inguruko gertakari garrantzitsuena.

Urretxuko jaiotzen bilakaeran ikusten da 1975etik 2017ra gehieneko bat dagoela 1976an (150 jaiotza). Une horretatik aurrera jaiotza-kopurua behera egiten hasi zen 1992an gutxienez iritsi arte (35 jaiotza). Urte horretatik hasi eta aldi horretako gehienekoa erregistratu zen 2009ra bitartean (94 jaiotza), jaiotza-tasa bere onera etorri zen, baina gorabehera txiki batzuekin. XXI. mendeko bigarren hamarkadan beherakada jarraitua izan 2017 arte (2010eko 71 jaiotzatatik 2017ko 26ra), eta egungo kopuruak XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran edo 1918an eta 1920an izan zirenetara hurbiltzen direla ikusten da (35 eta 34 jaiotza, hurrenez hurren, gripe-epidemiaren ondorioz). XX. mendean zehar, hirurogeiko hamarkadan izan dira tasa altuenak (179 jaiotza 1965ean).

Datuen analisiak erakusten du 1975-79 aldiko urteko 122,8 jaiotzatatik XX. mendeko jaiotzatarara pasatu zela, azken hogeita hamar urtetako aldirik kritikoena hiru azken urteetako (2015-2017) datuak kontuan hartzen ez badira. Une horretatik aurrera batez bestekoek gora egin dute 1995-99 aldiko urteko 56,2 jaiotzatatik 2000-09 aldiko urteko 77,7 jaiotzatarara eta berriz ere beste atzeraldi bat hasi zen 2010-14 aldiko urteko 61 jaiotzarekin edo 2015-17 aldiko urteko 37 jaiotzarekin (urteko 52 jaiotza 2010-17 aldia kontuan hartuta). Ikusten den bezala, azken datuek agerian uzten dute aldagai demografiko horren beherakada.

URRETXUKO BEREZKO HAZKUNDEA (1975-2017) CRECIMIENTO NATURAL DE URRETXU

	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-09	2010-14	2015-17
JAIOTZAK / NACIMIENTOS	614	387	260	217	281	388	389	156	111
HERIOTZAK/ DEFUNCIONES	187	192	191	220	219	226	262	180	191
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	427	195	69	-3	62	162	127	-24	-80

Iturria: EIN, EUSTAT eta Urretxuko Udala. Geuk egina.

Fuente: INE, EUSTAT y Ayuntamiento de Urretxu. Elaboración propia.



Hilkortasunaren kasuan, datuek adierazten dute pixka bat gora egin duela hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren erditik gaur egun arte: hirurogeita hamarrekoko hirurogeita hamarrekoko bigarren bosturteko urteko 37,4 heriotzatatik laurogeiko hamarkadako urteko 38 heriotzatarara eta laurogeita hamarrekoko urteko 44 heriotzatarara pasatu da. XXI. mendeko lehen hamarkadan, kopuruak 2000-04 aldiko urteko 45,2 heriotzetatik 2005-14 aldiko urteko 52 heriotzetara eta 2015-17 aldiko urteko 63,3 heriotzetara doaz. Azken 40 urteetako heriotza-kopuru handiena 2015ean izan zen 78 heriotzarekin, eta txikiena 1977an 31 heriotzarekin.

Adierazitako guztiak azaltzen du Urretxuk aldi horretan izan duen hazkunde begetatibo edo berezkoaren beherakada handi eta jarraitua, gorabeherekin eta zeinu-aldaketekin izan bada ere. Hala, hirurogeita hamarrekoko hamarkada erditik hirurogeita hamarrekoko hasierara berezko hazkunde-tasek behera egin dute baina beti positiboan. 1990-94 aldian izan ziren kausa naturalen ondoriozko lehen populazio-galerak (- 3 pertsona/urtean). Hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren erditik hurrengo hamarkadaren erdira arte (1995-2004) suspertu egin zen berezko hazkundera (12,4 pertsona/urtean 1995-99 aldian eta 32,4 pertsona/urtean 1999-2004 aldian) jaiotza-tasaren hazkunderaren ondorioz, heriotzek ere gehitzen jarraitu zutelako. 2005etik aurrera eta gaur egun arte berezko saldoek behera egin dute, batetik, jaiotzen beherakadengatik eta, bestetik, heriotzen gehikuntzagatik (urteko 25,4 pertsona 2005-09 aldian eta urteko 8,2 pertsona 2010-17 aldian). 2012an "0" saldo begetatiboa izan zen eta 2013tik aurrera saldo negatiboak izan dira, urtez urte, gaur egun arte (-26,6 pertsona 2015-17 aldian).

Bilakaera hori, beste faktore batzuen artean, enplegu-ezaren eta herritar gazteen joera eta jokabide berrien ondorioa da, izan ere, ezkontzeko edo bikotean bizitzeko adina atzeratzeaz gain (langabezia, ikasketak, lan egonkorrik eza, etxebizitza, etab.), beheranzko joerarekin kontrolatu eta planifikatzen dute seme-alaben kopurua (familia-unitatea gero eta txikiagoa da). Eta heriotzen kasurako, lehen ere adierazi den bezala, gero eta populazio zaharragoaren ondorioa.


Amaitzeko, hirurogeiko hamarkadaren erdi ingurutik, Urretxuk berezko saldo gero eta baxuagoak ditu eta egoera kezagarri samarra du gaur egun. XX. mende-amaierako eta XXI. mende-hasierako susperraldiaren ondoren, atzeraldiko beste bolada bat hasi zen (2005etik aurrera), 2013an amaitu zena lehen berezko saldo negatiboekin.

Denborak berretsiko du galera demografiko horiek puntualak diren (orain arte 2013-2017 urteetan) edo etapa demografiko berri baten aurrean gauden.

Populazioaren egiturak, egoera ekonomikoak, gazteen langabezia-mailak eta lan-egoera ezegonkorrak eta beste hainbat faktorek, a priori, ez dituzte onerako aldaketak iragartzen, ezar daitezkeen neurrien eraginkortasunaren kalterik gabe.

Hala ere, egoera hori alderantzikatu dezaketen ekimenak antzematen dira eta alderantzikatzeko hori desiragarria da modu orekatuan gauzatzen bada.

"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"
2020ko apirila



Iturria: EIN, EUSTAT eta Urretxuko Udala. Geuk egina.

Fuente: INE, EUSTAT y Ayuntamiento de Urretxu. Elaboración propia.

Jaiotza Tasa Gordinen (JTGd) eta Heriotza Tasa Gordinen (HTGd) kalkuluak lehen esandakoa berresten du eta, aldi berean, beste lurraldeetakoekin alderatzeko aukera ematen du. Kasu honetan, aztertzen ari garen eremuak 1975ean ‰ 19,8ko JTGd izatetik 1917an ‰ 3,9koa izatera pasatu zen (‰ 8,8 2010-14 aldiko batez bestekoa kontuan hartzen bada eta ‰ 5,4koa 2015-17 aldikoa hartzen bada). HTGd-en kasuan, 1975eko ‰ 5,5etik 2010-14 aldiko ‰ 7,5era pasatu zen, ‰ 9,3 2015-17 aldia kontuan hartzen bada (‰ 9,3 2017an). Datu horiek, aztertzen ari garen herriaren -‰ 3,7ko saldo begetatiboa ematen dute 2017an, -‰ 3,9koa 2015-17 aldiko datuak kontuan hartzen badira edo -‰ 0,6koa 2010-17 aldian, 2010-14 aldian ‰ 1,3koa izan zenean. 2013tik gaur egun arte (2017) berezko kausengatik biztanleak galtzen direla eta 2012an "0" berezko hazkundera izan zela ikusten da.,7

Urola Garaiko jaiotza-tasaren bilakaera ez da aztertzen ari garen eremukoaren oso desberdina. Jaiotza-tasaren beherakada 1975etik laurogeita hamarrekota hamarkadaren erdira arte iraun zuen (1975-79 aldiko urteko 507,6 jaiotzatatik 1990-94 aldiko urteko 196 jaiotzatarara). Une horretatik aurrera etengabeko gorakada egon zen XXI. mendeko lehen hamarkadan zehar (1995-99 aldiko urteko 212,2 jaiotzatatik 2005-09 aldiko urteko 263,8 jaiotzatarara pasatu zen). XXI. mendeko bigarren hamarkadan jaiotza-tasaren beherakada garrantzitsua izaten hasi zen (urteko 235 jaiotza 2010-14 aldian eta urteko 198 jaiotza 2015-16 aldian), eta garai hartako saldo begetatibo negatiboen motibo zuzena ere izan zen (-36 pertsona/urtean 2010-14 aldian eta -162 pertsona/urtean 2015-16 aldian). Lurralde horretako JTGd-ak 1975eko ‰ 18,8tik 2016ko ‰ 7,5era jaitsi ziren, ‰ 10,4ra 2010-14 aldia kontuan hartzen bada eta ‰ 10era 2010-16 aldian. HJGd-ak, aldiz, 1975eko ‰ 5,6tik 2016ko ‰ 10,4ra igo ziren, ‰ 10,7ra 2010-14 aldian eta ‰ 11,3ra 2010-16 aldian. Horrek guztiak adierazten du saldo begetatiboa -‰ 2,9koa zela 2016an, -‰ 1,6koa 2010-14 aldian eta -‰ 1,3koa 2010-16 aldian. Beraz, lurralde hori populazioa galtzen ari da kausa naturalengatik hainbat urtetan.

Ikusten den bezala, bai Urola Garaiak eta bai Urretxuk biztanleria galdu dute berezko saldo negatiboen ondorioz, baina lehen kasuan galera 2012an hasi zen, eta jarraitua izan da gaur egun arte (2016) eta Urretxuren kasuan 2013an hasi zen eta 2017 arte jarraitu du.

**UROLA GARAIO BEREZKO HAZKUNDEA
(1975-2016)
CRECIMIENTO NATURAL DE UROLA GARAIA**

	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-09	2010-14	2015-16
<i>JAIOTZAK / NACIMIENTOS</i>	2.538	1.648	1.179	980	1.061	1.214	1.319	1.175	397
HERIOTZAK/ DEFUNCIONES	826	817	844	961	1.027	1.088	1.083	1.211	559
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	1.712	831	335	19	34	126	235	- 36	- 162

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente: EUSTAT. Geuk egina.

Goierri dagokionez, ondorengo taulan ikusten den bezala, jaiotza-kopuruak behera egin du pixkanaka-pixkanaka aztertutako lehen lau bosturtekoetan (1975-79 aldiko urteko 1.030,2ko batez besteko jaiotzatatik 1990-94 aldiko urteko 507,4ko batez besteko jaiotzatarara pasatu da), baina 1995etik 2009ra etengabeko gorakada izan du (1995-99 aldiko urteko 535,2 jaiotzatatik 2000-04 aldiko urteko 605,6 jaiotzatarara eta 2005-09 aldiko urteko 766,8 jaiotzatarara). 2010etik aurrera jaiotza-tasaren beherakada hasi zen eta gaur egun arte jarraitu du (2010-14 aldian urteko 708,6 jaiotza-tasa eta 2015-16 aldian urteko 646 jaiotza-tasa), 1990-94 aldiko maila baxuenetara iritsi ez zen arren.

Heriotzei dagokienez, bilakaera oso desberdina izan dute. Laurogeiko hamarkadatik hasi eta gaur egun arte, aldagaiak etengabeko eta pixkanakako gorakada izan du (1980-84 aldiko urteko 382,6ko batez besteko heriotzatatik 2015-16 aldiko urteko 685,5eko batez besteko heriotzatarara). Lehen berezko saldo negatiboak, bestalde, laurogeita hamarrekoko hamarkadan izan ziren (1996an -39 pertsonarekin eta 1997an - 3 pertsonarekin) eta gaur egun (2015ean - 69 pertsonarekin eta 2016an -9 pertsonarekin).

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadako berezko saldo positiboak ez dira berriz gauzatu (urteko 645,8 pertsonako batez besteko hazkundera 1975-79 aldian), baina laurogeiko hamarkadan (urteko 202,2 pertsona 1980-89 aldian) eta laurogeita hamarrekoko (urteko 14 pertsona 1990-99 aldian) berezko hazkunderaren kopuru garrantzitsuekin hasi zen mende berria eta, batik bat, 2005-09 bosturtekoan (urteko 201,2 pertsona) eta 2010-14 aldian (urteko 113,6 pertsona). 2015etik aurrera, ordea, hazkunde horiek ez dute jarraitu, berriz ere berezko hazkunde negatiboak azaldu zirelako (- 78 pertsona 2015-16 aldian).

Kopuru horiek guztiek % 14,7ko batez besteko JTGd eman zuten hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren amaieran (1975-79) eta % 9,5ekoa 2016an (% 10 2010-16 aldia kontuan hartzen bada) 1975-79 aldiko JTGd % 5,5ekoa izan zenean eta 2016koa % 9,6koa (% 9koa 2010-16 aldian). Datu horiek -%, 0,1eko saldo begetatiboa eman zuten 2016an, % 1ekoa azken zazpi urteak kontuan hartzen badira, 1975-79 aldiko % 9,2tik oso urrun.



GOIERRIKO BEREZKO HAZKUNDEA
(1975-2016)
CRECIMIENTO NATURAL DE GOIERRI

	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-09	2010-14	2015-16
<i>JAIOTZAK / NACIMIENTOS</i>	5.151	3.397	2.807	2.537	2.676	3.028	3.834	3.543	1.292
HERIOTZAK/ DEFUNCIONES	1.922	1.913	2.269	2.414	2.659	2.740	2.828	2.975	1.370
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	3.229	1.484	538	123	17	288	1006	568	- 78

Iturria. EUSTAT. Geuk egina. Fuente: EUSTAT. Geuk egina.

Gipuzkoan aztertutako aldagai demografikoek antzeko eboluzioa izan dute, hau da, hilkortasun-tasak behera egin du pixkanaka-pixkanaka hirurogeita hamarreko hamarkadaren erditik gaur egun arte eta jaiotza-tasak laurogeita hamarreko hamarkadaren erdira arte. Berezko saldo negatiboa laurogeita hamarreko hamarkadan soilik izan bazen ere, XXI. mende hasieratik aurrera positiboak dira berriz ere. Hirurogeita hamarreko hamarkada-amaierako (1975-79) JTGd ‰ 17,1ekoa izan zen eta 2016koa ‰ 8,3koa (‰ 8,3 2010-16 aldian) eta aldi beraietako HTGd ‰ 6,6 eta ‰ 9,4, hurrenez hurren (‰ 9,1 2010-16 aldian). Datu horiek -‰, 1,1eko saldo begetatiboa eman zuten 2016an eta ‰ 0,1ekoa 2010-16 aldian (1975ean ‰ 12,19koa izan zen) eta konparazioz, EAEn -‰ 1,4koa da (1975ean ‰ 2,5ekoa izan zen).

GIPUZKOAKO BEREZKO HAZKUNDEA
(1975-2016)
CRECIMIENTO NATURAL DE GIPUZKOA

	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-09	2010-14	2015-16
<i>JAIOTZAK / NACIMIENTOS</i>	58.949	38.875	30.004	26.846	28.257	32.008	35.401	33.825	12.376
HERIOTZAK/ DEFUNCIONES	22.649	22.740	25.212	27.136	29.282	30.005	30.605	31.855	13.708
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	36.300	16.135	4.792	-290	-1.025	2.003	4.796	1970	- 1.332

Iturria. EUSTAT. Geuk egina. Fuente: EUSTAT. Geuk egina.

Azaldutako guztiak adierazten du lurralde-eremu guztiek azken urte hauetan berezko saldoen beherakada garrantzitsua izan dutela eta gaur egun saldo begetatibo negatiboak ere badituztela, baina Urola Garaia eta Urretxu direla egoera txarrean daudenak berezko tasen kopuruak kontuan hartuta. Bilakaera horren kausa zuzenak, ikusi den bezala, jaiotzen beherakada eta zahartuta dagoen populazioaren berezko egitura demografikoaren ondoriozko heriotzen gorakada dira. Gipuzkoa da ongien kokatutako lurraldea, baina kezkarria da XXI. mende hasierako gorakadaren ondoren beste atzerapen txiki bat egon izana, ez laurogeita hamarrekoa bezain garrantzitsua baina bai kontuan hartzeko modukoa, sei urtetan jaiotza-kopurua mila gutxiagokoa izan baita. Eta gainerako eremuetan oso antzekoa den egoera horren aurrean, ez dirudi hurbil dagoenik ziklo-aldaketa bat, egoera horren arrazoiak askotarikoak eta konpontzen zailak direlako: emakume gutxiago adin emankorrean, gazteak berandu sartzen dira lan-merkatuan, lan-ezegonkortasuna, balio-aldaketa, etab.



Populazio baten egitura, ordea, ez da soilik jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren arteko erlazioaren emaitza. Beste adierazle batzuk ere sartzen dira jokoan, esaterako, ugalkortasuna eta bizi-itzaropena. Ikusi dugun bezala, jaiotza-tasak behera egin du urte hauetan baina baita Ugalkortasun Tasa Sintetiko (UTS) edo emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopuruak ere. EINen 1975eko datuen arabera, Gipuzkoako 2,7ko indizeak bermatu egiten zuen Gipuzkoako populazioaren belaunaldien arteko ordezipena. Egoerak, ordea, 1978 arte bakarrik iraun zuen, izan ere, urte horretako indizea 1,88koa izan zen, aipaturiko belaunaldien arteko ordezipena bermatzeko behar den 2,1ekoa baino askoz txikiagoa. Une horretatik aurrera, urtez urteko beherakada oso esanguratsua izan zen eta 1994an jo zuen behea 0,99ko indizearekin (1950 eta 1970 artean jaiotako emakumeek ez dute lortu belaunaldien arteko ordezipena). Une horretan inflexio-puntua etorri zen eta indizea handitzen joan zen urtetik urtera, 2008an 1,43ra iritsi arte. Euskal Autonomia Erkidegoko eboluzioa oso antzekoa izan da (1975eko 2,77tik 2008ko 1,33ra) eta baita estatu osokoa ere (1975eko 2,8tik 2008ko 1,46ra). 2008az geroztik, ordea, UTS balioa jaisten ari da. Hala, EUSTATen eta EINen lortu diren datu eguneratuenean, Gipuzkoako UTS 1,41ekoa zen 2010ean eta 1,39koa 2011n; EA Ekoa 1,34koa zen 2012an eta Espainiakoa 1,33koa 2016an. Beste herrialde batzuekin alderatuta, 2015eko ugalkortasun-indizea Alemaniakoa (1,5 seme-alaba) eta EBkoa (1,58) baino maila baxuagoan zegoen.

Ez dago Goierrri eskualdeko datu eguneraturik, baina EUSTATen datuek bilakaera negatibo behera adierazten dute: 1980/81 aldiko 1,62tik 2005/6 aldiko 1,52ra pasatu da.

Urola Garaiko eta Urretxuko daturik ez dago indize horri buruz, baina horien populazio-ezaugarriei erreparatuta, euren balioak, seguruenik, aipaturiko gainerako lurraldeenak baino baxuagoak izango dira.

XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren erditik aurrera izan den ugalkortasunaren gorakada lotuta dago lurralde hauetara etorri diren etorkin gazteen ugalkortasun-tasa handiarekin.

Bestalde, jaiotza-tasaren beherakadak eta bizi-itzaropenaren gorakadak gizonezkoen proportzioaren beherakada eragiten dute emakumeekin alderatuta, bi fenomeno demografikoren ondorioz:

- Munduko edozein herrialdeko gizonezkoen jaiotza-tasa handiagoa, gutxi gorabehera 102/103 gizonezko jaiotzen dira 100 emakumeko. Horregatik, jaiotza-tasak behera egitean gizonezkoen proportzioak ere behera egingo du.
- Emakumeen bizi-itzaropen handiagoa gizonezkoekin alderatuta. Hilkortasun-tasak behera egiten badu, gizonezkoetan handiagoa eta goiztiarragoa dena, emakumeen proportzioa handitu egiten da 55-60 urtetik aurrera.

EUSTATEk 2014-2020 aldirako egin dituen populazio-proiekzioen arabera, egungo hilkortasun-tasak handitu egingo dira populazioa zahartzen ari delako eta ugalkortasun-tasak behera egingo du adin emankorrean dauden emakume-kopuruak behera egingo duelako eta, horregatik, jaiotza-kopuruak ere behera egingo du. Panorama horren aurrean garrantzitsua da familiei laguntzeko politikak sustatzea (laguntza sozialak, lan-bizitza bateragarri egitea...) joera demografiko negatibo hori lehengoratzeko herrialde baten mantenua belaunaldi-ordezipena zaintzearen baitan dago).



I.2.3.4.2 Migrazio-mugimenduak

Migrazio-mugimenduek ere eragina dute populazioen dinamikan, pertsonen joan-etorriek saldo negatiboak edo positiboak eragiten dituzten heinean. Emigratzen dutenen kopurua immigratzen dutenena baino handiagoa izatearen baitan dago eta dagokion lurraldeko populazioaren eboluzioan eragiten du. Atal honetan migrazio-dinamika hurbilenari erreparatuko zaio, hau da, laurogeiko hamarkadaren bukaeratik gaur egun artekoari, XX. mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan izandakoak eta lehen aipatu direnak berriro aipatu gabe.


Enplegu-bilaketak jende gaztea bizilekuz aldatzera bultzatzen duen faktoreetako bat izaten jarraitzen du, baina baita etxebizitza merkeagoak edo eraikuntza-tipologia jakin batekoak eskura izatea ere. Bestalde, ez da gutxietsi behar garraio- eta komunikazio-bideek duten garrantzia, izan ere, egokiak badira, lantokia eta bizilekua leku desberdinetan egoteko aukera ematen baitute. Egungo koiuntura ekonomikoan, kontsultatutako iturriek enplegu-bilaketa jotzen dute azken migrazio-mugimenduak gehien baldintzatzen ari den motibotzat.

EUSTATEk argitaratutako 1988-2016 aldiko migrazio-datuak aztertuta ikusten da Urretxuk biztanleak irabazi dituela kontzeptu horregatik 425 pertsonako migrazio-saldo garbi positiboa izan duelako (urteko 14,7 pertsonako batez bestekoa). Horrek adierazten du aldi horretako zenbait unetan egon ziren populazio-hazkundeak ez zirela izan berezko kausen ondoriozkoak soilik, aurreko atalean azaldu den bezala. Ia 30 urte hauetan, kanpoko migrazio-saldoa 398 pertsonakoa izan da, hau da, EAE kanpoko mugimendua positiboa izan da eta baita barnekoa ere, 27 pertsonarekin. Barneko mugimenduak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri, eskualde edo lurralde historikoen arteko mugimenduak soilik hartzen ditu kontuan eta Urretxuko sarrerei herritik Erkidegora egindako irteerak kenduta lortzen da. Horrek agerian uzten du migrazioko populazio-handitzeak batik bat Euskadi kanpotik etorritako pertsonen esker izan direla, barneko helmuga/jatorriko migrazioak ere nabarmentzekoak izan diren arren, kanpoko migrazioetan baino gehiago, kontabilizatutako pertsona-kopuruaren arabera, nahiz eta barneko saldo positiboa txikiagoa izan.

Datuen analisiak adierazten du migrazio-mugimenduek gorabehera asko izan dituztela azken urte hauetan. Hala, 1988tik 1990era, biak barne, Urretxuk barneko migrazio-saldo negatiboak izan ditu (-19 eta -69 pertsona artean) eta 1991tik 1996ra, aldiz, kanpoko migrazio-saldoak izan ziren negatiboak (-10 eta -37 pertsona arteko balioak), saldo garbi negatiboak 1990ean, 1991n eta 1994an soilik izan ziren arren (urteko -14 pertsonako batez bestekoa), kasu bakoitzean kontrako zeinuko migrazio-mugimenduek konpentsatzen dituztelako. 1995etik 2002ra bitartean, urteko saldo garbi guztiak positiboak dira (guztira 278 pertsona, urteko 35 pertsona batez beste), batez ere barneko migrazio-saldoen portaera onagatik (257 pertsona). 2003ko krisiarekin 2006 arte luzatu zen aldi erregresiboa hasi zen, 2005. urtea kenduta. Guztira - 60 pertsonako saldo garbia izan zuen barneko migrazio-saldoren ondorioz (-151 pertsona). Azken hamar urteetan, 2007tik 2016ra, migrazio-saldo garbia 157 pertsonakoa izan da, EAE kanpotik etorritako etorkinen portaera onari esker (269 pertsona), barneko migrazio-saldoa negatiboa izan baita (-112 pertsona). Eta analisiak azken bost urteak hartzen baditu kontuan, egoerak okerrera egiten du Urretxuk biztanleak galtzen dituelako migrazio-saldo garbi negatiboengatik (-22 pertsona), hain zuzen ere, herritik EAEko beste udalerrri batzuetara haietatik aztertzen ari garen eremura etortzen direnak baino biztanle gehiago joaten direlako. Aldi berean, kanpoko migrazio-saldoak positiboa izaten jarraitzen du (77 pertsona) 2007-2011 bosturtekoarekin alderatuta behera egin duen arren zenbaki absolututan (192 pertsona).



Horregatik guztiagatik, denboran finkatutako joerarik ez dagoen arren, azken datuek erakusten dute Urretxuk, aldian behin, populazioa galtzen duela migrazio-saldo garbi negatiboengatik (2010ean, 2012an eta 2015ean), batik bat EAEko beste herrialde batzuetara joaten diren biztanleak galtzen dituelako eta, aldi berean, EAE kanpotik etorritako etorkinek protagonismoa galtzen dutelako. Horrek, urte batzuetan, ez ditu konpentsatzen barneko migrazio-saldoen galerak. Hori oso esanguratsua da, etorkizunera begira kontuan izan beharrekoa eta ebaluatu beharrekoa, aztertzen ari garen udalerrriak populazioa irabazi duen arren 2016ko, hau da, EUSTATEk datuak dituen azken urteko migrazio-saldo positiboan ondorioz (14 pertsona).




Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia.

Sexuen araberako banaketari dagokionez, desoreka nabaritzen da udalerrian emakumeen artean gizonezkoen artean baino joera handiagoa dagoelako emigratzeko eta baita emakumeak erakartzeko ere.

Urola Garaian egoera nabarmenagoa da datuek denboran zeharreko joera bat adierazten dutelako, nahiz eta, Urretxuk ez bezala, lurralde honek populazioa galdu duen 1991tik 2016ra bitartean migrazio-saldo negatiboengatik (1900 pertsona baino gehiago, urteko ia - 77 pertsona batez beste). Hala, laurogeita hamarreko hamarkada osoan, 1991tik 2000ra, ikusten da lurralde horrek biztanleak galtzen dituela barneko eta kanpoko migrazio-saldo negatiboan ondorioz (2.400 pertsona baino gehiago), zenbaki absolututan galera handienak lehen bosturtekoan izan ziren arren, hain zuzen ere 1991-95 aldian (% 67 baino gehiago). Laurogeiko hamarkadako krisiaren ondorioak eremu oso industrialean eta itzulerako "emigrazioa" deiturikoaren protagonismo handia duen eremuan nabaritzen dira. 2001etik aurrera eta 2016 arte, barneko migrazio-saldok negatiboak izaten jarraitzen dute baina kanpoko migrazio-saldok positiboak dira EAE kanpotik etorritako etorkin asko etorri zirelako, Lurralde Historikoan gertatu zen bezala. Hori da urte horietako askotako migrazio-saldo garbiak positiboak izatearen arrazoia (ia 700 pertsonako saldoa). 2013tik aurrera eta 2016 arte jarraian, urtero izan dira migrazio-saldo

garbi negatiboak (- 234 pertsona) beste behin ere barneko migrazio-saldo negatiboen ondorioz (kanpokoek negatiboak izaten jarraitzen dute, kopuruak gero eta txikiagoak diren arren). Horregatik guztiatik, Urola Garaiak populazioa galdu du azken urte hauetan migrazio-arrazoien ondorioz.




Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Goierriin, aldagai horren eboluzioa eta egoera Urretxukotik baino Urola Garaikotik gero eta hurbilago dago 1991-2016 aldian migrazio-saldo garbi negatiboa izan zuelako. Hala, datuen analisiak adierazten du kanpoko migrazio-saldoak negatiboak izan zirela XX. mende amaiera arte eta 1999tik gaur egun arte positiboak izan direla, 2012an izan ezik. Horrek 2.900 pertsona baino gehiagoko balantze oso positiboa eragin du 1991-2016 aldian, urteko 117,3 pertsonako batez bestekoarekin. Barneko migrazio-saldoen kasuan, dinamika negatiboak aztertutako aldi osoa iraun du, jakineko urteren bat kenduta. 25 urte hauetan 3.500 pertsona baino gehiago galtzea eragin du horrek (- 141 pertsona/urteko). Hori bai, XX. mende amaiera arte egon den populazio-galerak ez du zerikusirik XXI. mendean zehar gertatutakoarekin (moteldu egin da). Hala ere, datu berriek (2013tik) pentsarazten dute migrazio-mota horren ondoriozko galerak handitzen ari direla.

Eta horren guztiaren ondorioz, aldi horretako migrazio-saldo garbi negatiboa ia 600 pertsonakoa da (- 24 pertsona/urtean), eta galerak ia etengabeak izan ziren 2003 arte, galerarik handiena XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan izan zen arren. XXI. mendean zehar migrazio-mugimendu mota horrek indarra galdu du baina ez dirudi gaur egun (2012az geroztik) hori gertatzen denik, migrazio horien zeinua alderantzikatu egin baita (2016an 550 pertsona baino gehiagoko galera egon zen migrazio-saldo garbi negatiboen ondorioz).

Azaldutako guztiak adierazten du Goierriko azken hamarkada hauetako populazio-gorabeheretan zirikusi handia izan dutela migrazio-mugimenduek, barneko migrazio-saldoen (EAE barruan) ondoriozko galerak garrantzitsuak izan direla eta kanpoko saldo positiboek esker (EAE kanpotik etorritako biztanleak), migrazio-galerak apalagoak izan direla. Horregatik guztiagatik, migrazio-mugimenduek lurralde honetako populazio-galeretan eta, zehazkiago, XXI. mende-hasiera arte izandako galeretan eta gaur egungoetan (2015-2016 eta 2012-13 urteetan), nahiz bere populazio-egitura izan dute eragina.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.


Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Honaino azaldutakoaren aurrean, Gipuzkoa da aldi horretan portaera onena izan duen lurraldea 17.150 pertsona inguruko migrazio-saldo garbi positiboarekin (685 pertsona/urteko), batez ere kanpoko migrazio-saldo positiboaren (ia 20.000 pertsona) ondorioz, barnekoa (jatorria-helmuga Euskadiko gainerako lurraldeetan) negatiboa izan baita azken 25 urte hauetan (2.800 pertsona baino zerbait gehiago).

Nolanahi ere, datuen bilakaerak adierazten du migrazio-saldo garbia negatiboa izan dela 1998 arte (ia 9.500 pertsona). Une horretatik gaur egun arte positiboa izan da. Izan ere, XX. mendeko laurogeita hamarreko ia hamarkada osoan (eta baita aurreko hamarkadan ere) Gipuzkoako populazio asko galdu zuen lehen aipaturiko *itzulerako emigrazioa* deiturikoaren ondorioz. Itzulerako emigrazioa duela hainbat urte etorri eta krisialdiko, enpleguaren suntsipeneko eta erretiroa hartzeko koiunturan bere jaioterrira itzultitako jendea da. Hamaika urte horietan (1988-99) 22.000 pertsona baino gehiago galdu ziren, barneko migrazio-saldoen ondoriozko galerak kontatu gabe. Oso esanguratsuak izan ziren laurogeiko hamarkada-amaierako irteerak. 1999tik 2016ra migrazio-saldo garbia positiboa izan zen EAE kanpotik etorritako jende-kopuru handiagatik, batez ere atzerriko etorkinak. Nabarmenezkoak dira 2005etik aurrera izandako saldo positiboak. Migrazio-saldo garbi positibo horiei esker, aspaldian izan ez dituen populazio-hazkundeak izaten ari da lurralde hau. Etorkinek dute ugalkortasun-tasa handiena eta,

horregatik, populazio horrek aldeko eragina du berezko hazkundera ere (2007ko jaiotzen % 12 ama etorkinenak izan ziren eta 2015ean % 19,8).

Gaur egungo krisi-koiunturan inork ez daki zer eragin izan dezakeen immigrazioak populazioaren etorkizuneko eboluzioan. Positiboak izaten jarraituko al dute migrazio-saldoak? EUSTATen 2031rako Proiekzio Demografikoaren arabera, Gipuzkoak 2016an baino 28.000 biztanle gehiago izango ditu migrazio-saldoek heriotzen gehikuntza eta jaiotzen murrizketa konpentsatuko dituztelako. Euskadiri dagokionez, iturri horrek berak adierazten du biztanleria zahartzeko prozesuak aurrera jarraituko duela eta, 2031n, 20 urtetik beherakoak biztanleen % 17 baino gutxiago izango direla (2016an % 18,2 dira), 20-64 urtekoen presentzia 2016an baino % 8,5 baxuagoa izango da eta 65 urtetik gorakoena % 28,2koa (2016an baino zazpi puntu gehiago). Jaiotza-kopurua murriztu egingo da (2015eko 18.900etik 2030eko 16.400era), aurreikusita dagoen ugalkortasunaren susperraldiak (1,53 seme-alaba emakumeko) adin emankorrean dauden emakume-kopuruaren beherakada ez duelako konpentsatuko. Kalkuluen arabera, bizi-itxaropena 83,7 urtekoa izango da gizonezkoentzat eta 88,8 urtekoa emakumeentzat, 2015eko 80,2 eta 86,1 urtekoen aurrean, hurrenez hurren.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Amaitzeko, Urretxuk, Urola Garaiak, Goierrik eta Gipuzkoak zahartutako populazioak dituzte, Espainiak eta EBko herrialde askok bezala, bizi-itxaropenaren etengabeko hazkunde garrantzitsu baten ondorioz eta ugalkortasun-tasa baxuen eta Gerra Zibilaren ondoren eta baby boom-aren urteetan jaiotako erretiratu-kopuru handiak gehitzearen ondorioz, horietako batzuk aurki iritsiko baitira egoera horretara.

1950-70eko hazkunde-eredua atzera geratu da garai hartako pentsamoldearekin, kulturarekin, hezkuntzarekin eta garapen ekonomikoarekin batera, baina haren azterna oraindik adierazten da egungo biztanleria-piramideetan, eta baita XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkada-bukaerako eta laurogeiko hamarkada-hasierako eta geroagoko hazkunde-erritmoen aldaketak ere. Horrek guztiak ondorio zuzenak izango ditu bizitza sozial eta ekonomikoaren beste alderdi

batzuetan, bereziki pentsio-sistemaren finantzaketaren gainean, adinekoen zaintza-premia handiagoetan eta eskulanaren eskariari aurre egiteko eskasia posiblean. Horregatik, aurre egin beharko zaie biztanleriaren zahartze horrek eta lan-merkatuaren bilakaerak planteatzen dituzten erronkei.

Adierazitakoaren arabera, atzera utziko zen Warren Thompsonen *laugarren fasea edo erregimen demografiko modernoa*. Heriotza-tasa baxuak eta antzeko jaiotza-tasak dira fase horren ezaugarriak eta, horren ondorioz, biztanleriaren berezko hazkundea baxua, oso baxua edo hutsa izango zen eta *bosgarren fasea edo zero hazkundeko fasea* deitu litekeenaren aurrean egongo ginatke, jaiotza-tasak baxua izaten jarraitzen duelako eta heriotza-tasa pixka bat handitu delako biztanleria zahartzearekin batera.

Aztertzen ari garen herriak populazioa galdu du 2010az geroztik, jakineko urteren batean izan ezik, berezko arrazoiengatik (jaiotza-tasen beherakada eta heriotza-tasen gorakada) eta negatiboa den barneko saldoak (Euskadiko beste herrialde batzuetara joaten diren biztanleen galera) modu berezian eragiten dien migrazio-saldoengatik, kanpoko migrazio-saldoa, Euskadi kanpotik datorrena, positiboa izaten jarraitzen du termino absolututan kopuruak nabarmen behera egin duen arren aurreko urteekin alderatuta eta, zenbait urtetan, barneko saldoen galerak konpentsatzeko gai ez den arren.

Migrazio-saldoak dinamika aldatzeko gai ez badira eta, zehazkiago, barneko migrazio-saldoak aldatzeko gai ez badira, biztanleriak, seguruenik, galerak izaten jarraituko du, ez delako aurreikusten berezko saldoek zeinua aldatuko dutenik gero eta zaharrago den populazio-egituraren eta ugalkortasun-tasa baxuen ondorioz.

Bestalde, immigrazioak ere lagundu egin dezake biztanleria aktiboa murriztearen ondorioak arintzen, baina ez da uste berak bakarrik konpondu ahal izango duenik ageriko desoreka. Eta hori guztia ondo prestatutako gazteak, lanik ezaren aurrean, beste leku batzuetara emigratzeak biztanleria-egitura ahuldu honetan eragin dezakeen ondorio negatiboa eta datozen urte hauetan baby-boomean jaiotakoen azken belaunaldiak 65 urtekoen adin-taldean sartuko direla ahaztu gabe.

Arestian azaldutakoak deskribatzen duen egoeraren aurrean, udal-proiektuak, hau da, Plan Orokor honek, koiuntura hobea ahalbidetzeko proposamenak formulatzen ditu.


Espainiako egoera, hein handi batean, ez da lurralde hauetarako deskribatutakoaren oso desberdina, egungo egoera zerbait hobea den arren. Hala ere, ELGak 2017ko urriaren erdi inguruan egindako txostenak dio XXI. mendearen erdi inguruan herrialde hau ELGako bigarren zaharrena izango dela (65 urtetik gorakoen 20tik 64 urtera bitarteko arteko proportzioa 2015eko % 30,4tik -% 28ko batez bestekoa ELGAN- 2050eko % 75,5era pasatuko da -% 53,2-), Japoniaren atzetik. Fenomeno horrek larritu egingo du hirugarren adinerako agertoki kezagarria eta arlo ekonomikoan aurrera egitea mehatxatzen du, azken hamarkadetan gertatu denaren kontra.

I.2.3.5. Biztanleriaren jatorria

2017ko abenduaren bukaeran (Urretxuko udalak emandako datuak) Urretxuko biztanleen % 41 baino zerbait gehiago udalerrian bertan jaiotakoa zen (1996an % 43). Ehuneko ia % 74,9a igotzen da Gipuzkoako lurralde historikoa kontuan hartzen bada (1996an ehuneko hori % 72,5ekoa zen), azken horietako % 70 baino zerbait gehiago Goierriko beste udalerriren batean jaio zen arren. EAeko beste lurraldeetan jaiotakoek % 1,7 hartzen dute (% 53,3 bizkaitarrak eta gainerakoak arabarrak).

Espainiako gainerako lurraldeetan jaiotako biztanleek % 16,2 osatzen dute. Nagusi dira Gaztela-Leon (batez ere Zamora, Burgos, Palentzia, Valladolid eta Salamanca) eta Extremadura erkidegoetan jatorria dutenak, % 7,6 eta % 3 hurrenez hurren. Nafarroa eta Errioxa erkidego hurbiletan jatorria dutenak dira biztanleen % 1,8 eta 0,8, hurrenez hurren. Ikusten den bezala, datu horiek adierazten dute Espainiako beste probintzia batzuetatik etorritako immigrazioak iraganeko hamarkadetan izan zuen garrantzia.

Biztanleen % 7,3 Espainiatik kanpo jaio da, Gipuzkoako eta EAeko biztanleen artean ematen dena baino ehuneko txikiagoa (% 8,9 eta % 8,8, hurrenez hurren). Biztanle horietako gehienak Hego Amerikakoak eta Erdi Amerikakoak dira (Nikaragua, Kuba, Honduras, Kolonia, Argentina eta Brasil) eta Afrika Iparraldekoak (ia 2/3 marokoarrak dira eta gainerakoak Senegal eta Ekuatore Gineakoak). Gainerakoak honako hauen artean banatzen dira: europarrak (% 1,1), batez ere portugaldarrak eta errumaniarrak, pakistandarrak (% 0,6) eta txinatarrak (% 0,3). Biztanle-talde horretan nagusi dira emakumeak (guztien % 51,4).




Iturria. Urretxuko Udala. Geuk egina.

Fuente. Ayuntamiento de Urretxu. Elaboración propia

XXI. mendeko datu horien analisiak adierazten du, bai kopuru absolututan eta bai erlatibotan, atzerrian jaio eta udalerrian bizi direnen kopurua handitu egin dela, Espainiako gainerako erkidegoetan jaiotakoekin gertatu denaren alderantziz, horien kopuruak behera egin baitu.

URRETXUKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, JAIOTERRIAREN ARABERA
(2017)

EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE URRETXU, SEGÚN EL LUGAR DE NACIMIENTO



Iturria. Urretxuko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Geuk egina.

Fuente. Ayuntamiento de Urretxu y Diputación Foral de Gipuzkoa. Elaboración propia

Bestalde, sexuaren araberako banaketak adierazten du Urretxun bertan jaiotako biztanleen artean nagusi direla gizonezkoak (% 51,3) eta bertan jaiotakoak ez direnen artean, aldiz, nagusi direla emakumezkoak, pisu handiagoarekin edo txikiagoarekin bada ere jatorriaren arabera.

Goierrri osoari dagokionez, eskualdean jaiotako biztanleak biztanle guztien 3/5 baino gehiago ziren 2016an (% 62,5), ia % 74 Gipuzkoako lurralde historikoan jaiotakoak kontuan hartzen badira eta % 75,4 Araban eta Bizkaian jaiotakoak gehituz gero (1996an, ehuneko horiek % 61,4, % 72,5 eta % 75,9 ziren, hurrenez hurren).

Gipuzkoari dagokionez, lurralde horretan bertan jaiotakoak biztanleriaren % 71,9 ziren (% 72,5 1996an). Ehunekoa % 74,8ra igotzen da Euskal Autonomia Erkidego osoa kontuan hartzen badugu (% 50,3 emakumeak).Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan jaiotakoen % 16,1etik (1996an ia % 25), heren bat Gaztela eta Leongoak dira eta Extremadurakoak gehitzen badizkiegu erdiak baino gehiago (proporzioa bera zen 1996an). Atzerritarrak % 9,1 dira, batez ere amerikarrak eta europarrak (1996an % 0,6 soilik zen eta horietatik ia % 63 EB-15ekoak ziren), Urretxuko ehunekoa baino zertxobait handiagoa.Sexuen arabera, emakumeak gizonezkoak baino pixka bat gehiago dira (% 52,2).Herrialdeka, berriz, portugaldarrak dira kolektibo ugariak, gero errumaniarrak, marokoarrak, ekuadortarrak eta kolonbiarrak.

I.2.3.6. Biztanleen heziketa-maila


Pertsona baten heziketa-maila eginda dituen edo egiten ari den ikasketen maila gorena da, amaitu diren edo behin-behinean edo behin betiko osatugabe dauden kontuan izan gabe.

Zazpi multzo hartu dira kontuan: analfabetoak, ikasketarik gabeak (irakurtzen eta idazten dakite baina ez dute ikasketarik amaitu), lehen mailakoak (haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, eskola-graduatuak, DBH, etab.), lanbide-heziketak (LH, lanbide moduluak, prestakuntza-zikloak, etab.), bigarren mailakoak (batxilergoa), erdi-goi mailakoak eta goi mailakoak.

Urretxuko egungo biztanleria, heziketa-mailari dagokionez, ez da oso desberdina Urola Garaikoarekin, Goierrikoarekin eta Gipuzkoakoarekin alderatuta eta 1996koarekin alderatuta, berriz, kopuru erlatibotan, egoera hori ez da asko hobetu, agian, prestakuntza-maila baxuko etorkin atzerritarrak etortzeak bere populazioan izan duen eraginagatik eta jaiotza-tasaren gehikuntzagatik eta, ondorioz, ikasteko adinean dauden gazte-talde gehikuntzagatik.

2016ko bukaeran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, biztanleen % 62k, gutxi gorabehera, gehienez lehen mailako ikasketak edo derrigorrezko hezkuntzako ikasketak edo eskola-graduatuak deiturikoa ditu eginda (1996an % 62,9k). Ehuneko hori hain handia izatearen arrazoa zen 16 urtetik beherako biztanle asko ikasten ari zirela eta eskola-graduatu titulurik gabekotzat jotzen zituztela, eta baita 65-70 urte baino gehiagoko biztanle gehienek irakurtzen eta idazten jakin arren titulurik ez dutela; beste % 16,1ak bigarren mailako ikasketak ditu (1996an % 12,8k); % 14,2k erdi-goi mailako ikasketak (1996an % 8,5ek) eta biztanleen % 7,6k lanbide-heziketako ikasketak ditu (1996an % 11,8k).Lurralde historikoari dagokionez, ikusten da aztertzen ari garen eremuak baino heziketa-maila hobea duela, biztanleen % 17,1ak erdi-goi mailako ikasketak baititu. Goierri eta Urola Garaian, bestalde, maila hori baxuagoa da (% 12,9 eta % 12,3, hurrenez hurren), eta lanbide-heziketak, aldiz, ezarpen handiagoa du Gipuzkoan eta eskualdean (% 6,9, hurrenez hurren) eta baita Urola Garaian ere (% 7,3).Ondorengo grafikoa ikusten dira alde horiek.

BIZTANLERIAREN EGINDAKO IKASKETAK
(2016)
NIVEL DE INSTRUCCIÓN DE LA POBLACIÓN



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Geuk egina.

Fuente. Diputación Foral de Gipuzkoa. Elaboración propia.

I.2.3.7. Etxebizitza.

Hiribildua 1383an sortu zen barrunbe babestu baten barruan, bastiden gisa trazatutako oinplano laukizuzenarekin eta 1,6 hektareako azalerarekin, M. Álvarezek bere "Estudio de Historia de Urretxu" idazlanean adierazten duen bezala. Bi mende geroago, 1539an, 746 biztanle bizi ziren herrian 127 etxetan (bat hutsik) eta 26 baserritan. 4,87 biztanle/etxebizitzako batez bestekoa ematen du horrek (7,26 biztanle/baserriko eta 4,38 biztanle/etxebizitza hiritarreko).la laurogeita hamar urte geroago, 1628an, sute eta gaixotasunen ondorioz, biztanle-kopurua 546ra jaitsi zen. Horrek esan nahi du biztanleen laurden bat baino gehiago galdu zela, batik bat hiri-barrutian bizi zirenak (395 pertsona 1539an bizi zirenen 557en aurrean).

XX. mendearen hasieran, 1910ean, 88 etxe zeuden erroldatuta hirigunean eta 44 baserri landa-ingurunean. Hala ere, urte hartako erroldan, ez zen zehaztu 1.151 biztanle hartzen zituen etxebizitza-kopurua.

Aurreko kopuruak egungo egoeratik urrun daude.

Hala, 2016ko abenduaren 31ko Errolda Zuzenketako datuen arabera, udalerriko etxebizitza-kopurua 2.950 ingurukoa da (2.795 etxebizitza 2001eko abenduan eta 2.972 etxebizitza 2017ko abenduan), hau da, 2,31 biztanleko ratioa etxebizitzako (2001ean 2,36koa zen). Baina ratio hori bizitegi-erabilerek benetan okupatutako etxebizitza-kopuruaren arabera (2.671), etxebizitzako 2,54 biztanlera igotzen da (2001ean 2,84koa zen), Gipuzkoako batez bestekoa baino kopuru handiagoa (etxebizitzako 2,48 biztanle 2016ko amaieran).

Datuen azterketa xehatuak adierazten du aldea dagoela landa-eremuko etxebizitzaren okupazioaren (2,91 biztanle etxebizitzako) eta hirigunekoaren artean (2,53 biztanle etxebizitzako). Bi ratioak nabarmen jaitsi dira 2001. urtetik (3,52 landa-eremuan eta 2,82 hirigunean).

Etxebizitzen okupazio-maila altuena Matxinporta eta Lilibaso kaleetan eta Pagoeta auzoan dago (3,6, 3,5 eta 3,25 biztanle etxebizitzako, hurrenez hurren) eta, horien ondoren, landa-eremuan eta Sorginzulo kalean eta Aparicio auzoan (2,83 eta 2,9 biztanle etxebizitzako).

Etxebizitza hutsak, bestalde, etxebizitza guztien % 9 inguru dira (% 13,9 Gipuzkoan). Gehienak, % 58, Labeaga, Iparragirre eta Ipiñarrieta kaleetan daude. Udalak emandako azken datuen arabera, 2017ko abenduaren 31n, etxebizitza hutsen kopurua % 10,1ekoa da, 300 bat etxebizitza. Egoera hori hobetu egin da udalerrian azken urte hauetan, 2001ean % 17koa baitzen (%17,6koa Gipuzkoan). Landa-ingurunean ez da bilakaera bera izan, izan ere, etxebizitza hutsaren ehunekoa altuagoa dela eta aldaketa esanguratsurik ez dela egon ikusten baita. 2001eko % 25,7ko etxebizitza hutsetatik 2016ko % 23,7ko etxebizitza hutsetara pasatu da (% 25 2017ko abenduaren 31ko datuen arabera). Beste batzuen artean, okupatu gabe daude Iturbe-goikoa, Eguskitza, Santa Cruz, Txakolingoia, Zabaleta, Erratzu-goikoa II eta Sasieta II baserriak. Ez da nabaritzen bigarren etxebizitzen presentzia handirik. Hala ere, arestian aipaturikoaren arabera, benetan hutsik dauden etxebizitzen kopurua etxebizitza guztien % 3 baino gutxiagokoa dela esan daiteke.

Lortutako informazioaren arabera, azken hamabost urte hauetan 180 etxebizitza inguru gehitu dira, lehendik zegoen eskaintzaren ia % 6. Beraz, batez besteko ratioa 2 etxebizitza baino gutxiagokoa da 1.000 biztanle eta urteko, eskaintza oso txikia inolaz ere.

Ondorengo taulan dago zehaztuta 2016an udalerrian zegoen etxebizitza-kopurua, kaleen arabera bereiziz bakoitzean bizi diren biztanleak eta, ondorioz, baita etxebizitza hutsak ere.

Etxebizitzarenegoera / Situación de la vivienda (2016)

CALLE	TOTAL	1 pers	2 pers	3 pers	4 pers	5 pers	6 pers	7 pers	TOTAL	COLECTI VACIAS	HOMBRE	MUJER	TOTAL	
APARICIO AUZOA	37	5	13	7	4	2	3	0	34	0	3	50	46	96
AREIZAGA	147	44	34	21	26	7	0	0	132	0	15	149	165	314
BARRENKALE	138	32	41	28	22	6	0	0	129	0	9	159	157	316
BASAGASTI KALEA	80	19	18	20	22	1	0	0	80	0	0	109	99	208
DISEMINADOS	76	12	16	11	10	6	1	2	58	0	18	92	77	169
GERNIKAKO ARBOLA PL.	52	13	11	12	12	2	0	0	50	0	2	64	65	129
IPARRAGIRRE	375	95	86	62	65	12	2	2	324	0	51	417	385	802
IPENARRETA	373	71	123	66	58	9	5	1	333	0	40	399	430	829
JAUREGI	172	46	36	24	37	6	1	0	150	0	22	180	194	374
LABEAGA	931	202	257	172	207	24	6	1	869	1	61	1.085	1.138	2.223
LILBASO KALEA	51	4	7	19	11	5	3	1	50	0	1	103	72	175
MATXINPORTA KALEA	13	0	3	1	3	3	0	0	10	0	3	19	17	36
MUNDO MEJOR, GRUPO	48	10	8	14	7	2	1	1	43	0	5	62	57	119
NEKOLALDE	103	28	30	17	15	3	0	0	93	0	10	99	115	214
PAGOETA AUZOA	13	1	3	5	2	0	0	1	12	1	0	17	22	39
POLIGONO MUGITEGIB	2	0	1	0	0	0	0	0	1	0	1	1	1	2
SAN MARTIN, GRUPO	179	48	48	31	35	6	2	0	170	0	9	189	230	419
SANTA BARBARA, GRUPO	94	24	34	12	8	2	0	1	81	0	13	92	86	178
SORGINZULO KALEA	52	13	7	10	20	2	0	0	52	0	0	67	80	147
TOTAL	2.936	667	776	532	564	98	24	10	2.671	2	263	3.353	3.436	6.789

Iturria. GipuzkoakoForuAldundia. Geukegina.

Fuente. Diputación Foral de Gipuzkoa. Elaboración propia.

Aurreko taulan honako datu hau nabarmendu behar da: 667 etxebizitza, okupatutako etxebizitza guztien (2.671 etxebizitza) ia % 25 pertsona bakarrak okupatuta daudela. Ondorengo taulan ikusiko dugun bezala, 2001ean, pertsona bakarrak okupatutako etxebizitzak % 18,20 ziren. Bilakaera hori oso esanguratsua da.

Sexuen araberako banaketari dagokionez, Lilbaso kalean eta landa-eremuan gizonezkoak dira nagusi (bizilagunen % 59 eta % 54,2, hurrenez hurren). Beste zona batzuetan, aldiz, esaterako San Martin etxadian emakumeak dira nagusi (bizilagunen % 55).


Ondorengo taulan dago zehaztuta 2001ean udalerrian zegoen etxebizitza-kopurua.

Etxebizitzarenegoera / Situación de la vivienda (2001)

CALLES	TOT	1 pers	2 pers	3 pers	4 pers	5 pers	6 pers	7 pers	TOTAL	COL	VACIAS	HOMBRE	MUJER	TOTAL
APARICIO AUZOA	46	8	10	8	5	2	1	3	37	0	9	59	51	110
AREIZAGA	97	16	21	20	13	5	1	1	77	0	20	101	108	209
BARRENKALE	135	13	25	30	46	10	4	0	128	0	7	208	203	411
DISEMINADOS	70	9	7	11	8	10	5	2	52	0	18	94	89	183
GERNIKAKO ARBOLA PL.	58	7	9	16	14	0	1	0	47	0	11	69	66	135
IPARRAGIRRE	338	61	62	54	55	12	2	3	249	0	89	341	319	660
IPENARRIETA	384	47	81	77	89	19	4	4	321	1	62	486	459	945
JAUREGI	132	25	25	12	16	3	1	1	83	0	49	102	101	203
LABEAGA	993	143	206	220	218	47	8	3	845	1	147	1.202	1.201	2.403
MATXINPORTA KALEA	1	0	0	1	0	0	0	0	1	0	0	1	2	3
MUNDO MEJOR, GRUPO	48	11	8	9	15	2	2	0	47	0	1	69	67	136
NEKOLALDE	113	24	17	19	28	4	1	1	94	0	19	126	134	260
PAGOETA AUZOA	13	0	1	2	5	2	2	0	12	1	0	33	28	61
POLIGONO MUGITEGI B	2	0	1	1	0	0	0	0	2	0	0	2	3	5
SAN MARTIN, GRUPO	158	17	50	35	35	12	2	0	151	0	7	214	220	434
SANTA BARBARA, GRUPO	104	15	27	13	17	5	0	0	77	0	27	103	98	201
14462	23	0	2	4	12	2	0	0	20	0	3	42	32	74
14469	80	27	30	17	5	1	0	0	80	0	0	88	75	163
TOTAL	2.795	423	582	549	581	136	34	18	2.323	3	469	3.340	3.256	6.596

Iturria. GipuzkoakoForuAldundia. Geukegina.
Fuente. Diputación Foral de Gipuzkoa. Elaboración propia

Bestalde, okupatutako etxebizitzaren erdian baino gehiagotan pertsona 1 edo 2 bakarrik bizi direla ikusten da.2001. urtearekin alderatuta, gehitu egin dira pertsona 1 edo 2 bizi diren etxebizitzak (% 50,8tik % 53,2ra), Gipuzkoan izandako antzeko bilakaera.



Iturria. Gipuzkoako Foru Aldundia. Geuk egina.
Fuente. Diputación Foral de Gipuzkoa. Elaboración propia.

Udalak emandako azken datuak (2017ko abenduak 31) ez dira aurreko urtekoen oso desberdinak ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, pertsona bakarrak okupatutako etxebizitzaren gehikuntzaren bilakaera nabarmentzen den arren:

URRETXUKO ETXEBIZITZAREN OKUPAZIOA (2017-XII-31)


OCUPACION DE LA VIVIENDA DE URRETXU

PERTSONA-KOPURUA / Nº DE PERSONAS	ETXEBIZITZA-KOPURUA / Nº DE VIVIENDAS	%
1	683	25,6
2	757	28,3
3	548	20,5
4	554	20,8
5	99	3,7
6 eta gehiago	30	1,1
GUZTIRA	2671	100,0

Iturria: Urretxuko Udala. Geukegina.

Fuente: Ayuntamiento de Urretxu. Elaboración propia.

Eraikinen batez besteko antzinatasuna 40,6 urtekoa da. Etxebizitzaren batez besteko azalera baliagarria 91,6 m²-koa da eta 2/3-ek bainugela bakarra dute. Etxebizitza guztiek dute txorrotako ura eta bainugela (30 etxebizitzak soilik ez dute). Eraikinen % 96,2k gas-hoditeria dute; % 86,9k berokuntza eta % 99,5ek telefono-linea. Deigarria da etxebizitzaren ia laurdenak (% 23,4) igogailurik ez izatea. 2001arekin alderatuta, instalazio horiek hobetu egin dira. EUSTATen arabera, eraikinen % 41ak baino gehiagok 11-20 etxebizitza artean ditu eta familia bakarreko etxebizitzak guztien % 5,6 soilik dira.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia.

Emandako datuek proiektzio demografikoa kalkulatzeko eta aplikatu beharreko zehaztapenen arabera (LAA eta LZP) etxebizitza-arloan egin beharreko eskaintza aztertzeke erreferentzia gisa erabiliko den honako laburpen-taula hau eragin dute.

URRETXU	2001	2016
Biztanleak	6.596	6.789
Etxebizitzak guztira	2.795	2.936
Etxebizitza okupatuak	2.326	2.675
Etxebizitza hutsak	469	283
Familiaren batez besteko tamaina	2,84	2,54

Iturria: Eustat. Lanketa propioa.

Aurreko datuek adierazten dute Urretxuko familien batez besteko tamaina Gipuzkoako udalerrietako batez bestekoa baino zertxobait handiagoa dela. Egoera horrek indize hori murrizteko prozesuaren jarraipena adierazten du, etxebizitzaren eskari handiagoa eragingo duena.

Bestalde, Planaren epemugan ikuspegi demografikotik gerta daitekeenaren kalterik gabe, etxebizitzaren premiaren ikuspegitik hainbat hipotesi formulatu dira:

- Lehena kontserbadorea da, biztanle-kopurua txikitu egingo dela aurreikusten du, azken boladan gertatu den bezala, eta zalantzan jar dezake edo gutxienez murriztu etxebizitza berriaren benetako premia, lehen aipaturiko eskaera murrizten ari den populazioarekin konpentsatzen delako. Agertoki ezkorra izango litzateke Urretxuren etorkizunerako.
- Bigarren hipotesiak aurreikusten du biztanle-kopuruak gora egingo duela datozen 8 urteetan, 2001-2016 aldiaren ereduari jarraiki. Agertoki horrek 6.900 inguruan utziko luke 2026ko biztanle-kopurua eta 400 bat unitatetan Urretxuko etxebizitza-eskaria.
- Hirugarren hipotesiak aurreikusten du Urola Garaia gai dela bere industria-ehun zaharkitua eraldatzeko-prozesuari aurre egiteko lurzoru-erabilgarritasun horrek eskaintzen duen aukera eta ETSB martxan jartzen denean Santa Luziako geltokiarekiko izango lukeen kokapena aprobetxatuz. Agertoki horrek lekua birkalifikatzeko prozesua eragin eta erakarpen-ahalmena izan lezake eta, horren ondorioz, Planaren epemugan edo aurrerago, Urretxuk 7.000 biztanletik gora izatea ekar lezake.

Argi dago ziurgabetasun asko direla. Hala ere, gauza nabarmenak dira Eustatek Gipuzkoako aurreikuspen demografikoak berriki birplanteatu izana, gaur egungoak baikorrakoak direlarik, eta duela 8 urte LZPearen egindako aurreikuspen erregresiboak ez bete izana.

Gainera, Santa Luziako geltoki berria aurki gauzatzeko aukerak eta Deskarga ginetik Bergarara doan tartea martxan jarrita Gipuzkoako biribilgunea amaitu izanak, HAPO berriak irtenbideak eskain behar dizkien aukerak eskaintzen dizkio Urola Garaiari.

Bestalde, ondorengo taulan identifikatuta daude azken urte hauetan lizentzia jaso duten eraikinak. Honako dinamika hau egin da laurtekotan bilduta:



	Aldia			
	2001-2004	2005-2008	2009-2012	2013-2016
Etxebizitza-kopurua.	116	102	9	92

Emandako lizentzia guztiak ez direla egikaritu eta eraikitzen ari diren etxebizitzak egikaritzat ez direla jo ohararazten da. Horiek horrela, krisiaren aldirik gogorrean izan ezik, etxebizitza berrietarako emandako baimenak, birgaitzeko esku-hartzeei dagozkienak alde batera utzita, urteko 30 etxebizitza ingurukoa zela esan daiteke. Horrek esan nahi du 1.000 biztanle eta urteko 4 etxebizitza baino pixka bat gehiagoko ratioa zela, antzeko egoeretan onartu ohi diren ereduak baino txikiagoa (batez besteko ratioa 5-6 etxebizitza biztanle eta urteko).

Aurreko taulak erakusten du azken urte hauetan berreskuratu egin dela etxebizitzaren egikaritzapena (Gurutze Auzoan eta Labeagan (Ormazabal) emandako lizentziak, udalak Plan bat zuelako (2012ko Arau Subsidiarioak).

Esan beharra dago indarreko Arau Subsidiarioetan oraindik egikaritu gabeko 400 unitate inguruko etxebizitza-eskaintza gehigarria dagoela antolatuta, Lizeoa eremuan aurreikusitakoak barne.

I.2.3.8. Okupazioa eta ekonomia-jarduera

I.2.3.8.1. Biztanleria aktiboa: okupatua eta langabea.

Espanian, ondasun eta zerbitzuen produkzioan aritzen diren eta enplegu bila dabiltzan eta, ondorioz, langile izan daitezkeen 16 urte edo gehiagoko pertsonak osatutako multzoa da biztanleria aktiboa (16 urte da lanean hasteko legezko gutxieneko adina).

Gizarte garatuetan nabaritzen den ezaugarrietako bat biztanleria aktiboaren (lan egiten duena eta zergak ordaintzen dituena) murrizketa hasi dela da, biztanleria ez-aktiboaren gehikuntzarekin batera. Hainbat faktoreren ondorioak dira horiek, besteak beste, bizi-itxaropen handiagoa, jaiotza-tasaren beherakada, erretiro edo pentsiodunen gehikuntza, etab. Errealitate horren ondorio negatiboak handiak dira, batez ere esparru ekonomikoan, lanaren indarra murrizten delako eta horrek ondorioak dituelako gizarte-segurantzara egindako ekarpenetan, berrikuntza- eta lehiakortasun-ahalmenean.... Baina baita osasun- eta sorospen-esparruan ere, biztanle-egituran gero eta pisu handiagoa duen adineko pertsonen mendekotasun handiagogatik.

EUSTATen Biztanleria Aktiboaren Udal Estatistikaren arabera, 2016an, Urretxuko biztanleria aktiboa 3.208 pertsonak osatzen zuten, duela hogeita hamar urte baino 666 pertsona gehiagok (kopuru horren % 97 1986-06 aldian sartu da biztanle aktibo gisa). Azken hamar urte hauetan (2006-16) egon den gehikuntza oso txikia izan da (% 0,7), eta azken bost urteak soilik hartzen badira kontuan, galera txiki bat dagoela ere ikusten da (-% 0,3).



Urola Garaian aipagarria da 1986tik 1996ra egon zen aktiboen galera garrantzitsua (-% 4,4 Goierri -% 0,9 izan denean) inguruko enpresa industrialen itxieren eta/edo berregituratzean ondorioz (aurre-erretiro aurreratuak, euren jatorrira itzultzen diren biztanleak, "itzulerako emigrazioa" deiturikoa, etab.). Ondorengo gehikuntzak ez dira finkatu, 2006tik aurrera aktiboen kopuruek lehengoan jarraitu ez ezik 2011tik 2016ra pixka bat jaitsi ere egin direlako. Gipuzkoaren eta Euskadiren kasuan, bilakaera hobea da, 1986tik 2016ra aktiboen etengabeko gehikuntza egon delako, azken hamar urte hauetako hazkunde-erritmoa apalagoa izan bada ere, baina biztanleria aktiboa galdu gabe Urretxun eta Urola Garaian bezala. Ehunekotan, aldi horretako (1986-2016) gehikuntza esanguratsuenak EAEkoak (% 31,5), Gipuzkoak (% 28), Urretxukoak (% 26,2) eta Goierrikoak (% 19,3) izan dira. Urola Garaiak izan du, % 6 baino zerbait gehiagorekin, aktibo-hazkunde txikiena eta, 2006tik aurrera, ordura arte izandako hazkundea moteldu du.

BIZTANLERIA AKTIBOA (16 urte edo gehiago), OKUPATUA ETA LANGABETUA (1986-2016)

POBLACIÓN ACTIVA (de 16 ó más años), OCUPADA Y PARADA

		Okupatuak Ocupados	Langabetuak Parados	Guztira Total
1986	Urretxu	1.905	637	2.542
	Urola Garaia	8.652	2.548	11.200
	Goierri	21.006	5.674	26.680
	Gipuzkoa	208.448	59.215	267.663
	EAE	620.449	184.280	804.729
1996	Urretxu	2.157	520	2.677
	Urola Garaia	8.652	2.056	10.708
	Goierri	21.723	4.726	26.449
	Gipuzkoa	233.028	62.898	295.926
	EAE	689.100	209.178	898.278
2006	Urretxu	2.995	190	3.185
	Urola Garaia	11.249	686	11.935
	Goierri	28.721	1.856	30.577
	Gipuzkoa	311.060	22.161	333.221
	EAE	954.033	74.755	1.028.788
2011	Urretxu	2.831	387	3.218
	Urola Garaia	10.459	1.485	11.944
	Goierri	27.662	3.874	31.536
	Gipuzkoa	294.768	44.728	339.496
	EAE	897.767	157.030	1.054.797
2016	Urretxu	2.855	353	3.208
	Urola Garaia	10.493	1.435	11.928
	Goierri	28.133	3.696	31.829
	Gipuzkoa	297.418	45.300	342.718
	EAE	895.457	162.797	1.058.254

Iturria. EUSTAT. Biztanleriaren Zentsuak eta Biztanleen Udal Erroldak. Biztanleria aktiboaren udal estatistika. Geuk egin / Fuente. EUSTAT. Censos de Población y Padrones Municipales de Habitantes. Estadística municipal de población activa. Elaboración propia



Datuei erreparatuta, biztanleria aktiboaren bilakaera ez da oso itxaropentsua, izan ere, hazkunde-erritmoa moteltzeari biztanle aktiboaren galera berriagoa gehitu behar zaio.

Hala, langabe-kopurua handitzetik eta, aldi berean, okupatu-kopuruaren beherakadatik, nolabait logikoa zena 2008ko krisiagatik eta horren ondoriozko enplegu-galeragatik, gaur egungo aktiboaren beherakadara pasatu da, oraingoz beherakada txikia den arren, eta egoera ekonomikoaren hobekuntzaren ondoriozko langabeen beherakadara eta biztanle okupatuaren beherakadara pasatu da, orain arte gertatu ez zena. Orain, ordea, populazio-egiturak eraginda, populazio-ez-aktiboa gehitu egin da, eta hori ez da batere positiboa.

Jarduera-tasak aktiboaren kopurua 16 urteko eta hortik gorako biztanleekin uztartzen du eta gako-adierazlea da epe luzera lurralde baten garapen ekonomikoari begira.

Gipuzkoako lurraldean (iturri estatistiko honek ez du eskaintzen udaleko eta eskualdeko daturik) 16 urtetik gorako biztanleei buruz Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) jasotako azken datuek adierazten dute jarduera-tasak gora egin duela XXI. mendean zehar, hain zuzen ere, 2002ko % 56,2tik 2011ko % 59,6ra. Une horretan jaisten hasi zen, 2017ko erdi aldera % 54,9ra iritsi arte %.

Antzeko bilakaera izan dute Euskal Autonomia Erkidegoak (2002ko % 57,3tik 2012ko % 60,4ra eta 2017 erdiko % 56ra pasatzean) eta Espainiak (2001eko % 53tik 2012ko % 60,4ra eta 2017 erdiko % 58,8ra).


Ikusten den bezala, jarduera-tasa baxuenak Gipuzkoako lurraldeak ditu gaur egun (Euskadikotik 1,1 puntutara eta Espainiakotik 3,9 puntutara), eta EINek 2029rako egindako proiektioek ez dute etorkizun onik iragartzen, eremu horiek aktiboak galtzen jarraituko dutelako eta, gainera, Euskadiko beherakadak (8,5 puntu) Espainiakoak baino garrantzitsuagoak izango direla aurreikusten delako (5,7 puntu). Azterketa prospektibo honek ez du Gipuzkoako daturik eskaintzen baina bere populazio-egiturari erreparatuta bere autonomia-erkidegoaren bilakaeraren prospektibara hurbilduko dela uste da.

Aztertzen ari garen eremuaren analisi hurbilago baterako Biztanleria Aktiboaren Udal Estatistikaren eta EUSTATEk eskaintzen dituen Biztanleria Zentsuen eta Biztanleen Udal Errolden datuetara jo du, aurreko taulan ikusi den bezala, eta bai Urretxun, bai Urola Garaian eta bai Goierrin, azken urte hauetan jarduera-tasak handitzen joan direla ikusi da, beste arrazoiz batzuen artean, emakumeak eta XX. mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako baby boom-eko biztanleak lan-munduan txertatu direlako, eta baita XX. mende-bukaeran eta XXI. mende-hasieran iritsitako etorkinak ere.

2015etik aurrera, balio horiek beheraka egiten hasi ziren. Urretxu 2011n hasi zen beheraka.



Hori adierazten du ondorengo grafikoak.



Iturria. EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldak eta Biztanleriaren Zentzuak. Biztanleria aktiboaren udal estatistika. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Censos de Población y Padrones Municipales de Habitantes. Estadística municipal de población activa. Elaboración propia

Ikusten den bezala, Urretxuko jarduera-tasa 1986ko % 39,4tik 2016ko % 46,8ra hazi da, si bien 1986tik 1991ra beheranzko gorabeherak egon diren arren (% 39,4tik % 39ra), eta baita 2006tik 2011ra (% 48tik % 46,5era) eta 2015etik 2016ra ere (% 47,3tik % 46,8ra). Balio altuena 2006an izan zen (% 48), alderaketa egiten ari garen gainerako lurralde-eremuko gainetik, Gipuzkoakoa izan ezik, % 48,3rekin. Epe laburrean ez da aurreikusten tasa horrek gora egingo duenik populazio-egituragatik. Emakumeak lan-munduan txertatzeak modu positiboan eragin du emakumeen jarduera-tasan: 1986ko % 21,6tik 2016ko % 43,2ra pasatu da eta gizonezkoenak, aldiz, behera egin du (% 56,2 eta % 50,4, hurrenez hurren). Tasa horren bilakaera sexuen arabera alderaketa egiten den gainerako lurralde eremuetako berbera izan da. Ondorengo taulan ikus daiteke guztien egungo egoera.

JARDUERA-TASAK SEXUAREN ARABERA (2016) TASAS DE ACTIVIDAD POR SEXO

	GUZTIRA/TOTAL (%)	GIZONAK/HOMBRES (%)	EMAKUMEAK/MUJERES (%)
URRETXU +	46,8	50,4	43,2
GOIERRI +	47,1	51,4	42,8
GIPUZKOA +	48,2	51,4	45,2
EAE+	48,7	52,1	45,5
ESPAINIA *	59,5	64,3	55,0

Iturria. + EUSTAT. Biztanleria Aktiboaren Udal Estatistika. * INE. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA). Geuk egina.

Fuente. + EUSTAT. Estadística Municipal de Población Activa. * INE. Encuesta de Población Activa (EPA). Elaboración propia.



Biztanleria okupatuari dagokionez, esan beharra dago gehitzen joan dela lurralde guztietan, Urretxuren kasuan 1986ko 1.905 okupatuetatik 2016ko 2.855 okupatuetera pasatuz, ia % 50eko gehikuntza. Hala ere, bosturteko bilakaerarekin alderatzen bada (2006-11) ia % 5eko beherakada izango zen, batik bat 2008ko krisiaren ondorio zuzena izan zen populazio langabearen gehikuntzagatik. Kasuistika bera dago beste lurralde-eremuetan ere, galerak handiagoak diren arren Urola Garaia (-% 7), EA Eren (-% 5,9) eta Gipuzkoaren (-% 5,2) kasuetan. Nabarmentzekoa da 2011-16 bosturtekoan denek izan dituztela gorakada txikiak aktiboen kopuruan, Euskadik izan ezik, -% 0,3 galdu baitzuen (Urretxu eta Urola Garaia kasuan gorakadak hain txikiak direnez, okupatu-kopuru bera dutela esan daiteke).


BIZTANLERIA LANGABETUAREN BILAKAERA (1991-2017) EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN PARADA

	1991*	1994*	1997*	2000*	2003*	2005+	2007+	2009+	2011+	2013+	2015+	2016+	2017 ¹
URRETXU	436	470	306	219	208	216	183	396	370	403	320	311	306
UROLA GARAIA	2.144	2.065	1.222	788	758	752	638	1.406	1.422	1.534	1.339	1.303	1.241
GOIERRI	4.294	4.009	2.709	1.635	1.690	1.762	1.557	3.375	3.585	3.924	3.299	3.178	3.021
GIPUZKOA	44.139	45.370	32.406	21.539	21.613	24.401	22.932	38.494	41.133	46.612	41.335	36.965	34.822

Iturria. * INEM (martxoaren 31ko datuak). + SEPE (abenduko datuak). ¹ SEPE (iraileko datuak). EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. * INEM (datos de 31 de marzo). + SEPE (datos de diciembre). ¹ SEPE (datos de septiembre). EUSTAT. Elaboración propia.

1993ko krisiaren ondorioak eta, aurretik, laurogeiko hamarkadan, enpresa enblematikoen, besteak beste, Orbegozoren birmoldaketa- eta berregituraketa-prozesuen ondorioak atzera utzi ondoren, hain zuzen ere, Urretxun azken hogeita hamar urte hauetako langabezia-tasa handienak izan direnean (703 pertsona 1985ean, 543 1990ean eta 470 1994an), langabezia-tasa jaisten hasi zen 2007an 183 pertsonara iritsi arte. Hortik aurrera, 2008ko krisiaren eraginpean, langabeak gehitu egin ziren 2008ko 248 langabeetatik 2012ko 445 langabeetara pasatuz. Egoera, SEPEren datuen arabera, hobetzen hasi zen 2012tik aurrera, 2016-17 aldian hirurehun pertsona gainditu arte. Langabeziari buruzko egungo datuek XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren erdi inguruko datuetara hurbiltzen gaituzte, eta 2016an ArcelorMittal itxi egin zen arren, ez dirudi horrek eragin handirik izan duenik Urretxuko biztanleen enpleguan. Aldagai horren azken urteetako bilakaera honako grafiko honetan ikusten da.



Iturria. LANBIDE eta SEPE. * Urte bakoitzeko datuak abenduak dira, 2017. urtekoa izan ezik irailekoa denez. Geuk egina.

Fuente. LANBIDE y SEPE. * Los datos de cada año son de diciembre, salvo el de 2017 que es de septiembre. Elaboración propia.

Atera diren langabezia-tasek 2006ko % 6tik, aldi honetako baliorik baxuenetik, 1991ko 18,4ra edo 2011ko % 11,5era bitarteko gorabeherak izan dituzte, gaur egungoa % 9,5ekoa delarik. Ehuneko horiek oso urrun daude 1986ko % 25,1eko langabezia-tasatik (% 21,3 Goierri eta % 22,1 Gipuzkoan). Urola Garaiko, Goierriko eta Gipuzkoako langabezia-tasekin dituen aldeak honako taula honetan ikus daitezke:

LANGABEZIA-TASAK *

(%)

TASAS DE PARO *

	1991	1997	2001	2006	2011	2016	2017
URRETXU	18,4	11,4	7,0	6,0	11,5	9,7	9,5
UROLA GARAIA	17,6	11,4	6,6	5,7	11,9	10,9	10,8
GOIERRI	15,9	10,2	5,6	5,2	11,4	10,0	9,1
GIPUZKOA	11,3	8,0	7,4	6,9	12,1	10,8	10,2

Iturria. SEPE. Langabezia datuak abenduak dira, 2017. urtekoa izan ezik irailekoa denez, eta biztanleria aktiboaren datuak Biztanleen Udal Erroldak edo Biztanleriaren Zentzuetako datuak dira. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. SEPE. * Los datos de paro son de diciembre, salvo el de 2017 que es de septiembre, y los datos de la población activa son de los Censos o Padrones de Habitantes. EUSTAT. Elaboración propia.

Ikusten den bezala, Urretxuk, XXI. mendean zehar, bere lurralde historikoak baino langabezia-tasa baxuagoak izan ditu eta, 2006tik aurrera, baita Urola Garaiak baino baxuagoak ere. Egungo egoera ekonomikoa hobetzeak aldeko eragina izan du langabezia-tasetan, 2016-17 aldian % 9,5-% 9,7 artean ibili baitziren (Gipuzkoa eta Euskadira BJAren arabera laugarren hiruhileko datuak % 8,4 eta % 11 dira, hurrenez hurren eta % 16,38 Espainian -BAI, hirugarren hiruhilekoa-).

Sexuen arabera banaketak adierazten du 2017ko irailean Urretxuko langabeen % 58,8 emakumeak zirela eta % 41,2 gizonezkoak (Gipuzkoako banaketa oso antzekoa da: % 42,1 gizonezkoak eta % 57,9 emakumeak), 1997an % 28,1 eta % 71,9 zirenean. Langabeziaren indizeari dagokionez, gizonezkoen % 7,3tik emakumeen % 12,7ra doa (Gipuzkoan % 8,2koa eta % 10,2koa da; Goierri % 6,6koa eta % 12koa; eta Urola Garaian % 8,2koa eta % 14,15koa da, hurrenez hurren).

Eta adinari erreparatuz gero, erdiak baino zerbait gutxiago, % 45,8k 26 eta 44 urte artean dituela ikusten da (Gipuzkoan % 44,1ak); % 45,1ak, 45 urte baino gehiago (Gipuzkoako langabeen ia erdia, % 49,8k) eta % 9,1ak 26 urte baino gutxiago ditu (Gipuzkoan % 6,1ak). Bitxia badirudi ere, kopuru erlatibotan ez dago alderik sexuen arabera banaketan adinari dagokionez.


Ekonomia-jarduerari dagokionez, 2017ko irailean langabe gehienek euren azken lana zerbitzuen sektorean izan dutela adierazten da (% 60,8). Ondoren datoz industria-sektorea (% 20,6), eraikuntza (% 4,6) eta lehen sektorea (% 1). % 14 bakarrik izango litzateke aurretik lanik egin gabe egoera horretan dauden pertsonen kopurua. 2005arekin alderatuta, ekonomia-sektore guztietan egon zen langabeen gehikuntza zenbaki absolututan. Zenbaki erlatibotan, aldiz, zerbitzuek (% 59,4tik % 60,8ra) eta lehen sektoreak (% 0,5etik % 1era) soilik izan zuten gehikuntza. Industria-sektoreak gehikuntza izan zuen zenbaki absolututan (54tik 63 pertsonatara), baina zenbaki erlatibotan ia 6 puntuko galera izan zuen, eraikuntza-sektorean izandako antzeko egoera (10 langabetatik 14ra baina zenbaki erlatibotan 0,2 puntuko galera).

LHarekin alderatuta, honek, bere ekonomia-egituraren arabera, hirugarren sektorean lan egin duten pertsona langabeen proportzio handiagoa duela ikusten da (langabe guztien 2/3 baino zerbait gehiago).

Amaitzeko, Urretxu aktiboak galtzeko egoera hasiberri eta agerikoan dago eta egoera ekonomikoa hobetzeak ere ez du gelditu BPGd-ean eta enplegu-tasan eragiten duen arazo demografikoa. Langabeziak behera egin du azken 2-3 urteetan, hemen aipatu diren udalaz gainerako eremuetan bezala, baina beherakada horren arrazoia, lanpostuen sorrera ez ezik, biztanleria aktiboaren beherakada ere bada eta hori, "a priori", deigarria da hazten ari den ekonomia batekin (% 3,1 Euskadin eta % 3 Espainian). Espainian, 2012ko hirugarren hiruhilekoak mugarriz ezarri zuen ia 23,5 milioi biztanle aktiborekin eta harrezkero ia 800.000 pertsona gutxiago dira biztanleria aktiboan. Horrek zerikusia du enpleguarekin eta baita izaera demografikoko faktoreekin ere, epe luzera lanpostuak sortzeko erritmoa baino langabezia-tasaren beherakada handiagoan eragiten dutenekin. Biztanleria aktiboa egonkorra izan balitz azken hamar urte hauetan, langabezia-tasa % 20tik gorakoa izango zen. Pixkanaka-pixkanaka biztanleria zahartzearen ondorio zuzen gisa biztanle ez-aktibo gehiago izatea azterketa demografiko honetako beste atal batzuetan aipatu dugun konatua da eta horrek azalduko luke langabezia lanpostuak sortzeko erritmoak adierazten duena baino bizkorrago jaitsi izana. Horrek guztiak adierazten du faktore demografikoek nola eragiten duten lan-merkatuan biztanleria orokorraren egitura eta, ondorioz, biztanleria aktiboaren egitura baldintzatuz. Urretxuren kasuan,



biztanleria ez-aktiboa biztanleria osoaren 3/5 zen XX. mendeko laurogeiko hamarkadaren erdi inguruan eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera inguruan. Balio oso altuak ziren, aurreko urteetako jaiotza-tasa altuen ondoriozkoak. Hortik hasi eta 2006 arte, balio horiek jaitsi egin ziren % 52raino, batez ere laneko adinean zeuden baby boom deituriko biztanleak lan-merkatuan sartu zirelako eta emakumeak lan-munduan rol aktiboagoa izaten hasi zirelako. Data horretatik gaur egun arte, biztanleria ez-aktiboa gehitu egin zen (2011n % 53,6koa zen) erretirodunak ugaltzearen ondorioz eta jaiotza-tasak iraganean baino txikiagoak izatearen ondorioz.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

I.2.3.8.2. Ekonomia-jarduerak.

I.2.3.8.2.1. Ekonomia-, gremio- eta manufaktura-jarduera iraganean.

Herriko orografia- eta klima-ezaugarriek ez dute zalantzarik uzten hiribilduko biztanleek iraganean izan zuten ekonomia-jarduerari buruz. Baso asko Kontzejuak ustiatutako herri-basoak ziren eta haietatik zura (haritza, pagoa, lizarra, gaztainondo, gorostia, intxaurrondo, etab.) eta produktu deribatuak lortzen ziren, hala nola, ezkurra, gaztaina, kortxoa, su-egurra eta ikatza. Larreetan behi-, ardi- eta txerri-azienda ugari zegoen eta gari, arto eta babarrun uztak urriak izaten ziren lur lau gutxi zegoelako.

A. Ayllon Irianzoren arabera, Urretxuko udalerrian burdinola baten kokapena aipatzen zuen lehen testua 1475ekoa da, hain zuzen ere Mendiaraz burdinola, Legazpirekin muga egiten duen tokian eta izen bereko errekaaren ondoan. P. de Gorosabalen arabera, XIX. mendearen erdi aldera "ez zegoen ez burdinolarik ez fabrikarik, bi irin-errotak, teileria bat eta oihalen ehundegi eta larruki-denda batzuk baino ez".

XIX. mende-amaieran lehen industriak hasi ziren sortzen, batez ere zumearen eta zuraren inguruan, baina amore eman zuten XX. mende hasieratik Urola Garaian finkatuta zegoen burdinaren industriaren aurrean. S. Múgicak dioenez "Geografía General del País Vasco de 1915" liburuan, Villarealen "irundako gaien fabrika bat, irundako gai eta artilezko ehunen beste bat, bi altzari-fabrika, zumezko objektuen beste bat eta hainbat errementaritzak eta errementaritzak mekaniko zeuden". I. Linazatorok hori berretsi eta pospoloak egiteko lantegi bat ere bazela gehitu zuen.

Urretxuko enpresa garrantzitsuena Irimo izan da. Estutzeko esku-erremintak, ibilgailuetarako pieza eta aldagaiak, zementuzko eta mineralezko errotetarako bolak, eta abar fabrikatzen jardun zuen 1927an "Larreategui e Iñurritegui" izen sozialarekin eratu ondoren (Patricio Echeverria zegoen bere hornitzaileen artean). 1932an José Luis Aparicio jaunaren jabetzara pasatu zen eta 1939an "J. L. Aparicio y Cía., Ltda." Sozietatea eratu zen eta gero, 1945ean, sozietate anonimo bihurtu zen "Aparicio Hnos. y Cía., S. A." izenpean. 1966ko apirilaren 1ean IRIMO izena hartu zuen. Enpresa horrek, Zumarraga eta Legazpiko beste enpresa handi askok bezala, etxebizitza sozialak, ekonomatua, eskolak, konpentsazio-kutxa eta bizitza-asegurua zituen bere langileentzat. 70eko hamarkadako krisiak eraginda, IRIMO plantilla txikitzen joan zen (560 enplegatu 1981ean) 1995ean Sanp-On multinazionalak erosi zuen arte. Erreminten beste euskal fabrikatzaile batzuekin batera, Eurotools enpresan txertatu zuen. Azken enpresa horrek itxi zuen fabrika 2001ean, produkzioa taldeko gainerako fabriketara lekualdatuz. Irimo markak existitzen jarraitzen du. SNA Europek banatzen ditu bere produktuak nazioartean marka desberdinen bitartez baina erreminta horiek ez dira jada udalerrin honetan egiten.

Merkataritza-jarduerak ere aspalditik izan du lotura handia hiribilduarekin. Hainbat feria egin izan dira, esaterako, ganaduaren feria (hilean behin) eta Santa Luzia egunekoa (abenduan), gaurdaino iraun duena tradizio handiarekin.

I.2.3.8.2.2. Ekonomia-jarduera gaur egun.

XX. mende hasieran, bereziki lehen mundu gerrak eztanda egin zuenean, hiribilduan garatzen zen ekonomia-jarduera eta Espainiako gerra zibilarekin finkatu zena, deskribatutakoaren oso desberdina da, metalurgia- eta altzari-jarduerari lotutako iragan horrek lurraldean bere arrastoa utzi duen arren. Gaur egun finkatuta daude metalurgia fabrikatzeko establezimenduak (galdaragintza, torlojugintza, makina-erreminta ...) eta altzarigintzakoak (sukaldeko altzariak, egurrezko barneko eskailerak...) udalerriko ekonomia-ehuna pixka bat dibertsifikatu duten beste jarduera-adar batzuekin batera. Zurgintzaren eta burdingintzaren ezagutza hori historian zehar transmititu da eta hiribilduko biztanleak sektorean une bakoitzean gertatutako egiturazko aldaketetara egokitu dira. Halaber, lurzoru-falta arazoa izan zen duela hainbat hamarkada eta urretxuarrek enpresa batzuk beste udalerrin batzuetara lekualdatuz erantzun zuten (Muelles y Aceros Eguzkia, S.A. Altsasura, adibidez).

Okupazioari buruzko udalerriko datu eguneratuak 2011. urtekoak dira, Biztanleria eta Etxebizitzaren azken Errolda egindako urtekoak eta datu horietan ikusten da biztanleen % 57 hirugarren sektorean okupatuta zegoela (Goierrikoaren eta Urola Garaikoaren 1,9 eta 0,4 puntu gorago, hurrenez hurren), baina Gipuzkoako % 68,5etik eta Euskadiko % 71,7tik urrun.



Zerbitzuen sektorea ekonomia garatuek azken hamarkadetan berezkoa izan duten hirugarren sektorea indartzeko prozesu horri lotuta dago eta indartu egin du bere presentzia 1986-2011 aldian (% 37,9tik % 57ra), lurralde historikoko gainerako eremuetan bezala, baina haiek baiko gehikuntza erlatibo pixka bat txikiagoarekin (19,1 puntu Urola Garaia, Goierri eta Gipuzkoaren 24, 21,4 eta 21,5 puntuen aurrean, hurrenez hurren). Bilakaera hori ulergarria da laurogeiko hamarkadaren erdi inguruko datuei, garai hartan Urretxuren irudia lurralde batez ere industrialarena baitzen (biztanleen 3/5ek bigarren sektorean egiten zuten lan), eta sektore horrek azken urte hauetan udalerriko eta eskualde osoko enpleguarekiko izan duen portaera negatiboari erreparatzen bazaie.

**URRETXUKO BIZTANLERIA AKTIBO OKUPATUA
(1986-2011)
POBLACIÓN ACTIVA OCUPADA DE URRETXU**

	Nekazaritza / Agrario		Industria		Eraikuntza Construcción		Zerbitzuak / Servicios		GUZTIRA / TOTAL	
	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%	Kop. / N°	%
1986	18	1,0	1.067	56,0	98	5,1	722	37,9	1.905	100
1996	18	0,8	982	45,5	146	6,8	1.011	46,9	2.157	100
2001	9	0,3	1.268	44,5	232	8,2	1.339	47,0	2.848	100
2006	16	0,5	1.184	39,5	251	8,4	1.544	51,6	2.995	100
2011	9	0,3	978	34,6	230	8,1	1.614	57,0	2.831	100

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Taulak agerian uzten du Urretxuko biztanleek industria-sektoreko okupazioan izan zuten beherakada, zenbaki absolutu nahiz erlatibotan: 1986ko populazioaren erdia baino gehiagotik (% 56) 2011ko heren bat baino zerbait gehiagora (% 34,6). Ehuneko beherakada pixkanaka-pixkanaka eginda urte hauetan, 1986tik 1996ra izan zen arren galerarik handiena (ia hamaika puntu). Zenbaki absolututan, ordea, batetik, 1986tik 1996ra okupazio-galera egon da sektorean udalerriko okupatuaren kopurua 250 baino gehiago handitu denean eta, bestetik, 1996tik 2001era pertsona okupatuak ia 290 gehitu ziren, 2001etik 2011ra galdu zen ia kopuru bera (1996an sektorean okupatuta zeudenen kopurua 2011ko ia bera da). Udalaz gaindiko beste lurralde-eremuetan ere aktibo industrialen oso galera garrantzitsua egon zen, nabarmentzekoa delarik Urola Garaikoa, izan ere, 1986ko % 62,5etik (eremu guztietako ehuneko handiena) 2011ko % 35,8ra pasatu baitzen, Goierrik duena baino baxuagoa (% 36,5). Hain zuzen ere, Goierri da gaur egun okupazio industrial handieneko gunea, eta Gipuzkoa txikieneko (% 23,6). Ikusten den beste gauza bat da aktibo okupatu gehiago galdu zirela industrian 2006-2011 aldian aurreko bosturtekoan baino, 2008ko krisiaren ondorioz. Eta lehen azaldutakoak alde batera utzita, Urretxuk, gaur egun, aipatzeko moduko okupazioa du industrian: bere % 34,6 urrun geratzen da Gipuzkoako % 23,6tik (11 puntu baino gehiago), eskualdekoaren antzeko ehunekoarekin (% 34,4). Hori positibotzat jotzen da sektore ekonomiko bakarraren mende ez egoteari eta okupazio dibertsifikatua izateari begira.



Hirugarren sektorea, bestalde, Urretxun aldi horretan gehikuntzak izan zituen sektore bakarra da, bai ehunekotan (1986ko % 37,9tik 2011ko % 57ra) nahiz zenbaki absolututan (722tik 1.614ra), eta ez du okupaziorik galdu azken urteetan ere krisiaren eraginez. Bigarren sektoreko okupazio-galera hirugarren sektoreara lekualdatu zen, eta azken hamarkadetakoa sektore dinamikoena izan zen (2011ko % 57ko okupazioa industriak duela 25 urte zuenaren ia ehuneko bera da). Hirugarren sektoreak indarra hartzeko prozesua udalaz gaindiko beste lurralde-eremuetan ere gertatu da, 1986ko % 32,1etik 2011ko % 56,5era igotako ehunekoekin Urola Garaia kasuan; % 33,7tik % 55,1era Goierri; eta % 47tik % 68,5era Lurralde Historikoan.

BIZTANLERIA AKTIBO OKUPATUA SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA									
POBLACIÓN ACTIVA OCUPADA SEGÚN SECTORES ECONÓMICOS									
		Nekazal / Agrario		Industria		Construcción / Eraikuntza		Servicios / Zerbitzuak	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
1986	UROLA GARAIA	122	1,4	5.411	62,5	342	4,0	2.777	32,1
	GOIERRI	652	3,1	12.423	59,1	861	4,1	7.070	33,7
	GIPUZKOA	8.213	3,9	91.369	43,8	10.940	5,3	97.926	47,0
1996	UROLA GARAIA	98	1,1	4.148	47,9	612	7,1	3.794	43,9
	GOIERRI	474	2,2	9.878	45,5	1.404	6,4	9.967	45,9
	GIPUZKOA	5.691	2,4	81.106	34,8	14.740	6,3	131.491	56,5
2001	UROLA GARAIA	69	0,6	5.150	47,7	867	8,0	4.720	43,7
	GOIERRI	377	1,4	12.291	46,5	1.952	7,4	11.820	44,7
	GIPUZKOA	5.073	1,7	91.934	31,5	23.924	8,2	170.675	58,6
2006	UROLA GARAIA	70	0,6	4.775	42,5	864	7,7	5.540	49,2
	GOIERRI	292	1,0	12.065	42,0	2.247	7,8	14.117	49,2
	GIPUZKOA	3.202	1,0	88.027	28,3	26.129	8,4	193.702	62,3
2011	UROLA GARAIA	53	0,5	3.748	35,8	742	7,1	5.916	56,6
	GOIERRI	272	1,0	10.074	36,4	2.074	7,5	15.242	55,1
	GIPUZKOA	2.638	0,9	69.552	23,6	20.565	7,0	202.013	68,5

Iturria. EUSTAT. Geuk egina. / Fuente. EUSTAT. Elaboración propia


Eraikuntza-sektorea indartu egin da urte hauetan, izan ere, 2011ko okupazioak (% 8,1) hiru puntuko gehikuntza adierazten du 1986ko okupazioarekiko (% 5,1). Ehuneko hori sektoreak beste lurralde-eremu batzuetan okupatzen duena baino handiagoa da, Gipuzkoarekin alderatuta puntu bat baino zerbait gehiagoko aldea. 2008ko krisiaren ondorioz azken bosturtekoan izandako beherakada (2006-11) maila apalagoan nabaritu da Gipuzkoan.

Nekazaritza-sektorea da sektore guztien artean Urretxun protagonismo txikiena duena, aktiboen % 0,3 hartzen duelako. Ehuneko hori beheraka joan da pixkanaka-pixkanaka, duela hainbat hamarkada hasita (1950etik aurrera industrializazioak bultzatutako nekazari-exodoa). Aipatzekoa da eskualdean duen okupazioarekiko alde txikia (% 1), eta aztertutako lurraldeen artean "landatarretik gutxien duena" izatea (Gipuzkoa % 0,9 da eta Urola Garaian % 0,5). Sektore honetako okupazio-ehuneko baxuek agerian uzten dute ekonomia-arloan duen garrantzi txikia, ez ordea, gizarte-arloan.



Azken batean, batez ere berrogeita hamarreko, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan nekazaritza-sektoretik industria-sektorerara biztanleriaren parte bat lekualdatu bazen, hazkunde ekonomiko handiko garaia izateak eta industria-sektoreak enplegu asko sortu izanak eraginda, XX. mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan eta XXI. mendeko lehen hamarkadan hirugarren sektorea indar handiz hasi zen enplegua sortzen, ordura arte protagonista nagusia izan zen industria-sektorea atzera utziz, eta hasiera eman zitzaion ekonomia hirugarren sektorerantz bideratzeko prozesuari. Gertakari hori nahiko agerikoa zen Gipuzkoan baina zerbait berriagoa Urretxuren kasuan, bi sektore horietan okupatutako biztanleria aktiboaren azken bi urteetako eboluzioak joera-aldaketa agerian uzten zuen arren. Hala eta guztiz ere, egungo Urretxu bere aztarna industrialari eusten dion udalerrria da, hala berresten baitute enplegu- eta okupazio-datuek, baina baita berezi egiten duen paisaiak eta lurraren erabilerak berak ere, zenbait kasutan industria-eraikin abandonatuak, iraganean izan zuen egitura ekonomikoarekin alderatuta pisua galtuta izan arren.

BIZTANLERIA AKTIBO OKUPATUA SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA
(2011)
POBLACIÓN ACTIVA OCUPADA POR SECTORES ECONÓMICOS



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia


2016ko Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren datuen arabera (JEGID), udalerrri horretako aktibo okupatuen parte garrantzitsu batek beste udalerrri batean lan egingo zuen, aktibo okupatuen eta udalerrrian sortutako enpleguaren -enplegu endogenoa- arteko ondoriozko saldoa negatiboa delako. Data hartan, Urretxun 552 establezimendu zeuden, 1.876 enplegatu zituztenak, eta horrek 10,34 pertsona/establezimenduko batez bestekoa emango luke, Urola Garaiko (4,77 pertsona/establezimenduko) eta Goierriko (5,34 pertsona/establezimenduko) batez bestekoaren azpitik. Establezimenduak tamaina txikikoak dira eta batez besteko hori azken urte hauetan ia aldaketarik gabe mantendu dela ikusi da (1995ean 3,36 pertsona/establezimenduko).

**URRETXUKO ESTABLEZIMENDUEN TAMAINA.
TAMAÑO DE LOS ESTABLECIMIENTOS DE URRETXU.**

URTEAK / AÑOS	1995	2000	2004	2008	2012	2016
PERTSONAK-ESTABLEZIMENDUA PERSONAS-ESTABLECIMIENTO	/ 3,36	3,38	3,53	3,50	3,31	3,40

Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

Establezimendu-kopuruak 1996tik 2006ra izandako gorabehera bat dator une honetako koiuntura ekonomikoekin. Hala, 1995etik 2000ra 401 enpresatik 553ra pasatu zen. Azken kopuru horrek ia bere horretan iraun du 2000tik 2004ra bitartean, eta 606 establezimendutara iritsi zen 2008an (76 enpresa gehiago lau urtetan), azken hogeitau urteetako kopururik altuena. Urte horretatik aurrera, udalerriko enpresa-ehunari izugarri eragin zion 2008ko krisi ekonomikoak eta, horren ondorioz, enpresa asko desagertu ziren (zortzi urtetan 74 establezimendu galdu ziren), eta 2016an XXI. mende hasierako ia kopuru bera zuen (552 enpresa). IRIMO, Urretxuko fabrika enblematikoa, behin betiko itxi zen 2001ean.




Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

Enpleguari dagokionez, bilakaera positiboa izan da 1995eko 1.349 enplegatutatik 2016ko 1.876 enplegatutara pasatu delako, krisiaren aurretik lortutako kopuru altuenak (2.118 eta 2.123 pertsona 2007an eta 2008an, hurrenez hurren) errepikatu ez ziren arren. Azken urteetan izandako beharakada ondorengo grafikoan ikus daiteke.




Urretxu



Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

2008tik 2016ra txikitu egin da establezimendu-kopurua (2008ko 626tik 2016ko 552ra), beraz, ia % 12ko galera egon zen, estratuen araberako banaketa asko aldatu ez bada ere ehunekotan. 20-49 enplegu arteko estratuak soilik izan zuen gehikuntza kuantitatiboa (11 establezimendutatik 14ra). Establezimenduen % 74,1ek 3 enplegu baino gutxiago ditu, 2008ko ehuneko bera, eta 50 enplegatutik gorakoak murriztu egin dira (5 establezimendutatik 3ra). Ez da geratu 100 enplegatu baino gehiagoko establezimendurik (2008an bi zeuden). 20016an, enpresen % 93,5 mikroenpresak ziren, 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak eta enplegu endogeno guztiaren % 51,6 sortzen zuten (Goierri % 32,9 eta Gipuzkoan % 37,2) 2003an % 50,7 zenean.




Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia



Urretxuko establezimendu guztien % 71,4 zerbitzuen sektorekoak dira, % 15,8 eraikuntzakoak, eta % 10 soilik dira enpresa industrialak 2003an % 12,1 zirenean (Goierri % 9,9, Gipuzkoan % 7,9 eta EAEn % 6,8).


Jarduera-adarren arabera banaketak erakusten du merkataritzarekin, garraioarekin eta ostalaritzarekin lotura duten jarduerak dutela establezimendu-kopuru handiena (217 enpresa), eta ondoren eraikuntzakoek (87 enpresa) jarduera profesionalek eta laguntzaileek (65 enpresa) eta industriak (55 enpresa).



Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

2008arekin alderatuta, jarduera-adar guztietan murriztu da establezimendu-kopurua, finantza- eta aseguru-jardueretan, hezkuntzan eta osasunbide publikoan eta informazioaren eta komunikazioaren sektoreetan izan ezik. Nabarmentzekoa da jarduera higiezinak zerikusia duten establezimenduen % 64 galdu izana eta 2008ko krisiak gogor astindu zituen merkataritza-, garraio-, ostalaritza- eta eraikuntza-establezimenduak desagertu izana.



Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

Udalerrri honen errealitate ekonomikoa ezin da ulertu Urola Garaia kontuan izan gabe, izan ere, lurralde horretan dago Goierri eskualdeko enplegu guztiaren % 31,7 (Gipuzkoako enpleguaren % 9). Legazpi eta Zumarraga dira udalerrri dinamikoak, 3.005 eta 2.650 enplegurekin, hurrenez hurren (Urola Garaiko enplegu guztiaren ia % 70 eta establezimenduen % 62,3). 2008tik 1400 enplegu baino gehiago galdu dira, horien erdia baino gehiago (% 54) Legazpin. Konparazioz, aztertzen ari garen udalerrrian enpleguaren % 23 dago (establezimendu guztien % 32,2) eta Urola Garaian duen pisua handitu egin da denborak aurrera egin ahala (2008an % 22,1 zen eta 1995ean % 19,3). Udalerrriko biztanleria okupatuaren parte batek eskualdean egiten du lan.

Udalerrriaren eta Urola Garaiaaren hazkunde ekonomikoa sektore metal-mekanikoa ardatz zuen garapen industrial sendoan oinarrituta egon da tradizioz, eta bereziki hainbat enpresa handiren inguruan (Bellota Herramientas, S.A., Corporación Patricio Echeverría (CPE) eta Ingersoll Tillage Group (ITG), lehengo Patricio Echeverría (PESA); ArcelorMittal, lehengo E. Orbegozo; eta Urretxuren kasu partikularrean, Eurotools, lehengo Irimo). Enpresa handi horiek beste enpresa ertain eta txiki batzuen traktore izan dira. Espezializazio industrialak zona horren ezaugarri bereizgarria izaten jarraitzen du (2001ean okupazioaren ia erdia hartzen zuen eta hamar urte geroago ia % 35), enpresa traktore horiek azken hamarkadetan berregituratze garrantzitsuak izan dituzten arren edo desagertu egin diren arren (Irimo 2001ean eta ArcelorMittal 2016an). Industriek automozio- eta eraikuntza-sektoreetako jarduera laguntzaileekiko mendekotasuna izan da, hein batean, Urola Garaiak azken krisi ekonomikoaren ondorioak horrenbeste pairatzearen arrazoia.

Zona horretako enpresa-ehunaren ezaugarriak ziren atomizazio handia izatea eta enpresa txiki askok osatutakoa izatea. Laurogeiko hamarkadako krisiak gogor astindu zuen eta gero 2008koak. Gaur egun ezarrita dauden enpresak beste mota batekoak dira. Kalitatea eta diseinua erabakigarriak dira eta industriak zerbitzuak, kontzeptu ekonomiko berriak, jarduera berriak eta kudeaketa-forma berriak sartzen ditu ekonomiaren globalizazio-prozesuari aurre egin ahal izateko. Oro har, enpresa horiek I+G maila baxua dute eta premia komunak dituzte teknologietarako sarbideen, merkatu berrien prospekzioaren, berrikuntzaren eta lankidetzaren eta aliantzen kulturaren inguruan.

Urretxuko establezimendu industrialen batez besteko tamaina enpresako 8,13 enplegukoa zen 2016an (enpresako 9,27 enplegu 2003an). Enplegu gehien sortzen duten enpresa industrialen artean daude KL KateaLegaia,S.L.L., Illargi, S.A., Plasnor, S.A., Calderería Urretxu, S.L., Asfaltos Urretxu, S.A. eta Estructuras Metálicas Goierri, S.L., eta gainerako gehienak 10-15 langile baino gutxiagokoak dira.KL Katealegaia fabrikak du enplegu-kopuru handiena, ia ehun pertsonarekin. Xede sozialeko enpresa da. Bertan lan egiten duten gehienak desgaitasunen bat duten pertsonak dira eta beste udalerrri batzuetan kokatutako beste produkzio-zentro batzuekin egiten dute lan.Esan beharra dago ArcelorMittal enpresak galdaketa-pabiloia Urretxuko udal-mugaratean kokatuta izan arren, datuetarako ez dela hartu Urretxuko enpresa gisa, bere egoitza Zumarragan zuelako.

UGASSAren Gida Industrialaren arabera, egungo industria-ehunaren ardatza metala da, galdaragintzako enpresekin (Calderería Urretxu, S.L., Egumendi, S.L., U.Z., S. Coop., Babestu, S.L., KL KateaLegaia, S.L.L., Auxkal, S.A), metalezko egituren eta moldeen fabrikazioarekin (Modelos Ezguba, S.A., Estructuras Metálicas Goierri, S.L), beroan fabrikatutako konpresio-malguki helikoidalak (Alcorta Industria del Resorte y Transmisión, S.C.L.), trokelak (Lautrok, S.L.L.), malgukiak eta nekazaritzako makinaren ordeko-piezak (Muelles Gesal, S.A.L.)..., eta baita errementeriaren bat ere (Herrería Mitxel, S.L.).Metal-arotzeriako hainbat enpresa ere badaude (Aluminios Goierri, S.L., Eutsi, S. Coop.) eta baita zura-arotzeriakoak ere (Gabilondo, S.L.; Uribesalgo, C.B.; Biona, S.L., EIMA, S.L., Bergara, Muebles y Decoración, S.L.), hormigoia fabrikatzeko (Horgobisa, S.L.), asfaltozko produktuak fabrikatzeko (Asfaltos Urretxu, S.A.), plastikoak eraldatzeko (Plasnor, S.A., Ergoa, S.L., Aiastui Ereduak, C.B.) eta arte grafikoetako (Gráficas Iparragirre, S.A., Grafikagintza, S.L., Aldaki, S.L.) beste enpresa batzuekin batera.Elikagaien azpisektorean okintza eta opilgintzako enpresa bat dago (Illargi, S.A.) eta beste bat bakailaoa lehortzekoa (Bacalaos Monedero, S.L.).Luberritzen aritzen den Euskorot, S.L. eta zuntz eta erretxinak estratifikatzen diharduen Goifiber, S.L. ere badaude, beste batzuen artean.Enpresa horietako asko Mugitegi, Matxinporta eta Sagastitxipiko jarduera ekonomikoen zonetan daude eta beste batzuk sakabanatuta (Erratzuko ingurunea, etab.).

Behin Irimo itxita, enpresa horietan zaharrena aurkitzeko joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadara jo behar da, hain zuzen ere, Alcorta I.R.T. enpresara, 1936an baleztak eta era guztietako konpresio-malgukiak egiten zituen enpresara; hirurogeiko hamarkadakoak dira, besteak beste, Gráficas Iparragirre, S.A., Goifiber, S.L. eta Modelos Ezguba, S.A. enpresak; hirurogeita hamarreko hamarkadakoak Illargi, S.A., eta Egumendi, S.L., beste batzuen artean; laurogeiko hamarkadakoan artean Asfaltos Urretxu, S.A. eta Horgobisa, S.L. dira aipagarrienak, eta laurogeiko hamarkadan eratu edo ezarritako enpresa ugarien artean daude KT Katealegaia, S.L.L., Eima, S.L., UZ S. Coop, Calderería Urretxu, S.L., Estructuras Metálicas Goierri, S.L., Grafikagintza, S.L., Idegrafik Rotulaciones, Bacalaos Monedero, S.L. eta Magur.XXI. mendean finkatu diren enpresen artean daude Troquelería Lautrok, S.L.L. eta altzarigintzako beste batzuk, esaterako, Gabilondo eta Bergara Muebles y Decoración.



Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoan -CIVEX- (2017) honako hauek ageri dira: Bacalaos Monedero, S.L.; Calderería Urretxu, S.L.; Egumendi, S.L., Escaleras Interiores de Madera (EIMA), Euskorot, S.L.; Illargui, S.A., KT KateaLegaia, S.L.L.; Modelos Ezguba, S.A.; Muelles Gesal, S.A.L., Plasnor, S.A. eta U.Z., S. Coop.

Amaitzeko, Urretxuko industria-ehunak produktu metalikoen (makineria eta ekipamenduak izan ezik) elaborazioaren mende jarraitzen du eta horren ondoren datoz zura fabrikatzeko adarra eta arte grafiko eta elikagaiena. Hala, enpresa-ehuna dibertsifikatzeko aldeko ingurunea indartzeko nahiz lehendik dauden enpresa-sektoreen lehiakortasuna hobetzeko lerroak proposatzeko egokitasuna planteatzen dira. Eta plangintza horretan, azpisektore metal-mekanikoan hain espezializatuak diren Urola Garaiarekin eta Goierriarekin batera joan behar du sinergia guztiak baliatzeko eta elkarrekin aurrera egin behar dute lortu beharreko dibertsifikaziorantz (Goierrin, sortutako lanpostu guztien 3/4 baino gehiago hamar enpresatan daude, beraz, enpleguaren eta jardueraren kontzentrazio handia dago).

I.3.- Plangintza-aurrekariak.

Urretxuko udalerrian aplikatu beharreko esparru juridiko-urbanistikoa bat dator 2012ko ekainaren 26an behin betiko onartutako udal-plangintzako Arau Subsidiarioekin eta orain arte behin betiko izapidetu eta onartutako haien bi aldatetekin, 2017koa bat, udalerriko hiru eremu txikiri buruzko (A.I.E.4 Ikastola, A.I.E.5 Pagoeta/Eliza eta A.I.IF.3 Pagoeta/Eliza Ingurua) eta berriagoa bestea, 2018an behin betiko onartutako Pagoeta Hotelari buruzkoa.

Data hartan onartu zen arren (2012an) dokumentu hura ez dago egokituta indarreko hirigintza-legeriara.

Aipaturiko Arau Subsidiarioen garapenean, bestalde, plangintzako eta kudeaketako hainbat dokumentu izapidetu dira, bestek beste, Gurutze auzoan, Ormazabalen (Labeaga), Barrenkalen eta Gainzabalen hainbat eremu egikaritzeko. Hala ere, ez zaio heldu Gerra eremuaren Plan Partziala izapidetzeari.

Plangintza orokorreko tresna horren aurretik, udalak plangintza orokorreko dokumentu hauek izan zituen:

- Urretxuko Arau Subsidiarioak, 1990eko uztailaren 17an behin betiko onartutakoak.
- Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokor Berritua, 1965eko abenduaren 7an onartua.
- Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 1954ko Ekainaren 8an onartua, lurzuaren lehen Legea onartu aurretik (1956).

Beraz, badago udalerrian hirigintza-kultura bat plangintzaren inguruan, konfiantza bideratzen duena eta udalaren uste osoa eragiten duena Plan Orokorraren berrikuspenaren eta Urretxuko etorkizun hurbilerako udal-proiektu gisa duen garrantzian.



Egindako analisiak erakusten du indarreko plangintza ez dagoela agortuta eta, ondorioz, eskaintza bat baduela epe laburrera. Horrek aukera ematen du bizitegi-lurzoruaren eta ekonomia-jardueretarako lurzoruaren eskaintza bat izateko, abian diren ekimenei erantzuna eman diezaieketenak baina, hainbat arrazoi medio, premiazkoa da hura berrikustea eta lege-esparru berrira egokitzea.

Hala, beste kontu batzuen artean, beharrezkotzat jotzen da, batetik, udalerrri osoan lurzoruaren erregimena behar bezala arautzeko aukera ematen duen eta lurzoruaren sailkapena eta eremuen mugapena, udal-mugartea barne, adierabakarrean zehazten duen sistematika berri bat planteatzea eta, bestetik, espazio librean eta ekipamenduen sistema orokorra eta lokala birdefinitzea.

Hainbat arrazoi medio eta, beste batzuen artean, Lizeoa, Pagoeta Txaletak, Gerra, Gainzabal, Kaminpe, Hego Ipeñarrieta, Elgea, Santa Bárbara, Urzelai, Rodriguez eta Gurutze auzoa eremuetan ikusitako egoerei ere erantzuna eman behar zaie, soluzio alternatiboak eskatzen baitituzte, bai udalak hartutako erabakien eta bai Aurrerakinaren jendaurreko azalpenean adierazitako iradokizunen ondorioz.

Eta udalak horregatik heldu dio prozesu honi.

I.4.- Indarreko lege-esparrua

I.4.1.- Sarrera

Plan Orokorra askotariko maila, izaera eta jatorriko hainbat eta hainbat lege-xedapen, dokumentu eta proiektutan jasotako zuzentarau eta aurreikuspenek eratutako esparru orokorrean egin da.

Une honetan, esparru orokor hori eratzen duten xedapen eta dokumentu nagusien oroigarri nagusi gisa, epigrafe honetako hurrengo ataletan aipatzen direnak nabarmendu behar dira.

I.4.2.- Lurralde- eta hirigintza-legeria

- * Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu diren eta indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-xedapenak:
 - Lurraldearen Antolamenduari buruzko 4/1990 Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
 - Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, 2006ko ekainaren 30koa.
 - Premiazko neurrien dekretua, 2008ko ekainaren 3koa, aurreko Legea garatzeko sustatutakoa (105/2008 Dekretua).
 - 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena.
 - 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza-estandarrei buruzkoa.
 - 211/2012 Dekretua, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzkoa.
 - 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.
 - 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzkoa.

- * Administrazio zentralak sustatutako xedapenak:
 - Lurzoru eta Birgaitze Legearen testuategina, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa.
 - Lurzoru Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa (1492/2011 Errege Dekretua).
 - Ingurumen-ebaluazioaren Legea, 2013ko abenduaren 9koa.

I.4.3.- Beste arlo batzuetako indarreko legeria

- * Errepide-arloko indarreko xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen 1989ko maiatzaren 30eko legea, geroztik hainbat aldiz aldatu edota osatutakoa, errepideei buruzko 37/2015 Legea eta 2006ko ekainaren 6ko Gipuzkoako Errepideen Foru Araua barne, besteak beste.
- * 6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa, 2019ko maiatzaren 9koa.
- * EAEko Natura Kontserbatzeko Legearen Testuategina (1/2014 Lege Dekretua, apirilaren 15ekoa) eta arloan indarrean dagoen gainerako araudia.
- * Irisgarritasuna sustatzeko Legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta bere garapenean sustatutako xedapenak.
- * Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 1998ko otsailaren 27koa, eta 2003ko uztailaren 22ko Dekretua, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena eta haren garapenean sustatutakoa. Aurreko xedapenei eta arlo horietan beraietan, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren Erregelamendua (1998ko irailaren 30eko Errege Dekretua) eta jakineko plan eta programa batzuek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzko Legea, 2006ko apirilaren 28koa, gehitu behar zaizkie.
- * Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 3koa.
- * Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorra, 2014ko maiatzaren 9koa.
- * 1/1998 Errege Lege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazio-zerbitzuetara sarbidea izateko eraikinetako azpiegitura komunei buruzkoa.
- * Martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Erregelamendua; ITC/1644/2011 Agindua, ekainaren 10ekoa.
- * Zaratari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 17koa, eta 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretuak, giroko zarata ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa lehena eta soinu-zonakatzeari, kalitatezko helburuei eta soinu-igorpenei buruzkoa bigarrena.
- * EAEko Kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren kalitate akustikoko helburuak.
- * 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzkoa.
- * 38/2015 Legea, 2015eko irailaren 30ekoa, trenbide-sektoreari buruzkoa.
- * 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- * 4/2015 Legea, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko.
- * 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.
- * 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.
- * 34/2007 Legea, urriaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzkoa.
- * 4/2005 Legea, emakume eta gizonezkoen berdintasunerakoa, 2005eko otsailaren 18koa.
- * 3/2007 Legea, 2007ko martxoaren 22koa, emakume eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.

- * Uren Legea, 2006ko ekainaren 23koa.
- * Garapen Iraunkorrerako Espainiako Estrategia, 2007ko azaroaren 23koa.
- * 524/2006 ED, apirilaren 28koa, aire zabalean erabiltzen diren makinek ingurunean sortzen dituzten zaratak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 ED aldatzen duena.
- * 45/2007 Legea, abenduaren 13koa, Landa Ingurunearen Garapen Iraunkorrerakoa eta 16/2007 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Landa Ingurunearen Garapen Iraunkorrerako Legearen osagarria.
- * Nekazaritza eta Elikadura Politikako Legea, 2008ko abenduaren 23koa.
- * 1514/2009 Errege Dekretua, urriaren 2koa, lur azpiko urak kutsaduratik eta narriaduratik babestea arautzen duena.
- * Abeltzaintza-ustiapenen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak xedatzen dituen Dekretua, 2009ko irailaren 22koa.
- * 1955/2000 ED, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena.
- * Eraikuntza-arloko indarreko xedapenak, 1999ko azaroaren 5eko Eraikuntza Antolatzeko Legea eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa barne.
- * Martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Erregelamendua; ITC/1644/2011 Agindua, ekainaren 10ekoa.
- * Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, eta etxebizitza-arloko indarreko xedapenak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar arautzen dituztenak barne.
- * Ley 21/2015, de 20 de julio, mendiei buruzkoa.
- * 48/60 Legea, uztailaren 21ekoa, aireko nabigazioari buruzkoa, abenduaren 29ko 55/99 Legeak aldatutakoa.
- * 21/2003 Legea, uztailaren 7koa, aireko segurtasunari buruzkoa.
- * Abenduaren 30eko 13/1996 Legeko 166. Artikulua.
- * 584/72 Dekretua, otsailaren 24koa, zortasun aeronautikoei buruzkoa, gaur egungo idazketarekin.
- * 2591/1998 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, interes orokorreko aireportuen eta horien zerbitzu-zonaren antolamenduari buruzkoa, gaur egungo idazketarekin.
- * 792/1976 Dekretua, martxoaren 18koa, Donostiako aireportuko zortasun aeronautiko berriak xedatzen dituena.
- * Sustapen Ministerioaren FOM/2617/2006 Agindua, 2006ko uztailaren 13koa, Donostiako Aireportuko Gida Plana onartzen duena.
- * 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- * 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialenerabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- * 4/2019 Legea, EAeko energia-jasangarritasunari buruzkoa.
- * 10/2019 Legea, Euskadiko establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

I.4.4.- Lurralde-antolamendurako indarreko tresnak.

Honako hau da behin betiko onartuta eta indarrean dauden gisa horretako tresnen zerrenda:

- * Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Behin betiko onespena: 2019ko uztailak 30.
- * Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatiko Plana, 2009ko irailaren 29ko 534 Dekretu bidez behin betikok onartutakoa.
- * EAeko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Kantauriar isurialdea), 1998/12/22koa, eta ondorengo aldaketak.



Urretxu

- * Trenbideen Azpiegitura antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2001eko otsailak 27, eta ondorengo aldaketak.
- * Energia Eolikoa antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2002ko maiatzak 14.
- * EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana, 2004ko uztailaren 27koa.
- * Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta ekipamendu komertzialak sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2004ko abenduak 21.
- * Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2009ko uztailak 21.
- * Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa (GAO 113. zk., 2013ko ekainaren 14koa).
- * Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana.Behin betiko onespena:177/2014 Dekretua, irailaren 16koa (EHAA 198. zk., 2014ko urriaren 17koa).

Orain arte sustatutako lurralde-antolamendurako beste tresna batzuk ez daude indarrean ez dituztelako behin betiko onartu (Etxebizitzen Sustapen Publikorako lurzorua antolatzeko LAP; Kultura Ondarearen LAP; etab.).

I.4.5.- Beste mota bateko planak, dokumentuak eta lanak

Udalerrirako proposatzen den ereduak Europar Batasunaren 2020ko Lurralde Agendak, 2011ko maiatzean onartutakoak, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendak, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailean onartutakoak ezarritako garapen jasangarriko helburuei erantzuten die, eta baita 2016ko urrian Quiton egindako Etxebizitzari eta Hiri Garapen Jasangarriari (Habitat III) buruzko Nazio Batuen hirugarren Konferentziaren ondoriozko Munduko Hiri Agenda Berriari ere.

Modu gehigarrian erantzuten dio Klima Aldaketari buruzko Parisko COP 21 goi-bileraren erabakiari (2015) eta ICLEI (jasangarritasunaren aldeko tokiko gobernuen nazioarteko sarea) eta Udalsareak (jasangarritasuneranzko udalerrien euskal sarea) 2016ko apirilean Bilbon onartutako "Euskal Adierazpenean" xedatutakoari. Euskal Adierazpena Hiri eta Herri Jasangarrien Europako Konferentziak adostutako Aalborgeko Gutun aitzindariaren oinarria da.

Testuinguru horretan, honela definitzen da "Euskal Adierazpena": Europako hiriak eta herriak jasangarriak, produktiboak, elastikoak, bizigarriak eta inklusiboak izateko ibilbide-orri berria.Horretarako, honako hauek lortzera bideratutako hainbat konpromiso proposatzen ditu: ekonomiari ikatzarekiko mendekotasuna kentzea eta efizientzia energetikoa sustatzea; mugikortasun jasangarria eta irisgarritasun unibertsala ahalbidetzea; biodibertsitatea eta ekosistemen zerbitzuak babestea eta hobetzea; lurzoruaren artifizializazioa mugaratzea; baliabideen kudeaketa jasangarria ahalbidetzea; klima-aldaketara egokitzea aurreikustea; elastikoak izatea; eremu publikoetan bizikidetzatzea eta segurtasuna bideratzea; ostatua eta etxebizitza eskaintzea; gizarteratzea sustatzea; tokiko lehiakortasuna eta enplegua sustatzea indarrean dauden EAEko Lurralde Antolamenduko Gidalerroak Berrikusteko prozesuan jasota dagoen bezala.

Beste plan eta dokumentu batzuen adierazgarri ere bada, eta horien zerrenda osoa eta itxia aurkezteko asmorik gabe, honako hauek aipa daitezke:



- * Hiriko eta Tokiko Jasangarritasunaren Espainiako Estrategia (2011).
- * Garapen iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- * EAEko Ingurumeneko IV. Esparru Programa 2020.
- * Ingurumeneko Ikuskapen eta Kontrol Plana 2011-2018.
- * Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategia.2007-2012-2020 epemuga.
- * Klima-aldaketaren Euskal Estrategia 2050.
- * Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (1/2016 ED, urtarrilaren 8koa).
- * Garraio Iraunkorraren Gidaplana.
- * Landa Garapeneko Programa (LGP) 2015-2020.
- * EAEko Geodibertsitatearen Estrategia 2020.
- * Euskadiko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- * Euskadiko Energiaren Estrategia 2030.
- * Euskadiko Baso Plangintza (1994-2030).
- * Euskadiko Hiri Agenda – Bultzatu 2050
- * Tokiko Agenda 21 deiturikoaren esparruan garatutako lanak.

Adierazitakoaz gain, kontuan izan dira IHOBEn Jasangarritasun Irizpideekin Hirigintza Plangintza Idazteko Eskuliburuko (2005) jasangarritasun-irizpideak eta -printzipioak eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Hiri Plangintzan Klima Aldaketa Arintzeko eta Klima Aldaketara Egokitzeko Neurriak (2015).

I.5.- Plangintza-irudiaren hautaketa

Planteatutako helburuak, hau da, udaleko hirigintza-plangintza orokorra (udal-plangintzako Arau Subsidiarioak) berrikusteak, 2006az geroztik xedatutako lege-testuinguru berrian, legegintza horretara egokitutako Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat formulatzea eskatzen du Urretxuko lurraldearen antolamendu osorako.

Gorabehera horiek kontuan hartuta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da tresnarik egokiena eta zehatzena aplikazioko lege-esparru berriaren arabera proposatutako helburua lortu ahal izateko.

I.6.- Dokumentuaren idazketa eta izapidetzea. Informazio publikoa eta herritarren parte-hartzea

I.1 atalean aurreratu den bezala, Urretxuko Udalak 2012an onartutako Arau Subsidiarioak berrikusteko lanei ekitea eta HAPO bihurtzea erabaki zuen, aplikazioko lurzoru eta hirigintzaren legeria berrira egokituta. Horretarako, 2016. eta 2017. urteen artean, 2012ko Arau Subsidiarioak aztertu zituen aurretik, eta horren ondorioz, aldaketa bana izapidetu eta erabaki bat hartu zen Lizeoa eremuaren inguruan, berrikuspen-prozesua hastea ahalbidetzeaz gain.

Halaber, 2018ko martxoaren 20an, Alkatearen Dekretu bidez, Herritarren Parte-hartze Programa onartu zen.

Lanak 2018ko urtarrilean hasi ziren, eta 2018ko martxoan, informazio- eta diagnostiko-dokumentu bat idatzi zen, eta, 2018ko apirilean, Plangintza Aurrerakina eta Planaren ingurumen-ebaluazioa hasteko dokumentua aurkeztu ziren.



Dokumentu horiek kontsultak ahalbidetu zituzten, eta Udalak 2018ko apirilaren 26ko osoko bilkuran erabakita, jendaurrean jarri ziren lehen aldiz 2018ko maiatzaren 11n, orduan argitaratu baitzen erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Testuinguru horretan, HAPOn erakusketa bat antolatu zen Udaletxe azpian, herritarrei irekia, eta egindako lanen berri emateko hitzaldi bat antolatu zen 2018ko maiatzaren 22an. Halaber, Herritarren Parte-hartze Programaren arabera, Udalak kontsulta publiko bat egin zuen herritarren iritzia ezagutzeko bere web atariaren bitartez.

Bestalde, indarreko araudian xedatutakoaren arabera, Aurrerakina udal mugakideei ere pasatu zitzaion (Antzuola, Legazpi eta Zumarraga), eta orain arte ez da inolako jakinarazpenik jaso udal horien aldetik.

Aipatutako kontsulten eta jendaurreko erakusketaren ondorioz, 17 iradokizun-idazki eta zenbait txosten sektorial jaso ziren. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentuak GI-631 errepidearen ipar-lotuneari buruz 2017ko maiatzaren 16an egindako idatziak eta txostenak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2018ko maiatzaren 18an egindakoa, Eusko Jaurlaritzako Ondare Naturalaren eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak 2018ko maiatzaren 29an egindakoa, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 2018ko ekainaren 4an egindakoa, IHOBek 2018ko ekainaren 11n egindakoa, URAk 2018ko uztailaren 18an egindakoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2018ko uztailaren 26an egindakoa eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2018ko uztailaren 30ean egindakoa. Gainera, udalak eskatuta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak udalerriko babes zibilaren arloko arriskuei buruz 2018ko urtarrilaren 23an egindako txostena ere jaso zen.

Bestalde, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren testuinguruan, ingurumen-organoak irismeneko dokumentua egin zuen 2018ko urriaren 8an. Behin hori jasota eta aztertuta, lan-bilera bat egin zen aipatutako organoarekin.

Hala, 2018ko azaroan, txosten bat idatzi zen herritarren parte-hartze eta ingurumen-izapidetze prozesuan ordura arte jasotako iradokizunen, kontsulten, dokumentuen eta txostenen inguruan.

Txosten horrek eztabaida-prozesu bat ireki zuen Udalean. 2019ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Plan Orokorra idazteko irizpideak eta helburuak berretsi ziren. Erabaki horri dokumentu honek erantzuten dio eta memoria honetako I. Eranskinean dago.

Erabaki hori kontuan hartuta, talde idazlaria lanean aritu zen, udal-zerbitzu teknikoekin batera, HAPO berria formulatzeko eta, aldi berean, zenbait hirigintza-batzorde egin ziren aukera desberdinak ikuspuntu askotatik aztertzeko eta eztabaidatzeko. Prozesu horri esker berretsi da indarreko Arau Subsidiarioak berrikusteko eta horien ondorio diren hirigintzako egoerek sortzen dituzten gatazka desberdinak konpontzeko eta irtenbide berriak proposatzeko premia.

Lan horrek emaitzak eman ditu eta, aipatutako udal-erabakiari erantzunez, 2019ko martxoaren 25eko hirigintza-batzordean, HAPO dokumentu honetan jaso diren hartu beharreko plangintza-irtenbideak zehaztu ziren. Irtenbide horiek alderdi batzuetan zehaztu dira geroago, hain zuzen ere, udal Plangintzako Aholkularitza Kontseiluak 2019ko apirilaren 16an Plan Orokorrari buruz egin zuen bileran.

Arestian aipatutako prozesuaren ondorioz, 2019ko martxoaren 25eko hirigintza-batzordean 2019ko apirilako data daraman dokumentuan jasotako plangintza-soluzioak zehaztu ziren. Dokumentuari hasierako onespena eman zitzaion eta jendaurrean egon zen 2019ko maiatzaren 13ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, lehendik dauden kokalekuak berroneratuz eta lurzoru berrien artifizializazioa saihestuz udalerraren premiei erantzuteko helburuarekin.

Dokumentua jendaurrean jartzearen ondorioz, bederlatzi alegazio-idazki aurkeztu ziren, bai eta beste hainbeste txosten sektorial ere, eta eztabaidak aurrera jarraitu zuen.

Hori guztia kontuan hartuta, prozesua urtebetetzatzen ondoren, Udalak egindako batzorde eta bileretatik atera denaren arabera, 2020ko martxoan txosten bat idatzi da prozesuari buruz, eta horren arabera idatzi da HAPOren dokumentu berri hau, Udalbatzak onar dezan eta jendaurrean jar dadin.

Dokumentua izapidetzerakoan, epe laburrera Urretxurako Plan Orokor berri bat behar dela nabarmendu da, aplikagarri den legedira egokituko den eta udalerrirako etorkizunerako proiektu bat eskainiko duen plan berri bat, indarrean dauden eta jada agortuta dauden Arau Subsidiarioak ordeztuko dituena.

I.7.- Proiektuaren edukia

Proiektu honek indarrean dagoen hirigintza-legeriak eskatutako zehaztapenak eta dokumentuak jasotzen ditu. Hain zuzen, Hiri Antolamenduko Plan Orokor honetan sartutako dokumentuak honako hauek dira:

- * "A" Dokumentua. Memoria.
- * "B" Dokumentua. Hirigintza Arauak eta Hirigintza Ondarearen Katalogoa.
- * "C" Dokumentua. Ekonomia Azterlana – Jarduketa Programa.
- * "D" Dokumentua. Planoak.

"A. Memoria" dokumentuak honako osagai hauek ditu: batetik, memoria orokorra, planteatutako proposamenen deskribapena eta justifikazioa eta behar den informazioa jasotzen dituena, planteatutako antolamenduaren eta hura egikaritzearen zioa gehituta (A.1), garapen iraunkorraren printzipioan oinarrituta, genero-ikuspegia eta hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa ere kontuan hartuz; bestetik, hirigintza-eraikigarritasun minimoaren eta maximoaren muga arautzaileak betetzeari buruzko eta dokumentua indarreko lurralde-plangintzari egokitzeari buruzko memoria justifikatzailea (A.2); eta azkenik, ingurumen-jasangarritasun estrategikoari buruzko nahitaezko txostena (A.3). Txostena idazteko berariaz hartu dira kontuan Ingurumen Organo eskudunaren jarraibideak, klima-aldaketa, jasangarritasun energetikoaren azterketa eta nekazaritza-sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa ere kontuan hartuta.

"B. Hirigintza Arauak" dokumentuak hiru zati ditu, ondo bereizitakoak baina osagarriak direnak. Lehenengoa bat dator "Arau Orokorrekin", beraietan azaldutako baldintzetan udalerr osoan aplikatu daitezkeenekin. Bigarrena bat dator "Hirigintza Eremuen Arau Partikularrekin", haien hirigintza-erregimen espezifikoak definitzen dutenekin. Hirugarren dokumentuak Hirigintza Ondarearen Katalogoa jasotzen du, hau ere arauemailea dena. Udalerrian dauden eta beraien interes artistiko, kultural, historiko, ekologiko edo naturalistikoagatik zaindu eta babestu egin behar diren elementu eraikiak edo naturalak zein diren adierazten du.

"C. Ekonomia Azterlana – Jarduketa Programa" dokumentuak proposamenaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterlana jasotzen du plana egikaritzeko ikuspegi jakin horretatik (C.1), ekonomia-jasangarritasunezko nahitaezko memoria edo txostena (C.2), eta baita proposamena garatu eta egikaritzeko programazioaren dokumentazio adierazlea ere (C.3).

"D. Planoak" dokumentuak, bestalde, dagokion dokumentazio grafikoa du eta honako hauek bereizten dira: informazio-planoak (I), proiektuko planoak eta ingurumen-ebaluazioarenak (II-tik VI-ra) eta, azken horien barruan, egitura-antolamendukoak (II), antolamendu xehatukoak (III), hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileenak (IV), hirigintza egikaritzeko baldintzenak (V), eta Katalogoari dagozkionak (VI). Modu gehigarrian, antolamendua adierazteko irudia gehitu da (VII). Planoak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ortofotoetan eta kartografian oinarritu gara, eta baita udalak emandako hiri-eremuen kartografian ere.

Laburpen-dokumentua ere idatzi da.

Aipaturiko dokumentuek osatzen dute Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokor hau, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006ko Legeko 62. artikuluan berariaz xedatutakoarekin bat etorritik.

II.- ANTOLAMENDU-PROPOSAMENA.

II.1.- Diagnostiko-sintesia

Udalak 2016-2017 aldian egindako lanari eta 2018ko urtarriletik orain arte egindako lanei esker, diagnostiko bat egin dugu Informazio eta Diagnostikoko dokumentuen, ingurumen-prozeduraren hasierako dokumentuaren, Plangintza Aurrerakin dokumentuaren eta jendaurrean jartzeko prozesuaren txostenen edukian oinarrituta, izan ere, horietara jo genuen orain arte I. atalean berariaz zehaztu den informazioa osatzeko.

Prozesuaren ondorioz, Udalak Urretxuko plangintza orokorra berrikusteko hartutako erabakia diagnostiko honetan nabarmendu behar den lehen alderdia da, izan ere, etorkizun hurbilerako proiektu bat izateko premiaren eta, batik bat, proiektu hori izateko borondatearen froga argia da.



Nabarmendu beharreko bigarren alderdia, Urola Garaian eta, bereziki, Urretxun, ekonomia-jardueretarako eta balizko bizitegi-garapen berrietarako lurzoru-erabilgarritasunaren inguruan ikusitakoa da. Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Ekipamendu Komertzialak sortzeko Lurralde Plan Sektorialak, 2004an, egoera hau deskribatu zuen eskualdean: jardueretarako lurzoru egokiaren falta ikusten zenez, lurzoru berrien prestaketa sustatzen zuen. Egungo egoeran, aldiz, lurzoru berrien prestaketa bultzatzeaz gain, hiri-bilbeetan kokatutako lurzoru artifizializatu zaharkituak daude, arazoa sortzen dutenak baina, aldi berean, berroneratzeko aukera eskaintzen dutenak. Hala, hori dela eta, ekonomia-jardueretarako lurzoru egokia dago (Irimo eta Kaminpe), eta, aldi berean, indarreko udal-plangintzak 300 etxebizitza berriko eskaintza du (Lizeoa eremuan aurreikusitakoak alde batera utzita), eskaintza horretan birdoitzeak egiteko ikusitako aukeraren eta behararen kalterik gabe.

Nabarmendu beharreko hirugarren alderdi bat, epe laburrera Santa Luzian (Beasain-Zumarraga korridorean) Euskal Trenbide Sare Berriko geltoki bat martxan jartzea aurreikusteak eskaintzen duen aukera da. Hiru euskal hiriburuetako Eremu Funtzionaletarako proiektatutakoez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako bakarra da eta, gainera, hiriburuen erdigunean dago kokatuta. Geltoki horrek eskain ditzakeen aukerak estrategikoak izan daitezke Goierriren, Urola Garaia eta Urretxuren etorkizunerako. Horretarako prestatzea interesgarria da, nolatan ere.

Nabarmendu beharreko laugarren alderdia Urola Garaia eta, bereziki, Urretxuren bokazio ekintzailea da, esku artean dugun testuinguruan kontuan izan beharreko aktibo gehigarria, bere gizarte- eta elkarre-ehuna den bezala.

Nabarmendu beharreko bosgarren alderdia dokumentu honetan aipatu diren aldaketa demografikoen behaketatik ateratzen dena da. Behaketa horien arabera, azken urte hauetan Urola Garaia gaintu egin du Oria Garaia biztanleriari dagokionez. Gipuzkoako beste zona batzuetarantzko emigratio-prozesua gertatzen ari dela ikusi da, lurraldearen harrera-ahalmenaren eta xede horretarako susta daitezkeen ekintzen ondorioz alderantzikatu litekeena.

Eta horretarako, nabarmendu beharreko seigarren alderdi bat da Urola Garaia ingurumen-nolakotasuna. Urola Garaia erakargarria da bertakoentzat nahiz bertan finkatzea aukeratzen dutenentzat, joan zen mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan gertatu zen bezala. Ingurumen-nolakotasun hori asko hobetu daiteke horretarako behar diren neurriak aurreikusiz eta ildo horretan ari da lanean Tokiko Agenda 21etik eta mugikortasun- eta irisgarritasun-arloan onartutako planekin. Plan Orokorra Urretxu erakargarriago egiteko beste tresna bat izan daiteke.

Bestalde, ziurgabetasun handiko egoera batean, etorkizunera begira dudarik gabe eragina izango duen alderdi bat lidergo-gaitasuna izango da, hein handi batean udalari dagokiona, eta baita proiektu bideragarri bat proposatzeko gaitasuna, herritarren babesa eta ahalik eta adostasun handiena izango duena, behar diren inbertsioak erakartzea lortzeko sinesgarritasuna eta konfiantza bereganatuz.

Ikusitako hirigintza-kulturak aktibo bat gehiago izan behar du esku artean dugun testuinguruan.



Erdigunean, bestalde, ekonomia-jarduerak daude: merkataritzakoak, industrialak edo askotariko hirugarren sektorekoak, batez ere bizitegi-erakinen beheko solairuetan kokatuta. Jarduera horiek hurbiltasuneko merkataritza-ehun garrantzitsuaz hornitzen dute udalerria.

Testuinguru horretan, Planaren epemugan demografia-ikuspegitik gerta daitekeenaren kalterik gabe, Plana idazteko ikuspegitik, planteatu da sor daitezkeen aukerak aprobetxatuz udalak dituen beharrei erantzun ahal izateko egoera bat bultzatzea, prozesu horiek Udaletik zuzenduz.

Argi dago ziurgabetasun asko direla. Hala ere, Plan Orokor berriak aurre egin beharko dio erronkari, eta ildo horretan udal-proiektu bat edukitzeko nahikoa izan ez arren, beharrezkoa den tresna da.

Une honetan bizi dugun egoera zailakpizgarria izan behar du, beste behin ere, herritarren premiei erantzuteko, eta proposatzen den proiektua dinamizatzen lagunduko duen gizarte- eta ingurumen-kontzientzia handiagoa ekarriko duen aldaketarako aukera ere izan behar du.

II.2.- Udal-irizpideak eta -helburuak.

II.2.1.- Udalak hartutako erabakiak

2019ko urtarrileko osoko bilkurara bertaratutakoek irizpideak eta helburuak berresteko aho batez hartu zuten erabakiak, memoria honetako 1. Eranskinean oso-osorik jaso denak, "epe laburrean Arau Subsidiarioak ordezkatzeko dituen Plan Orokor berria izateko premiari eta aukerari eusten dio, lehendik dagoen hirigintza-egoera arautu ahal izateko eta udalerraren etorkizunerako proiektu bat eskaintzeko."

Testuinguru horretan, plangintza Aurrerakinaren proposamena ere berretsi zen, HAPO idazteko prozesuari lotuz, ordea, hartu beharreko irtenbideen zehaztapena.

Bereziki, erabaki horrek irizpide eta helburu hauek nabarmentzen ditu:

- "Lurzoru berriak okupatzea saihesten da, baina udalerraren premiei erantzuten zaie lehendik dauden asentamendu batzuk eraldatuz". Horrela, lurzoru berriak artifizializatzea ekiditen da.
- Erabiltzen ez diren lurzoru artifizializatuak biziberritzea jarduera ekonomikoak, batez ere industrialak hartzeko, horretarako, erabileren ezarpena ondo arautuz.
- Bizitegi-eskaintza zehaztea lurralde-antolamenduaren arloko aplikazioko zehaztapenek finkatzen duten urkilaren barruan.
- "Mugikortasun iraunkorra kontuan hartuko duen hiri-eredu bat bultzatzea".

Dokumentu hau zehazteko prozesuan udal-etzabaidatik ateratako soluzioak aukeratu dira, 2019ko martxoaren 25eko hirigintza-batzordean egin zuten haien alde eta, geroago, Plan Orokor berriari buruz udalerriko plangintzako Kontseilu Aholkuemaileak 2019ko apirilaren 16an egindako bileraren testuinguruan eta 2019ko maiatzaren 13ko hasierako onespeneko osoko bilkuraren erabakian.

Era berean, Plana jendaurrean jartzeko prozesutik eta haren lantze-mailatik ondorioztatutako guztia hartu da kontuan, eta 2020ko martxoan horri buruz egindako txostenean islatu da.

Hala, irizpide eta helburu horiei gehitzen zaizkie parkeetara eta berdeguneetara bideratutako espazio libreen sistemaren berrantolaketa eta landa-lurzoruaren erregimenaren erregulazioaren zehaztapen berria.

II.2.2.- Plangintza-aurrerakinean ezarritako beste udal-irizpide eta -helburu batzuk

Lortu beharreko lehen helburu gisa udalerria hiri- eta ingurumen-ikuspegitik birkalifikatzea proposatzen da, Urretxuren erakargarritasuna hobetzeko eta biztanleak bertan geratzen eta erakartzen laguntzeko helburuarekin.

Hirigune ondoko Euskal Trenbide Sare Berriko geltoki berriak eskaintzen dituen, eskain ditzakeen edo eskain ditzan lor daitekeen aukerak helburu hori lortzea erraztu dezaketen aukera bat dira.

Horretarako, udalerriko ekonomia-jarduerak finkatu beharko dira eta beste berri batzuk ezartzea bideratu beharko da; eta baita bizitegi-parkea ere, birgaituz eta bizitegi-garapen berriak ahalbidetuz. Horretarako lur egokia dago.

Horrela, jarraipena eta indarra eman ahal izango zaio udalerrian gertatzen ari den hiri-eraldaketari indarrean dagoen udal hirigintza-plangintzaren, Urretxu eta Zumarragaren baterako hiri-mugikortasun jasangarriaren planaren eta berriki eguneratutako tokiko irisgarritasun-planaren babespean. Udalerria horretan ari da lanean.

Hala ere, ezinbestekoa da udalaren lidergoa, lehenbizi, egin beharreko hiri-berritzea eta -berroneratzea bideratzen dituen zehaztapenean eta, gero, kudeaketan, udalerriak aurre egin beharreko goerak eskatzen duen bezala.

Lurzoru arloan eta hiri-berritze, -berroneratze eta -birgaitze arloan onartutako estatuko legeria berriak jarduketa-lerro horretan eragiten du. Lerro hori, bestalde, hasiera emandako hiriko eraldaketa-prozesuari amaitu arte jarraipena ematean oinarrituko da eta lurzoru berrien artifizializazioa erabat ekidinez, antolamendu-irizpide jasangarriei jarraituz.

Bestalde, egindako diagnostikoari, egiten ari den berrikuspen-prozesua eskatzea eragiten duten aurretiko planteamenduei eta bideratutako berrikuspen-prozesuan ateratzen ari denari erreparatuta, honako hauek dira, besteak beste, proiektuaren lanketan kontuan izan beharreko funtsezko helburuak:

- Garapen iraunkorrako bide emango dion lurralde-eredua ahalbidetzea, hirigunearen erabilerearen optimizazioan oinarrituta, egokia den tokietan erabilera-intentsitate altuak eta,aldi berean, zentzuzkoak aurreikusiz, ekonomia-jarduerak dibertsifikatuz eta bizitegi-erabilerekin modu bateragarrian txertatuz. Horretarako, mugimendu ez-motordunak eta garraio kolektiboaren bultzada ahalbidetuko dira.



- Testuinguru horretan biodibertsitatea finkatzen eta lehengorutzen ere ahalegintzea, edozein kasutan, udalerriko biztanleengan eta ondorengo belaunaldietan arreta berezia jarritz, batez ere horien osasunean.
- Udalerriko bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, hirigunearen erabilera optimizatuz eta dibertsifikatuz, ondare eraikia eta urbanizatua berrituz eta balioztatuz, ekipamendu-zuzkidura finkatuz, abian jarritz eta handituz, landa-eremuaren erabilera-baldintzen erregulazioarekin inguruneari balioa emanez eta hirigunea Urola ibai aldera irekiz, inguru horretan aisialdirako gune nagusia eta Urretxu eta Zumarragako hirigunearen ardatza bilatuz.
- Biztanle egoiliar gazteak finkatzea eta biztanle gehiago erakartzea. Horretarako, behar adinako lurzoru-eskaintza egingo da kokapen-, prezio- eta tipologia-baldintza egokietan, lehendik dagoenaren eta lurraldearen gaitasunaren erlazio egokian.
- Errenta-mailei eustea eta horiek handitzea, lehendik dauden ekonomia-jardueren premiak, behar diren lekualdaketak barne, eta beste ekimen batzuk hartzeko ahalmena duen lurzorua prestatuz, industria-jardueren ezarpena eta hirugarren sektorearen garapena ahalbidetuz, batez ere enpresentzako zerbitzuekin, ikerketarekin, garapenarekin eta berrikuntzarekin, turismoarekin, aisiarekin eta ostalaritzarekin zerikusia duenarena, eta baita merkataritza ere hirigunearen dinamizatzaile gisa, eta lehen sektorearen eta lehen sektore horretatik zuzenean eratorritako jardueren hobekuntza aintzat hartuz.
- Udallerriaren gizarte-ongizatea hobetzea, biztanleen integrazioa, konfiantza eta segurtasuna, osasuna, kultura eta hezkuntzarako sarbidea, zuzkidurak, ekipamenduak, etxebizitza eta herritarren oinarritzako gainerako eskakizunak bermatuz eta, aldi berean, kontsumoa kontrolatuz eta gizarte-ongizatea "murriztea" eragingo ez duen oreka bilatuz
- Berdintasuna eta, bereziki, genero-berdintasuna bermatzen duten neurriak hartzea, "puntu beltzak" ekidinez eta behar diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak ahalbidetzen dituzten neurriak aurreikusiz.
- Ahal izanez gero udalerrri barruan lekuz aldatu behar diren industria-jardueren lekualdaketa ebazteko oinarriak finkatzea.
- Hirigune historikoa birgaitzeko prozesuari jarraipena ematea eta Aparicio, Mundu Mejor eta Santa Barbara auzoen birkalifikazioa aurreikustea haren hiri-berroneratzerako baldintzak errazteko xedez, eta beste eremu batzuen hiri-erlaldaketari ekitea Ipeñarrieta, Labeaga eta beste hainbat kaletan.
- Lehendik dauden industria-garapen gehienak finkatzea, ekimen horiek bizitegi-garapenekin bateragarriak diren eta horietan kokatuta dauden edo independenteak diren baina hiri-bilbearen jarraian dauden beste tipologia bateko ekonomia-jardueretarako lurzorua prestatzearekin osatuz, nahasketa, dibertsitate eta konplexutasun handiagoko hirigunea lortzeko xedez.

- Espazio libreen sistema birdefinitzea, Urola ibaian eta horren ezker aldean sistemaren ardatz eratzailera bilatuz.
- Ekipamendu-zuzkidura hobetzea, lehendik dauden zuzkidurak osatzea eta horien eraginkortasun handiagoa errazten duten partzela berriak aurreikusiz.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduko baldintzak arautzea, landa-sektorea hobetzea eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimen berriak txertatzeko.
- Udal-lurraldera iristeko baldintzak hobetzea, motordunentzat nahiz ez-motordunentzat. Baita hiriko mugikortasuna, irisgarritasun unibertsala, aparkalekua eta garraio publikoa hobetzea eta bizikleta-sarea osatzea.
- Aipatutako helburuei erantzuna ematea ingurumen-ikuspegitik iraunkorrek diren soluzioen bitartez eta, horrela, ondorengo belaunaldien etorkizuna bermatzea. Hemen txertatuko dira baita ere energia aurrezteko proposamenak, zerbitzu-azpiegituren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzera bideratutakoak (argiteria publikoa, etab.) nahiz teknologia berriak herritar guztien zerbitzura jartzekoak.
- Proposatu beharreko soluzioak udalaz gaindiko ikuspegitik sustatzen direnekin txertatzea eta koordinatzea.

Funtsezko oinarri horien gainean, dokumentu honetan honako irizpide hauek planteatzen dira udal-lurraldearen gaineko esku-hartzeari dagokionez:

- Hiri-izaerako erabileretarako lurzoruaren kontsumoa minimizatzea, hautemandako premietarako erantzun zehatzera mugatuz eta aurretik dagoen hiriguneak eskaini ditzakeen baliabideen erabilera optimizatuz.
- Landa-izaerako lurzoruko esku-hartze, erabilera- eta eraikuntza-erregimena arautzea, aipaturiko inguruneak berezkoak dituen balioak babestuz, biodibertsitateari lagunduz, lehen sektorearen garapenarekin, kalitate bereziko lurralde baten gozamenarekin eta paisaiaren antolamenduarekin lotutako produktibitatea bultzatuz eta landa-sektorearen balizko birmoldaketa eragingo duten ekarpenak egiteko gai diren ekimenak txertatuz (balio hidriko eta geologikoak balioetsi edo lurzoru artifizializatuak lehengoratu, esaterako, Iturbe behekoa baserri inguruko ibarbidea).
- Hiriguneko lurzoruaren erabilerak arautzea, dibertsitatea eta nahasketa bultzatuz, baldin eta bateragarriak badira; eta euren kokapen orekatua sustatzea.
- Udalerriaren irisgarritasuna eta udalerria bere lurralde-testuinguruan txertatzea bermatuko dituzten bide-azpiegiturak eta zerbitzu-azpiegiturak (telekomunikazioak, gasa, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria publikoa, saneamendua, etab.) ezartzea.
- Behar diren tokiko ekipamenduak garatzea.

- Horretarako guztirako, eraikitako eta urbanizatutako ondarea birgaitzea, beharrezkoak diren hiri-eraldaketa eta -berroneratzeko esku-hartzeak ahalbidetuz.
- Industriako edo hirugarren sektoreko ekonomia-jarduerak ezartzeko lurak zehaztea.
- Urretxuko plangintza Lurralde Antolamenduko tresnekin (LAA, LZP, LAP, etab.) eta udalerrri mugakideetako (Zumarraga, Legazpia, Antzuola) plangintzekin koordinatzea.

Aipatutako irizpideak ez daude kontraesanean udalerrria txertatuta dagoen Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planean jasotakoekin.

Hala, plangintzak erantzuna eman behar dio lurralde-antolamenduak planteatzen duen ereduari hirigintza-antolamenduko xedapenak zehaztuz, lehendik dauden erabilerak eta lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuta behar diren erabilerak arautuz eta lurraldean txertatuz eta aipaturiko irizpide eta helburuei erantzuna emanaz.

Horrenbestez, HAPO honek irtenbide zehatzak proposatzen ditu udalerrri osorako, aipaturiko helburuak eta irizpideak txertatuz. Helburu eta irizpide horietan, nahitaezkoa zen bezala, dagoeneko txertatu dira, zuzenean edo zeharka, ingurumen-aldagaiak.

Aldi berean, ingurumen-ebaluazio estrategikoa erantsi da, Ingurumen Organo eskudunak egindako irismeneko dokumentua kontuan hartuta.

Irtenbide horiek ondoren deskribatuko dira eta, aldi berean, dokumentu hau osatzen duten planoetan irudikatuko dira.

Lehen adierazi den bezala, aipatutako helburuek bigarren maila batean uzten dituzte aintzat hartu beharrekoak diren beste helburu batzuk, hala nola udal-plangintza orokorra lurzoruari eta hirigintzari buruzko estatuko nahiz EAEko legeria berrira, eta LAGeko zehaztapenetara egokitzeko lege-betebeharra.

Diagnostikatu den bezala, Urretxuk hiri-erakarpenerako ahalmena handitzea behar du, ekonomikoki garatutako gizarteek gaur egun eskatzen duten ingurunearen kalitate-eskaerari erreparatuz, eta hiri-berritzea eraldaketa handiago baten elementu katalizatzailea izango duen plana eskatzen du. Hori da datozen urteetarako gako-erronka. Kontua da identifikatuta dagoela eta udala martxan jarri dela erronkari aurre egiteko.

Dena den, hemen berriro esan behar da Plan Orokor berria beharrezko dokumentua bada ere, ez dela nahikoa, izan ere, udal-lehentasunek eragin beharko duten ondorengo egikaritzea eta beste osagai batzuk beharko baititu, beste administrazio batzuen inplikazioa eta inbertsio pribatua barne.

Azkenik, munduko Hiri Agenda Berria inplementatzeko sustatutako 2018ko otsaileko Kuala Lumpurreko Hiriei buruzko Adierazpenean (2030) xedatutakoaren arabera, formulatu beharreko

proposamenek hiri seguru, osasungarri, irisgarri eta jasangarria ahalbidetu behar dute denentzat. Hori da erronka.

Ildo beretik doa EAEko jasangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legea. Dokumentu honek Lege hori betetzen du eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan erasten du jasangarritasun energetikoko azterlana.

Horrela planteatutako erronkak aliatu bat aurki dezake udalerriko bizitegi-merkatuaren eta ekonomia-jardueren merkatuaren prezioetan, Gipuzkoako batez bestekoa baino baxuagoak baitira.

HAPO honek irizpide eta helburu horiei erantzuten die, eta udal-barruti osoa antolatzea du xede (I.2 plana).

II.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko LAGek xedatutako irizpideak.

2019ko uztailaren 30ean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) oso-osorik sartzten dute Urretxuko udalerrria Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionalean, eta eremu funtzional horretako komunikabideen oinarriko azpiegiturak nabarmentzen diren lurralde-eredua ezartzen dute. Horien artean proposatutako bide- eta trenbide-trazatu berriak nabarmendu behar dira. Bat datoz, hurrenez hurren, A-636 errepide berriarekin eta udalerrria eta bere hirigunea lurpean zeharkatuko dituen Euskal Herriko Trenbide Sare Berriaren trazatuarekin.

LAGek, bestalde, dinamizazio-ekimenak aurreikusten dituzte guneko historikoak lehengoratzearen eta horien balioa nabarmentzearen inguruan eta baita hiri-berroneratzeko estrategiak ere. Aldi berean, zeharkako estrategiak txertatzea eskatzen dute.

Lehendik dagoen edo proposatu den hirigunetik kanpo bizitegi-erakin autonomo berria debekatzea ere aurreikusten dute.

Plan Orokorra kontuan izan behar duen gehieneko bizitegi-kuantifikazioaren zehaztapena ere ezarri dute.

Horren arabera, Urretxurako bizitegi-eskaintza berria denbora-epe hurbilerako eskaini beharreko gehieneko 690 etxebizitzatan ezarri da.

Aurrerago ikusiko den bezala, HAPO honek ondoriozko aplikazio-zehaztapenei erantzuten die.

II.4.- Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionaleko LZPetik eratorritako irizpideak.

Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatikoa (LZP), 2009ko irailaren 29ko 534 Dekretu bidez behin betiko onartutakoa.

LZP horrek eskualdeko buruak adierazten ditu eta horietako bat Urretxuk eta Zumarragak osatzen duten hiri jarraituarekin bat dator eta bizitegi-garapen berriak, jarduera ekonomikoak eta udalaz gaindiko ekipamenduak kokatzeko eremu gisa identifikatzen da.



LZPK Urretxuko gune historikoa babestea eta birgaitzea planteatzen du eta Zumarragan kokatutako tren-geltokiaren ingurunean hirugarren sektoreko eremu bat antolatzea aurreikusten du, trenbide-zabalgunea birkalifikatzeko eta Bateragarritasun Plan baten bidez zehaztu beharreko autobus-geltoki bat ezartzeko operazioari lotuta.

Halaber, etxebizitza-kuantifikazioari dagokionez, udalerriko Plan Orokorra Zumarragako plangintzarekin koordinatuta formulatzea planteatzen du, dagokion Bateragarri egiteko Plana ere prestatuz.

Dena den, Urretxun antolatu beharreko bizitegi-eskaintza zehazten du, zortzi urteko epemugarako 385 eta 770 arteko urkilan kokatuz.

LAGEi buruz arestian aipaturikoaren arabera, harik eta LZP 2019an onartutako LAGetara egokitzen ez den heinean, kuantifikazio hori ezin dela aplikatu adierazten da eta arestian aipaturikoak ordeztzen duela.

LZPK, bestalde, Santa Barbara-Ipeñarrieta hiri-inguruneako parkerako proposamenak formulatzen ditu, Irimo mendian aisia- eta atseden-eremuak eta udalerrian ingurumen-ibilbideen sarea aurreikusiz.

Hala ere, Goierriko LZP onartu zenetik hamar urte baino gehiago igaro diren arren, dokumentu hori ez dela berrikusi eta ez dela lehen aipaturiko esparru berriraegokitu eta, aldi berean, Urola Garaian ez dela bateragarri egiteko planik abiatu, Zumarragako geltokiaren ingurunerako ez dela proiektu zehatzik formulatu eta kasu bakoitzean eskumena duen udalaz gaindiko lurralde edo arloko administrazioak Irimo mendiko aisia- eta atseden-eremua handitzeko lurzoruaren kudeaketan aurrerapenik ez dela egin adierazi da.

Koiuntura horretan, lurzoru urbanizaezin berriak aurreikusi gabe hirigunean esku hartzera mugatzen den HAPO honen proposamenaren norainokoari erreparatuta indarreko Arau Subsidiarioen zehaztapenen oinarriaren gainean, uste da HAPOk ez duela esaten LZPren zehaztapenen kontrakoa eta planteatzen denak bateragarri egiteko planik ez duela behar ulertzen da.

II.5.- Lurralde Arloko Planetatik eratorritako irizpideak.

Honako hauek dira Urretxuko udalerrian eragina duten eta indarrean dauden Lurraldearen Arloko Planak: Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien eta erreken ertzak antolatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Jardueretarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzekoa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzekoa eta Nekazaritza eta basoak antolatzekoa, azken hau oraindik argitaratu gabea.

Lehenengoak ibilguen babesa arautzen du eta, horretarako, ibilguen eta ibaiertzen babesa bermatzen duten neurriak xedatzen ditu.

Bigarrenak, Ekonomia Jardueretarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Planak, ekonomia-jardueretarako lurzoruaren antolamendu eta hirigintza-sustapenerako lehentasuneko interesekotzat jotzen du udalerria. Bestalde, merkataritza-ekipamenduei buruzko dokumentu horretako zehaztapenak aldatuta daude gai horren inguruan emandako epaiaren harira, eta 10/2019 Lege berria aplikatu beharko da, Euskadiko establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.



Hirugarrenak Euskal Trenbide Sarea du xede, egungo sarea finkatuz eta, aldi berean, Euskal Trenbide Sare Berriaren trazatua proposatzen du, udalerrria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duela azalduz, oso-osorik lur azpiko trazatua badu ere, mendebaldean Antzuolako udal-mugaratean eta ekialdean Ezkio-Itsason azaleratzen delarik.

Laugarrenak eragin berezia du udalerrian, Deskarga inguruko Garbigunea bertan dagoen arren.

Bosgarrenak Gipuzkoako lurralde historikoko bizikleta-bidearen diseinua proposatzen du, hain zuzen ere Urretxuko hirigunean gurutzatzen diren bi ibilbiderekin: Urolako bidea, Urola Garaian ia osorik egikaritutakoa eta Beasain-Bergara bidea, oraindik egikaritu gabea. Azken horretatik lotura bat aurreikusten da Santa Barbara parkearekin, eta azken horretatik Urretxuko hirigunearekin, baina egikaritu gabe daude. Horien zehaztapenak II.1 planoan daude irudikatuta.

Seigarrenaren xedea landa-lurraldea da eta lurralde horren kategorizazioa aurreikusten du, Urola ibaiaren ibarreko balio estrategiko handiko lurrak identifikatuz udalerrriaren iparrean. Bere zehaztapenak dokumentu honetako II.1 planoan daude jasota, aurrerago aipatuko den bezala osatuta.

HAPO honek aipaturiko planen proposamenak jasotzen ditu.

II.6.- Bizitegiak kuantifikatzeko irizpideak.

Udalerriak, gaur egun, 3.000 etxebizitza inguruko parkea du 7.000 biztanle inguruko populazioarentzat. Etxebizitza okupatuko batez besteko okupazioa 2,54 pertsonakoa da eta etxebizitza hutsen parkea etxebizitza guztien % 3ra mugatzen da. Bestalde, aipaturiko indizea nabarmen murriztuko dela aurreikusten da zahartze-tasa handitzearen eta gizartearen bizimoduaren aldaketaren ondorioz, eta etxebizitza hutsek, duten garrantzia kontuan hartuta, ostatu-premiei ez diela erantzun handirik emango ikusten da.

Egiten den proposamenak erantzuna eman nahi dio HAPOren epean (8 urte) populazioak izan dezakeen hazkundeari, eta baita arestian aipatutako indizearen murrizketari ere.

Horregatik, Plan Orokor berriak, lehendik dagoen bizitegi-parkea birgaitzen eta berritzen laguntzeaz gain, etxebizitza-garapen berriak aurreikusi behar ditu. Xede horietarako, indarreko Arau Subsidiarioek oraindik egikaritu gabeko 300 etxebizitza inguruko (Lizeoa eremurako baztertutako proposamena alde batera utzita) etxebizitza-eskaintza gehigarria dutela antolatuta ikusi da, eta, lurralde-antolamenduaren esparrutik, gehienez 690 etxebizitzako bizitegi-eskaintza ezarri da berehalako epemugarako.

Bestalde, lehen adierazi den bezala, udalerriko etxebizitza berrien premia urteko 30 etxebizitza ingurukoa dela kalkulatu da eta, horren ondorioz, 240 etxebizitzako gutxieneko eskaintza ezarriko luke 8 urteko epemugan. Baina merkatuaren zurruntasuna, kudeaketa-zailtasunak eta udalerrriaren tamaina kontuan hartuta, zentzuzkoa izango litzateke eskaintza hori, gutxienez, % 50 inguruko kopuruan gainditzea (merkatuaren zurruntasun-koefizientea 1,5koa) eta 360 etxebizitza inguruko eskaintza egitea.



Esparru global horretan, Plan Orokorrak dagokion erantzuna proposatu behar du egoera kontuan hartuta, baina baita udal-proiektuaren etorkizuneko helburuak eta aurre egin beharreko zortzi urteko epea ere. Epe horretan, seguruenik, ziurgabetasunak desagertu egingo dira eta udalerrriak prest egon behar du, finantzaketa lortzeko arazoan aurrean eskaerak behera egin duela ikustearen kalterik gabe.

Hori alde batera utzita, kasu askotan bizitegi-eskaintza soiletik haratago doazen proposatu beharreko antolamendutik eta erregulaziotik sor litezkeen hiri-erlaketan aukerari lagunduko zaio, hobekuntzak egin daitezkeelarik hiri-birkalifikazioan, efizientzia energetikoaren hobekuntzan eta/edo irisgarritasun unibertsalean.

Ordezpenen edo garapen berrien proposamen horiei hirigune historikoa birgaitzeko helburuak gehituko zaizkie eta, horretarako, aldeko balorazioa emango zaio indarreko Plan Bereziari, batez ere bizitegitarakoak diren beste eremu batzuk (Aparizio; Mundo Mejor, Santa Barbara...) Eremu Narriatutzat jotzearen kalterik gabe, horien hiri-berroneratzea errazte aldera.

Bestalde, dokumentuak globalki birdefinitu behar ditu eremuei babes publikoko (soziala eta tasatua) etxebizitzaren eta etxebizitza libreen tipologiaren zenbatekoak eremuei esleitzeko indarreko zehaztapenak, indarreko Arau Subsidiarioetan xedatutakoa kontuan hartzearen kalterik gabe.

Ohartarazitako egoerak aukera eman du, alternatibak lantzeko eta eztabaidatzeko lehen faseetatik, aukera-sorta bat eskaintzeko lurzoru berriak (lurzoru urbanizagarriak) artifizializatu behar izan gabe udalerriko bizitegi-eskaerari erantzuna eman ahal izateko.

Alternatiba horiek idatzitako Plangintza-aurrerakinean jasota daude eta Planaren jarraipen-batzordeetan landu dira. Plan horri lotuta gaude hemen. Testuinguru horretan, honako kontu hauek ere eztabaidatu dira: etxebizitzaren eta bizitegi-moten batez besteko tamaina, etxebizitzaren edukitza-erregimena, ekimen publikoa etxebizitzaren sustapenean eta beste ostatu-modalitate batzuk proposatzeko aukera, esaterako, lurzoru eta hirigintza legeriak aurreikusitako zuzkidura-ostatuak.

Esparru horretan nabarmendu egin behar da udalerriko etxebizitzaren merkatuko prezioak, oro har, ez direla iristen babes publikoko etxebizitza tasatuentzako ezarritako gehienekora.

II.7.- Beste irizpide eta helburu batzuk.

Aurreko ataletan adierazitako helburu eta irizpide orokor haiez gain, indarreko Arau Subsidiarioak kudeatu eta egikaritzeko orduan udalak ikusitako problematikaren ondorioz Plan hau izapidetu eta onartzeak duen interesa nabarmendu behar da hemen.

Bestalde, 2021eko uztaila baino lehen egin beharreko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berrira egokitu gabeko planak berrikusteko lege-aginduari erantzuten dio ekimenak.





II.8.- Aztertutako aukerak. Ingurumen-ebaluazioa eta soluzioen orientazioa.

Plan Orokorra idatzi eta izapidetzeko prozesua dela eta, askotariko antolamendu-aukerak planteatu dira detektatutako problematikari erantzuna emateko eta, ondorioz, udal-proiektua zehazteko, proiektu horretan txertatuz, zeharka eta etengabe, ingurumen-ikuspegia, bere edukiaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanean zehaztu den bezala. Beste kontu batzuen artean, ingurumen-begirada, biztanleen osasuna, genero-ikuspegia, hizkuntza-inpaktua eta jasangarritasun energetikoa ere kontuan hartu dira, Ingurumen Organoaren gidalerroei jarraituz, nekazaritzako eraginen azterketa barne dela.

Orain aurkeztutako HAPO honek ingurumen-ebaluazioaren prozesu horri erantzuten dio, bai eta prozesuaren hasiera-hasieratik berori idatzeko planteatu diren irizpideei eta jendaurrean ezagutarazteko prozesuaren emaitzari ere.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Estatuko Legean eta Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta horiek garatzen dituzten zehaztapenetan aurreikusitakoari erantzuten dio horrek, eta bereziki, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek (HAPO) dagokien ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura nahitaez bete behar dutela xedatzen duten plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan aurreikusitakoari erantzuten dio.

Aزتutako aukerek ez dute inoiz planteatu Plan Orokor berriak berrikusi beharreko 2012ko Arau Subsidiarioek aurreikusita zuten hirigunea zabaltzerik eta jasangarritasun-printzipio hori txertatu dute prozesuan.

Aurrerakina, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlana eta sortutako eztabaida islatzen duten Planaren jarraipen-batzordeen aktak irakurtzearen kalterik gabe, alternatibean xedea lurzoru artifizializatu berrantolatzea izan dela adierazi da; eta oinordetzan hartutako hiria finkatzea, baina bere hiri-eraldaketa, -berritzea eta -berroneratzea aurreikusiz; eta baita zenbait lurzoru landa-erabileretarako berreskuratzea ere, ondoren ikusiko den bezala.

Hala, hegoaldeko bide-irisgarritasuna hobetzeko hainbat irtenbide balioetsi dira Hego Ipeñarrietan eta Aparizion hiri-jarraitutasuna hobetzeko helburuarekin; eta espazio libreen sistema berrantolatzeko; eta hiriguneko mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsala berraztertzeke; eta hirigunea txertatzeko eta jarraitutasuna emateko; eta baita hirigunean ingurumena hobetzeko ere, batik bat zarata eta berotegi-efektuko gasen (BEG) isurpenak murriztuz eta airearen kalitatea ahalbidetuz osasun hobea izateko.

Horretarako, askotariko aukerak planteatu dira, esaterako, hegoaldeko bide-sarbidea berrantolatzea, Aparizion ondorio positiboak izango dituen eta, oro har, zirkulazioko noranzko bakarreko bideak ezartzea; hiri-eraldaketako eremuen aurreikuspen zehatza, segregazioa eta sakabanaketa ekidingo dituen hiri-bilbea ehunduz, esaterako, Kamineroak, Rodriguez, Urzelai, Elgea eta Altamira-Santa Barbara eremuetan; lurzoruaren okupazioaren eta erabileren erregulazioaren arazoizko optimizazioa; lurzoru artifizializatu zaharkituak edo erabiltzen ez direnak berreskuratzea Hego Ipeñarrieta, Kaminpe eta Gerra eremuetan jarduera ekonomikoko erabileretarako; eta hirigunean merkataritza eta zerbitzuen jarduera ekonomikoa sustatzea, bizitegi-erabilerarekin bateragarri izateko moduan; horiek eta beste batzuk.

Bestalde, proposamen alternatiboak baztertu dira, esaterako, hirigunearen mendebaldean bide berri bat sortzea eta, ondorioz, hirigunea zabaltzea; hirigunean eta bizitegi-eremuan kokatutako Lizeoaren irakaskuntza-zuzkidura eraldatzea; Hego Ipeñarrietaren zati bat bizitegi-lurzoru gisa kalifikatzea; Pagoeta txaletetan eta Ipeñarrieta, 40an bizitegi-eraikigarritasuna handitzea; horiek eta beste batzuk.

Hirigintza-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-aldagaiak interes publikoaren ikuspegitik aztertzeak aukera eman du Plan Orokorrean jasota dauden soluzioak hartzeko.

Honako hauek dira ingurumen-ikuspegitik datu esanguratsuenak: Plan honek eragiten duen hiri-lurra mugatzeari eusteko proposamena, lurzoru urbanizagarri berriak ez aurreikustea eta udalerraren etorkizunerako lehentasunezkoak diren hiri-berroneratzea eta -birkalifikazioa.

Proposamenak barnean hartzen ditu hainbat jasangarritasun-printzipio: lurzoru berrien artifizializazioa saihestea, hiri-ingurunea berroneratzea, mugikortasun ez-motordunaren aldeko apustua egitea, landa-inguruneari erabilera eta balioa ematea, eta ingurumen-ikuspegitik hobetzea.

Hortaz, planaren proposamenen oinarritzko helburua udalerriko ingurumen-baldintzak hobetzea eta arriskuak minimizatzea da, biztanleen ongizate eta osasun onena lortzea azken helburutzat hartuta; horixe da dokumentu honetan jasotako hirigintzaren jatorrizko eta funtsezko helburua.

Dokumentu honen eranskinen artean, Eusko Jaurlaritzak duela gutxi emandako arriskuei buruzko nahitaezko txostena dago (2. eranskina). Txostenean ez da aurkitu arrisku berezirik, eta udaleko 2018ko larrialdi-plana aipatzen da. Uholde-arriskuari dagokionez, aipatu beharra dago Plan Orokor honek betetzen duen Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan xedatutakoa (1/2016 ED, urtarrilaren 8koa).

Hala, planeko proposamenek, espazio publiko irekiak hobetzea ez ezik, horrelako espazioak eskuratzea lortu nahi dute, gutxi baitira udalerrian; hirigintzako oztopoak ere kendu nahi dituzte; garraio publikoaren erabilera eta lekualdaketa aktiboak sustatu nahi dituzte, mugikortasunaren arloan zehaztu diren neurrien bidez; eta, halaber, zaratekin, usainekin edota argiztapenarekin lotutako eragozpenak minimizatu nahi dira, proposamen zehatzen bidez (zarataren inpaktuaren azterketa zehatza, horrekin zerikusia duten neurriak, etab.).

Planak ingurumen-ikuspegitik txertatzen dituen eta herritarren osasunaren hobekuntza ekarri behar duten neurri espezifikoak dira guztiak.

II.9.- Esku hartzeko proposamenaren azalpena.

II.9.1.-Proposamena egiteko oinarriak

Nolanahi ere, Plan Orokor hau sustatzeko erabakia udalerriko antolamendua berrikusteko eta datorren hamarkadan lurzoruaren indarreko legeriara egokitutako etorkizuneko proiektua izateko premiari buruz udalak adierazitakoari erantzuten dio.

Aukerak kontrastatu eta heldu ondoren, aztertze prozesuan finkatutako helburuei eta hartutako erabakiei erantzuten diete bertako proposamenek, eta baita jendearen parte-hartzearen emaitzari ere.



Diagnostikatutako egoerari, udal-proiektua berrikusteko udal-helburuari eta udal-proiektua indarreko legeriara egokitzeko aginduari erantzuna emateko, dokumentu honek funtsezko oinarri hauek izan ditu kontuan:

- Lurzoru urbanizaezinaren erabileren babesa eta erregulazioa, bere gaitasunaren eta ezaugarrien arabera.
- Lehendik dagoen hirigunea finkatzea, bere mugak birdoitzearen kalterik gabe, eta Institutua eta Gerra eremuetan, bigarrena industria-erabilerarako kalifikatutakoa, lurzoru urbanizagarriak finkatzea, ahal den heinean bere hiri-berritzea eta berroneratzea ahalbidetuz.
- Parke eta berdegunetara bideratutako espazio libreen sistema berrantolatzea.
- Hiri-integrazioa eta -jarraitutasuna, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna bereziki erraztuz eta, ondorioz, hirigunearen ingurumen-hobekuntza, bereziki zarata murriztuz. Horretarako, Aparizio ondoko hegoaldeko bide-lotunea birmoldatzea planteatzen da.
- Berrurbanizatzea eta hiri-berroneratzea, irisgarritasun-baldintzak bideratuz, eta ondare eraikia eta, oro har, kultura-ondarea birgaitzea eta babestea.
- Bizitegi-garapen berrien aurreikuspena, hiri-bilbe jarraitua ehunduz, besteak beste, Urzelai, Rodriguez, Elgea, Gurutze auzoa, Altamira-Santa Barbara, Gainzuri komentua, Gainzabal, Pagoeta, Hotela, Pasiotarrak eta Kamineroak eremuetan.
- Lurzoruaren araubidea erabiltzen hasteko erregulazioa Hego Ipeñarrieta eta Kaminpeko jarduera ekonomikoetarako.
- Hirigunean merkataritzaren eta zerbitzuen ekonomia-jarduera bultzatzea, bizitegi-erabilerarekin bateragarria dena.
- Ekipamendu-zuzkidura osatzea.
- Kontuan hartuko dira energia aurrezteko neurriak, zerbitzu-azpiegituren eraginkortasun ahalik eta handiena lortzera bideratutakoak (argiteria, etab.) nahiz teknologia berriak herritar guztien zerbitzura jartzekoak.

Oinarri horiek ditu, beraz, plan honek, eta berori idazteaz arduratu den talde teknikoak nahiz udaleko ordezkariak eta udaleko zerbitzu teknikoek ildo horretan lan egin dute etengabe, dokumentu hau zehaztu arte.

2019ko urtarrileko osoko bilkurara bertaratutakoek irizpideak eta helburuak berresteko aho batez hartutako erabakiak berretsi egin zuen "epe laburrean Arau Subsidiarioak ordezkatu dituen HAPO berria izateko premiari eta aukerari eusten diola, lehendik dagoen hirigintza-egoera arautu ahal izateko eta udalerrriaren etorkizunerako proiektu bat eskaintzeko."

Testuinguru horretan, plangintza-aurrerakinaren proposamena ere berretsi zen, baina HAPO idazteko prozesuari lotuz hartu beharreko irtenbideen zehaztapena.

Bereziki, erabaki horrek irizpide eta helburu hauek nabarmentzen ditu:

- "Lurzoru berriak okupatzea saihesten da, baina udalerrriaren premiei erantzuten zaie lehendik dauden asentamendu batzuk eraldatuz". Horrela, lurzoru berriak artifizializatzea ekiditen da.
- Erabiltzen ez diren lurzoru artifizializatuak biziberritzea jarduera ekonomikoak, batez ere industrialak hartzeko, horretarako, erabileren ezarpena ondo arautuz.

- Bizitegi-eskaintza zehaztea lurralde-antolamenduaren arloko aplikazioko zehaztapenek finkatzen duten urkilaren barruan.
- "Mugikortasun iraunkorra kontuan hartuko duen hiri-eredu bat bultzatzea".

Bestalde, HAPO idazteko, lurzoruaren sailkapenez gain, udal-mugarte osoaren zonakatzeko globala definitzeko sistematika hautatu da (II.3 eta II.4 egiturazko antolamenduko planoak), II.1 eta II.2 egiturazko antolamendu-planoetan grafikoki irudikatuta dagoena. Esparru horretan, lurzoru urbanizaezineko lurzoruaren erabileren erregulazioa identifikatutako zona-tipologia bakoitzerako zehazten da, LAGetan eta Nekazaritza eta basogintza antolatzekeo Lurralde Arloko Planean ezarritako zona-kategorien arabera.

Bestalde, hirigunean (hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria), dokumentuan Hirigintza Arau partikular bana duten hirigintza-eremuak identifikatu dira. Eremu horiek II.4 planoan identifikatuta daude. 20 hirigintza-eremu dira, eta hiriguneko edozein puntu horietako batean dago.

Behin egiturazko antolamendua zehaztuta, HAPOk dagokion antolamendu xehatua zehazten du hiri-lurzoru guztirako, erantsitako III.1. planoan jasotzen den moduan. Hala, Gerra sektorea (5. HE) da HAPO berriak bere antolamendu xehatua garapen-plangintzako tresna bati lotzen dion hirigintza-eremu bakarra eta, aldi berean, HAPOn lurzoru urbanizagarritzat sailkatutako udalerriko bi eremuetako bat, indarreko Arau Subsidiarioetan lehendik zuen sailkapen bera mantenduz; beste eremuan, Institutuan (12. HE), Plan Orokorrek antolamendu xehatua zehaztu du.

Horrekin, egiturazko antolamendua antolamendu xehatutik bereizteko lege-aginduari (2/2006 Legea) erantzuten zaio.

HAPOk aplikatu beharreko araudi orokorra eta partikularra ere jasotzen ditu eta jarduketa-programa ezartzen du, bere bideragarritasuna justifikatuz.

II.9.2.-Deskribapen orokorra

Proposamena azterketa bikoitzaren ondoriozkoa da, batetik, aurretiko izakin fisikoen, hau da, era guztietako asentamenduen, azpiegituren, nekazaritza-erabileren, egungo landarediaren (ikus plano eguneratua: I.4 plano), biztanleriaren, faunaren, egungo koiunturaren, eta abarren ondoriozkoa; eta bestetik, etorkizunerako planteatutako proiektu, premia, ekimen eta ideia berrien ondoriozkoa.

Lehen aipaturiko helburu eta irizpideetan oinarrituta proposatzen den ereduak udalerraren nahiz bere ingurune hurbilaren premia endogenoei erantzuten die, lurzoru-antolamenduaren arloko udalaz gairako ekimenak gehituz, esaterako, Mendiaraz errekaaren ondoko eta Santa Barbara parkera sartzeko bizikleta-bideen jarraipenaren aurreikuspena, eta Zumarragarekin batera geltoki intermodala antolatzea, beste batzuen artean.

Udal-lurraldean esku hartzeko ereduak, logikaz, oinordetzan hartutako hiri finkatzea aurreikusten duen arren, 2012ko Arau Subsidiarioetan ezarritako hasierako eredu berrikusten du, jasangarritasun-printzipioa gehitzeko, proposamenak kudeatzea eta egikaritzea ahalbidetzeko eta udalaren etorkizuneko bideragarritasuna bilatzeko helburu hirukoitzarekin.



Planak askotariko soluzioak jasotzen ditu, arloko ikuspegi arabera ondorengo ataletan deskribatzen direnak.

Oro har, Planak proposamenak biltzen dituela adierazten da, ahalik eta sinergia zabalenak lortzen eta prozesuan egokienekotzat, posibletzat eta jasangarritzat jo diren soluzioak hartzen ahaleginduz. Eta hori guztia, plana amaitu baino lehen udalerrri bizia, bizi-kalitate handiagokoa eta ingurumen- eta hiri-ikuspegitik hobetutako ingurunea duena ahalbidetzeko helburuarekin.

Horretarako, ezinbestekoa da hiriguneari jarraitutasuna ematea, oinezkoak segurtasunez mugi daitezen, espazio libreen sistema berrantolatuz, eta oinezkoentzat (eta bizikletentzat) arkitektura-oztoporik gabeko ibilbideen sistema bat prestatzea, espazio libreak eta ibilbideak lotzeko.

Beraz, oinezkoen eta bizikleten ibilbide osoa finkatu da, Urola ibaiaren paraleloa eta albokoa, eta mugikortasun bertikala eta auzo garaietarako sarbidea errazteko bitarteko mekanikoak proiektatu dira (Gainzabal, Lilibaso, Sorginzulo, Basagasti, Mundo Mejor, Santa Barbara...).

Modu osagarrian, oinezkoentzako espazioa berreskuratzea proposatzen da, hiriguneari mugikortasun motordunarentzako baldintzak birdefinituz (III.4 planoa). Testuinguru horretan, hiriguneko zirkulazio-abiadura, gehienez, 30 km/h izatea iradokitzen da.

Horrela, hiri-inguruneko joan-etorriak atseginagoak eta abegikorragoak izatea lortu nahi da, bitarteko ez-motordunak erabiliz; eta Urretxuko hiriguneari tamaina eta topografia ikusita, hori posible da.

Espazio libreen sarea Pagoeta eta Institutua parkeetako aurreikuspenarekin osatzen da, eta bi landa-parke aurreikusten dira Santa Barbaran eta Santakutzen.

Proposamena lehendik dauden azpiegituren optimizaziotik eta hobekuntzatik egituratzen da, Urretxurako hegoaldeko sarbidea, Aparizio ondoan dagoena, hobetzeko aurreikuspenarekin arreta berezia jarriz, auzo horren aurreko igarotze-trafikoak saihestuko dituen beste biribilgune bat antolatuz xede horretarako.

Bestalde, tamaina esanguratsuko lau aparkaleku antolatzea aurreikusten da, bizilagunentzako aparkalekuen eskaintzarekin eta, behar izanez gero, txandakako aparkalekuekin, bi aipaturiko hegoaldeko sarbideetik hurbil, Kamineroak eta Urzelai eremuetan, eta beste bi iparreko eta ekialdeko sarbideetatik hurbil, Altamiran eta Santa Barbara, hurrenez hurren.

Plan Orokorrak, bestalde, zentzuzko erabilera-intentsitateak aurreikusiz, lurzorua erabilera optimizatu nahi du eta, gainera, Plan Orokor berriaren proposatutako hiriguneari azalera (735.370 m²) murriztuz 2012ko Arau Subsidiarioetan proiektatuta dagoen zortzi urteko epemugarako aurreikusitakoarekin alderatuta (748.621 m²). Santa Barbara, Altamira, Pagoeta txaletak, Ipeñarrieta, 40, Aparizio eta beste hainbat inguruetan hirigunea murriztuz ateratzen da hori, dagoeneko egikarrituta dauden garapenak haietan txertatzeko hiriguneari mugapena handitzearen kalterik gabe, esaterako, Mugitegiko etxebizitzak edo Pagoetan proposatutako parke berria.

Horretarako, gainera, jarduketan kopurua mugatu egiten da esparru horretan, eta planteatutako helburuei modu oso batean erantzuteko beharrezkoak diren erabilerak mugatzen da. Hala, beste batzuen artean, Urzelai, Rodriguez, Elgea, Altamira-Santa Barbara, Gainzuri komentua,

Ipeñarrieta 28-30 eta Kamineroak eremuetan aurreikusitako bizitegi-garapen berriak dira proposatzen diren jarduketa esanguratsuenak, baliozkotu egingo dira Gurutze auzoan eta Gainzabalen egikaritzen ari diren garapenak, bigarrena partzialki birdoitzearen kalterik gabe, eta Gerra sektorerako kalifikazio industrialak berretsiko da. Hala ere, sektore horren eraikigarritasuna murriztu egingo da bere garapena lekuaren ezaugarrietara egokitzeko.

Hiriguneko esku-hartzeak dira, hiri-bilbea ondo ehuntzea eta jarraitutasuna ematea xede dutenak. Gerrako industrialderako aipaturiko esku-hartzea gehitu behar zaie horiei.

Bilbea ehuntzeko funtsezko proposamen hori hirigunean merkataritza eta zerbitzuen ekonomia-jarduera sustatzen laguntzeko proposamenarekin osatzen da, bizitegi-erabilerarekin bateragarria denarekin.

Planak, gainera, lurzoru industrialaren eskaintza egiten du Hego Ipeñarrietako eta Kaminpeko garapen industrialak finkatuz, gaur egun hein handi batean hutsik daudenak, kalifikazio hori berretsiz eta haietako jarduketa-baldintzak arautuz. Berdin jokatu da Mugitegin, eremu horrek jarduera garrantzitsua duen arren.

Planak udalaren ekipamendu-sistema finkatu du eta sendotu egingo da ekipamendu publikoko partzela edo lokal berriak antolatuta Elgea, Altamira, Gainzuri komentua, Pagoeta, Kamineroak eta Hego Ipeñarrieta eremuetan. Plan Orokor honek ez du horientzako helmuga zehatzik ezarri, beraz, udalak erabaki beharko du kasu bakoitzean interes publikoari erreparatuz.

Planak landa-lurzorua ere antolatzen du, lehen sektoreko erabileren garapena erraztuz eta bere natura-balioak babestuz. Horretarako, bizitegi-erabilera autonomoetarako eraikin berria ezartzea saihestuko du, eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiapenekin lotutako ezarpenak garatzea edota birgaitzea eta lehendik dagoen ondare eraikian esku hartzea arautuko du.

Proposamenak, bereziki, Nekazaritza eta Abeltzaintza antolatzeko LAPean erabilgarri eta aurreikusita dauden nekazaritza-balio estrategiko handiko lurzoru guztiak Planaren epemugan finkatzea bermatzen du, Sasietako ibarbidean kokatutako lurrak gehituta horien azalera handituz. Sasietako ibarbidea espazio libreen sistema orokortzat jotzen dute Arau Subsidiarioek, Pan Orokor honetan baztertu egin den antolamendu-alternatiba.

Horrela, hirigunea zuzkidura-, bizitegi- eta industria-erabilerak hartzeko eremu gisa erabiltzea optimizatzen da, eta sinergia handiagoak ahalbidetzen ditu horrek, helburu jakin batzuetan biltzen diren inbertsio publiko eta pribatu jakin batzuetarako bideak bilatzeko ahalegina egitearekin batera. Helburu horiek dibertsifikatu egiten dira bideragarritasuna errazteko.

Horren gisako esku-hartze ereduak bizitegi- edo industria-eremu berriek lurzorua modu estentsiboan eta bereizketarik gabean okupatzea eta eremu horiei dagozkien azpiegitura berriak sortzea saihesten du eta, aldi berean, lurraldeari lehen mailako garapenerako balioa emateko helburuari erantzuten dio. Horrela, bide berriak ezartzea ekiditen da, hirigunearen mendebaldean bide berri bat antolatzeko prozesuan aurkako alternatiba baztertzuz, 2012ko Arau Subsidiarioak izapidetzerakoan kontuan izan zen alternatiba.

Planak, bestalde, ikusitako arriskuei eta, bereziki, uholde-arriskuari eta higadura-arriskuari erreparatuz egingo dio aurre antolamenduari.

Planean ondare arkitektoniko, arkeologiko eta naturalistikoaren Katalogoa ere jaso da, ondare horretako elementu garrantzitsuen babesa arautzeko helburuarekin.

Etorkizuneko garapenean energia aurrezteko arloan, zerbitzu-azpiegituren eraginkortasunaren arloan (argiteria, etab.) eta herritar guztien zerbitzura teknologia berriak ezartzeko arloan neurriak planteatu ahal izateko esparrua ezartzen du Planak, energia-iraunkortasuna ahalbidetuz.

Ondorengo ataletan modu xehatuan deskribatuko diren askotariko beste zehaztapen batzuk ere jasotzen ditu planak.

II.9.3.-Zonakatze orokorra

Udal-mugarte osoa zonakatzeko proposamena egiten du Plan Orokorrak, eta hainbat eremu bereizten ditu, lurzoru hiritarrak, urbanizagarriak eta urbanizaezinak diren alde batera utzita; horretarako, proposatzen den hirigintza-araudi orokorrean, hainbat erabilera- eta eraikuntza-baldintza ezartzen dira. Zonakatze global hori II.1 eta II.2 planoetan adierazi da grafikoki.

Lurraldeko egitura orokorreko elementu esanguratsuenak honako hauek dira:

- Lehena eta esanguratsuenak: Urola ibaia eta bere ibaiadarrak.
- Espazio libreen sistema orokorra (hiritarrak eta landatarrak, lehendik daudenak eta aurreikusitakoak).
- Bide-sistema orokorra (errepideen foru-sarea).
- Trenbide-sistema orokorra (Adifen linea, EAESBren geltokia eta lur azpiko trazatua).
- Bidegorrien sistema orokorra (lehendik daudenak eta proiektatuak).
- Zerbitzu-azpiegituren sistema orokorra (ur-depositua, hondakin-uren araztegia –Urola Garaiko HUA- eta "garbigunea").

Hirigunea ez da iristen udal-mugartearen azaleraren % 10era eta, beste batzuen artean, batez ere bizitegi-erabilera bideratutako zonak (A) (hiru zona-tipologia bereizten dira), jarduera ekonomikoen erabilera (B) (zona industrialak eta hirugarren sektorekoak bereizten dira), komunitate-ekipamenduko erabilera (C), espazio libreenak (D), bide-sareari dagozkion erabilera (E), eta azpiegitura eta zerbitzuetakoak (F) ditu.

Bestalde, udal-lurraldearen zatirik handiena landa-eremuei dagokie (G) eta horien artean hainbat zona-tipologia bereizten dira. Zona-tipologia horiei landa-lurra nahiz hiriguneak (IV. planoak) xede dituzten antolamenduko baldintzatzaile gainjarriak gehitzen zaizkie eta horretatik erabilera eta jardueren erregulazioa ateratzen da, lurraldearen balio, baliabide, erabilera eta potentzialtasunen arabera.

Hala, HAPON egindako proposamenak ekosistema naturala errespetatzen du, balio ekologiko handieneko eremuak babesten baititu; gainera, lurzoru urbanizaezin guztia berorren baliabideekin, balioekin, landarediarekin, erabilerekin eta gaitasunekin bat etorrita antolatzen eta zonakatzen du.

Halaber, ekintza positiboko neurriak planteatzen dira narriatutako, hondatutako edo aldatutako eremu edo espazioetarako, eta baita ingurumenaren ikuspegitik arriskuren bat duten inguruetarako ere, arrisku horiek murrizteko edo desagerrarazteko.

Horren guztiaren ondorioz, Planak honako zona hauek bereizten ditu udal-mugartean.

* Antolamenduko landa-eremuak.

Adierazitako irizpide eta helburuen ondorioz, Memoria honetako azken ezaugarrien tauletan ikus daitekeen bezala, egin beharreko proposamenak gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako azalera finkatzea ekarriko du eta, lehen adierazi den bezala, hura handitzea eragingo du.

Lehen irakurketa hori egin ondoren, Plan honek Urretxuko lurzoru urbanizaezina antolatu eta zonakatzeko proposamena egin du, II.1 planoan identifikatutako Antolamenduko Zona Orokorren mugapenarekin gauzatzen dena.

Proposamen hori askotariko arrazoiengatik jakineko Baldintzazaile Gainjarri batzuen baitan jartzea proposatzen den lurzoruen zehaztapenarekin osatu da, IV.1, IV.3 eta IV.4 planoetan jasota dagoenaren arabera.

Proposamen hori indarrean dagoen EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko zehaztapenetan oinarrituta egin da (irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren arabera behin betiko onartua), zenbait arlotan aplikatu beharreko zehaztapenak kontuan hartzearen kalterik gabe, esaterako, babesa, ingurumena, ibilguen eta ibaiertzen erregulazioa, zerbitzu- eta komunikazio-azpiegiturak eta espazio libreen sistema orokorreko elementuak.

Esparru orokor horren arabera, proposamena egindako landa-lanetik eta lurraldera egindako hurbilketa handiagoaren eta eguneratuagoaren ondoriozko zehaztapenetatik atera da, kontuan hartuta, aldi berean, Ingurumen Organoak egindako irismeneko dokumentua eta prozesuan egindako txosten sektorialak.

I.4 planoan daude jasota zonakatzeko globala zehazteko kontuan hartu den udal-lurraldeko landarediaren egungo egoera eta lurzoruaren erabilerak, beste hainbat aldagai kontuan hartzearen eta guztia Nekazaritza eta basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko zehaztapenekin alderatzearen kalterik gabe. I.3 planoan Plan Orokor berria idazteari ekindako uneko abiapuntuko egoera jasotzen duen ortofotoa dago.

Bai zona orokorretarako bai Baldintzazaile Gainjarrien xede diren eremuetarako, EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarekin bat datorren erregulazio espezifiko bat xedatzen du Planak.

Horren ondorioz, sei zona-mota bereizten dira, G.1, G.2, G.3, G.4.1, G.4.2, eta G.5 identifikatu direnak. Honako hauek dira:



- Babes Bereziko Landa Eremua. Intereseko bertako zuhaitzak eta/edo batasunaren intereseko habitatak (G.1).

Bat etortzen dira, batik bat, hariztiekin eta harizti-baso mistoekin, eta baita bertako landarediaren orla eta heskaiekin ere. Balio edo potentzial ekologiko handiko egiturak dira, beste nekazaritza-erabilera batzuen presioagatik (berroihaneztatzeak, belardiak, etab.) eta nekazaritzakoak ez direnengatik asko murriztu direnak. Lurralde honetako landaredia potentzialaren lekuko dira, eta azalera txikia hartzen dute udal-mugartean garai batean hartzen zutenarekin alderatuta.

Honako hauek balioetsi dira batasunaren intereseko eta babestu beharreko habitat gisa: pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* eta, batzuetan, *Taxus*-ezko (UE 9120 kodea) oihanpea dutenak; *Castanea sativa* (UE 9260 kodea) basotxoak eta haltzadi eta lizardi urriak, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (UE 91EO kodea*), horiek ere bertako zuhaitzak.

Eremu horien antolamendu-irizpidea ingurumen-ikuspegitik kontserbatu eta hobetzekoa da, eta aprobetxamenduren bat badute, modu jasangarrian sustatu beharko da, erabilitako baliabidea berritzea bermatuz.

- Ingurumen-hobekuntzarako zonak (G.2).

Hor sartzen dira ingurumen-ikuspegitik narriatuta eta/edo aldatuta dauden Urretxuko eremuak.

Honako hauek identifikatu dira:

- Mendiartz errekaen ezkerreko mendi hegalean, Iturbe-behekoa baserriaren alboan kokatutako ibarbideak GI-632 bide berria egikaritzeko obretan sortutako soberako materialarekin egindako betelan baimendua hartu du. Betelan horretan, lehengoratzeko prozesua egin du Bidelanek ereite hidraulikoko teknikaren bidez, paisaian eta ingurumenean txertatzeko xedez, gaur egun oraindik erabat lortu ez dena. Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPak 2009 eta 2011 urteen artean egindako betelanari dagokion orbana hartzen du. 2012tik 2015era bitartean, ordea, lurrak botatzen eta eraginpeko azalera handitzen jarraitu dute eta, horregatik, Plan honek handitu egin du ingurumen-ikuspegitik hobetu beharreko eremua, 8 hektarea inguruko azalerara zabalduz. Gaur egun, lurzoru hori nekazaritza-jardueretarako edo espazio libretarako erabiltzeko aukera aztertzen ari da.

- GI.632 autobia berriaren obrei lotuta, udal-mugartearen hegoaldeko mendi-hegalean partzialki landareztatutako hainbat zona identifikatu dira, baina gaur egun ez da lortu eraginpeko azalera guztia ingurumen-ikuspegitik lehengoratzeko. Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPak 2009 eta 2011 urteen artean egindako betelanari dagokion orbana hartzen du. 2012tik 2015era bitartean, ordea, handitu egin da eraginpeko azalera eta, horregatik, Plan honek handitu egin du ingurumen-ikuspegitik hobetu beharreko zona, jarduketara hori hein batean gauzatu izanaren kalterik gabe.

- Erratzuko ingurunean, hegoaldeko mendi-hegalean, hainbat zona identifikatu dira: bat industria-pabiloien aldamenean, Zuloaga, Erratzu-goikoa eta Donardegi baserrien artean, 1984-5eko ortofotoan zuhaitzez estalita eta, neurri txikiagoan, belardiekin zegoen ibarbidean (gutxi gorabeherako kota 425-450 m), 1991tik aurrera aldatzen hainbat motatako isuriekin narriatzen hasi zena; bestea UZ enpresaren ekialdean; eta hirugarrena Mendizabal txiki baserriaren ondoan. Pixka bat urrunago, Zabaleta baserritik hurbil, beste isurketa-eremu bat identifikatu da.

- Larreaga baserriaren ondoan ere badago beste isurketa-eremu bat aktibo, deskargatzeko materiala eramaten duten kamioien sarrera/irteerak ikusi baitira. 2002az geroztik lur-mugimenduak izan dituen ingurunea da, baina 2012tik gaur egun arte zona handiagoak izan dira kaltetuak (aurreko urteetako isurketa-guneren bat nahiko ondo integratuta dago).

- Hor sartzen da Ofitas de Urretxu, S.L. edo Larregiko harrobiko aire zabaleko indusketa ere, Urretxun jardunean dagoen bakarra. Udal-mugartearen ipar-mendebaldean dago, Urretxu, Antzuola (harrobiaren aurrealdea) eta Zumarraga (Urola ibaiaren eskuin aldeko agregakinen bilketa-zona) udalerrien lurretan. Azken hirurogeita hamar urteetako ortofotoek agerian uzten dute 1954an bazegoela harrobi-ustiapen bat (1945-46ko estatubatuarren hegaldian, aldiz, ez da ageri), eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera arte ustiapen txikia izan zela. Laurogeita hamarreko hamarkadaren erditik aurrera eta, batik bat, 2001-2004 artean bi udalerrietako mendi-hegaletarantz hedatu zen, isurketa txiki bat igarotzen den zonan eta Larregi isurketa (Urola ibaiaren ezker aldeko ibaiadarra) igarotzen den tokitik hurbil. Plan Orokorrak gaur egun eragina benetan jasaten duen azalera jasotzen du, Nekazaritza eta Basoak antolatzeke LAPak jasotzen duena baino handiagoa. Larregiko harrobiaren jarduera arloan aplikatu beharreko legeriaren arabera egingo da, eta ingurumen-ikuspegitik lehengoratzeko eta integratzeko neurri egokiak beharko ditu bere garaian.

- Santakutz parkea ere sartu egin da.

Antolamendu-irizpidea zona horietako ingurumen-baldintzak hobetzea da, ekologikoki gehiago eboluzionatutako egoeretara bideratuz egungo egoera, ingurumen-ikuspegitik hobetzeko eta/edo lehengoratzeko lanen bidez sustatuta.

- Basoguneak (G.3).

Urretxuko lurraldearen ezaugarri topografikoek eta egungo erabilerak zuhaitziak izatera bideratu dituzte udalerriko zona asko. Malda handiko, erabilera-ahalmen txikiko edota higadura-prozesu garrantzitsuko eremuak dira.

Baso-erabilerako eremu guztiak zona-tipologia bakarrean bilduta daude, ekoizpen- eta babes-funtzioak elkarrekin lotuta daudelako. Dena den, jasangarritasun-irizpideen ikuspegitik hobe da % 50 baino gehiagoko maldetan (udal-barrutiaren zati garrantzitsu bat, Irimoko mendi-hegal garaiak) baso-erabilera babeslea sustatzea eta baso-soilketako aprobetxamendurik ez egitea.

Ilido horretan, ustiapeneko basoberritzeek, lehen fase batean, lan ona egiten dute ingurunea kontserbatzen laguntzen dutelako, baina baso-soilketek ondo egonkortutako edo paisaian integratutako eremu batzuek eraso edo kalte larriak, ekologikoak zein fisiografikoak jasatea eragin dezakete, eta haiek ustiatu ondoren, baita urak eragindako higadura-arazoak, lur-mugimenduak eta egitura ekologikoa nabarmen pobretzea ere.



Gainera, baso-ustiapenak baso-pistak irekitzea eta ondoren mantentzea (batzuetan alde batera uzten dena) eskatzen du eta, batzuetan, malda handiko eremuetan lur-mugimendu handiak, ibilguen aldaketak, drainadura-obra eskasak eta paisaia-inpaktu handia eragiten ditu eta ustiapenetan erabilitako makineriak sortutako olio erabilien kontrolik gabeko isurketa puntualak eragiteko arriskua ere badago, besteak beste.

Nolanahi ere, baso-espazioaren ekonomia- eta ingurumen-balorazioa kontuan hartuta, ildo horretako edozein jarduketak baso-jabeen, landako biztanleen eta erakunde eskudunen partaidetza izan behar du, basoak ekonomikoki ustiatzeak landa-ingurunea garatzen eta mantentzen laguntzen duelako.

Bestalde, egungo baso-masa aloktonoen orde, pixkanaka-pixkanaka, bertako espezieak aldatzea ere Urretxuko paisaiaren aniztasuna ahalbidetzeko eta indartzeko asmoaren barruan sartzen da. Gaur egun, koniferoek presentzia handia dute, batez ere intsinis pinuak eta alertzeak. Nolanahi ere, baso-ustiapen orok mendien kudeaketa jasangarriaren aurrean erantzun beharko du eta, eremuan zuhaitzak moztuz gero, berehala basoberrituko da, gaur egun Irimoko eta horren inguruko malda handiko eta hainbat urtez basoberritu gabeko mendi-hegaletan dagoen egoera eta antzekoak saihesteko.

Zona horien antolamendu-irizpidea baso-erabilera zentzuz eta modu jasangarrian bermatzea da, zuhaitzen eta substratuaren ezaugarrien arabera ustiapen-metodo egokiak erabiliz, lurzoruak kaltetu gabe eta higadura-prozesuak eragin gabe (Irimoko mendi-hegalek egonkortasun-arazoak dituzte).

Zona horiek Mendien Foru Arauek eta arlo horretako Administrazio eskudunak sortutakoek arautuko dituzte.

- Nekazaritza eta abeltzaintzako eta Landazabaleko guneak (G.4).

Askotariko ahalmen agrologiko eta nekazaritza-erabilerako lurzoruak hartzen ditu tipologia horrek. Nekazaritza-, abeltzaintza eta basogintza-erabilerak nahasita daude eta txandakatu egin daitezke denboran zehar hainbat faktoreren arabera, esaterako, merkatuen bilakaera, nekazaritzaz kanpoko eskariak edo ustiapenen orientazio-aldaketak, eremu horien funtzio anitzeko izaera islatuz.

Udalerriko erabilera nagusia sega-belardiena da, fruta-ARBOLA eta baso-unadekin mosaikoa eratuz, labore atlantiko eta bazka-labore txikiekin batera.

EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAParen arabera, honako azpiero hauek daude:

- Balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-gunea.(G.4.1).

Hiri-erabileretatik kanpo egon diren ahalmen agrologiko handieneko lurzoruak Urola ibarrean daude (III. mota agrologikoa) eta, batik bat, baratze eta sega-belardi erabilerak dituzte zuhaitz autoktonoen unadak tartekatuta.



Eremu horiek, nekazaritza-sektorearen ikuspegi estrategikotik lehentasunezkatzat jotzen dira hura mantentzeko eta babesteko, eta EAEko Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legeko 16.artikuluak gizartearen intereseko ondasuntzat jotzen ditu.

Zona-kategoria horretan EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPean kontuan hartutako orban guztiak Balio Estrategiko Handikotzat sartu dira, Plan hura onartu baino lehen bidearen erabilera okupatzeagatik desagertu zen hirigunerako iparraldeko sarbideak (Sagastitxipi ingurunea) okupatutakoa izan ezik.

Sasietako meandroa kalifikatu egin da eta 2012ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako espazio libreen sistema orokor gisako kalifikazioa HAPO berrian baztertu egin da.

Babes- eta kontserbazio-xedeetarako horrela kalifikatutako zonak Urolaren ezker aldean daude, hirigunearen iparraldean, Sasieta, Sasietaetxeberri, Eguskitza eta Guerra baserrietatik hurbil.

HAPOn ingurumen-ebaluazio estrategikoko azterlanean, Ingurumen Organoaren irismeneko dokumentuaren edukari erantzunez, HAPOn nekazaritzaren gaineko eraginari buruzko azterketa sartuta dago.

Esan beharra dago Beasain-Zumarraga LZPea (Goierri) ez dela identifikatu Urretxuko zonarik antolamendu-kategoria horrekin.

- Trantsizioko Landa Paisaiako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zona.(G.4.2).

Aurreko zona baino produkzio-ahalmen txikiagoko eremuak dira. Belardiak dira nagusi eta horien artean baso-unada txikiak daude, batez ere bertako zuhaitzenak, haiekin edo fruta-arbolekin mosaikoa eratuz, eta han-hemenka baratze txikiak baserri-inguruetan.

Zona-mota hau bat dator erabilera-ahalmen moderatuko eta txikiko lurzoruekin, batez ere maldak (hainbat kasutan % 20-30 artekoa) ezarritako mugen, drainatzearen eta propietate kimikoen ondorioz. Eremu horiek, oro har, hauskortasun handia dute erabileran, bai kokapen topografikoagatik eta bai sakontasun, ur-erreserba eta emankortasun eskasagatik. Urretxuko lurralde hain gorabeheratsuaren ezaugarriak eta nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarako lurren premia kontuan hartuta, gaur egun larretarako, fruta-arboletarako eta baratzetarako erabiltzen diren eremuak zonakatzeko proposamen horretan uzteko ahalegina egin da, bat etorri ez direnean malda handiko zonekin edo higadura-prozesu larri edo muturrekoekin.

Habitat Zuzentzarauak batasunaren intereseko habitat gisa hartu dituen sega-belardi asko Zona horren barruan sartu dira, eta ez dira nabarmendu intereseko landaredia gisa, udalerriko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen asko lurzoru horietan bermatzen direlako (larreek hartzen dute Urretxuko nekazaritza-erabileren zati garrantzitsu bat). Dena den, Planak zona horren barruan hartzeak, euren bokazioarekin bat datorren erabilerak araututa, aukera emango du, nolabait, haiek babesteko, abeltzaintza-jarduera eta habitat-mota hori garatzen laguntzen duten teknikak garatzen jarraitzea ahalbidetzen duelako. Ez da ahaztu behar larre horien jatorria artifiziala dela eta horien kontserbaziorako oso garrantzitsuak direla baserriarra eta belarjaleen jarduna, hura zapalduz eta ongarriz egonkortzen laguntzen dutelako. Bestetik, belardi-mota horientzako Habitat Zuzentzarautik (92/43/EE) sortutako babes-konpromisoak Batasunaren



Garrantzizko Lekueta (BGL) sartutako habitatetan aplikatu beharrekoak dira, hau da, Natura 2000 Sarean sartutako espazioetan. Habitat-mota horren presentzia duten gainerako lurraldeetarako aldiz, esku artean dugun kasuan bezala, zaintza-eskakizuna soilik dago xedatuta, aipaturiko Zuzentarauko 11. artikulua araberara.

Zona horiek udal-mugartearen hegoaldeko erdian daude, orientazio ona duten mendi-hegaletan, Irimoko mendi-hegal baxuko eta ertaineko zonetan eta Urola ibaiaren ezker aldean, lurzoru horiek hiri-erabilerekin okupatuta ez dituztenean; eta udal-mugartearen ipar-ekialdean, Beainandikoa eta Beainemendikoa baserrien inguruan. Zona horietan daude udalerriko baserri gehienak: 600 m kotatik behera, hegoaldean, 500 m baino beherago, hego-ekialde-ekialdean eta, 600-450 m artean, ipar-ekialdean.

Eremu horietako gehienak, lehen deskribatutako ezaugarriak kontuan hartuta, maneian nolabaiteko zaintza behar duten lurzoruei dagozkie eta beren ahalmen agrologikoari, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueri eta, horiekin bateragarriak izanda, ekosistemak eta nekazaritza-paisaiak zaintzea bermatzen duten jardueri eustea da irizpide orokorra.

Amaitzeko, Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPean Trantsizioko Landa Paisaia gisa sartutako zona batzuek, gaur egun, zona horietarako xedatutako harrera-ahalmenik ez dutela adierazten da. Besteak beste, Kamineroaren etxetik eta Aginaga auzotik (Zumarragako udal-mugartea) hurbil dagoen meandroaren ezker aldeko zati baten kasua da, ingurumen-aldaketaren eta -narraduraren ondoriozkoa (lurzoru naturala desagertu egin da eta zabalguneko zolatua dago, nekazaritza-erabilerekin gabekoa, askotariko erabilerekin aspalditik hartzen dituen, esaterako, aparkatzeko zona eta nekazaritzakoa ez den ekonomia-jarduerari lotutako eraikinak). Beste zona batzuk aldatuta daude, esaterako, Erratzu-goikoa baserriaren ipar aldean, Erratzu ingurunean kokatutako isurketa-zona, edo indarreko plangintzak (Arau Subsidiarioak) espazio libreko zonatzat kalifikatuta ditu (Sasietako meandroaren ezker aldean), eta beste zona batzuk, gaur egun, basogintzako erabilera emankorrekarekin (Mendizabal baserriaren ingurunea edo Santa Kutzen hegoaldea, besteak beste), edo bertako zuhaitzekin daude.

- Azaleko urak babesteko eremuak (G.5).

Ibai-sareak (Urola ibaiak udalerrira zeharkatzen duen tartea eta bere adarrak) eta horien babes-ertzek osatzen dute multzoa, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPean (Kantauriko isurialdea) xedatutakoaren arabera.

Horrela, osagai hidraulikoari erreparatuta, Urola ibaia udal-mugarte honetan sartzen denetik (50,85 KP) Mendiaratz errekararekin ezker aldeetik bat egin eta Etxeberri errekararekin eskuinaldeetik bat egiten duen arte (47,6 KP) honela dago sailkatuta: I. Maila, arrea $10 < C \leq 50$ Km². Hortik aurrera, udalerriko ibilbidea amaitzen duen arte (gutxi gorabehera 43,8 KP), Larregi harrobiaren eta Aginaga auzoaren (Zumarragako udal-mugartea) inguruan, honela dago sailkatuta: II. maila, arrea $50 < C \leq 100$ Km². Mendiaratz erreka da 0 mailako bakarra, 1 eta 10 Km² arteko ibaiadar- arrea ($1 < C \leq 10$ Km²), hain zuzen ere 3 km²-koa, eta gainerako ibai-ibilguak 00 mailakoak dira, 1 Km² baino gutxiagoko ibaiadar- arreak, eta isurketatzat jotzen direnak.



Ibai-sare horretako tarte batzuk lurperatuta daude, estalita. Tarte horiek II.2 planoan irudikatuta daude grafikoki.

Azaleko uren zona horietan jabari publiko hidraulikoa eta zortasun- eta polizia-zonak errespetatuko dira, uztailaren 20ko 1/2001 ELDe onartutako Uraren Legearen eta lehen aipaturiko EAeko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPen arabera.

Udalerrri osoa Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko erkidegoko arroen kudeaketa-eremuaren barruan dago.

Arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari dagokionez, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren 2017ko aprobetxamendua arautuko duen araudia garatzen duen 2017ko martxoaren 8ko 142 LI/2017 Foru Aginduaren arabera, baimenduta dago hil gabeko arrantza estazioen estalduratik (Urretxuko Akelarre elkartearen atzealdea) Aginaga auzorako (Zumarragako udal-mugartea) GI-3803 errepiderako sarbide-zubirainoko Urola ibaiaren tartean.

Hauek dira eremu horietako jarduera-irizpidearen xedeak: uren kalitatearen kontserbazioa sustatzea, ibilguen eta ibaiertzen okupazioa edo aldaketa saihestea eta naturako arriskuek eragindako kalteak minimizatzea.

Halaber, ibaiertzen alterazio-egoera kontuan hartuta, ibaiertzeko landaredirik gabe eta ibilgu-tarte estaliek, zona horiek hobeto zainduko dira ingurumen-ikuspegitik, baldin eta posible bada.

Uholde-arriskuen arloko arazoak ez du bide ematen arlo hidraulikoan jakineko ekintzak burutzeko, uholde-arriskua zentzuz minimizatzeko egungo legeriaren arabera esku-hartzeak egitea baztertu gabe.

- Sistema Orokorrak.

Azkenik, Planak lehen aipaturako sistema orokorretara txertatzea planteatzen duen lurzoruek osatzen dute lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio orokorra.

Espazio libreen sistema orokorrari buruz adierazten da landa-ingurunean bi parke mugatu direla landako espazio libreen sistema orokorraren barruan (Santa Barbara eta Santakutz). Horien mugapenak II.1 planoan daude zehaztuta. Lehenengoaren mugapena xede horrekin gaituta dauden eta udal-titulartasuna duten lurzoruetara doitu da, indibiso egoeran dagoen udalaren jabetzako lurzoru bat ere gehitzearen kalterik gabe eta aisiarako eremutarako erabilera aurreikusitaz. Horrekin, erantzuna ematen zaio udaleko Arau Subsidiarioetako ekimena jasotzen zuen Goierriko Lurraldearen Plan Zatikiko Planean aurreikusitakoari, parkearen mugapenari dagokionez orain proposatzen den birdoitzearen kalterik gabe. Bigarrenengatik, ingurumen-hobekuntza proposatzen da modu gehigarrian, lehen ere adierazi den bezala.

Horren guztiaren ondorioz, taula honetan jaso dira, batetik, lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeko orokorra eta, bestetik, HAPO berriaren ondoriozko hiri-lurzoruaren azalera.

ZONA OROKORRAK LURZORU URBANIZAEZINEAN (eta hirigunean)	AZALERA (m ²)
BABES BEREZIKO LANDA-EREMUA	1.298.750
INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO LANDA-EREMUA	236.382
BASOGINTZAKO LANDA-EREMUA	3.096.699
BALIO ESTRATEGIKO HANDIKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO LANDA-EREMUA ETA LANDAZABALA	40.951
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO LANDA-EREMUA ETA TRANTSIZIOKO LANDA-PAISIAKO LANDAZABALA	1.853.946
AZALEKO URAK BABESTEKO EREMUAK	79.587
LANDAKO ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA	66.133
KOMUNIKAZIO-SISTEMA OROKORRA.	108.800
LANDA-INGURUNEN HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK	11.424
HIRIGUNEA	736.600
UDALERRIA GUZTIRA	7.529.272

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, udal-mugartearen ia % 20k babes berezia du (G.1 eta G.5 zonak).

Halaber, udal-lurraren % 40 baino gehiago baso-lurtzat jotzen da (G.3) eta % 25 nekazaritza eta abeltzaintzako landa-eremutat eta landazabaltzat (G.4).

Hirigunearen azalera, bestalde, ez da iristen udal-mugartearen % 10era, lurzoru artifizializatuak (komunikazio eta azpiegituren sistema orokorrak barne hartzen dituen) % 11,36 hartzen duen arren.

Azkenik, ingurumen-hobekuntzarako zonek (G.2) udal-mugartearen azaleraren % 3 hartzen dute.

* Baldintzatzaile Gainjarriak.

Antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileetan, hainbat tipologia bereizten dira. Alde batetik, ingurumenarekin lotutako baldintzatzaileak daude, ondoren adierazten direnak, zonakatzeko akustikoa barne; eta, bestetik, beste modu bateko arriskuak aintzat hartzetik eta horiei erantzuna ematek ondorioztatu diren baldintzatzaileak.

Honako hauek dira eta IV.1, IV.2, IV.3 eta IV.4 planoetan jasota daude.



-Interes Geologikoko Eremuak (CS 1).

Urretxuko udal-mugaratean interes geologikoko hainbat leku edo puntu identifikatu dira. Euren Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioak Urola ibaiaren haranean zehar kokatutako *Urretxuko harrobiko gabroak* izeneko GIL 40 identifikatu du udalerrian, Urretxu eta Azpeitia lotzen dituen GI-6311 errepide ertzean hobeto azaleratzen den arren, 33. km-tik 30. km-ra. Zona horretan gabroz osatutako sill asko ageri dira, eta horietako batzuk iraganean ustiatu izan dira (harrobi abandonatuak). Sill horiek Zenomaniar-Turoniar aroko material sedimentarioetan, tuparrietan eta kare-tuparrietan txertatuta daude, hainbat kilometroko luzera dute eta 100 edo 150 marterainoko potentzia aldagarria. Sill horiek erlazio espazial estua dute harri bolkanikoekin, baina horiek baino askoz bolumen txikiagoan. Errepidean zehar harri piroklastikoak eta lavikoak daude, batez ere basaltikoak, esaterako, pillowak, pillow-hodiak, hodi-isurketa masiboak, eten bolkanikoak, etab., dike sinbolkanikoekin batera. Sill gabroiko horiek balio geomorfologiko altua eta petrologiko oso altua dute.

Honako hauek dira tokiko beste IGG batzuk: Flysch beltza (Deba formazioa) udalerraren hegoaldean, Mugitegiko ekonomia-jardueraren eta GI-632 errepidearen inguruko ezpondetan; Flysch karetsua (Itziar formazioa) azaleratze ikusgarrienak GI-631 errepideko ezpondetan dituen, Barrenkale kaleko aparkalekutik edo Etxeberri urbanizaziotik hurbil; Barinaga formazioa, itsaspeko izaera bolkanikoko materialekin, Ofitas de Urretxu, S.L. enpresaren harrobiaren aurrean, Urola trenbide ohian barrena doan bizikleta-bidean edo Irimo gailurrean ageri dira; eta Kuaternarioko Deposituak, ibaiko material eta ibai-alubioi nahiko ondo finkatuak Urola ibaiaren ibilguan barrena kokatuak.

Antolamendu-irizpidea deskribatutako balioa aldatu, narriatu edo desagerrarazi dezaketen jarduketak guztien aurrean kontserbatzea eta babestea da.

- Abifauna babesteko eremuak.(CS 2).

Aipatzeko modukoa da Urretxuren mendebaldean dagoen abifauna linea elektrikoaren aurka babesteko zona, hain zuzen ere, Irimoren gailurreko eta, gutxi gorabehera, 700 m-ko kotarainoko mendi-hegal garaiko zona, eta mendi horren mugako lurraldean Antzuolako udal-mugaratean jarraitzen duena, espezie mehatxatuen espezieak ugaltzeko, elikatzeko, sakabanatzeko eta pilotzeko lehentasunezko eremuak mugatzen dituen eta abifaunarako babes-zonak argitaratzen dituen Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera.

Eremu horiek antolatzeko irizpidea abifauna goi-tentsioko aireko linea elektrikoaren kontra talka egitearen eta elektrokutatzearen aurka babesteko behar diren neurriak aplikatzea da eta, zehazkiago, 1432/2008 Errege Dekretuko talka egitearen eta elektrokutatzearen aurkako neurrien aplikazioa, honako baldintzatzaile hauekin:

a) Nahitaezkoak izango dira eraikuntza berriko goi-tentsioko aireko linea elektrikoetarako edo Agindu hau indarrean sartzen denean onartutako egikaritze-proiekturik ez duten lineetarako eta baita lehendik dauden goi-tentsioko linea elektrikoaren zabalteetarako edo aldatetarako.



b) Agindu hau indarrean sartu aurretik zeuden goi-tentsioko linea elektrikoetarako nahitaezkoak izango dira elektrokutatzearen aurka babesteko neurriak eta boluntarioak talka egitearen aurka babestekoak.

- Paisaia babesteko eremuak (BG 3).

Sektore-ikuspegitik ez da paisaia berezirik identifikatu Urretxuko udal-mugartean.

Hala ere, Irimo mendia, Karakate-Irukurutzeta-Elosumendi-Agerreburu-Itxumendi-Gorla-Astobiaga gailurreriaren muturra, elementu berezia da udalerrri honetako eta inguruko udalerrietako paisaian, eta mendi eta lepo ezagunak ikusteko aukera ematen duen balkoia ere bada, hala nola, Izarraitz, Gatzume, Zelatun, Ernio, Samiño, Izazpi, Kiskitza, Murumendi, Txindoki, Aralar, Aizkorri, Aloña, Andia, etab. Hori dela eta, Plan Orokor honek paisaia-balioko eremutzat jotzen ditu Irimo gailurra eta bere ingurune hurbila. Aztertzen ari garen udalerrria dagoen ikus-arroaren ikuspen handieneko lurralde-zatiaren babesa eskatzen du horrek.

Bestalde, EAEko paisaia berezi eta aparten Katalogoaren Aurreproiektuan Ipeñarrieta jauregiaren Paisaia eta Kultura Mugarria identifikatu da, Legazpiko ikus-arroan, Irimo mendiaren malda-hegalean, Santa Barbara ermitatik hurbil dagoen XVII. mendeko dorretxea. Ikus-eraginpeko zona arroa horren lurraldean hedatzen da, eta Urretxuko udal-mugartea ez ezik, Legazpi eta Zumarragakoak ere hartzen ditu.

Antolamendu-irizpidea eremu horiek guztiak kontserbatzea eta babestea da, beren paisaia-balioak aldatu edo narriatu ditzaketen jarduketara, erabilera eta prozesu guztien aurrean.

- Hiri-hornidurako harguneak (ZBE) eta beste iturburu batzuk babesteko eremuak.(CS 4).

Plan Hidrologikoko Zona Babestuen Erregistroan (ZBE) sartutako hiri-hornidurako harguneak Iturrondi 1, Iturrondi 2, Iturrondi 3, Iturrondi 4 eta Iturrondi 5 dira, eta 50 eta 2.000 lagun arteko biztanleriarentzako moduko hargunetzat jotzen dira. Aipaturiko Planeko 48.5.c) artikularen arabera, babes-zonek 100 metro inguruko erradio finkoko azalera zirkularra izango dute.

Gainera, udalerrian babestu beharreko beste iturburu asko daude, dagokien planoan ikusten den bezala.

Eremu horiek babestu egin behar dira edozein kutsaduraren ondorio kaltegarriren aurrean, giza kontsumorako uren osasungarritasuna eta garbitasuna bermatuz.

- Eremu Higagarriak edo Higadura Arriskua dutenak (BG 5).

Urretxun, Irimo mendiak egonkortasun-arazoak ditu mendi-hegaletan bere ezaugarri geologiko-geoteknikoengatik, maldagatik, hidrologiagatik, inguruko prezipitazio handiengatik... baina baita lurzorua erabileragatik ere.



EAEko Higadura Maparen arabera (Eusko Jaurlaritzak, 2015) eta Irimo Mendiaren hego-ekialdeko isurialdea egonkortzeko Bioingeniaritza Teknikak Aplikatzeko Aukeren Azterketaren arabera (Ikerlu, 2010), udal-mugarte honetan higadura-prozesuak izateko arrisku handi-ertaineko hainbat zona daude, azalerari dagokionez arrisku arinak okupatzen duen lurralde-zatirik handiena.

Higadura-fenomenoak azaltzeko sentiberatasun-maila altua duten eremuak Irimoko mendi-hegal garai eta ertainetan daude, iparraldera eta ipar-ekialdera orientatuta, eta mendi-hegal ertain eta baxuetan, ekialdera eta hego-ekialdera orientatuta.

Eremu horietan, gaur egun dagoen zuhaitzen eta sastraken estalkiari eutsiko zaio, babesteko eta lehengoratzeko irizpide gisa. Landare-estalki bakanen kasuan, berriz, estalkia zabaltzeko da, higadura-gertakariari aurre egiteko funtsezko elementu gisa.

Lurraldearen ezaugarriak eta hazkunde lasterreko baso-landaketek duten azalera handia kontuan hartuta, arreta berezia jartzen da erabilitako teknikak zaintzeko premian eta arrisku handieneko eremuak hazkunde moteleko espezieetarantz birbideratzeko premian, lurzorua baliabide ez-berriztagarri gisa babesteko xedez.

Higadura-fenomenoak azaltzeko sentiberatasun-maila altua duten eremuak Irimoko mendi-hegal garai eta ertainetan daude, iparraldera eta ipar-ekialdera orientatuta, eta mendi-hegal ertain eta baxuetan, ekialdera eta hego-ekialdera orientatuta.

Zurezko landaredia modu iraunkorrean mantentzea, lur-lerradurak eta luiziak egonkortzea, batez ere bioingeniaritza-teknikekin, mendi-hegalen drainatzeak berronertzea eta zenbait errekaren lehengoratzeko funtzional, hidrauliko eta ekologikoa kontuan hartu beharreko lehenetsutako ekintzak dira.

Lurzorua egonkortasunari eragiten dioten jarduerak saihestuko dira, eta kontu handiz ibiliko da eremu horietan egiten diren nekazaritzako eta basozaintzako jardueretan eta egokitzeko eta maneiatzeko teknikekin.

Mundo Mejor eta Pagoeta inguruneetako eta, zerbait gorago, Ipeñarrieta-Aikur ondoko mendi-hegaletako eremu higigarriari dagokionez (mendi-hegal ezegonkortasunak, lerradurak...), zenbait kasutan belardi-erabilerekin, Urretxuko udalak eskatu eta Ikerlurrek egindako Azterketan deskribatutako lurzorua bioingeniaritza-jarduketari jarraitzea proposatzen da.

- Uholde-arriskua duten eremuak.(CS 6)

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako Alderdiaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021 Planak (UAKP), 20/2016 Errege Dekretu bidez onartutakoak, Uholdeagatiko Arrisku Potentzial Handiko Eremu bat (UAPHE) identifikatu du ES017-GIP-URO-05 kodearekin, eta III Multzuan sartu du, Urola ibaia Urretxu-Zumarragan igarotzen den tarteko ibilgu-zati batean (hasierako koordinatuak: X 555193 eta Y 4770529 eta amaierako koordinatuak: X 555878 eta Y 4771611).



Gutxi gorabehera 1,5 km dituen zona hori Alkorta industria-pabiloiaren ingurutik (Irimoko ekonomia-jarduera esparrua) Matxinporta ingurunearen hasieraraino hedatzen da. 100 eta 500 urteko errepikatze denborako uholdeek har ditzaketen zonak daude, D=500 urterako nabarmentzen delarik, Urola ibaian dauden bi estalduren ahalmen ezagatik (trenbidea eta Kalebarren kalea).

Lehentasunezkoa da udalerrian arrisku hori txikiagotzea, ibilguen ur-goraldiko zonak babestuz, egungo baldintza hidrológicoak ez okertuz eta uholde-arriskuarekiko urrakorrak diren erabilerak saihestuz.

- Kutsagarriak izan litezkeen jarduerak dituzten edo izan dituzten eremuak. (CS 7)

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten EAEko Lurzoruen Inbentario eguneratuaren arabera, 2017ko abenduaren 21eko Aginduak onartua eta Geoeuskadiren datu-basean jasotakoa, Urretxun gisa horretako 70 area edo eremu identifikatu dira guztira, eta beste bost kokaleku Zumarraga eta Legazpiko udal-mugarteekin lurzorua partekatzen dutenak, horietako lautan lurzoruaren kalitatea lehengoratzeko esku-hartzeak berriki egin diren arren.

Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 Legea bete behar dute eremu horiek. IV.4 planoan daude irudikatuta.

Bestalde, memoria honetako 3. Eranskinean adierazi dira, lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko lanen ondoriozko haien eguneratze etengabe eta nahitaezkoaren kalterik gabe.

- Eremu akustikoak (CS 8).

"4. Planoak" dokumentuko "IV.2" planoan islatzen dira, eta eremu horietako helburu akustikoak 2012ko urriko Dekretuak xedatzen dituenak dira. Zehazki, hauexek dira (31. artikulua; I. eranskineko 1. zatiko A taula):

**LEHENDIK URBANIZATUTA DAUDEN EREMUEKIN LOTUTAKO KALITATE AKUSTIKOKO
HELBURUAK
URBANIZATUTA DAUDENAK.**

GUNE AKUSTIKO MOTA		ZARATA-INDIZEAK		
		Ld	Le	Ln
A	Bizitegi-erabilerako lurra nagusi duten eremuak	65	65	55
B	Industria-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko eremuak	75	75	65
C	Jolas- eta ikuskizun-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko eremuak.	73	73	63
D	C atalean aurreikusitako hirugarren sektoreko erabilera duen lurraldeko eremuak/sektoreak.	70	70	65
E	Osasun-, irakaskuntza- eta kultura-erabilerako lurra nagusi duten lurraldeko eremuak, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia eskatzen dutenak	60	60	50
F	Garraio-azpiegituren sistema orokorren edo antzeko beste ekipamendu batzuen eraginpeko eremua	(1)	(1)	(1)

(1) Eremuaren muga, helburu akustikoak bat etorriko dira mugakide duen eremuaren zonakatzeko tipologiari dagozkionekin.



Etorkizuneko hirigintza-garapenei lotutako kalitatezko helburuak, bestalde, aurreko taulan islatutakoak dira, 5 dB(A) murriztuta.

Zarata-arloko zehaztapenak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketako 3. eranskinean jasotakoekin osatzen da. Horren barne daude inpaktu akustikoaren azterketa eta neurri zuzentzaileen mugapena, adierazpena eta ezarpena. Horretarako, berariaz identifikatutako (zortzi) babes akustiko bereziko zonen (BABZ) plan zonalak idatzi behar dira.

- Beste baldintzatzaile batzuk.

Kontuan hartuko dira, besteak beste, basoko sute-arriskuaren edo arrisku teknologikoen arloko babes zibileko zehaztapenetatik ondorioztatzen diren baldintzatzaileak ere. Kontu horri dagokionez, esku artean daukagun gaiari buruz Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak 2018ko urtarrilean egindako txostenean adierazitakoa bete beharko da. Txostenak dio nekez gertatuko dela udalerriko eraikinak suntsitzeko adinako lurrikara. Txostena memoria honetako 2. eranskinean dago jasota. Halaber, kontuan hartuko dira arloan aplikatu beharreko legeria eta larrialdietarako udal-plana.

II.9.4.- Etxebizitza.

Udalerriak, gaur egun, 3.000 etxebizitza inguruko parkea du 7.000 biztanle inguruko populazioarentzat. Etxebizitza okupatuko batez besteko okupazioa 2,54 pertsonakoa da eta etxebizitza hutsen parkea etxebizitza guztien % 3ra mugatzen da. Bestalde, aipaturiko indizea nabarmen murriztuko dela aurreikusten da zahartze-tasa handitzearen eta gizartearen bizimoduen aldaketaren ondorioz, eta etxebizitza hutsek, duten garrantzia kontuan hartuta, ostatu-premiei ez diela erantzun handirik emango ikusten da.

Egiten den proposamenak erantzuna eman nahi dio HAPOren epean (8 urte) populazioak izan dezakeen hazkundeari, eta baita arestian aipatutako indizearen murrizketari ere.

2016-2017 aldian hasi eta udaleko hirigintza-plangintza berrikusteko prozesuan zehar gaur egun arte jarraitu duen udal-eztabaidaren eta ondorioz, udalak erabaki du 2012ko Arau Subsidiarioek aipatutakoez gain, partzialki egikarituta daudenak, garapen berririk ez aurreikustea, eta lehendik dauden eraikinak birgaitzeko, berritzeko eta haien hiri-berroneratzeko prozesuei heltzea, egungo etxebizitza-parkearen efizientzia energetikoa hobetze aldera, bereziki estatuko lurzorua legeria berriak (2015) eta etxebizitzaren euskal lege berriak (2015) eskaintzen dituzten tresnak aplikatuz.

Hala, egindako analisiari eta diagnostikoari erantzunez, 400 etxebizitza gehigarri inguruan kuantifikatu den (lehendik dagoen parkearen % 13,5 gutxi gorabehera) eta LAGek etxebizitza kuantifikatzeko ezarritako gehienekoa baino dezentez beherago geratuko den etxebizitza berri gehigarrien eskaintza egitea aukeratu da.

Hala, HAPO berriaren proposamenek honako jarduketa hauek dituzte xede:

- Lehenik eta behin, udalerriko hirigune historikoa (1. HE) Birgaitzeko Plan Berezia baliozkotzea planteatu da, eremuan aplikatu beharreko Hirigintza Arau Partikularrean kontu horren inguruan zehaztaperen batzuk sartzearen kalterik gabe. Ondare babestua birgaitzea eta erabilgarri jartzea da helburua.
- Bigarrenik, oro har finkatu egingo diren hiriguneko bizitegi-eraikinak berritzea planteatzen da, eta eremu narriatuak identifikatzea eta izendatzea ere aurreikusten da, efizientzia energetikoko eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetuko dituzten esku-hartzeak egin ahal izateko. Besteak beste, Aparizio, Mundo Mejor eta Santa Barbara auzoak aipatu dira.
- Hirugarrenik, baztertu egin dira 2012ko Arau Subsidiarioek Lizeoa, Pagoeta txaletak eta Ipeñarrieta, 40 eremuetan proposatutako bizitegi-garapen berriak.
- Laugarrenik, berretsi egin dira indarreko Arau Subsidiarioetako egikaritzen ari diren eta ondorengo eremu eta azpierzemuei buruzko proposamenak, HAPO berrian proposatzen diren bide-antolamendua edo eraikuntza-, egikaritze- eta urbanizazio-baldintzak birdoitzearen kalterik gabe:
 - Gurutze Auzoa (8. HE): 79 etxebizitza eraikitzeko (+ eraik. + 22 lizentziarekin)
 - Gainzabal (13.1 azpierzemua): 76 etxebizitza (84, batez besteko tamaina 90 m²(s))
- Bosgarrenik, ondoren aipatuko diren jarduketaren egokitasuna berrestea proposatzen da, zenbait kasutan, gaur egun aurreikusitako eraikigarritasunean ondoren planteatzen denaren araberrako birdoikuntzak aurreikustearren kalterik gabe:

- Urzelai (2. HE):	18 etxebizitza	- 3 lehendik daudenak
- Barrenkale (3. HE):	3 etxebizitza eraikitzeko	
- Elgea (3. HE):	27 etxebizitza	- 4 lehendik daudenak
- Ipeñarrieta 28 eta 30 (15. HE):	20 etxebizitza	- 12 lehendik daudenak
- Seigarrenik, berretsi egin dira honako proposamen hauek ere, horien antolamenduan irismen handiagoko aldaketak ere sartu diren arren:

- Rodriguez (2. HE):	34 etxebizitza	- 9 lehendik daudenak
- Altamira – Santa Barbara (10. HE):	65 etxebizitza	- 1 lehendik dagoena
- Kamineroak (15. HE):	32 etxebizitza	- 1 lehendik dagoena
- Zazpigarrenik, jasodura baimendu da honako partzela honetan:

- Ipeñarrieta, 1	3 etxebizitza gehiago
------------------	-----------------------

- Zortzigarrenik, bizitegi-garapena proposatu da Gainzuri Komentuan:
 - Gainzuri Komentua (11. HE) 65 etxebizitza- 1 lehendik dagoena

Nolanahi ere, HAPO berrian proposatutako bide-antolamendua edo eraikuntza-, egikaritze- eta urbanizazio-baldintzak birdoitzearen kalterik gabe proposatzen da hori guztia.

Bestalde, prozesuaren amaierako fasean baieztatu egin da "2 Gainzuri-Mundo Mejor" HEN Gainzuri Komenturako formulatutako plangintza-alternatiba. 65 etxebizitza berri arterainoko garapen berria proposatzen zen eta aldeko iritzia zuen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren testuinguruan.

Horrek guztiak 400 etxebizitza gehigarri inguruko (391) proposamena eragiten du, baimendutako gehienekoa (690) baino kopuru txikiagoa eta prozesuan aztertutako gutxienekoa (360) baino handiagoa. Gainera, baliteke kuantifikatutako hiri-berrikuntzako zenbait proposamen xede horretarako LAGetan ezarritako jarraibideen arabera ez zenbatzea.

Eskaintako etxebizitza-kopurua merkaturatu daitekeen etxebizitza hutsen ehunekoarekin eta okupa daitezkeen landa-inguruneko baserri sakabanatuekin osatuko da. Halaber, etxebizitza berriak atera daitezke lehendik daudenak zatitzetik edo baimendutako erabilera-aldaketetatik.

Xede horietarako, Plan Orokor berriak 50 m²(s)-ko batez besteko gutxieneko etxebizitza-tamaina ezarri du hirigune historikorako (a.1), 90 m²(s)-koa eraikuntza irekiko etxebizitza-tipologiarako (a.2) eta 125 m²(s)-koa partzelako etxebizitza isolatueterako (a.3).

Planak, halaber, etxebizitza-erabilera lokal jakin batzuetan ezartzea baimentzeko egungo udal-ordenantza ere jasotzen du.

Nabarmentzekoa da ez dela eskaintzarik proposatu partzeladun etxebizitza isolatu edo familia bakarreko berrirako (a.3), lehendik daudenak finkatzearen kalterik gabe (Gainzuri, Zulueta, Pagoeta txaletak, eta Mugitegi).

Modu gehigarrian, etxebizitza-arloko aplikazioko legeriaren arabera eta udalak ezarritako jarraibideen arabera, bizitegi-eskaintza berriak hainbat etxebizitza-tipologia bereizten ditu: babes publikoko etxebizitza sozialak eta tasatuak, eta etxebizitza libreak egikaritzen ari diren jarduketetan eta jarduketa integratuen xede diren bizitegi-garapen berrietan.

Hala, ondorengo taulan egindako xehakapenaren arabera, Planak babes publiko sozialeko 96 etxebizitzako eta babes publikoko 78 etxebizitza tasatuko eskaintza aurreikusten du. Beraz, nolabaiteko babes publikoko araubidearen pean dauden etxebizitzek (174) jarduketa integratuetan ateratzen diren etxebizitza gehigarri berri guztien (339) % 51,32 hartzen dute, honako taula honek adierazten duen bezala:

EREMUAK ETA AZPIEREMUAK (Jarduketa integratuak)	BABES PUBLIKO SOZIALEKO ETXEBIZITZA BERRIEN KOPURUA	BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA TASATU BERRIEN KOPURUA	ETXEBIZITZA LIBRE BERRIEN KOPURUA (ordezkorik gabe)	ONDORIOZKO ETXEBIZITZA GEHIGARRI BERRIEN KOPURUA
GURUTZE AUZOA	33	24	22	79
RODRIGUEZ	6	6	22-9	34 - 9
ALTAMIRA-SANTA BARBARA	14	14	37 - 1	65 - 1
GAINZURI KOMENTUA	15	10	40 - 1	65 - 1
GAINZABAL	20	17	39	76
KAMINEROAK	8	7	17 - 1	32 - 1
GUZTIRA	96	78	165	339

Horrekin, ondoren justifikatuko den bezala, jarduketa integratu gisa hartutako eremu edo azpieroemu bakoitzean, esku artean daukagun kasuan legez eskatutako gutxieneko eskaera gainditzen da.

Lege-eskakizuna jarduketa integratuen xede-eremuei buruzkoa da. Plan Orokorreko zehaztapenen arabera, aurreko taulan sartutako seiak dira.

Ondoren, kasu bakoitzari dagokion justifikazioa formulatuko da eraikigarritasuna kontuan hartuta, ezinbestekoa den bezala.

Sei kasuetan hiri-erlaketaren eta -berroneratzearen xede diren hiri-lurrak dira:

- Gurutze Auzoa (8. HE):

Gurutze auzoan, Plan Orokor berriak egikaritzen ari den garapena finkatuko du behin betiko onartutako Hirigintzako Jarduketa Programaren arabera. Esan beharra dago eremuan etxebizitza babestuak baino etxebizitza libre gehiago garatu direla. Horrek justifikatzen du azken horiek eremuan duten ehuneko handia. 2012ko Arau Subsidiarioak onartzean behar ziren babes publikoko etxebizitzaren ehunekoak bete dira eremuan.

- Rodriguez (2.2 azpierzemua):

Rodriguez azpierzemuan 3.250 m²(s)-ko sestra gaineko bizitegi-eraikigarritasun berria aurreikusten da, gaur egun 660 m²(s)-ko eraikigarritasun estimatua dagoelarik. Horrek 2.590 m²(s)-ko eraikigarritasun-handitzea eragiten du, eta etxebizitza sozialetarako 518 m²(s)-ko gutxieneko eraikigarritasuna eta etxebizitza tasatuetarako beste 518 m²(s)-koa eskatzen du. Planak gutxieneko eskakizun hori ezartzen du.

- Altamira – Santa Barbara (10.1 azpierzemua):

Altamira-Santa Barbara azpierzemuan 5.850 m²(s)-ko sestra gaineko bizitegi-eraikigarritasun berria aurreikusten da, gaur egun 195 m²(s)-ko bizitegi-eraikigarritasun estimatua dagoelarik. Horrek 5.655 m²(s)-ko eraikigarritasun-handitzea eragiten du, eta etxebizitza sozialetarako 1.131 m²(s)-ko gutxieneko eraikigarritasuna eta etxebizitza tasatuetarako beste 1.131 m²(s)-koa eskatzen du. Planak gutxieneko eskakizun hori ezartzen du.

- Gainzuri Komentua (11.1 azpierzemua):

Gainzuri komentuen azpierzemuan 6.430 m²(s)-ko bizitegi-eraikigarritasuna aurreikusten da sestra gainean, eta gaur egun 357 m²(s)-ko bizitegi-eraikigarritasun estimatua dago. Horren ondorioz, eraikigarritasuna 6.073 m²(s) handitu da, eta gutxieneko eraikigarritasuna 1.215 m²(s) da etxebizitza sozialetarako eta 1.215 m²(s) etxebizitza tasatuetarako. Planak, hain zuzen ere, gutxieneko eskakizun hori ezartzen du, a priori etxebizitza tasatuen eraikigarritasunaren zati bat etxebizitza sozialetara bideratzea aurreikustearen kalterik gabe, hurrengo taulan adierazten den bezala.

- Gainzabal (13.1 azpierzemua):

Gainzabal azpierzemuan, Plan Orokor berriak egikaritzen ari den garapena finkatuko du behin betiko onartutako Hirigintzako Jarduketako Programaren arabera. Eremuan aise betetzen ziren 2012ko Arau Subsidiarioak onartzean behar ziren babes publikoko etxebizitzak ehunekoak. Izan ere, orduan eremuan aurreikusitako babes publikoaren xede zen eraikigarritasun-soberakinak 104 m²(s)-ko defizitarekin soilik konpentsatzen du bere garaian Ormazabal eremuan ateratzen zen gabezia, zegokion estandarra bete gabe garatutakoan. Beraz, 104 m²(s)-ko defizita ateratzen da, Kamineroak azpierzemuan konpentsatzen dena, ondoren ikusiko dugun bezala. Eremu horretan, Plan Orokorrek izaera orokorrek ezarritako 90 m²(t)-ko batez besteko tamaina aukeratuz gero, hurrengo taulan adierazitakoa baino zertxobait handiagoa izan daitekeen etxebizitza-kopurua baimentzen da.

- Kamineroak (15.2 azpierzemua):

Kamineroak azpierzemuan 2.880 m²(s)-ko sestra gaineko bizitegi-eraikigarritasun berria aurreikusten da, gaur egun 350 m²(s)-ko bizitegi-eraikigarritasun estimatua dagoelarik. Horrek 2.530 m²(s)-ko eraikigarritasun-handitzea eragiten du, eta etxebizitza sozialetarako 506 m²(s)-ko gutxieneko eraikigarritasuna eta etxebizitza tasatuetarako beste 506 m²(s)-koa eskatzen du. Planak gaintitu egiten du gutxieneko eskakizun hori, eta etxebizitza sozialetarako 680 m²(s)-ko gutxieneko eraikigarritasuna eta etxebizitza tasatuetarako beste 595 m²(s)-koa aurreikusten du. Horrela ateratzen den superabita 262 m²(s)-koa da, lehen adierazitako 104 m²(s)-ko defizita gaintitzen duena.

Horrela, aise betetzen dira eremu eta azpieroemuz guztietan babes publikoaren arloan aplikatu beharreko estandarrak eta konpentsatu egiten da 2012 Arau Subsidiarioak Kamineroak azpieroemuz egikaritzearen balantzearen ondoriozko defizita.

Hala, babes publikoko etxebizitzaren eskaintza kokapen egoki eta dibertsifikatuetan kokatzen da eta kohesio sozial handiagoa ahalbidetzen da.

Hortik guztitik taula hau ateratzen da:

ONDORIOZKO ETXEBIZITZA BERRIAREN ESKAINTZA

EREMUA	AZPIEREMUA	JAR.	ETX. KOP.	BPES	BPET	EL
1 - Gune historikoa		-				
2 - Labeaga	2.1 Rodriguez	Jl	34 (-9)	6	6	22
2 - Labeaga	2.2 Urzelai	ZJ	18 (-3)	0	0	18
3 - San Martin	3.1 Barrenkale	ZJ	3	0	0	3
3 - San Martin	3.2 Elgea	ZJ	27 (-4)	0	0	27
4 - Matxinporta						
5 - Gerra						
6 - Sagastitxipi						
7 - Kanposantua						
8 - Gurutze auzoa	+ 44 eraikita + 22 liz.	EE	79	33	24	22
9 - Elizalde						
10 - Nekolalde	10-1 Altamira-S.Barb.	Jl	65 (-1)	14	14	37
11 - Gainzuri-M.Mejor	11-1 Gainzuri Komen.	Al	65 (-1)	15	10	40
12 - Institutua						
13 - Lilibaso-Gainzabal	13.1 Gainzabal	EE	76	20	17	39
14 - Pagoeta	14.1 Zulueta	-				
14 - Pagoeta	14.2 Txaletak	-				
15 - Ipar Ipeñarrieta	15.1 Ip. 28-30	ZJ	20 (-12)	0	0	20
15 - Ipar Ipeñarrieta	15.2 Kamineroak	Jl	32 (-1)	8	7	17
15 - Ipar Ipeñarrieta	15.3 Ip. 1		+ 3	0	0	3
16 - Geltokia						
17- Hego Ipeñarrieta						
18 - Mugitegi	18.1 Mugitegi Etxeb.	-				
19 - Aparizio						
20 - Kaminpe						
GUZTIRA			422 (-31)	96	78	248 (-31)

Oharrak: Jl: jarduketa integratua; ZJ: zuzkidura-jarduketa; EE: egikaritzen.

2012ko Arau Subsidiarioetako babes publikoko etxebizitzaren defizita: 104 m²(s) BPET



Nolanahi ere, krisi-egoerak eta eragiten duen ziurgabetasunak, bizi dugun egoerak larrituta, langabezia-tasak eta kreditu-mugapenak, gai horren inguruan seguruenik hartu beharko diren neurri berrien kalterik gabe, zalantzan jar dezakete esku artean dugun proiektua baina, hala ere, gertaera horrek ez du oztopo izan behar udaletik jomuga hori posible egingo duen proiektua ahalbidetzeko, bestela ezinezkoa dena. Horretarako, ekimen pribatua ahalbidetu behar du eta ekimen publikotik hiri-birgaitzea eta –berritzea burutu behar ditu, esaterako, etxebizitza pribatua merkaturatzea, baita alokairuko erregimenean ere, Gainzabal eremuan, eremuaren kudeaketaren ondorioz udalak bereganatutako partzela batean edo Pagoetan esku-hartzearekin aurreikusten den bezala, adinekoentzako zuzkidura-ostatuak sustatuz.

Egoera horren aurrean, nahitaezkoa izango da esku-hartze publikoaren bidez proposatutako jarduketak sustatzea, bultzatzea edo babestea.

Programazioari dagokionez, Hirigintza Arau partikularretan berriaz ezarri dira garapen berriak egikaritzeko aurreikusitako epeak. Proposamenen bideragarritasuna, bestalde, HAPOren azterketa ekonomiko-finantzarioan justifikatzen da.

II.9.5.-Ekonomia-jarduerak.

Memoria honetako I.2.3.8.2 atalean modu exhaustiboan aipatu ditugu udalerriko ekonomia-jarduerak.

Esparru horretan, Planak hiriguneko merkataritza-jarduera eta hirugarren sektorekoa finkatzen ditu eta, aldi berean, lurralde-ikuspegitik eta Plana gidatzen duten jasagarritasun-irizpideetatik planteatzen du bere interesa, gero eta zaharrago den populazio baterako hurbiltasun-zerbitzuak ahalbidetuko dituen behar adinako nahastura duen hiri-ehunaren berme gisa.

Hori jakinda, Planak hirugarren sektoreko bideratutako lokal berriak proposatzen ditu garapen berrietan, hain zuzen ere, Santa Barbara, Rodriguez, Gainzuri komentua, Ipeñarrieta eta Kamineroak eremuetan. Garapen horiek 2.000 m²(s) inguruko eskaintza gehigarria eragingo dute, bizitegi-eraikinetako beheko solairuetako ezkaratzak alde batera utzita.

Gainera, Planak hirugarren sektoreko partzela baten antolamenduko hirigintza-proposamena baliozkotzen du Pagoeta eremuko "14.1 Hotela" azpieroan. 4.255 m²(s)-ko eskaintza da hirugarren sektoreko erabileretarako.

Urretxuko HAPO berriaren proposamenak, bestalde, indarreko Arau Subsidiarioek jarduera ekonomikoetarako globalki kalifikatutako lurzorua finkatzen ditu. Horrek esan nahi du, alde batetik, Matxinporta, Sagastitxipi eta Mugitegiko garapenak finkatuko direla.

Bestalde, ia osorik okupatu gabe dauden Hego Ipeñarrieta eta Kaminpe eremuak xede industrialak izango dutela ere berresten du. Horrek eskaintza garrantzitsua eragiten du arloan.

Gainera, gaiaren inguruan sortutako eztabaidaren ondoren, Plan Orokorrek Gerra eremuan lurzoru industrialak antolatzeko 2012ko Arau Subsidiarioen erantzuna berresten du, orain arte garatu eta egikaritu ez dena.



Hala, Plan Orokorrak honako eskaintza hau egin du erabilera industrialetarako, zati bat (Hego Ipeñarrieta) okupatuta egotearen kalterik gabe:

EREMUA	Ekonomia jardueretarako lurzoruaren azalera	Ekonomia-jarduera berrien eraikigarritasuna
Hego Ipeñarrieta	33.248 m ²	35.685,70 m ² (s) ²
Kaminpe	32.603 m ²	18.000 m ² (s)
Gerra	8.691 m ²	4.200 m ² (s)
GUZTIRA	74.542 m ²	57.885,70 m ² (s)

Plan Orokorrak, planteatutako helburuei erantzuna emateko xedez, Hirigintza Arau Orokorreran eta Partikularretan dagokion erregulazioa ezarri du.

Testuinguru horretan, bestalde, lokalak bizitegi bihurtzeko udal-ordenantza berrestea proposatzen da aztertzen ari diren egoeretan.

Bestalde, batik bat bizitegitara bideratutako hirigunean, oro har, zuzkidura jarduerak finkatzen dira. Zuzkidura horiek handitzea proposatu da eta hori enplegu-iturri gehigarria izan liteke.

Horrek guztiak eskaintza gehigarria eragiten du eta Hego Ipeñarrietako eraikigarritasuna % 20 okupatuta dagoela kalkulatuta, kopuru horretara iristen ez bada ere, jarduera ekonomikoan erabilera berrietarako eraikigarritasun-eskaintza 47.810 m²(s)-koa da, zenbateko esanguratsua eta udalerrirako, bere ingurunerako eta bien etorkizunerako interes bereziko aktiboa dena.

Etxebizitzaren inguruan Planak egindako proposamenei buruz adierazi dugun bezala, lidergo publikoa behar da beste behin ere eta, bereziki, udalaren lidergoa behar da, behar diren garapenak ahalbidetzeko.

Hala ere, Plan berriarekin, udalak lehen harria jarriko du xede horretarako, komunikazio-sistema ondoaren eta hirigunearen ondoko kokapen oso egokietan ekimenak sustatzea ahalbidetuz.

²Katastroko datuen arabera.

Bestalde, indarrean dagoen Ekonomia Jardueretarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurraldearen Arloko Planak, ekonomia-jardueretarako lurzorua antolamendu eta hirigintza-sustapenerako lehentasuneko interesekotzat jotzen du udalerria, eta aipatu berri diren proposamenak eta antzekoak baimentzen ditu.

Hirigunean bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren ekonomia-jardueren eta Gerra, Hego Ipeñarrieta eta Kaminpe eremuetan industria-izaerako ekonomia-jardueren aldeko apustu bereziak, bestalde, memoria honetan lehen aipatu den Goierri eta Urola Garaiaren espezializazio industrialari erantzuten dio.

Azkenik, jarduera-arloan, Plan Orokorrek modu osagarrian planteatzen du landa-ingurunearekin zerikusia duten jardueri laguntzea nekazaritzarako balio estrategiko handiko lurzoruetan jarduera guztiak finkatzeko eta baserri sakabanatuak aprobetxatzeko helburuarekin, landa-ingurunearen balio bereziak zabaltzeko eta horiekin gozatzeko aukera emango duten jarduerak ezartzeko baimena ere sartuz. Ahalik eta sinergia handienak lortzeko bidea bilatuko da horrela, aldi berean inguru hori ingurumen aldetik hobetzeko aukera emango baitute.

Arestian esandako guztiaren arabera, egungo krisi-egoeran, produkzio-sektore guztiak sustatzeko aukera da politika egokiena, eta hirigintza-plangintzan baliabideak aurkitu behar dira norabide horretako jardunbideak errazteko, adierazten ari garen bezala.

II.9.6. -Mugikortasuna eta irisgarritasuna.

Udalerriak eta bere hiriguneak irisgarritasun-baldintza onak dituzte prestazio handiko eta ibilbide luzeko trenbide- eta errepide-sareetatik, eta duela gutxi, bide-sarea osatuz, bide-konexioa inauguratu da Antzuolarekin Deskargan barrena; halaber, irisgarritasun ona dute Urretxuko hirigunea iparretik hegora zeharkatzen duen eta iparraldetik Azpeitiraino eta hegoaldetik Legazpiraino jarraipena duen bidegorritik. Beraz, finkatu egiten dira bide-, trenbide- eta bidegorri-sareak eta komunikazioen sistema orokorrean sartzen dira.

Trenbide-sareak Urretxu eta Zumarraga udalerrien artean garatutako geltokia du eta zerbitzua ematen dio udalerriri; geltokia Plan Orokor honetan mugatutako izen bereko hirigintza-eremuan dago (16. HE) eta aldirietako zerbitzu ona du eta baita ibilbide luzeko lineak ere.

Bestalde, Euskal Trenbide Sare Berriaren (ETSB) geltokia (edo geralekua) inplementatzen ari dira gaur egun Santa Luzian. Ekintza hori aukera bat izan daiteke udalerrientzat eta bere ingurune hurbilarentzat, prozesuan zehar azaldu den bezala. Trenbide Sare Berri horrek Urretxuko udalerria zeharkatzen du ekialdea-mendebaldea norabidean, lur azpian, tunel moduan, eta bere trazatua udal-mugarteko zonakatzeko globaleko planoan dago jasota (II.1 plano) trenbide-sistema orokorraren kalifikazioarekin, kasu bakoitzean gainazalean dagokion kalifikazioari gainjarrita. 2015eko TSLan eta ETSBri dagokion LAPean xedatutakoaren arabera egongo da egoera horretan.



Bide-arloan, HAPOk ahalbidetu egiten du Azkoitia-Urretxu errepidearen (GI-631) trazadura hobetzeko azkenean aukeratzen den irtenbidea egikaritzea eta, bereziki, udalerrian sartzeko ipar-loturaren antolamendua.

Bestalde, hegoaldeko hirigunera automobiler iristeko baldintzak nabarmen hobetzeko aukera ikusi da. Horretarako, HAPOk lehendik dagoen lotura berrantolatzea planteatzen du, trafikoa hirigunetik igarotzea saihestuz eta ingurune-hurbilean (Aparizio eta Hego Ipeñarrieta) hiri-jarraitutasuna hobetuz. Aparizio eta hiri-jarraitutasuna banatzen dituzte bide-mugimenduen premia ekidingo duen eta, gainera, bizitegi-azulo horretan zarataren arazoa arinduko duen biribilgunea egikaritzean datza proposatutako irtenbidea. Planeko planoetan eta ondorengo grafikoan irudikatuta dago eta aztertutako hainbat alternatibaren emaitza da, arloan eskumena duen administrazioarekin adostutakoa, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.



Irudian ikusten den bezala, aukera ematen du oinezkoentzako espaloiri Aparizoraino jarraipena emateko eta ekipamendu-partzela bat lortzeko.

Plan Orokorak, bestalde, Urretxuko hiriguneak horretarako duen gaitasuna ikusita, bere topografia eta tamaina kontuan hartuta eta ildo horretako ekimen batek zarata murrizteko, gas kutsatzaileen isuriak murrizteko, airearen kalitatea hobetzeko eta hirigune horren segurtasunerako eta hirigintza- eta ingurumen-birkalifikaziorako dituen onurak kontuan hartuta, funtsezko aldaketa bat proposatzen du eremuko mugikortasun-ereduetan.

Hala, bideak hierarkizatzea, ahal izanez gero, zirkulazio-noranzko bakarrek kaleak ezartzea, galtzaden azalera murriztea eta oinezkoentzako eta urarekiko iragazkorak diren zoladuradun akaberetarako espazioaren azalera handitzea proposatzen da.

Ildo berean, mugikortasun-modu desberdinen bizikidetzazona planteatzen dira eta Plan Orokorren honako ekimen hau nabarmentzen da: Labeagan, Urola ibaiaren ertzean hasi, Kalerrotan eta J. Mari Lasa plazan jarraitu eta Nekolalderaino, kiroldegi aurreraino iritsiko den espazio libre jarraitua eratzea. Pagoetan ere ildo beretik esku hartzea aurreikusten da.

HAPOko III.4 planoan modu grafikoan irudikatuta dago egindako proposamena, bere izaera orientatzailearen kalterik gabe. Proposamena prozeduraren jarraipenean edo aurrerago berretsi beharko da, pixkanaka-pixkanaka zehazten diren soluzioak inplementatzen direnean.

Ekimen horiei, udalaren Irisgarritasun Planean aurreratutako ildotik, Urolaren ibaiertza Labeaga kalearekin lotzeko igogailu publikoak ezartzeko aurreikuspena gehitzen zaie, Kalerrotan egiten ari den bezala, eta auzo garaietara jarraipena izatea. Hala, Gainzabal, Gainzuri Komentua (2) eta Altamira-Santa Barbara azpierrezuetan lau igogailu publiko berri jartzea aurreikusten du Planak, azpierrezu horietan aurreikusitako garapen berriak egiten direnean jarriko direnak. Horrekin, hirigintza-oztopoak kentzea planteatzen da, eraikinen irisgarritasun-baldintzak hobetzeko helburuen osagarri gisa. Egoera horrek, aldi berean, ibilgailu pribatuaren erabilera txikiagoa izatea eragingo du hirigunean jatorria eta helmuga duten mugimenduetan.

Horrek guztiak eragina izan behar du hirigunearen barneko mugikortasun-ereduetan. Plan Orokorrak, bestalde, beste neurri bat planteatzen du hirigunerako automobilak aparkatzeari dagokionez, Urzelai eta Nekolalden (Altamira baserriaren ondoan) egoiliarrentzako behar dena baino edukiera handiagoko garajeak aurreikusten dira xede horretarako, eta hiriguneko ibilgailuentzako sarbideetatik hurbil dauden Kamineroak eta Santa Barbaran (Gurutze auzoaren ondoan) behar dena baino edukiera handiagoko beste bi garaje, egoiliarrentzako nahiz ibilgailuak txandaka aparkatzeko. Arlo horretan eskaintza bat egoteak aukera emango du, pixkanaka-pixkanaka, kaleetan oinezkoentzako espazioa berreskuratzeko ere.

HAPOk, bestalde, aparkalekuen erregulazio berri bat proposatzen du Hirigintza Arau Orokorretan, bereziki beheko solairuetan, eta bizikleta eta beste ibilgailu batzuen aparkaleku-eskaerari ere erreparatzen dio.

Jasangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legean xedatutakoari erreparatuz, eremu publikoan elektro-hornigailuak jartzea ere aurreikusten da.

Mugikortasunak proposatutako eskemak 2007ko Mugikortasun Planak ezarritako noranzkoan beste urrats bat egitea esan nahi du, hirigunearen ingurumen-birkalifikazioari begira.


HAPOk bide publikoak egokitzeko helburua ere planteatzen du, kaleen konfiguraziotik eta horien aldapetatik sortzen diren arkitektura-oztopoak minimizatzeke xedez. Urbanizazio-lanen proiektuei dagozkien alderdiak dira, zeinak Planaren egikaritzapenean zehaztu ahal izango diren.

Behin eta berriz adierazten da gaur egun ohikoa dela Urretxun ibilgailu pribatua erabiltzea hirigune barruan mugitzeko; hiribilduaren tamainak, aldiz, esparru egokia eskaintzen du hirigintza-oztopoak kentzeko ekintzekin, proposatzen den bezala, oinezkoen mugikortasuna eta, ondorioz, ingurumen- eta bizi-kalitatearen hobekuntza handitzeko.

III.4 planoan deskribatu eta adierazitako esku-hartzeak aukera emango luke hiriguneko barne-mugimenduetarako ibilgailu pribatuen erabilera eta premia murrizteko.

Bestalde, hiri-sarean beste ekintza batzuk proposatzen dira ere bide-arloan, Arau Subsidiarioetan aurreikusitako desberdinak:

- Gainzabal-Pagoeta loturaren antolamendua:
Lilibasoko eta Gainzabalgo zaku hondoari jarraitutasuna ematea planteatzen da lehendik dagoen kirol-guneari eragin gabe.
- Altamira - Santa Barbara bidearen antolamendua:
Egungo Arau Subsidiarioetan aurreikusitako mendebaldeko bidea egikaritzea aintzat ez hartzea planteatzen da, eta horren orde ez eremuan mugikortasun motordunaren baldintzak berrantolatzea zirkulazioaren noranzko bakarra ezarriz, III.4 planoan irudikatzen den bezala.
Testuinguru horretan, hirigunearen mendebaldean bi kale berri antolatzeko proposamena ateratzen da, bere garaiak planteatutakoa eta baztertzea proposatzen dena. Ondorengo irudian irudikatzen da.



Bestalde, ahaleginak egingo dira udalerriko garraio kolektiboaren zerbitzua hobetuko duten neurriak hartzeko, bai autobus-geralekuak berrantolatuz eta bai Zumarragarako eta Urretxurako Zumarragan geltoki intermodal bat egiteko aurreikuspenari buruzko proposamenen bitartez.

Aparkaleku-arloan, proposatutako eskemak aire zabaleko aparkaleku-plazak berrantolatzea dakar, horrela erabakitzen bada, plaza-kopuru handiagoa antolatzea edo, bestela, oinezkoarentzako leku gehiago berreskuratzea bultzatuz, arestian aipatu den bezala.

Ildo horretako soluzio batek aukera ematen du hiri-ingurune lasai eta atsegina izateko, Urretxuko herritarrak eroso sentitzeko modukoa eta gehienak oinez mugitzeko modukoa, motordunen interferentzia handirik gabe.

Horrekin guztiarekin, mesede egingo zaio mugikortasun ez-motordunari eta herritarren arteko harremanari, horien osasunari eta, oro har, ongizateari, eta lagundu egingo du hirigunean ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzen eta oinezkoa hiri-sistemako protagonista bihurtzen.

Bestalde, udalerriko landa-errepideen sarea leku jakin batzuetan hobetzeko premia ere ikusten da (V.2 planoa), ibilgailuak gurutzatzea errazteko zabalguenak prestatuz.

II.9.7.- Espazio libreen sistema.

Egindako diagnostikoan agerian geratu da udalerriko espazio libre eta berdeguneen sistema birdefinitzeko premia. Bestalde, espazio horien zuzkidura, duela bi hamarkada eskasa zena, asko hobetu da Urola ibaiaren ezkerreko zati handi bat lehengoratzeko eta parke linealetara bideratzeko aukera eman duten garapen berrien ondorioz. Parkeak jarraitutasuna izan du iparrerantz eta hegorantz Urola trenbidearen trazatu ohia eraldatetik atera den oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideari esker, jarraitutasun horren zati bat Zumarragan, ibaiaren eskuinaldean gauzatzearen kalterik gabe.

Halaber, titulartasun publikoko espazio libreen sistema erabilera publikoko zortasuna duten espazio pribatu ugariarekin osatzen da hirigunean: Gernikako arbola, Madaya, Belaustegi eta Domingo Mendiaraz plazak eta Pagoetatik hurbil dagoen Labeagako aparkaleku-partzelaren estalkia.

Beraz, Plan Orokorrak espazio libreen sistema orokorraren eta tokikoa birdefinitzen ditu. Horretarako, lehenik eta behin, orain arte gauzatu ez diren 2012ko Arau Subsidiarioen bi ekimen baztertzeko proposatzen du: espazio libreen sistema orokorrean sartzeko "AIIF 5 HUA Espazio Berdea" 15.000 m² ingurukoa, eta "AIIF 7 Santa Bárbara Parkea" 108.000 m²-raino zabaltzea. Hala, horren azalera 20.000 m² ingurura mugatzea proposatzen da, udal-jabetzako lurzoruekin bat etorraraziz, udalak indibiso duen lursail bat izan ezik.

Bestalde, espazio libreen sistema orokorrean proposamen berriak txertatzea planteatzen da, esaterako, J. Mari Lasa plaza berrantolatzea, Nekolalderantz eta Kalerrotarantz luzatuz; Urola ibaiaren ondoan dagoen Lizeoa parkea eta ikastola aurreko Pagoeta plaza balioztatzea; Pagoetan eta Institutuan hiri-parke berriak antolatzea, bide-antolamendua eta zuhaitz gehiago aldatzea aurreikusiz; eta Irimoren mendei-hegalean, Santakutz ondoan kokatutako lursail bat landa-espazio libreen sistema orokor gisa sailkatzea. Halaber, atsedenleku gisa gaitzea ere proposatzen da, bideak gaituz eta bertako zuhaitzak landatuz.

Bestalde, "Berriotxoako triangelua" espazio libreen sistema orokor gisa sailkatzea finkatu egin da, 2012ko Arau Subsidiarioetan aurreikusita bai baina garatu gabe zegoena, eta lursail horiek lortze aldera "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieroemuan sartu da.

Hala, Plan Orokorrak udalerriko espazio libreen sistema orokorra proposatzen du. Ondorengo taulan dago jasota eta II.1 eta II.2 planoetan grafikoki irudikatuta.

ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA

Zona	Azalera (m ²)
Pagoeta plaza	3.397
Pagoeta parkea	8.547
Urola aldea Labeaga	2.472
Urola aldea San Martin: 1.786 + 739	2.525
Matxinporta	2.576
Etorbidea	3.296
Iparragirre plaza	2.038
San Martingo haurrentzako jokoa	832
Lizeoa	7.384
Institutuko parkea	10.490
Santa Barbara parkea	20.264
Santa Kutz parkea	45.869
GUZTIRA	109.690
Legezko gutxienekoa	41.550
Ratioa m ² /bizt. (> 5, 2/2016 Legearen irizpidearen arabera)	13,20 > 5,00
Ratioa m ² /bizt. (7.000 biztanle ingururako)	>15

Urretxuko biztanleriaren eta Plan Orokor berriko proposamenen norainokoaren arabera indarreko legeriak ezarritako legezko gutxienekoa 41.550 m²-koa da. Kalkulu honen bidez ateratzen da kopuru hori:

$$(6.746 \text{ biztanle} \times 5 \text{ m}^2/\text{bizt.}) + (391 \text{ etxeb. berri} \times 100 \text{ m}^2(\text{s})/25 \text{ m}^2(\text{s})/\text{bizt.} \times 5 \text{ m}^2/\text{bizt.}).$$



Beraz, erraz gainditzen da indarreko gutxieneko estandarra, Santa Barbara eta Santa Kutz landa-eremu libreak ere kontuan hartu gabe ($43.557 > 41.550$).

Ateratzen den azalera, 109.690 m^2 -koa, biztanleko 15 m^2 gainditzen dituen espazio libre orokorren ratioa ematen du, Urretxuk HAPOn epemugan (8 urte) izango dituen 7.000 biztanleko zenbateko hipotetiko baterako. Ratio horrek hirukoiztu egiten du arlo horretako etxebizitzako 5 biztanleko estandarra.

Plan Orokorreko Hirigintza Arau Orokorretan kontu horren inguruan xedatutakoaren arabera, berriaz adierazten da soberakin horrek aise estaltzen duela Planaren epemugan sor litekeen eskari gehigarria, lehengo eraikigarritasunean baimendu diren eta egungo etxebizitza-kopurua handitzea eragin dezaketen erabilera-aldaketen ondorioz.

Planak planteatzen duen proposamena, lehen aipaturiko planoetan ikus daitekeen bezala, kuantitatiboki nahikoa izateaz gain, udalerrian modu egokian banatutako espazio libreen sarea ahalbidetzen du eta, aldi berean, aldeko balorazioa ematen zaio ikuspegi kualitatibotik, horretarako proposatutako ekintzak gauzatu behar izatearen kalterik gabe.

Plan Orokorrak, "Berriotxoako triangelurako" adierazi den bezala, gaur egun publikoak ez diren hiri-espazio libreak jarduketa integratuetan txertatuta lortzea aurreikusten du. Bestalde, landa-espazio libreen kudeaketarako (Santa Barbaran partzela baten indibisioa lortzea eta Santakutz parkearen antolamendua) erosketa edo desjabetze bidez jokatzeko proposatzen da.

Espazio libreen sarea, bestalde, auzo, eremu eta azpiero desberdinetan kokatuta dauden eta horiei zerbitzu ematen dieten tokiko espazio libreekin osatzen da, inguruko premiei behara bezala erantzunez. Oro har, tamaina txikiagoa dute eta hirigune osoan hedatuta daude, III.1 planoan ikusten den bezala.

Plan Orokorrak aurreikusitako garapen berriak egikaritzean, udalerriko tokiko espazio libreen zuzkidura handitzea aurreikusten da, eta "5. Gerra", "8. Gurutze auzoa" eremuen eta "10.1 Altamira-Santa Barbara", "11.1 Gainzuri Komentua", "13.1 Gainzabal", "14.1 Hotela" eta "15.1 Kamineroak" azpieroeremuen garapenetatik partzela berriak sortzen dira xede horretarako.

Leku horien, oinezkoentzako ibilbideen eta oinezkoentzako bihurtzea edo batik bat oinezkoentzako izatea proposatzen den zonen antolamenduan, batez ere umeen eta pertsona desgaituen autonomia eta segurtasuna bermatzeko ahalegina egingo da.

Memoria honetako II.10.5 atalean, tokiko espazio libreen arloan aplikatu beharreko estandarrak betetzen direla justifikatzen da eta Planaren azterlan ekonomiko finantzarioan zenbait jarduketatan ikusten den espazio libreen defizitari dagokion zenbateko ekonomikoa balioesten da, globalki konpentsatzen bada ere.

II.9.8.- Komunitate-ekipamendua.

Udalerriak tokiko ekipamenduen zuzkidura garrantzitsua du eta kultura-, gizarte- eta kirol-arloko askotariko jarduerak. Jarduera horiek finkatu behar dira herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak bermatzeko.

Hala dio udalerrian dauden eta proposatu diren ekipamendu komunitarioen analisiari buruz udal-zerbitzuek 2017ko maiatzaren 30ean egindako txostenak ere: "Urretxuko udalak ekipamenduak sobera ditu udalerrian gaur egun dauden eta hurrengo hamarkadetan sor litezkeen eskola-, gizarte- eta kirol-premiei aurre egiteko".

Hala, ekipamendu-arloan, Plan Orokorrak, batetik, lehendik dauden zuzkidura publikoak eta pribatuak finkatzen ditu eta baita azken ekimenak eta abian direnak ere (esku-hartzeak Pagoetan: igerilekuen hobekuntza, emakumearen etxea, gazte eta adinekoentzako zuzkidura-ostatuak eta Aspace zentroa, besteak beste).

Bestalde, proposatutako antolamendutik bost partzela gehigarri ateratzen dira zuzkidura publiko gisa erabiltzeko modu honetan antolatuta:

- "5 Gerra" eremua.
Dagokion Plan Partziala izapidetzearen ondorioa izango da eremuaren antolamendu xehatua zehaztea.
- "10.1 Altamira- Santa Barbara" azpierenmua.
Inguruko ekipamendu-partzela berri bat da, gaur egun Altamira baserria dagoen ingurunean antolatutakoa.
- "11.1 Gainzuri Komentua" azpierenmua.
Labeaga kalearen aldamenean dagoen ekipamendu-partzela berri bat da.
- "14.1 Hotela" azpierenmua Pagoetan.
Inguruko ekipamendu-partzela berri bat da, gaur egun Altamira baserria dagoen ingurunean okatutakoa.
- "17 Hego Ipeñarrieta" azpierenmua.
Aparizio inguruko partzela da, bere egungo hedadura handitzen duena.

Gainera, Plan Orokorrak, lurzoruari eta hirigintzari buruzko indarreko legerian xedatutakoaren arabera, Elgea eta Kamineroak eremuetarako proposatutako garapen berriak egikaritzean beheko solairuan eta eraikinean lokal bana lortzea ahalbidetu eta kudeatuko du, Planeko ekipamendu-zuzkidura osatuko duten lokalak.

Ekipamendu-zuzkidura berri horiek eta bere berrantolaketaren ondorioz Gainzabal azpieren auzoan ateratzen den ekipamendu-partzelak aukera emango dute ikusten diren premiei erantzuteko (adinekoen zerbitzura dauden zentroak, zuzkidura-ostatuak, irakaskuntza-erabilerak...), jada abian dauden ekimenak osatuz.

Horretarako, Plan Orokor berriak ez du adierazten ekipamendu-partzela bakoitzerako jakineko helmuga bat. Izaera publikoko nahiz izaera pribatuko ekipamendu-partzeletarako komunitate-ekipamenduaren kalifikazioa ezartzen du eta, horrela, kasu guztietan baimentzen da partzela bakoitza kasu eta une bakoitzean dagokion ekipamendu-tipologiara bideratzea.

III.1 planoan grafikoki irudikatuta dago komunitate-ekipamenduko partzelen kokapena, bere izaera publiko edo pribatua kontuan izan gabe.

Bestalde, HAPO berriak gaur egun dagoen bezala finkatzen du irakaskuntza-erabilerara zuzendutako Lizeoa lursaila. Arau Subsidiarioek bizitegi-erabilerara zuzentzen zuten. 2012ko maiatzaren 31ko eta azaroaren 29ko erabakien ondorioa da hori. Udalak erabaki zuen Arau Subsidiarioetako 9. AIR Lizeoa "irakaskuntzako ekipamendu publiko gisa uztea", bere benetako erabilera finkatuz, eremu hori bizitegitarako gisa sailkatzeko Arau Subsidiarioen zehaztapenaren aurrean, eta xede horretarako dagokion "hirigintza-fitxa aldatzea" planteatuz, Arau Subsidiarioak berrikusteko prozesu honetan egingo dena. Ekimen horrek ere hezkuntza-arloan organo eskuduna den Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aldeko txostena jaso du, 2017ko irailaren 15ean egindakoa.

Bestalde, Plan Orokorak hirigintza-estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuko 2. Xedapen Gehigarrian eskolako ekipamendu publikoaren arloan xedatutakoari erantzuten diola ere ohartarazten da, eta esku artean dugun kasuan 4.500 m²-ko gutxieneko azalerako bi partzela behar dituela xede horretarako. Kontu horri dagokionez, Gainzuriko ikastetxe publikoak 7.500 m² inguruko azalera duela adierazten da eta Institutuak, berriz, 28.000 m²-tik gorakoa; irakaskuntzako bi partzela horiez gain, Urretxu Zumarraga ikastolari eta Lizeoari dagozkien ikastetxeak daude udalerrian, Pagoetan eta Labeaga kalean, hurrenez hurren.

Bestalde, Planaren proposamenak murriztu egiten du 2012ko Arau Subsidiarioek Gainzuriko komentu zaharrean aurreikusitako ekipamendu pribatuaren azalera, gaur egun erabiltzen ez dena.

Horrekin guztiarekin, egungo instalazioen aprobetxamendu hoberekin batera (igerilekua eraberritzea eta egin beharreko beste batzuk), udalerriko ekipamenduen zuzkidura handitu ahal izango da herritarrei zerbitzu hobea emateko eta gizarte-, laguntza-, kultura- (ekimen publikokoak zein pribatukoak), irakaskuntza-, kirol- eta aisia-jardueren funtzionamendu ona bermatzeko.

II.9.9.- Hiri-zerbitzuen azpiegiturak.

Udalerriak dituen zerbitzu-azpiegitura sareen ezaugarriak erreparatuta, ez da eskari edo gabezia esanguratsurik antzeman arlo horretan. Nolanahi ere, aurreikusitako garapen berriak egikaritzeak kasu bakoitzean behar diren sareak ezartzea eskatuko du.

III.5.1, III.5.2, III.5.3, III.5.4 eta III.5.5 planoetan grafikoki irudikatuta daude finkatu eta proposatzen diren azpiegiturak.

Edateko uraren hornidura Legazpiko Barrendiola urtegitik egiten da, eta banaketa udalerrian kokatutako ur-biltegien bidez. A priori, ez da sumatu erantzun berezia behar duen arazo berezirik HAPO berrian, baina hala ere sarea berritu egin behar da eta hodietako materialak aldatzen joan. HAPOn URAREN txostenean ur-bilketek buruz planteatzen diren jarraibideak jasotzen dira, eta baliabide hidrikoen nahikotasunari buruzko txostena eranstean da.

Saneamendu-sareak oinarritzeko-egitura du, Urola ibaiaren ezkerrean dagoen hodi-biltzaileak eta sareko kolektoreak horrekin lotzen dituzten adarrek osatutakoa. Ez da arazo esanguratsurik nabaritu, zenbait eremu sistema banatzaile batek soilik zerbitzatzen dituela ikustea alde batera utzita. Horregatik, hauek izango dira egin beharreko jarduketak: batetik, sarea pixkanaka berritzeak, hiriguneak zaharberritzearekin edo beste azpiegitura batzuk instalatu eta hobetzearekin batera egingo direnak eta, bestetik, sare guztiz banatzailea ezartzeko egiten direnak. Hala, kanalizazio berriak banatzaileak izango dira. Ez da, beraz, arazo esanguratsurik atzeman, eta saneamendu-sistemaren egokitasunari buruzko txosten sektoriala eranstean da.

Kontuan hartu behar da drainatze jasangarriaren erabilera, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 44. artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

Udalerria zeharkatzen duten EEESAREN jabetzako lineak finkatu dira (Arrasate-Zumarraga, 220 kV-ko L.A.T.E.E., eta Amorebieta-Itxaso 400 kV-koa). Urretxuko udal-mugartean dauden instalazio elektrikoek behar bezala hornitzen dute udalerria, aireko egungo kanalizazioak eta fatxadetara grapaz lotutako ordez, pixkanaka-pixkanaka, lur azpiko kanalizazio erregistragarriak jartzeko premiaren kalterik gabe. Halaber, fatxadako kutxak kentzea eta harguneak kontagailu-gela batetik barrualdetik egitea planteatzen da. Kanalizazioen diametroak eta materialak, erregistroen neurriak, hodian indargarriak eta abarrek indarreko erregelamendu elektroteknikoaren aginduak eta konpainia ustiatzaileen irizpideak beteko dituzte. Bestalde, transformazio-zentroak lur azpikoak, lonjakoak edo txabolakoak izango dira, ahal izanez gero horman erdi sartutakoak. Ez da arazo esanguratsurik atzeman.

Gasaren banaketa-sareak erantzun egokia ematen die Urretxuko premiei. Neurria egokitzeko bi estazio ditu hirigunearen iparraldean eta hegoaldean estrategikoki kokatuta. Ez da arazo esanguratsurik atzeman.



Udalak hiriguneari zerbitzu egokia ematen dion argiteria publikoko sarea du. Hala ere, egokia izango da sarea optimizatzea eraginkortasun handiagoaren bila. Horretarako, teknologia berriak ezarriko dira, eta sistema adimentsua hura kudeatzeko. Ez da arazo esanguratsurik atzeman.

Telefónica eta Euskaltel konpainien sareek, bestalde, erantzun egokia ematen diete udalerraren premiei telekomunikazio-arloan. Ez da arazo esanguratsurik atzeman. 2014ko maiatzaren 9ko Telekomunikazio Lege Orokor berrian xedatutakoa bete beharko da.

Hondakin solidoen kudeaketa Sasetako Mankomunitateak egiten du. Mankomunitateak behar diren instalazioak ditu, helburua lortzeko behar den guztia ezartzearen kalterik gabe. Ez da arazo esanguratsurik antzeman.

II.9.10.- Ibai-ibilguak.

Planaren asmoa Urola ibaiaren ibilgua babestea eta haren balioa nabarmentzea da, azken hamarkadetan bere ezker aldean egindako jarduketek jarraitzea emanaz.

Ibaiaren ondoko kokapenetan egindako jarduketak direla eta, bere garaian balioetsiko da gaur egun estaldurak dauden tokietan aire zabaleko trazatua izateko aukera ere. Bestalde, ezin da baimendu ibilguen gainean eraikitzea.

Plan Orokorra bi garapen berri planteatzen ditu hiri-lur gisa sailkatutako Urola ondoko lurretan:

- Horietako bat, bat dator "2.2 Rodriguez" azpieroan aurreikusitako jarduketa integratuarekin. Ibaiaren ezker aldean lurzoru publikoa handitzea proiektatzen da, ibaiertzeko pasealekuari jarraitutasuna emanaz, hirigintza-oztopoak kenduz eta uholde-arriskua minimizatuz.
- Beste bat "Berriotoako triangelua" "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieroan aurreikusitako jarduketa integratuari gehitzearekin dator bat, hain zuzen ere, erabilera horretarako urbanizatuko diren espazio libreen sistema orokorreko espazio libretara bideratu ahal izateko, Kantauriko Plan Hidrologikoko 40.5 artikuluan xedatutakoa betez.

Bestalde, lurzoru urbanizazinean, Urola ibaiaren ezker aldeko antolamendu-baldintzak hobetzeko ahalegina egingo da Urretxuko udal-mugartean.

Edozein kasutan, Planak ibilgu publikoak identifikatzea eta babestea aurreikusten du, bai Urola ibaiarenak eta bai bertan urak isurtzen dituzten erreka eta jariatzeenak (Mendaraz, Txakolin, Pagoeta eta Erbizulo edo Sagastixipi), aplikatu beharreko arloko araudira egokituz.

Kontu horrekin jarraituz, beharrezkotzat jotzen da ibilguen ondoko eremuak ingurumen-ikuspegitik lehengorazten ahalegintzea ibaiertzeko zerrenda batean zortasunak ezarrita, gutxienez zortasun-eremuko 5 metroetan, bide, zoladura, betelan edo hiri-altzarietako beste elementurik gabe, baldin eta hori posible bada.

Testuinguru horretan, uren kalitatearen hobekuntzari jarraipena ematea aurreikusten da, azken urte hauetan ere bilakaera ona izan baitu.

Planak, halaber, Hego Ipeñarrietako Txakolin errekaen ibilgua hobetzeko esku-hartzea proposatzen du; izan ere, errekaen estaldura lurzoru publikora lekualdatzen da, 5 metroko atzerapena errespetatuz.

Plan Hidrologikoko 43.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehendik zegoen egoera konpentsatzea proposatzen du, hau da, Txakolin erreka-estalduraren ibilguaren trazadura hobetzea Mugitegiko eremuan, erreka-estaldura zati batean instalatuta dagoen tokian eta, ordezpen-kasuetan, eraikin berria zati batean desestali eta atzera eramatea proposatzen da.

Kaminpe, Sagastitxipi eta Matxinporta eremuei dagokienez, dagozkien Hirigintza Arau Partikularretan jaso da, eremu horietan esku hartzen denean, ingurumena hobetzeko konpentsazio-jarduketak planteatu beharko liratekeela, eremu horietan dauden edo ez dauden beste eremu batzuetako estaldurak kentzea barne, hori posible denean.

Nolanahi ere, ezin izango dira baimendu ibilguetan egindako eraikinak, lurpean egon edo ez, ezta eraikin eta itxitura berriak ere zortasun-eremuetan; halaber, Mendiartz eta Urola ibilguak bat egiten duten tokitik hurbil biribilgune bat egiteko proposatzen den obra dela eta, Mendiartz erreka eta haren zortasun-eremuari eragitea saihestu beharko da.

Era berean, "5 Gerra" eta "8 Gurutze auzoa" hirigintza-eremuetako eta "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpierzemuko Hirigintza Arau Partikularretan, administrazio hidrauliko eskudunaren nahitazko baimena eskatu beharra jasotzen da.

Modu osagarrian, kontuan hartu da uholde-arriskua proposamen berriak formulatzeko, eta lehentasunezko jario-guneetan ibilgu-ertzeko urbanizazioek egungo sestre eustea aurreikusi da.

Nolanahi ere, Planak proposatutako esku-hartzeak urbanizatutako lurzoruetara mugatzen direla adierazten da, proiektatzen diren jarduketek kaleen zeharkako sekzioa hobetzea baztertu gabe, bereziki espaloiena. Gainera, aplikatu beharreko legeriak, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoak eta URAk Urolaren UAPEEri buruz Urretxu-Zumarragan egindako azterketak zehazten dutenera egokituko dira.

Zehazki, Nekolalde 10. HEko uholde-arriskuko eremu txikian, Plan Orokorrek espazio libreen sistema orokor gisa proposatutakoan, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 40.2 eta 40.5 artikuluetako baldintzak bete beharko dira. Era berean, Plan Orokorren arabera Labeaga, San Martin, Ipeñarrieta eta Geltokia eremuetan gerta daitezkeen erabilera-aldaketek Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko 40.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.



Halaber, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko 44. artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 126. artikuluko 7. puntuaren drainatze jasangarriko sistemen erabilerari buruz jasotako xedapenak nahitaez bete behar direla zehazten da Planean.

Zonakatzeko II.1 planoan grafikoki irudikatuta daude gainazaleko urak, baita gaur egun estalita dauden tartek ere, URAk eskatu duen bezala. IV.3 planoan, bestalde, baldintzatzaile gainjarri gisa irudikatu dira uholde-arriskua duten zonak (C.S. 6), arrisku horrek eragiten dien eremuetan proposa daitezkeen ekimenak direla-eta kontuan hartzeko.

Plan Orokorrak, bestalde, harguneak eta iturburuak (IV.1 planoan) identifikatu eta babesten ditu, dagokien baldintzatzaile gainjarria (C.S. 2) ezarritik.

Halaber, Planak ur-hornidurarako zuzkiduraren eta saneamendu-sarearen eskaera berriei aurre egiteko txostena jaso du, eta Plan Orokor honetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanari gehitu zaio eranskin gisa. URAk nahitaez eman behar du ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanari buruzko erabakia eskaera horiek bermatzeko baliabiderik dagoen ala ez adieraziz.

Xede horretarako, adierazten da Plan Orokor berriak 400 etxebizitza berri (391), 7.000 m²(s) berri inguru, hirugarren sektoreko erabileretarako, 5.000 m²(s) inguru, ekipamendu berrietarako eta industria-jardueretarako 50.000 m²(s) inguru antolatze aukera ematen duela adierazten da. Nolanahi ere, Plan Orokorra bat dator Goierriko Lurralde Planean aurreikusitakoarekin, eta plan horrek lurraldearen ikuspegi globaletik aurreikusita eduki behar izan ditu alderdi horiek. Saneamenduari dagokionez, bereziki kontuan hartuko da MKPHko 54.6 artikuluan xedatutakoa.

II.9.11.- Hartutako soluzioen justifikazioa.

Aukeratutako soluzioak indarreko Arau Subsidiarioak berrikusteko udalaren erabakiaz geroztik jarraitutako prozesuaren emaitza dira eta prozesu horretan bertan, bere jarraipenean, gauzatutako eztabaidan eta hiritarren eta arloko ekarpenetan justifikatzen dira, interes publikoari erantzunez, Planaren onespene berriaren ondoren jendaurrean edukitzearen ondorioz ateratzen denaren kalterik gabe.

Prozesuan zehar planteatutako irizpide eta helburuei egokitutako erantzuna ematen dietelako ere justifikatzen dira, eta, bereziki, udalak markatutako jarraibideei.

Beste askoren artean, ikuspegi urbanistikotik nahiz ingurumen-ikuspegitik justifikatzen dira, Plan Orokorrean txertatutako eta paraleloan egindako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketan ere jasota dagoen bezala.

Plan Orokor honetan txertatutako eta xede horretarako espezifikoki egindako azterlanaren arabera, bideragarritasun-ikuspegitik ere justifikatzen dira.



II.10.- Proiektuaren garapena eta egikaritzea.

II.10.1.- Hirigintza Eremuen mugapena.

Udalerriaren hiri-ingurunearen multzo osoaren barnean (lurzoru hiritarrek eta Gerra eta Institutua eremuetako lurzoru urbanizagarriko sektoreek osatua), hamabost hirigintza-eremu identifikatzen eta mugatzen ditu planak, horietan planteatzen diren hirigintza-proposamenak argiago eta sistematikoago azaldu ahal izateko.

Hirigintza-proposamenak zehazteari eta azaltzeari begira, lurralde-eremu autonomoak dira, eta batez ere honako irizpide hauek bere osotasunean aintzat hartuta egin da mugaketa:

- * Lehendik dagoen hirigintza-araubidea finkatzea edo ez finkatzea.
- * Eraginpeko lurrek hirigintza-ikuspegitik duten sailkapena.
- * Abiaraziko diren garapenen jatorria hirigintzaren ikuspegitik.
- * Aipaturiko lurren egiturazko antolamendurako eta kalifikazio orokorrerako proposamenak.
- * Antolamendu xehatu edota zehatzerako proposamenak.
- * Planteatutako antolamendua garatzeko eta gauzatzeko aurreikuspenak.

Hona hemen zerrenda:

- 1. HE - Gune historikoa
- 2. HE - Labeaga
- 3. HE - San Martin
- 4. HE - Matxinporta
- 5. HE - Gerra
- 6. HE - Sagastitxipi
- 7. HE - Kanposantua
- 8. HE - Gurutze auzoa
- 9. HE - Elizalde
- 10. HE - Nekolalde
- 11. HE - Gainzuri-Mundo Mejor
- 12. HE - Institutua
- 13. HE - Lilibaso-Gainzabal
- 14. HE - Pagoeta
- 15. HE - Ipar Ipeñarrieta
- 16. HE - Geltokia
- 17. HE - Hego Ipeñarrieta
- 18. HE - Mugitegi
- 19. HE - Aparizio
- 20. HE - Kaminpe

Aldi berean, bere mugapena "III.2" planoan jasotakoa da.

II.10.2.- Plangintza udalerrri mugakideekin koordinatzea.

Udalerrri berean integratutako lurren multzoak osatzen du Hiri Antolamenduko Plan Orokorren eremua, eta plan hori onartzetik eratorritako ondorioak -egikaritasuna, betebeharezkotasuna, etab.- ezingo dira beste herrialde batzuetara zabaldu.

Baina lurraldearen errealitatea bera, etenik gabeko osotasuna den heinean, hainbat kasutan, zaila izaten da udalerrri bateko edo beste bateko muga administratiboak bezain zurruna eta itxia den zerbaitetan lotzea eta sailkatzea.

Horregatik dira garrantzitsuak lurralde-antolamenduko tresnak eta, bereziki, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta Lurraldearen Zatiko Planak, horietako erabaki eta proposamenek udalerrriaren mugak gainditzen baitituzte.

Beraz, udalerrien ertzen hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak nahiz proposamenak gauzatzeak koordinazio- eta lankidetzajarrerak eskatzen dituzte, kasu bakoitzean eragiten dieten udalbatzen aldetik.

Kasu honetan, Urretxuko udal-barrutia da plan honen erreferentzia-esparrua, eta, lehen adierazi den bezala, hura onartzeak dituen ondorioak ez dira hedatuko udalerrriaren mugetatik harago.

Bestalde, bere lurralde-konfigurazioa, bere hiriguneko baldintzatzaileak eta abar kontuan hartuta eta Zumarraga udalerriarekin osatzen duen hiri jarraituaren kalterik gabe, ez da neurri berezirik hartu behar izan udalerrri horretako plangintzarekin koordinatzeko, ez eta udalerrri mugakideen plangintzarekin ere (Legazpi eta Antzuola), udalerrri mugakide horien artean euren etorkizuneko proiektuak kontrastatzearen komenigarritasunaren kalterik gabe. Hain zuzen ere, berrikuspen horren plangintza-aurrerakina egiteko, Urretxuko udalak haren berri eman zien hiru udal mugakideei.

Hala ere esan beharra dago Urretxu eta Zumarragako geltoki intermodala ezartzeko lurralde-antolamendutik proposatzen den esku-hartzeak bere plangintza integratua beharko duela, "16. HE Geltokia"-ri dagokion hirigintza-eremuari ere egiten diolarik, bere Hirigintza Arau Partikularren jasota dagoen bezala.

Udal mugakideen arteko koordinazio-ildo horretan, Urretxuk eta Zumarragak badute Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plan bat bi udalerrietarako.

Beasain-Zumarraga (Goierri) Lurralde Zatiko Planak, bestalde, Zumarraga eta Urretxuko plangintzak koordinatzea aurreikusten du etxebizitzak kuantifikatzeko. Kontu horri erantzuna eman dio 2019ko LAGen dokumentu berriak, arestian aipatutakoaren arabera. Udalerrri bakoitzerako dagokion kuantifikazioa proposatu da, indarrean dagoen LPParen egokitzapena edo berrikuspena dela eta xedatzen denari kalterik egin gabe.



Testuinguru horretan, Plan Orokor berriak indarreko lurralde-antolamenduko tresnetan jasotako lurralde-izaerako zehaztapenak eta aurreikusitako errepideen foru-sarea, trenbide-sarea eta bidegorri-sarea gehitu ditu, koordinatzeko edo bateragarri egiteko beste mekanismo batzuk eskatzen dituzten gatazkarik nabarmendu gabe.

II.10.3.- Hirigintza-sailkapenaren esparruko irizpideak, helburuak eta proposamenak. Lurzoru hiritar gisa sailkatutako lurretan planteatutako hirigintza-garapenei lotutako eskubide eta betebeharren erregimena.

A- *Urretxuko lurraren bilakaeraren eta okupazioaren estrategia.*

Urretxu udalerriko asentamenduak denboran zehar gauzatu den bilakaera- eta garapen-prozesu luze baten emaitza dira, oinordetzan jasotako egungo egoera eragin duena, aurreko belaunaldien lanetik oinordetzan jasotakoa.

Plan honek, asentamendu horiek finkatzen ditu neurri handi batean eta, bereziki, hirigunea. Aldi berean, hirigune horren zati jakin batzuk berritzeko eta berroneratzeko hainbat jarduketa proposatzen ditu, landa-ingurunera edo ingurune naturalera zabaltzea eragingo duten beste jarduketarik aurreikusi gabe, bere ertzak birdoitzearen kalterik gabe.

Hiriaren ikuspegitik dauden behar eta eskariei gaur egungo egituraren barnean erantzuten dien lurraldearen garapen-eredua adierazten du horrek guztiak, eta, udalerriko lurren hirigintza-sailkapenari dagokionez, hiru lur-mota bereizten ditu: hiritarra, urbanizaezina eta urbanizagarria, azken hori Gerra eta Institutua eremuetara mugatzen delarik, 8.691 eta 38.910 m²-ko azalerakoak, hurrenez hurren (udal-mugarte osoaren % 0,63), indarreko Arau Subsidiarioek aurreikusitakoak.

B.- *Lurren hirigintza-sailkapena.*

2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean xedatutakoari erreparatuta, udalerriko lurak sailkatzea eta lur horiek lur-mota desberdinetan txertatzea proposatzen da, ondorengo irizpideen arabera:

a) Hiri-lurzorua.

Udalak hartutako erabakien arabera eta horren ondorioz aurreikusitako antolamendu-ereduaren arabera, hirigunearen azalera minimizatuz eta indarreko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako mugapenarekiko mugak birdoituz, hiri-lurzoru gisa sailkatzen dira aipaturiko legean lur mota horretakotzat jotzeko xedatutako baldintzak betetzen dituztenak.

Lur horiek Plan Orokor honetako "4. Planoak" dokumentuko "II.3. Lurzoruaren Sailkapena (Udal-mugartea)" eta "II.4 Lurzoruaren Sailkapena. Hirigintza Eremuen Mugapena (Hiri-ingurunea)" planoetan jasotakoak dira zehazki.

Guztira, 688.999 m²(s)-ko azalera dute. Azalera hori udal-mugartearen azalera osoaren % 10 baino gutxiago da (% 9,15).



Azalera hori, bestalde, gaur egun indarrean dagoen plangintzaren (Arau Subsidiarioak) ondoriozkoa baino txikiagoa da, hau da, 692.329 m² baino txikiagoa.

Gainera, Lege horretan bertan xedatutakoaren arabera, lur-mota horren barruan ondoren azalduko diren bi kategoriak bereizten dira.

Hori bai, hura identifikatzea antolamendu xehatua zehazteko esparruan egin beharreko zeregina da eta, horrexegatik, Plan honetan bertan egiten da, antolamendu xehatua hiri-lur osoan finkatzen duelako, zenbait eremutan modu partikularrean planteatzen daitezkeen esku-hartzeen norainokoaren arabera Plan Bereziak idaztearen kalterik gabe, esaterako, "16. HE Geltokia", "17. HE Hego Ipeñarrieta" (partzela bati edo hainbat partzelari buruz) edo "20. HE Kaminpe".

Honako hauek dira kategoriak:

- * Hiri-lurzoru finkatugabea.

Lurzoru-mota eta -kategoria honetan sartzen dira aipaturiko Legean kontu horren inguruan xedatutako baldintzak betetzen dituztenak. Horren barruan bi lurzoru-azpikategoria hauek bereizten dira:

- Hiri-lurzoru finkatugabea urbanizazio finkatuaren gabeziagatik edota gutxiegitasunagatik.
Lurzoru-mota eta -kategoria horretan sartzen dira, hiri-lurzoru gisa sailkatzeko behar diren baldintzak eta, besteak beste, lehen aipaturiko Legeko 11. artikuluko "3.b.1" atalean xedatutako eskakizunak betetzeaz gain, haietan aurreikusitako antolamendua egikaritzeko xedeetarako jarduketara integratuko eremuei atxikitzen zaizkien lurak.
Plan horrek modu honetan sailkatu eta kategorizatzen ditu "2.2 Rodriguez", "10.1 Altamira-Santa Barbara", "11.1 Gainzuri Komentua" eta "15.1 Kamineroak" azpieremuetako lurak. Halaber, lurzoru-azpikategoria berean sartuta daudela ulertu behar da indarreko plangintza xehatua egikaritzen ari zaien lurzoruak ere, esaterako, "13.1 Gainzabal eta "14.1 Hotela" azpieremuak eta "8. HE Gurutze auzoa" eta "14. Pagoeta" eremuetan finkatugabe dauden lurak.
- Hiri lurzoru finkatugabea, eraikigarritasun haztatua areagotzearen ondorioz.
Lurzoru-mota eta -kategoria horretan sartzen dira, hiri-lurzoru gisa sailkatzeko behar diren baldintzak eta, besteak beste, lehen aipaturiko "11." artikuluko "3.b.2" atalean xedatutako eskakizunak betetzen dituzten lurak. Modu osagarrian, jakineko lur batzuk lurzoru-mota eta -azpikategoria honetan sartzeko xedez, besteak beste, esku hartzeko honako irizpide hauek aintzat hartzea proposatzen da:
 - . Aurreko azpikategorian sartzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituzten lurretan eraikigarritasun haztatua handitzea eragiten duen hirigintza-aurreikuspen orok lurzoru-mota eta -azpikategoria honetan sartzeari justifikatzen du.
 - . Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntza sestra gainean zein azpian gerta daiteke. Horrela, soto-kopurua handitzea aurreikusten den guztietan gertatuko dela ulertzen da.

- . Halaber, erabilera-aldaketaren kasuan, erabileren haztapen-koefizienteak eta HAPOko Hirigintza Arau Orokorak aplikatetik ateratzen dena bete beharko da.

Plan Orokor hau eta bai berorren garapena sustatuko duen plangintza onartzeko unean baldintza horiek betetzen dituzten lurak ofizialki eta araudiaren ikuspegitik mota eta azpikategoria horretako lurzorutzat hartu behar dira une horretatik aurrera.

Izaera hori dute, beste batzuen artean, honako lurzoru hauek:

- . Plan honek berariaz horrela sailkatu eta kategorizatu dituen lurzoruak. Hauexek dira, zehazki:
 - * "2.1. Urzelai" azpieremua.
 - * "a.2/3.1 Barrenkale, 7" partzela
 - * "3.1 Elgea" azpieremua.
 - * "a.2/15.1 Ipeñarrieta, 1" partzela
 - * "15.1 Ipeñarrieta 28-30" azpieremua
- . Bere garapenean sustatutako plangintza xehatuan modu horretan kategorizatutako beste lur batzuk.
- . Indarreko plangintzan xedatutakoaren arabera, eraikigarritasun haztatuaren aipaturiko gehikuntza eragiten duten hirigintza-jarduketan xede diren beste lur batzuk.

* Hiri-lurzoru finkatua.

Lurzoru-mota eta -kategoria horretan sartzen dira ondoren azalduko diren egoeretakoren batean dauden lurak:

- Hirigintza-plangintzak (Plan Orokorak berak edo bere garapenean sustatu beharreko plangintza xehatuak) egungo egoeran finkatutako lur urbanizatuak eta eraikiak, lehendik dauden eraikinak eraitsi eta ordeztzen diren kasuan, baimendutako hirigintza-eraikigarritasunean egindako beheranzko birdoikuntza posibleen kalterik gabe.
- Lur eraikigarriak eta eraiki gabeak, orubetzat jotzeko baldintzak betetzen dituztenak, baldin eta eraikigarritasun haztatua handitzeagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatzeko eta kategorizatzeke baldintzak betetzen ez badituzte.
- Lur eraikigarri eta eraiki gabeak, baldin eta eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatu eta kategorizatzeke baldintzak betetzen ez eta orube-izaera ez badute, orube-izaera lortzeko norainoko mugatuko urbanizazio-lanak egikaritzea eskatzen dutenak.
- Hirigintza-plangintzaren arabera, modu protagonista eta esanguratsuan behintzat eraikigarriak ez diren lurak, urbanizatuta daudenak eta egungo egoeran finkatzen direnak, urbanizazioa hobetzeko jarduketan aurreikuspenaren kalterik gabe.
Hori da, besteak beste, lehendik dauden eta finkatuta dauden hiriko espazio libreen eta hiriko bideen kasua.
- Modu protagonista eta esanguratsuan behintzat eraikigarriak ez diren, irismen eta kostu mugatuko urbanizazio lanak egikaritzeko zain dauden eta hiri-bilbe finkatuaren barruan kokatuta dauden lurak.

Beste modu batean esanda, lurzoru-kategoria horretan sartzen dira hiri-lurzoru gisa sailkatzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten lurrak, baina ez urbanizazio finkatuaren gabeziagatik edo gutxiegitasunagatik nahiz eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzea justifikatuko luketenak.

Plan Orokor hau eta berorren garapenean sustatu beharreko plangintza xehatua onartzeko unean baldintza horiek betetzen dituzten lurrak ofizialki eta araudiaren ikuspegitik mota eta kategoria horretako lurzorutzat hartu behar dira une horretatik aurrera.

Hiri-lurzoruaren kategorizazioa Plan Orokor honetako III.2 planoan irudikatu da.

b) Lurzoru urbanizagarria.

Gerra (5. HE) eta Institutua (12. HE) eremuak soilik identifikatu dira lurzoru urbanizagarri gisa Plan Orokor honetako "4. Planoak" dokumentuan sartutako "II.3. Lurzoruaren Sailkapena (Udal-mugartea)" eta "II.4. Lurzoruaren Sailkapena. Hirigintza-eremuen mugapena (Hiri-ingurunea)" planoetan.

Indarreko Arau Subsidiarioek horrela sailkatutako lurzoruak dira eta, guztira, 47.601 m²(z)-ko azalera dute. Udal-mugartea osoaren % 0,63 baino ez da. Lurzoru urbanizagarri sektorizatuak dira biak. Gerra sektorearen antolamendu xehatua Plan Partzial bat izapidetzeari lotzen zaio eta Institutua sektoreari dagokiona, berriz, dokumentu honetan dago jasota.

c) Lurzoru urbanizaezina.

Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dira Plan Orokor honetako "4. Planoak" dokumentuko "III.3. Lurzoruaren Sailkapena (Udal-mugartea)" planoan modu horretan identifikatutako udalerriko lurrak.

Guztira, 6.792.672 m²(s)-ko azalera dute. Azalera hori udal-mugartea osoaren % 90,22 da.

C.- Lurzoru hiritarretan planteatutako hirigintza-garapenei lotutako eskubide eta betebeharren erregimena. Urbanizazio-kargak. Haien eta hauen norainokoa.

Hiri-lurzoruaren jabeen eskubide eta betebeharrak nahiz urbanizazio-kargen norainokoa eta hedadura zehaztu ahal izateko, indarreko legerian, Plan Orokor honetan bertan eta berorren garapenean sustatutako plangintzan xedatutakoa bete beharko da.

Hori gauzatzea edota betetzea, besteak beste, plan honetako "2. Hirigintza Arauak" dokumentuan xedatutako irizpideetara egokituta egin beharko da.



II.10.4.- Hirigintza-antolamendua gauzatzeko irizpideak eta proposamenak.

A.- *Sarrera.*

Hirigintza-antolamenduaren egikaritzea prozesu konplexua da, askotariko izaera eta irismeneko fase eta osagaiak osatutakoa.

Horrela, salbuespenen kalterik gabe, egikaritze hori fase berezietan hartutako edota gauzatutako erabaki eta jarduketan emaitza da edo izango da, eta, esaterako, hainbat dokumentu egitearekin (Plan Orokor hau, finkatutako plangintza, berorren garapenean sustatu beharreko plangintza, beharrezkoa den kasuetan sustatu beharreko Hirigintzako Jarduketa Programak, berdinbanatze-proiektuak, urbanizazio-obren proiektuak, eraikuntza-proiektuak, etab.), urbanizazio-lanak nahiz eraikuntza-lanak gauzatzearekin eta abarrekin lotuta egongo da.

Ondoren, kontu horri dagokionez eta indarrean dagoen hirigintza-legerian xedatutako irizpideen arabera, plan honetan planteatzen diren proposamen orokorrak azalduko dira, bai eta horiek erantzuten dieten irizpideak ere; eta, horretarako, beren egiturazko eskala edo eskala xehatua ere identifikatuko da.

B.- *Hirigintza egikaritzeko aurreikuspenak egiturazko antolamenduaren mailarekin.*

Besteak beste, zehazteko helburua duten aurreikuspen-multzoa da.

- * Planteatutako garapenak gauzatzeko sekuentzia eta estrategia, arreta bereziki jarduketa integratuen xede izan behar dutenetan jarrita.

Bere helburu nagusia planteatutako proposamenen garapen- eta egikaritze-prozesuen denbora-, ekonomia- edo hirigintza-programazioko irizpideak zehaztea da, arlo horretan jarduketa integratuen xede izan behar dutenei nahiz egitura-izaerako zuzkidura publiko proiektatuei (bide-azpiegiturak, hiriko zerbitzuenak, ekipamenduenak, etab.) arreta berezia jarrita.

Hori bai, oro har, aipaturiko jarduketa integratuko eremuen mugapen zehatz eta ofizialak ez du egiturazko antolamenduaren mailarik, inolaz ere.

- * Udalerriko sistema orokorren sarea garatzeko eta gauzatzeko sekuentzia eta estrategia, dagokion kasuan, gauzatze-eremuetan txertatzeko edo sartzeko jarraibideak barne, bai berorien programazioen xedeetarako eta bai horien eraginpeko lurra eta obren gauzatze eta ordainketa lortzeko.

Hala, "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieremuan espazio libreen sistema orokorra osatzera bideratutako azalera sartu da ("Berriotxoako triangelua") udalak doan lortuko duena dagokion jarduketa integratua egikaritzuz.

Bestalde, Santa Barbara eta Santakutz landa-parkeetan egiten den esku-hartzea desjabetze-jarduketan xede izango da proiektuak zehazten direnean.



- * Plan honen garapenean sustatu beharreko plangintza xehatua landu eta onartzeko epeak, hura formulatzea aurreikusten den kasuetan.

C.- *Egikaritzeko aurreikuspenak antolamendu xehatuaren mailarekin.*

Plan honek berak lurzoruen antolamendu xehatua definitzen duen kasuetan, antolamendu xehatu hori, funtsean eta beste batzuen artean, berori gauzatzeko honako aurreikuspen hauen zehaztapenarekin osatzen da:

- * Beraien barnean dauden lurrek eta, hala dagokionean, haiei atxikitakoek osatutako jarduketa integratuko eremuen mugaketa edota identifikazioa, Hirigintzako Jarduketa Programen formulazioaren xedeetarako.

Aurreikuspen hori, hala badagokio eta egokitzat jotzen bada, ondoriozko egikaritze-unitateen mugaketarako irizpideak finkatuta osatzen da.

Arlo horretan indarrean dagoen hirigintza-legerian jasotako irizpideei nahiz aurrerago azaltzen direnei erantzuten diete mugaketa horiek. Modu osagarrian eta orokorrean, dagokion antolamendu xehatuaren zehaztapenerako garapen-plangintza formulatzea aurreikusten den kasu guztietan, eremu haien mugaketa aipatutako plangintzari lotzen zaio.

- * Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatutako lurrek eta lursailek osatutako egikaritze-eremuen identifikazio kontzeptuala eta, hala dagokionean, grafikoa, zuzkidura-jarduketan xede dena.

Egikaritze-mota horri lotzen zaizkio, aurrez azaldutako hirigintza-sailkapeneko irizpideen arabera, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatu eta kategorizatzen diren lurak.

Eta epigrafe horretan bertan azaldutakoarekin bat, eremu horien identifikazio grafiko zehatza eta behin betikoa plangintzan bertan (Plan Orokor honetan jasotakoa) nahiz plangintza egikaritzeko prozesuan zehaztutakoa da/izango da.

- * Hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatutako eta jarduketa isolatuei lotutako lurrek eratutako egikaritze-eremuen identifikazio kontzeptuala.

Egikaritze-mota horri lotu behar zaizkio, aurreko epigrafean azaldutako hirigintza-sailkapeneko irizpideen arabera, aipaturiko lurzorua eta -kategorian sartzen diren eta jarduketa-modalitate horri lotutako obren xede diren lurak.

Kasu honetan ere, eremu horien identifikazio grafiko zehatza eta behin betikoa plangintzan bertan nahiz berori egikaritzerakoan zehaztutakoa dela edo izango dela ulertu behar da.

- * Desjabetze-jarduketak, sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoetara eta beroriek gauzatzera zuzendutako lurak lortu ahal izateko.

Desjabetzeetarako aurreikuspen horiek, kasu desberdinetan, lur horiek planteatutako hirigintza-garapenari lotzeko beste batzuekin osatzen dira, eta, zehazki, jarduketa integratuko eremuekin, egikaritze-unitateekin edota garapen horiekin lotuta zehazten diren zuzkiduretarako jarduketekin.

- * Erabileren haztapen-koefizienteen zehaztapena, ondorengo berdinbanaketa-proiektuetan izan daitezkeen eguneratzeen kalterik gabe.

Geroago azalduko diren irizpideei erantzuten diete zehazki.

D.- Izaera orokorreko urbanizazio-lanak egikaritu eta abonatzeko irizpide orokorrak.

Oro har, indarrean dagoen hirigintza-plangintzan, Plan Orokor hau barne, planteatutako hirigintza-jarduketak eta -garapenak kasu bakoitzean xedatutako hirigintza-betebeharrak betetzeari lotuta daudela ulertu behar da, urbanizazio-lanak ordaintzeko eta, hala dagokionean, egikaritzeko arloan planteatutakoak barne.

Egikaritze-unitateetan txertatutako jarduketak eta garapenak izanik, betebeharrak horiek, beste batzuen artean, indarrean dagoen Lurzoru eta Hirigintza Legeko 147. artikuluan eta Lege horretan bertan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan jasota dauden eta arlo horrekin zerikusia duten gainerakoetan araututako hirigintza-kargei lotutakoak dira.

E.- Hirigintza-egikaritzapeneko lurralde-eremuak.

- a) Eremu horiek identifikatzeko eta mugatzeko irizpide orokorrak.

Eremu horiek indarreko hirigintza-legerian daude araututa.

Hain zuzen ere, legeria horretan araututako jarduketa-mota bakoitzari elkartutako lurrek eratzen dute kasu bakoitzean: jarduketa isolatuak, zuzkidura-jarduketak, jarduketa integratuak eta sistema-sare orokorren eta tokikoen zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak.

Kasu honetan, eremu horiek honako irizpide hauen arabera mugatzea planteatu da:

- * Kasu bakoitzean xede guztietarako haien barne dauden lurrek nahiz haiei atxikitakoek eratzen dituztela ulertuko da.
- * Eremu horietan sartzan dira edo horiei atxikitzen zaizkie kasu bakoitzean planteatutako hirigintza-garapenari elkartutako lur guztiak, irabazizko erabileretara edo zuzkidura publikotara zuzenduta dauden edo ez eta espazioan duten jarraitutasuna edo jarraitutasun eza alde batera utzita.

Horrela, eremu horiei atxikita daude edota eremu horien barnean sartzen dira aipaturiko garapenei lotutako zuzkidura publiko orokorretara eta tokikoetara zuzendutako lur guztiak, lur horiek administrazioak hartzeko xedeetarako nahiz dagozkien obrak gauzatu eta ordaintzeko xedeetarako direnean.

Zehazki, udalak eskura ditzan, espazio libre orokorretara (SO) zuzentzen diren lurak jarduketa integratuen programei eta zehazten diren zuzkidurakoei lotzen zaizkie, Plan Orokorrean ezarritako baldintzetan, betiere.

- * Planteatutako helburuak lortzeak, arestian aipaturikoak barne, egikaritze-eremu jarraituak nahiz etenkakoak mugatzea justifikatzen du edota justifikatu ahal izango du.

Zehazki, espazioan jarraipena duten nahiz jarraipenik ez duten hiri-lurzoruak direnean, aipaturiko eremuak dagozkien lurak barne hartuta edo atxikita eraten dira. Erabaki egokiak Plan honetan zehazten dira, edo hirigintza-prozesuaren ondorengo faseetan hartu beharko dira, planteatutako helburuak lortu ahal izateko soluzio baten edo bestearen egokitasunari erreparatuta.

"V.1. Hirigintza egikaritzeko baldintzak" planoan zehaztu dira grafikoki mugatuko eremuak.

b) Jarduketa integratuko eremuak (JIE).

Urbanizazio finkatuaren gabeziagatik edota gutxiegitasunagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatutako lurak hartzen dituzten eremuek osatzen dituzte.

Plan honetan ezarritakoaren arabera, "2.2 Rodriguez", "10.1 Altamira-Santa Barbara", "11.1 Ginzuri Komentua" eta "15.1 Kamineroak" azpieremuak jarduketa integratuko eremuak dira, beren ezaugarriei eta proposatutako garapenerako baldintzatzaileei erreparatuta.

Aldi berean, kontuan hartu behar dira "13.1 Ginzabal(Proposatutako antolamendu xehatu berriaren ondorioz aldatu ahal izatearen kalterik gabe), "14.1 Hotela" azpieremuei eta "8. HE Gurutze auzoa" eta "14. Pagoeta" eremuei dagozkien egikaritzen ari diren jarduketa integratuak ere.

Halaber, Plan honen garapenean susta daitekeen plangintza xehatuak jarduketa integratuko beste eremu batzuk ere zehaztu ahal izango ditu horrelako plangintza egitea eskatzen duten eremuetan ("5 Gerra" eremua).

c) Zuzkidura-jarduketan xede diren eremuak (ZJE).

Eraikigarritasun haztatua handitzeagatik hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatutako lurrek osatzen dituzte.

Hori bai, eremu-mota horiei lotutakotzat jo behar dira bai lehen aipaturiko eraikigarritasun handitzearen eragin zuzena jasotakoak eta bai, indarrean dagoen hirigintza-legerian nahiz Plan Orokor berrian bertan xedatutako irizpideekin bat etorriz, aipaturiko handitzearekin lotutakotzat jo behar diren zuzkidura publikotara zuzendutako edota elkartutakoak.

Plan honetan xedatutakoaren arabera, mota horretakoak dira eremu hauek:

- * "2.1. Urzelai" azpieroemua.
- * "a.2/3.1 Barrenkale, 7" partzela
- * "3.1 Elgea" azpieroemua.
- * "a.2/15.1 Ipeñarrieta, 1" partzela
- * "15.1 Ipeñarrieta 28-30" azpieroemua
- * Plan honen garapenean sustatuko den plangintzak zehazten dituenak.
- * Mota horretakotzat sailkatzeko eta kategoria hori emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituztenak.

d) Jarduketa isolatuko eremuak (JIE).

Hiri-lurzoru finkatutzat jotzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten lurrek osatzen dituzte.

Beste batzuen artean, eremu horiei lotzen zaizkie lursailak orube-izaera hartzeko egikaritu behar diren urbanizazio-obrek eragindako lursail guztiak.

Horien mugaketa grafikoa eta berariazkoa lehen adierazitako moduan eragindako lurren sailkapena eta kategorizazioa eragiten duten jarduketan zehaztapenaren eta identifikazioaren testuinguruan gauzatu behar da.

e) Zuzkidura publikotara zuzendutako lurak lortzeko desjabetze-jarduketak (ZPJ).

Desjabetze-bidez esku hartuko da administrazioak zuzkidura publikotara zuzendutako lurak lortzeko, indarrean dagoen legerian horretarako xedatzen diren kasuetan.

Hain zuzen ere, desjabetze bidezko esku-hartzea proposatzen da Santa Barbara eta Santakutz landa-parkeetan.

f) Egikaritze-unitateak eta jarduketa-sistemak.

Horien mugaketaren xedeetarako, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legean xedatutakoaren arabera, Hirigintzako Jarduketa Programetan eta hirigintza-plangintzan bertan erabakitakoa bete beharko da.

g) Plangintzarekin bat ez datozen eraikinak.

Indarreko hirigintza-legerian adierazitakoaren arabera, antolamendu xehatuaren zehaztapena plangintzarekin bat ez datozen eraikinen identifikazioarekin osatu behar da, haren proposamenekin bateragarriak ez direlako. Arlo horretan eta Plan Orokor honi dagokionez, honako hauek dira esku hartzeko irizpideak:

- * Bere antolamendu xehatua zehazteko xedez garapen-plangintza egitea eta izapidetzea aurreikusten den eremu eta azpierreuetan, Plan honi dagokio bat ez datozen eraikinak identifikatzea eta horien tratamendurako jarraibideak zehaztea.

Eremuaren edo azpierreuaren antolamendu xehatua zehazten duena Plan hori izateak justifikatzen du horrelako plangintza bat.

- * Plan honek antolamendu xehatua zehazten dien eremu eta azpierreuetan, Xehetasun Azterketa bat egitea aurreikusten da antolamendu hori birdoitzeko edo berresteko xedez eta lehendik dauden eta antolamendu horrekin bateraezinak diren eraikinek 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeko "101.3.b" artikuluan aurreikusitako araubidea bete beharko dute (hirigintza-plangintzarekin bat ez datozen eraikinak).

Harik eta Xehetasun Azterketa onartzen ez den arte, eraikin horietan dagozkien erabileretarako erabili ahal izateko baldintza egokietan mantentzeko behar dituzten obrak egin ahal izango dira, aipaturiko Legeko "101.5" artikuluan aipatutakoak izan ezik (modernizatzeko, finkatzeko, bolumena handitzeko, edo hobekuntzarako obrak).

Xehetasun Azterketa onartu ondoren, eraikin horiek Lege horretako "101.3.a" artikuluan aurreikusitako araubidearen pean geratuko dira (antolamenduz kanpoko eraikinak). Une horretatik aurrera, eta beste antolamendu bat egikaritzen den arte, eraikina osasungarritasun-, segurtasun- eta apaingarri publikoko baldintza egokietan mantentzeko behar dituen obrak soilik egin ahal izango dira.

Kasu horietan antolamendu xehatuaren behin betiko zehaztapena eta/edo berrespina Xehetasun Azterketa formulatu eta onartzearen baitan geratzeak justifikatzen ditu proposamen horiek.

- * Plan honek antolamendu xehatua zehazten dien eta Xehetasun Azterketa bat egitea aurreikusten ez den eremu eta azpieremuetan, lehendik dauden eta antolamendu horrekin bateragarriak diren eraikinek 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeko "101.3.a" artikuluan aurreikusitako araubidea bete beharko dute (antolamenduz kanpoko eraikinak).

Eraikin horietan osasungarritasun-, segurtasun- eta apaingarri publikoko baldintzetan mantentzeko behar diren obrak soilik egin ahal izango dira. Kasu horietan antolamendu xehatua Plan honetan behin betiko zehaztuta egoteak justifikatzen du proposamen hori.

Modu osagarrian, lehendik dauden eta hiri-lurzoruetan, urbanizagarrietan nahiz urbanizaezinetan aurreikusitako zuzkidura publiko orokorrak (bide-sistema orokorra...) antolatu eta egikaritzeko proposamenek eragiten dien edo horiekin bateraezinak diren eraikinak, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeko "101.3.b" artikuluan aurreikusitako araubidearen pean geratuko dira (hirigintza-plangintzarekin bat ez datozen eraikinak) dagokion obra publikoko proiektua (edo antzekoa) egin eta onartzen den arte.

Harik eta proiektua onartzen ez den arte, eraikin horietan dagozkien erabileretarako erabili ahal izateko baldintza egokietan mantentzeko behar dituzten obrak egin ahal izango dira, aipaturiko Legeko "101.5" artikuluan aipatutakoak izan ezik (modernizatzeke, finkatzeko, bolumena handitzeko, edo hobekuntzarako obrak).

Proiektua onartu ondoren, eraikin horiek Lege horretako "101.3.a" artikuluan aurreikusitako araubidearen pean geratuko dira (antolamenduz kanpoko eraikinak). Une horretatik aurrera, eta egikaritzen den arte, eraikina osasungarritasun-, segurtasun- eta apaingarri publikoko baldintza egokietan mantentzeko behar dituen obrak soilik egin ahal izango dira.

F.- *Landa-lurreko eta lurzoru urbanizatuko egoerak.*

2015eko urriaren 30eko Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera, Urretxuko udal-mugarteko lurra landa-lurzoruko egoeran nahiz lurzoru urbanizatukoan integratutakotzat jo behar dira.

Hain zuzen ere, Plan honetan hiri-lurzoru gisa sailkatuta dauden lurrek lurzoru urbanizatuko egoeran integratutakotzat jotzeko behar diren hirigintza-baldintzak biltzen dituztela esan daiteke. Halaber, lur horien baldintza materialak kontuan hartuta, lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezin gisa sailkatutako lurak landa-lurzoruko egoeran daude.

G.- *Erabileren haztapen-koefizienteak.*

Indarreko hirigintza-legeriak erabileren haztapen-koefizienteak zehaztea aurreikusten du hirigintza-antolamendu xehatuaren esparruan eta, hala dagokionean "birbanaketa-tresnek eguneratu ahal izango dituzte".

Kasu horretan, "3.1 Bideragarritasun ekonomikoaren eta finantzarioaren azterketa" dokumentuan nahiz Plan Orokor honetako Hirigintza Arau Orokorretan azaldutako irizpideen arabera zehaztea proposatzen da. Honako hauek dira irizpide horietako batzuk:

- * Lurzoru urbanizatuak proiektatutako erabileretara zuzendutako eraikigarritasunean duen eragin-balioa da haietako bakoitzari dagozkion koefizienteak zehazteko parametroa.
- * Babes publiko sozialeko etxebizitzari lotutako eraikigarritasuna (erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren parekoa) aipaturiko koefizienteak zehazteko erreferente orokortzat jotzen da. Horregatik, 1,00 koefizientea esleitu zaio.
- * Koefizienteak udalerriko ingurune hiritarrean mugatutako eremuetan aplikatzea aurreikusten da.
- * Koefizientea eguneratzea proposatzen da, baldin eta edozein motatako inguruabarrek (finkatutako koefizienteak zaharkitzea; udalerrriaren egoera ekonomikoa – higiezinena aldatzea, etab.) justifikatzen badu.

Gainerakoan, aipaturiko dokumentuan koefiziente horien zehaztapenari buruz azaldutakoari eta bere justifikazioari lotuko gatazkie.

H.- *Urbanizazio-obren proiektu-motak eta horiek formulatzeko irizpideak.*

Aurreko aurreikuspenak proiektatutako urbanizazio-obrak zehaztu eta egikaritzeko behar diren proiektuak egiteko irizpideekin osatzen dira, batez ere haiek eragindako eremuen mugaketari dagokionez eta xede horrekin egin eta sustatu beharreko proiektu-motaren identifikazioari dagokionez.

Honako hauek dira xede horrekin sustatu beharreko proiektu-motak:

- * 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeko 194. artikuluan araututako urbanizazio-proiektuak.
- * Urbanizazio-lan osagarrien proiektuak, aipaturiko Lurzoru eta Hirigintza Legeko 195.1 artikuluan araututakoak, hala dagokienean, jarduketa isolatuetan behar diren urbanizazio-lanak zehazteko xedez sustatutakoak.

Oro har, kontuan hartu behar da eraikuntza-proiektuen proiektu osagarriak direla.

Gainera, aipaturiko kasuan, hura formulatzea zuzkidura-jarduketak deiturikoen testuinguruan beharrezkoa izan daitekeela ulertzen da.

- * Aipaturiko Legeko "195.2" artikuluan araututako gainerako obra-proiektuak.

Horiek formulatzeko irizpideak aipaturiko legean xedatutakoak dira, bai eta Plan Orokor honetako Hirigintza Arau Orokorren eta Partikularren garapenean zehazten direnak eta plangintza xehatuan zehazten direnak ere.

I.- Programazioa.

Plan Orokor honetan ezarritako hirigintza-antolamenduko aurreikuspenak honako dokumentu hauetan ezarritako garapen- eta egikaritze-prozesuaren programazioari buruzkoekin osatzen dira.

- * "2.1. Hirigintzako Arau Orokorrak".
- * "2.2. Hirigintza Eremuen Hirigintza Arau Partikularrak".
- * "3.3. Jarduketa Programa".

Aurreikuspen horiek eragina dute, besteak beste, plangintza xehatua, hirigintzako jarduketa-programak, urbanizazio-obren proiektuak, eraikuntza-proiektuak, etab. egin eta egin eta izapidetzeko jarduketan programazioan, haiek formulatzea beharrezkoa den kasuetan.

Une honetan, aipaturiko dokumentuetan gai horri buruz azaldutakoari lotzen gatzazkio.

J.- Lurzoru urbanizaezineko esku-hartzeak.

Halaber, lurzoru urbanizaezinean garatu eta egikaritzeko arloan hartu beharreko soluzioak eta kudeaketa-baldintzak definituko dira Planean.

II.10.5.- Tokiko hirigintza-estandarrak betetzearen justifikazioa.

A.- Sarrera.

Zehazki, indarrean dagoen uztailaren 3ko 123/2010 Dekretuak, hirigintzako estandarrei buruzkoak, xedatzen ditu estandarrak (6. Artikulua eta ondorengoak).

Dekretuan ezarritakoari erreparatuz, estandar horiek bete behar dituzten hirigintza-garapenak hiri-lurzoru finkatugabeetan aurreikusten direnak dira, bere bi kategorietan. Plan Orokor honen esparruan, honako inguru hauetan aurreikusten diren garapenak dira:

- * "2.1 Urzelai" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "2.2 Rodriguez" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "a.2/3.1 Barrenkale, 7" partzelan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "3.1 Elgea" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "8 Gurutze auzoa" eremuan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "11.1. Gainzuri Komentua" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "13.1 Gainzabal" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "14.1. Hotela" azpieroan aurreikusitako hirugarren sektoreko garapena.
- * "14 Pagoeta" eremuan aurreikusitako askotariko garapenak.
- * "a.2/15.1 Ipeñarrieta, 1" partzelan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "15.1 Ipeñarrieta, 28-30" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.
- * "15.2 Kamineroak" azpieroan aurreikusitako bizitegi-garapena.

"8 Gurutze auzoa" eremua eta "13.1. Gainzabal" eta "14.1. Hotela" azpieroak egikaritzen ari direla eta onartutako birpartzelazio-proiektuak ere badituztela kontuan hartuta (Gainzabal eta Hotela azpieroan kasuan aldatzeko premiaren kalterik gabe), garapen horietan aplikatu beharreko hirigintza-estandarrak bete dira, era berean "14 Pagoeta" eremuan 2012ko Arau Subsidiarioetako 1. Aldaketaren xede izan ziren lurretan gertatzen den bezala eta horien kalifikazio xehatuak irudikatzen duen bezala (HAPOko III.1 plano).

Beste egoera berezi bat a.2/3.1 Barrenkale, 7 partzelari dagokiona da, bertan eraikigarritasun-handitserik eragiten ez duena, eraikinaren beheko solairua berrantolatzera mugatuz.

Bestalde, Plan Orokorra lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako industria-garapena proposatzen du "5 Gerra" eremuan eta horren garapenean erantzuna eman beharko zaio aplikatu beharreko hirigintza-estandarren zehaztapenari. Horretarako, Plan Partzialak justifikatu egin beharko du indarrean dagoen hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2010 Dekretuko 9. Artikuluan xedatutakoa.

Hemen ohartarazten da Hego Ipeñarrieta eta Kaminpe eremuetan eraikinak finkatu egiten direla hiri-lur finkatuaren kategoria emanda, hiri-lur finkatugabearen kategorian sartzea eta proposamenak egikaritzen direnean plikatu beharreko hirigintza-estandarrak betetzeko premia eragingo luketen norainoko handiagoko esku-hartzeen kalterik gabe.

Azkenik, hasiera batean finkatuen kategorian sartuta dauden baina arrazoiren batengatik hiri-lur finkatugabe bihur litezkeen beste hiri-lur batzuetan egon litezkeen esku-hartzeak egikaritzean ere aplikatu beharreko hirigintza-estandarrak bete beharko dira.

B.- *Tokiko hirigintza-estandarrak betetzeari buruzko irizpide orokorrak.*

Irizpide horiek, zehazki, hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2010 Dekretuak xedatzen dituenak dira. Honako hauek dira, zehazki, horietako batzuk:

- * Estandar jakin batzuk (espazio libreak eta berdeguneak) zehazteko eta betearazteko erreferentziazko elementua, zehazki, kasu bakoitzean eraginpean hartzen den eremuaren azalera da, hau da, jarduketa integratuko edo zuzkidura espezifikoko eremua.
- * Beste estandar batzuk (beste zuzkidura publiko batzuk, aparkalekuak, etab.) zehazteko eta betearazteko erreferentziazko elementua, berriz, hirigintza-erakigarritasuna da, eta, zehazkiago, hirigintza-erakigarritasuna handitzea, aurrez gauzatu denarekin alderatuta.

Horregatik, kasu horietan, estandar horien aplikazioak zuzkidura publiko berriak edo gehiago antolatzea ekar dezake soilik, lehendik dagoen eraikigarritasuna handitzea aurreikusten denean; eta ez da horrelakorik izango, berriz, aurreko eraikigarritasunari eusten zaionean edo eraikigarritasuna txikiagoa denean.

- * Hirigintza-estandarrak betetzeari buruzko irizpide orokorra eta lehentasunezkoa zehazteko, nahitaezkoa da, beraz, kasu bakoitzean eragiten zaion eremuan horiek lotuta dauden zuzkidurak antolatzea egiaz. Dena den, eragiten zaion eremuaren eta proposatutako hirigintza-garapenaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek horrelakorik egiteko modurik ematen ez badute edo horrelakoak zail egiten badituzte, horiek lekualdatzera edo konpentsazio ekonomikoa ematera jo daiteke.
- * Modu osagarrian, zuzkidura publiko horiek multzokatu eta eremu zabalagoen zerbitzura jar daitezke.

C.- *Plan Orokor honetan tokiko hirigintza-estandarrak betetzeari buruzko irizpide orokorrak.*

Urretxuko hiri-inguruneko (lurzoru hiritarrak dira guztiak) era guztietako ezaugarri eta baldintzatzaileek, bere orografiari, tamainari, jarraitutasun materialari eta abarri buruzkoak barne, ingurune hori halakotzat hartzea justifikatzen dute, tokiko zuzkidura publikoen antolamenduari eta tratamenduari begira eta estandar horiek betetzeari begira.

Gainera, ezaugarri eta baldintzatzaile horiei esker, tokiko zuzkidura horiek Urretxuko herritar guztiek erabiltzeko moduan eta haien eskura daude, horien kokapena dena delakoa izanda ere.

Horregatik, tokiko hirigintza-estandarrak, besteak beste, ondoren ageri diren irizpide orokorrekin bat etorri betearaztea proposatzen du plan honek.

Alde batetik, hiri-ingurunearen multzo horretan hirigintza-estandar horiek modu globalean betearaztea proposatzen du, hirigintza-garapen berrien xede diren eremuetan zuzkidura publiko berrien antolamendu materiala egitea gerta badaiteke ere, baldin eta berorien ezaugarri eta baldintzatzaileek horretarako aukera ematen badute.

Horrela, osotasunean hartuta, hiri-inguruneak osatzen duen multzo horretan, estandar horiek betetzearekin lotutako eskakizunei erantzuten zaie, ondoren adierazten denetik ondorioztatuko den bezala.

Bestalde, aurrerago azalduko dugun bezala, plangintzako zenbait garapen berrirekin lotutako zenbait zuzkidura-eskakizun garapen horietan sortuko diren eskubideen titularrei dagokien balio ekonomikoa ordainduz betetzea proposatzen da.

Beraz, 123/2012 Dekretuko 7. artikuluan adierazten denarekin bat etorrita, diru-sarrera horiek, besteak beste, honako xede hauetara zuzentzen direla ulertu behar da: zuzkidura publikoetara zuzendutako lurak udalak eskuratzeari dagozkion kostuak ordaintzera; lehendik dauden zuzkidurak berritzeko eta hobetzeko obrak gauzatzera (bidearen jarraitutasuna Gainzabaldik Pagoetaraino, J.Mari Lasa plazaren berrantolaketa...); etab.

Esparru orokor horretan, tokiko hirigintza-estandar horiek betetzea proposatzen da, besteak beste, irizpide hauek aintzat hartuta, eta dagozkion aparkaleku pribatuko eta zuhaitzien zuzkidurak ebatzita:

- a) Hirigintza-estandarrak betetzea "2.1 Urzelai" azpieremuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpieremuaren azalerari (1.448 m²), proposatutako antolamenduaren ezaugarriei eta ateratzen den eraikigarritasunaren gehikuntzari erreparatuta, 2.950 m²(s)-koa kalkulatu da, 218 m²-ko azalera eskatzen da espazio libretarako, oinezkoak barne, eta 590 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako, eta azpieremuan bertan 156 m² soilik antolatuko dira berariaz oinezkoentzako espaziotarako.

Horren ondorioz, azpieremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ez dute posible egiten estandarrak betetzea eta 62 m²-tan kalkulatu den defizita sortu da espazio libretarako eta 590 m²-koa tokiko beste zuzkidura publiko batzuetarako. Estandarraren defizit hori bere balio ekonomikoa ordainduta bete beharko da. Nolanahi ere, globalki emango zaio erantzuna, arestian aipatu den bezala.



- b) Hirigintza-estandarrak betetzea "2.2 Rodriguez" azpieroan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpieroaren azalerari (1.721 m²), proposatutako antolamenduaren ezaugarriei eta ateratzen den eraikigarritasunaren gehikuntzari erreparatuta, 2.812,70 m²(s)-koa kalkulatu da, 259 m²-ko azalera eskatzen da espazio libretarako, oinezkoak barne, eta 563 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako, eta azpieroan bertan 794 m² soilik antolatuko dira berariaz oinezkoentzako espaziotarako.

Horren ondorioz, azpieroaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ez dute posible egiten beste zuzkidura publiko batzuei dagokien estandarra betetzea eta 28 m²-ko defizit txiki bat sortzen da. Estandarraren defizit hori bere balio ekonomikoa ordainduta beteko da. Nolanahi ere, globalki emango zaio erantzuna, arestian aipatu den bezala.

- c) Hirigintza-estandarrak betetzea "3.1 Elgea" azpieroan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpieroaren azalerari (1.072 m²), proposatutako antolamenduaren ezaugarriei eta ateratzen den eraikigarritasunaren gehikuntzari erreparatuta, 543,07 m²(s)-koa kalkulatu da, 161 m²-ko azalera eskatzen da espazio libretarako, oinezkoak barne, eta 109 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako, eta azpieroan bertan 500 m² soilik antolatuko dira berariaz oinezkoentzako espaziotarako.

Hala, azpieroaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek estandar horiek justifikatu eta betetzea ahalbidetzen dute dagozkien zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bitartez.

Horren ondorioz, azpieroan aplikatu beharreko estandarrak betetzen dira, oinezko espazioen 191 m²-ko superabita sortuz eta 391 m²(s)-koa tokiko beste zuzkidura batzuetarako.

- d) Hirigintza-estandarrak betetzea "10.1 Altamira-Santa Barbara" azpieroan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Eremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek estandar horiek justifikatu eta betetzea ahalbidetzen dute dagozkien zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bitartez.

Hala, azpieroaren azalerari (18.625 m², espazio libreen sistema orokorrari dagokion azalera alde batera utzita) eta ateratzen den eraikigarritasunaren gehikuntzari erreparatuta, 5.594 m²(s)-koa kalkulatu da, 2.794 m²-ko azalera eskatzen da tokiko espazio libretarako eta 1.119 m²-koa tokiko zuzkiduratarako, eta berariaz antolatu dira 3.916 m² tokiko espazio libretarako, orokorrean gain, eta 715 m²-ko partela bat zuzkidura publikotarako.

Horren ondorioz, azpierenuan bete egiten dira aplikatu beharreko estandarrak 1.122 m²-ko espazio libreen superabitak tokiko zuzkiduren 404 m²-ko defizita konpentsatzen duelako, zuzkidura publikotarako lurzoruaren superabit globala eraginez, 718 m²-ko espazio libreen azalera betez.

- e) Hirigintza-estandarrak betetzea "11.1 Ginzuri Komentua" azpierenuan aurreikusitako garapenaren esparruan.

Eremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek estandar horiek betetzea justifikatu eta ahalbidetzen dute, dagozkion zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bidez.

Hala, azpierenuaren azalera (6.369 m²) eta haren eraikigarritasuna (5.195 m²(s) (6.430 + 1.070 – 1.948- 357) kontuan hartuta, 955 m²-ko azalera behar da tokiko espazio libretarako, eta 1.039 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako. Berariaz, 969 m²-ko azalera antolatu da tokiko espazio libretarako, eta 1.784 m²-ko partzela zuzkidura publikotarako.

Ondorioz, azpierenuan aplikazio-estandarrak betetzen dira, eta espazio libreen 14 m²-ko superabita etabeste tokiko zuzkidura batzuetarako 745 m²(t)-ko superabita sortzen da.

- f) Hirigintza-estandarrak betetzea "a.2/15.1 Ipeñarrieta, 1" partzelan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpierenuaren azalerari (270 m²), proposatutako antolamenduaren ezaugarriek eta ateratzen den antolamenduaren ezaugarriek erreparatuta, 270 m²(s)-koa kalkulatu da, 41 m²-ko azalera eskatzen da espazio libretarako, oinezkoenak barne, eta 54 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako, bertan gauzatu ezin direnak.

Horren ondorioz, azpierenuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ez dute posible egiten beste zuzkidura publiko batzuei dagokien estandarra betetzea eta 41 m²-ko defizit txiki bat sortzen da espazio libretarako eta 54 m²-koa tokiko beste zuzkidura batzuetarako. Estandarraren defizit hori bere balio ekonomikoa ordainduta beteko da. Nolanahi ere, globalki emango zaio erantzuna, arestian aipatu den bezala.

- g) Hirigintza-estandarrak betetzea "15.1 Ipeñarrieta, 28-30" azpierenuan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpierenuaren azalerari (862 m²), proposatutako antolamenduaren ezaugarriek eta ateratzen den eraikigarritasunaren gehikuntzari erreparatuta, 1.430,57 m²(s)-koa kalkulatu da, 130 m²-ko azalera eskatzen da espazio libretarako, oinezkoak barne, eta 287 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako, eta azpierenuan bertan 318 m² soilik antolatuko dira berariaz oinezkoentzako espaziotarako.

Horren ondorioz, azpierenuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek ez dute posible egiten beste zuzkidura publiko batzuei dagokien estandarra betetzea eta 99 m²-ko defizit txiki bat sortzen da. Estandarraren defizit hori bere balio ekonomikoa ordainduta beteko da. Nolanahi ere, globalki emango zaio erantzuna, arestian aipatu den bezala.

- h) Hirigintza-estandarrak betetzea "15.2 Kamineroak" azpierenan aurreikusten den garapenaren esparruan.

Azpierenaren azalerari (4.547 m²), proposatutako antolamenduaren ezaugarriei eta ateratzen den eraikigarritasun-gehikuntzari erreparatuta, 1.022 m²(s)-koa kalkulatu da, 682 m²-ko espazio libretarako azalera eta azpierenan bertan 2.839 m² soilik antolatuko dira berariaz oinezkoentzako espaziotarako (mendi-hegaleko plaza eta lorategia) eta 500 m²(s) tokiko zuzkidura publikotarako.

Hala, azpierenaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek estandar horiek justifikatu eta betetzea ahalbidetzen dute dagozkien zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bitartez.

Horren ondorioz, azpierenan aplikatu beharreko estandarrak betetzen dira, oinezko espazioen 2.157 m²-ko superabita sortuz eta 295 m²(s)-koa tokiko beste zuzkidura batzuetarako.

Lehen adierazi den bezala, soberakinek adierazitako gabeziak erraz estaltzen dituztela ikusi da.

Gainzabalgo azpierenan kalifikazio xehatuan egindako aldaketen ondorioz sortu den egoera berria ere ebaluatu da:

- i) Hirigintza-estandarrak betetzea "13.1 Gainzabal" azpierenan aurreikusitako garapenaren esparruan.

Eremuaren ezaugarriek eta baldintzatzaileek estandar horiek justifikatu eta betetzea ahalbidetzen dute dagozkion zuzkiduren antolamendu eta urbanizazio materialaren bitartez

Hala, azpierenaren azalera (15.407 m²) eta haren ondoriozko hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntza (8.270,20 m²(t)) kontuan hartuta, 2.312 m²-ko azalera behar da tokiko espazio libretarako, eta 1.654 m²-ko azalera tokiko zuzkiduretarako. Berariaz 6.013 m²-ko azalera antolatu da tokiko espazio libretarako, eta 1.654 m²-ko partzela bat zuzkidura publikoetarako.

Ondorioz, azpierenan aplikazio-estandarrak betetzen dira, eta espazio libreen 3.701 m²-ko superabita sortzen da.

Lehen ere aipatu den aparkaleku pribatuko zuzkidurari buruzko estandarrak betetzeari dagokionez, Altamira-Santa Barbara, Urzelai eta Kamineroak eremuetako jarduketetanezarritako gutxienekoak baino aparkaleku-zuzkidura handiagoak behar direla adierazten da, beste garapenen batean uneren batean sor daitekeen egoerari erantzunez, nolana ere HAPOko Hirigintza Arau Orokorretan aparkaleku arloan ezarritakoaren arabera. Gainerako eremuetan estandarren dekretuan xedatutakora doituko dira.

Azkenik, zuhaitz-zuzkidurari buruzko estandarrak betetzeari dagokionez, arestian ere aipatu dena, Altamira-Santa Barbarako jarduketan behar dena baino zuhaitz-zuzkidura handiagoa planteatu dela adierazten da, zuzkidura-jarduketan atera daitezkeen egoerak edo auzi hori konpondu ezin den beste egoera batzuk konpentsatzeko xedez, zuzkidura hori eremu bakoitzean betetzearen kalterik gabe.

II.11.- Proposamenean aztertutako beste alderdi batzuk.

Planak ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa ditu, eta udal-zerbitzu teknikoek ebaluazio horren aldeko txostena egin dute. Memoriako 1.3 eta 1.5 dokumentuetan garatu dira azterlan horiek.

Plana egiteko orduan, bestalde, honako alderdi hauek hartu dira kontuan, besteak beste:

II.11.1.- Paisaia.

Udalerrian izaera bereziko paisaiarik katalogatu ez bada ere, dokumentu honek Irimo gailurra nabarmentzen du, paisaiaren ikuspegitik babestu beharreko lurralde gisa eta, xede horretarako, paisaia babesteko eremuak identifikatzen ditu, baldintzatzaile gainjarri maila emanez (CS.3).

Antolamendu-irizpidea eremu hori kontserbatzea eta babestea da, bere paisaia-balioak aldatu edo narriatu ditzaketen jarduketak, erabilera eta prozesu guztien aurrean.

II.11.2.- Eraikuntza landa-ingurunean.

Landa-inguruneako eraikuntza- eta erabilera-baldintzak arautzen ditu planak eta, bereziki, ingurune hori ustiatzearekin, berorrek eskatzen dituen zuzkidurekin edota inguru horretan egoki direnekin lotutako eraikuntza-baldintzak arautzen ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Gidalerroen arabera, dokumentuak debekatu egiten du lurzoru urbanizaezinean nekazaritza-ustiapenei lotuta ez dauden etxebizitzetara zuzendutako eraikin berriak ezartzea. Hala, lurzoru urbanizaezinerako baimenak eta lizentziak emateko jarduketak koordinatzeari buruzko azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, udalek, behar den lizentzia eman baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapenerako sailari txosten bat eskatu beharko diote, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen batekiko lotura eta proposatutako eraikinak edo eraikuntzak garatuko den jarduerarako duten egokitasuna balioetsiko dituen txostena.

Lehendik dauden baserrien eraikuntza- eta erabilera-baldintzak arautzen dira, Hirigintza Arau Orokorretan haiek finkatzeko, handitzeko edo berria ezartzeko behar diren arauak zehaztuz, baldin eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako edo landa-ingurunean baimendu daitezkeen beste batzuetarako badira, lehendik dauden baserrietan etxebizitza autonomoak ezartzeko aukera barne, dagokion balioa eman ahal izateko.

II.11.3.- Zarata.

Plan Orokor honen hirigintza-antolamenduko proposamenak udalerrian zarata-arloan dagoen arazoarekiko berariazko arretari lotutakoekin osatzen dira, aplikatu beharreko lege-esparruaren arabera eta arazo hori ezabatzeko edo minimizatzekeo xedez, arloan esku hartzeko behar diren neurrien zehaztapenarekin osatuta.

Oro har, esan behar da, planteatutako hirigintza-proposamenean, eta bereziki mugikortasun-arloan bide-sistemari eta/edo zirkulazioari buruz aurreikusitakoek, hobekuntza nabarmena eragingo dutela lehengo egoerarekin alderatuta. Halaber, aurreikusita dagoen hegoaldeko bide-lotura birmoldatzeak eragina izango du Aparizio auzo ondoko igarotze-trafikoak murrizteko orduan.

Arloari dagokionez, Plan Orokor berriko proposamenei lotutako inpaktu akustikoaren azterlan bat egin da, HAPOko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketari (HAPOko 1.3 memoria) eranskin moduan gehitu zaiona.

Akustika-kontuetan planteatutako neurriak, besteak beste, ondoren azalduko direnak eta/edo horiekin zerikusia dutenak dira: Zehazki:

- * Udalerriko eremu akustikoak mugatzea, eremu horietako bakoitzean aplikatu beharreko helburu akustikoak identifikatuz arlo horretan indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera (IV.2 planoak).
- * Udalerriko hiri-inguruneari buruz udalak dituen (2011) eta eremu bakoitzari lotutako helburu akustikoen betetze edo ez-betetze maila ebaluatzeko aukera ematen duten erreferentziazko zarata-mapen azterketa.

Hain zuzen ere, mapa horiek aukera emango dute helburu horiek udalerriko hiri-ingurunearen zatirik handienean betetzen direla egiaztatzeko.

- * Plan Orokor honetan aurreikusitako etorkizuneko hirigintza-garapenei buruzko Inpaktu Akustikoaren Azterketak egitea, dagokien antolamendu xehatua zehaztuz.

Kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez dituzten garapenak hartuko dituzten zonak identifikatzea (zortzi egoera) eta Babes Akustiko Bereziko Zona gisa identifikatzea, kasu bakoitzean zarata-foku igorleak eta horien ekarpen akustikoa identifikatzearekin eta dagokion zona-plana zehaztearekin osatuta.

Lehen adierazi den bezala, kontu horiei buruzko proposamen espezifikoak, batetik, "4. Planoak" dokumentuko "IV.2" planoan jasotakoak dira eta, bestetik, HAPO honetako IEEko 3. Eranskinean jasotakoak. Une honetan, aipaturiko dokumentuetan gai horri buruz azaldukoari lotzen gataizkio.

Arlo horretan, bestalde, Udala pertsonak zaratatik babesteko ordenantza berri bat izapidetzen ari da, eta onartu ondoren aplikatuko da. Era berean, haurren eta ingurumenaren proiektuaren barruan, azterketa bat egin du legez ezarritako gehieneko mugetatik beherako balioak lortu dituzten udal-ikastetxeetako ikasleek jasaten duten zaratari buruz.

II.11.4.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.

IHOBEK 1998an egindako Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten kokapenen EAEko Inbentarioa, eta IHOBEren datu-baseko informazio eguneratua kontuan hartuta, denboran zehar gizakiak eman dien erabileragatik lurzorua kutsatzen duten edo kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten ingurune edo eremuak identifikatu dira.

Lurzorua ez kutsatzeko edo kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2015 Legearen arabera, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda, lurzoru kutsatutaz emateko irizpideak eta estandarrak eta dagozkien jarduketa-planak xedatzen dira. Aipaturiko toki horietako edozeinetan erabilera aldatu edo kutsadura eragin dezakeen jarduera bat utzarazi aurretik, ustiapenari dagokion azterketa egin beharko da. Ikerketa ezinbestekoa izango da, aipaturiko legeak xedatutakoaren arabera lurzorua kutsatutaz, aldatutaz edo, bere

kasuan, ez-aldatutzat jo baino lehen, eta haren gainean eragin beharko da indarreko legeriaren arabera. Halaber, jarduerak amaitu ondoren, eremu horiek lehengoratzeko eta ingurumen-ikuspegitik bere ingurunean txertatzeko premia planteatzen da.

Urretxun kutsatuta egon daitezkeen hainbat kokaleku jaso dira inbentarioan; 3. eranskineko zerrendan jaso dira eta IV.4 planoan ere ageri dira.

Inbentarioan identifikatutako lurzoruetan, dokumentuak finkatu egiten ditu eremu horietan indarrean dagoen plangintza orokorraren zehaztapenak, eta horietako batzuk eraldatzea aurreikusten da; edozein kasutan, gai horretan aplikatu daitezkeen arloko legerian xedatutakoa bete beharko dute jarduketako horiek.

Lurzoru urbanizaezineko hainbat eremuren (zaborteziak, betelanak...) ingurumen-hobekuntza ere berariaz aurreikusten du dokumentuak.

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruetan, nahitaezkoa da lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpeneko prozedura betetzea, jarduera bat ezarri edo handitzeko, lur-mugimenduak gauzatzeko edo kalifikazioa aldatzeko lizentzia lortu aurretik, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 4/2015 legean, 2015eko ekainaren 25ekoan, aintzat hartutako kasuetan. Lursail horiek lurzoruaren inbentario batean sartuta egon behar dute, egiten diren aldaketak erregistratu ahal izateko.

Bestalde, kontu hori arautzea antolamenduko "CS.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak" baldintzatzaile gainjarria identifikatzen duten Plan Orokor honetako Hirigintzako Arau Orokorren xede da, behar den erregulazioa ezarrita.

Are gehiago, Hirigintza Arau Partikularretan gai horri buruzko aipamena egiten da.

II.12.- Proposamenaren deskribapena eremuka.

II.12.1.-Udalerrri-erdiguneko bizitegi-eremu hiritarra.

Udalerrriko bizitegi-eremu hiritarra hiriaren erdigunean dago kokatuta, Urola haranean, batik bat ezker aldean, eta beste ibaiertzean du jarraitutasuna, Zumarraga udalerrian. Hirigunearen erdigune horixe birkalifikatu nahi du antolamendu-proposamenak, eta erabilerak eta mugikortasun-baldintzak berriro antolatzea aurreikusten du zuzkidura publiko berriak ezartzen ahaleginduta: espazio libreak, plazak, ekipamenduak... Hiri eraldatzeko eta berronertzeko esku-hartze txikiak ere planteatuko ditu. Eredu orokor bat asmatu da horrela, denborarekin proposamen guztiak egikaritzeko aukera emango duten askotariko jarduketak identifikatzen dituen.

Udalerrriko hiri-erdigune hori hamalau hirigintza-eremuratu osatzen dute eta bat egiten dute batez ere bizitegitarakoak diren hamar eremurekin: 1. HE - Gune historikoa, 2. HE - Labeaga, 3. HE - San Martin, 8. HE - Gurutze auzoa, 9. HE - Elizalde, 10. HE - Nekolalde, 11. HE - Gainzuri-Mundo Mejor, 13. HE - Lilibaso-Gainzabal, 15. HE - Ipar Ipeñarrieta, eta 19. HE - Aparizio; batez ere zuzkiduratarakoak diren hiru eremurekin: 7. HE - Kanposantua, 14. HE - Pagoeta eta 12. HE - Institutua; eta trenbide-sistema orokorra hartzen duen eremu bat: 16. HE - Geltokia.



Erdigune horretan, oro har, eraikinak eta lurzoruaren erabilerak finkatzea aurreikusten du Planak, eta baita hiri-eraldaketako eta -berroneratzeko jarduketak ere. "Gurutze auzoa" eremuan eta "Urzelai", "Rodriguez", "Elgea", "Altamira-Santa-Barbara", "Gainzuri Komentua", "Gainzabal", "Ipeñarrieta 28-30" eta "Kamineroak" azpieremuetan proposatzen direnak dira esanguratsuenak. Mugikortasun-arloan eta espazio publikoak berrurbanizatzeko arloan proposatzen direnak gehitzen zaizkie haiei. Horiek guztiek bideak eta zerbitzuak dituzten hiri-bilbe jarraituan kokatutako eremuak dituzte xede. Ia kasu guztietan, lehendik dagoen eraikina eraitsi eta ordeztzeko eta urbanizazio-baldintzak hobetzeko esku-hartzeak dira.

Kasu bakoitzean jarduketak gidatzen dituzten irizpide eta helburuak Hirigintza Arau Partikular bakoitzaren jarduketa-irizpide eta -helburuei dagozkien ataletan modu gehigarrian daude zehaztuta eta gu horiei lotuko gataizkie.

Arau Partikular horietan, eraikigarritasuna, erabilerak eta dagozkien eraikuntza-, jabari-, erabilera-, kudeaketa- eta urbanizazio-baldintzak ere definitzen dira, eta finkatutako eraikuntza eta urbanizazioari dagozkienak finkatu dira oro har, proposatutako soluzio eta neurrietatik ateratzen diren doikuntzen kalterik gabe.

II.12.2.- Industria-garapenak.

Lehen aipaturiko hiri-erdigunearen ondoan daude lehendik zeuden eta finkatu egiten diren industria-asentamenduak, lurzoruaren erabilera erregulatzeko araubidea birdefinitzearen kalterik gabe, Gerra eremuaren kasuan izan ezik, 2012ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako garapen industrial berri bat proposatzen delako.

Sei hirigintza-eremu dira, honako toponimo hauekin bat datozenak: Matxinporta, Gerra eta Sagastitxipi, iparraldean, eta Mugitegi, Hego Ipeñarrieta eta Kaminpe, hegoaldean.

Gerrako garapen berriaren proposamenaz gain, zenbait industrialde, esaterako, Hego Ipeñarrieta eta Kaminpeko industrialdeak kalifikatetik ateratzen den lurzoru-eskaintza nabarmendu behar da, gehienak hutsik daudelako eta haiek martxan jartzeak ekonomia jardueretarako lurzoru berriaren eskaintza garrantzitsua ekarriko lukelako, horretarako leku egokian.

Horrez gain, jarduketak gidatuko dituzten irizpide eta helburuak Hirigintza Arau Partikularretako bakoitzean zehazten diren jarduketa-irizpide eta helburuei dagozkien atalean jasotzen dira.

II.13.- **Katalogoa.**

Hirigintza-plangintzaren helburuetako bat, beren balio ekonomiko zuzena eta jabetza-araubidea alde batera utzita, balio kolektiboa duten eraikinak eta elementuak identifikatzea da, beren interes kulturalari lotuta (arkitektonikoa, historiko-artistikoa, arkeologikoa...).

Helburu hori, gainera, eraikin eta elementu horien babes- eta tratamendu-araubidearen zehaztapenarekin osatu behar da.

Kasu honetan, Plan Orokor honek erantzuna ematen dio zeregin horri "2.3" dokumentuan (eraikin eta elementu babestuen zerrenda jasotzen duena) jasotako Katalogoaren bidez, bere babes-araubidearekin osatuta ("2.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan jasotakoa).

Hori dela eta, dokumentu horietan gai horri buruz azaldutakoari lotzen gataizkio une honetan.



Laburpen gisa, esan, euren balio kulturalari erreparatuta, 13 elementuk merezi dutela babes berezia, 26 elementuk oinarrizko babesa, 9 elementu arkeologiko daudela inbentarioan sartuta eta ustezko 28 zona eta elementu arkeologiko definitu direla.

III.- ARREIKUSITAKO GARAPENAK PROGRAMATZEKO IRIZPIDEAK.

Indarrean dagoen hirigintza-legeriak Plan Orokorrei Ekonomia eta Finantza Bideragarritasuneko Azterlan bat gehitzeko premia xedatzen du, programazio egoki bat ere jasota duena. Dokumentu hori modu independentean egin da Plan Orokor honetan, aipaturiko aginduari eta proposamenaren bideragarritasunaren justifikazioari erantzunez, eta horri lotuko gatazkiekio.

Indarrean dagoen legeriak, bestalde, hiri-eboluzioaren eta lurzoruaren okupazioaren oinarrizko udal-estrategia bat zehazteko premia xedatzen du, bai antolamendua zehazteko eta bai gatazkek ebazteko oinarri gisa, oinarri horretatik abiatuta funtsezko lehentasunak eta Planean aurreikusitako jarduketak programatzeko jarraibideak xedatzeko.

Horren ondorioz, Hirigintza Arau Orokorretan eta mugatutako hirigintza-eremuetako Hirigintza Arau Partikular bakoitzean planteatzen dira bai proposamenen kudeaketak eta bai egikaritzeak bete behar dituzten epeak.

Epe horiekin bat etorritz, identifikatu eta proposatutako jarduketa integratu bakoitzeko hirigintzako jarduketa-programetan jasotako zehaztapenak osatuko dute programazioa.

Horiek alde batera utzita, errepideen, bizikleta-bideen, mugikortasunaren, ingurumenaren, ingurumenaren hobekuntzaren, osasunaren, generoaren, obra hidraulikoen, irisgarritasun unibertsalaren, ekipamenduen, garraioaren, aisialdiko baratzeeen eta abarren arloetan planak proposatutako beste jarduketa batzuk gauzatuko ditu Administrazioak, kasu bakoitzeko organo eskudunaren aurrekontuen eta inbertsio-ereduen arabera eta, betiere, Plan Orokorren estrategia kontuan hartuta.

Zentzu horretan, Plan Orokorrak iraunkortasun-printzipioa izaera estrategikoarekin txertatu duela nabarmendu nahi da hemen, eta ahalik eta sinergia handienak bilatzen ditu, ildo horretatik kasu bakoitzean plana egikaritzeko gauzatu beharreko ekintzetan inplikaturik dauden eragileen parte hartzea bultzatuz eta berorien eskumenak eta helburuak kontuan hartuta, betiere.

Nolanahi ere, udal-administrazioak ezarritako ereduak egokitu ahal izango ditu, planteatutako irizpide eta helburu orokorrak betetzean oinarritutako Planaren estrategia aldatu gabe, jarduketa integratuen hirigintzako jarduketa-programak formulatzeko orduan, baldin eta behar den neurrian eta moduan ebazten badira bertan ingurunean txertatzea ahalbidetuko duten eskakizun guztiak.

Programazio horrek Planaren aurreikuspenen eraginkortasunari eta jabetza-eskubidearen indarreko kontzeptuari erantzuten die eta, horren ondorioz, egikaritzeko epeak ezartzen dira Hirigintza Arauetan.

Plan Orokor honen proposamena, aldatu edo berrikusi arterainoko indarraldi mugagabearen kalterik gabe, zortzi urteko eperako egingo da behin betiko onespentetik kontatzen hasita.

Horregatik, epemuga hori bat etor daiteke 2028. urtearekin.



Hala, epemuga horretan, Plan orokorrean proposatutako ekintzak sustatu beharko ditu udalak, behar diren inbertsio publiko eta pribatuak ahalbidetuz.

IV.- ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIEN TAULAK.

1.- Lurzoruaren sailkapena		<u>Azalera (m²)</u>
HIRI-LURZORUA (HL)	% 9,15	688.999
LURZORU URBANIZAGARRIA (LU)	% 0,63	47.601
LURZORU URBANIZAEZINA (LUE)	% 90,22	6.792.672
UDAL-MUGARTEA GUZTIRA	% 100	7.529.272

2.- Hirigintza Eremuen identifikazioa

	<u>Hirigintza Eremua (HE)</u>	<u>Sailkapena</u>	<u>Azalera (m²)</u>
1.-	Gune historikoa	HL	18.852
2.-	Labeaga	HL	86.884
3.-	San Martin	HL	32.491
4.-	Matxinporta	HL	15.138
5.-	Gerra	LU	8.691
6.-	Sagastitxipi	HL	15.262
7.-	Kanposantua	HL	5.345
8.-	Gurutze auzoa	HL	16.971
9.-	Elizalde	HL	19.703
10.-	Nekolalde	HL	31.351
11.-	Gainzuri-Mundo Mejor	HL	52.247
12.-	Institutua	LU	38.910
13.-	Lilibaso-Gainzabal	HL	35.971
14.-	Pagoeta	HL	99.607
15.-	Ipar Ipeñarrieta	HL	29.609
16.-	Geltokia	HL	28.758
17.-	Hego Ipeñarrieta	HL	50.578
18.-	Mugitegi	HL	109.019
19.-	Aparizio	HL	110.249
20.-	Kaminpe	HL	32.603

3.- Hirigunearen zonakatzeko globala (Azalera m²-tan)

HIRIGINTZA-EREMUA	A ZONA Bizit.	B ZONA Ek. Jard.	C ZONA Ekip.	D ZONA Esp. libreak	E ZONA Komunik.	G ZONA Ibilguak	GUZTIRA
1.- Gune historikoa	11.278		1.968	5.335			18.582
2.- Labeaga	67.517		1.713	9.856	7.798		86.884
3.- San Martin	25.007		1.219	3.357	2.908		32.491
4.- Matxinporta		11.992			3.146		15.138
5.- Gerra		8.691					8.691
6.- Sagastixipi		15.065				197	15.262
7.- Kanposantua			5.345				5.345
8.- Gurutze auzoa	16.971						16.971
9.- Elizalde	19.703						19.703
10.- Nekolalde	20.107		4.092	2.576	4.576		31.351
11.- Ginzuri-Mundo Mejor	40.951		9.578		1.718		52.247
12.- Institutua			28.420	10.490			38.910
13.- Lilibaso-Gainzabal	35.971						35.971
14.- Pagoeta	43.882	10.173	20.719	11.945	3.888		99.607
15.- Ipar Ipeñarrieta	24.159				5.450		29.609
16.- Geltokia					28.758		28.758
17.- Hego Ipeñarrieta		37.372	472		12.734		50.578
18.- Mugitegi		110.035				214	110.349
19.- Aparizio	7.650						7.650
20.- Kaminpe		31.373			1.230		32.603
GUZTIRA	313.196	224.701	82.526	43.560	72.206	411	736.600
Guztiaren %	42,52	30,50	11,20	5,91	9,80	0,06	100

V.- AZKEN GOGOETA.

Orain prestatutako dokumentua Udalaren osoko bilkurak berriro onespina emateko eta jendaurrean jartzeko xedez aurkeztuko da. Prozesu horretan eztabaida sortuko da etorkizun hurbilerako, hau da, datorren hamarkadarako udal-proiektua behin betiko zehaztu baino lehen.

Plan Orokor hau laneko, jarraipeneko, parte-hartze publikoko eta erabakiak hartzeko prozesu jarraituaren ondoren idatzi da. Prozesuan honako hauek hartu dute parte: Urretxuko hiritarrek, udaleko ordezkari politikoek, udal-teknikariek eta Planaren talde idazlariak 2017an kontratatutako Arau Subsidiarioak berrikusteko lanak esleitu ondoren.

Enkargu hori, aldi berean, 2016-2017 aldian udalean alde zuzenetik egindako barneko hausnarketa-prozesu batetik sortu zen.

2018ko apirilean aurrerakin-dokumentu bat idatzi zen, 2019ko martxoko udal-erabakia eragin zuena, bertaratutako zinegotziek aho batez onartua. Dokumentu horretan, jarraitu beharreko irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak ezarri ziren eta, ondoren, 2019ko apirilean, Plan Orokorraren lehen dokumentu bat, Udalak 2019ko maiatzean hasierako onespina eman ziona. prozesua garatu ondoren, 2020ko apirilean Plan Orokorraren dokumentu hau formulatu zen izapidetzen jarraitzeko.

Plan Orokorrak bere Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa du, modu paraleloan eta jarraituan egindakoa prozesu osoan zehar. Testuinguru horretan, nahitaezko alde zuzenetik kontsulten xede izan da eta, aldi berean, arloko askotariko txostenak eskatu eta egin dira gaiari buruz. Beste aldagai asko ere txertatu dira eta, horien artean, zehaztasun handirik gabe aipatzen dira lurralde-antolamendua, irisgarritasun unibertsala, klima, osasuna, berdintasuna, genero-ikuspegia, inpaktu linguistikoa, efizientzia energetikoa eta nekazaritza-arloaren eragina.

Prozesuan zehar, lehentasuna eman zaio ezarritako epeak betetzeko helburuari, gertatzen den egoeraren konplexutasunaren eta indarrean dagoen lurzoru eta hirigintza legeriara eta udalerraren premietara egokitutako Plan Orokor berri bat edukitzeko premiaren jakitun.

Epeak betetzea lehentasuna izan bada, hori ez da izan helburuen kaltetan, eta diseinatutako estrategia eta formulatutako lurralde-eredua, egungo egoeran, Urretxurentzat hirigintza-soluzio onena direla ulertu da, bertako askotariko sentsibiltateen artean lortutako orekaren ondorioz, eta proiektu bideragarria eta bere epemugara mugatutakoa izan da.

Ateratzen den ereduak jada artifizializatuta dagoen lurzoruan soilik esku hartzea dakar. Murriztu egiten du indarreko Arau Subsidiarioek sailkatutako hiri-eremuaren azalera hori eta ekintza-kopuru mugatua hautatzen du, udalerraren etorkizunerako ekintza estrategikoak diren arren.

Esaterako, mugikortasun- eta irisgarritasun-arloko esku hartzea; Hego Ipeñarrieta eta Kaminpe eremuen kalifikazio industrial berrestea; aurreikusitako hiri-finkatze, birgaitze-, berritze- eta berroneratze-proposamenak, horretarako ezarritako neurriak barne; espazio libreen sistema eta horien kudeaketa eta egikaritzea berrantolatzea; komunitate-ekipamenduko sistema birdefinitzea; bizitegi-eskaintza 391 etxebizitzatara mugatzen duten bizitegi-garapen berrien aurreikuspena; eta bide-arloko esku-hartze txiki baino estrategikoak antolatzea dira formulatutako proiektuaren gakoak.



Horrek guztiak lurralde-eredu jasagarria eragingo du, oinordetzan jasotako hiriaren ingurumen-eta hirigintza-finkapena eta -birkalifikazioa ahalbidetu beharko dituena.

Plan Orokorra indarrean dagoen askotariko araudiaren arabera idatzi da, izapidetzen ari zen bitartean egindako arloko txostenen edukari ere erreparatuz, plangintza orokorrari dagokion lan konplexuaren bitartez erantzun integratua emanaz udalerrri bateko, kasu honetan Urretxuko Plan Orokorra idazteko orduan kontuan hartu behar diren askotariko sentsibiltate eta diziplinen artean lortu beharreko oreka zaila lortzeko helburuari. Nolanahi ere, aplikatu beharreko legezko testu guztietan eta, bereziki, memoria honetan aipatutako guztietan zehaztutakoa bete beharko da.

Azkenik, berretsi egin behar dugu proiektu kolektibo bat dela honako hau, berorren garapena bideragarri egin ahal izateko diagnostiko-, gogoeta-, proiektu-, hurbiltze- eta adostasun-prozesu batean egindako ahaleginaren emaitza baita; 2018ko etorkizun hurbilari eta aldi berean urrunari begira, Urretxuko herritarrek merezi duten proiektua da, eta dokumentu honi onespena eman ondoren jendaurrean jartzean zehaztu beharko da, udalbatzaren hurrengo pauso gisa.

Hemen proposatzen den guztia Urretxun "ingurumen- eta bizi-kalitatea hobetzeko" ideia-ondorioa da.

Gaur egungo koiantura zail honetan, Plan Orokor honetan aurkituko ditu udalak udalerrriaren etorkizuneko proiektua eta ondorengo udal-aurrekontuak onartzeko behar duen orientazioa, plana bera ezartzeko eta, gero egikaritu ahal izateko, Administrazioaren eta ekimen pribatuaren babesa lortzeko.

Donostian, 2020ko apirilean

SANTIAGO PEÑALBA

MANU ARRUABARRENA

MIKEL IRIONDO

ERANSKINAK



URRETXUKO HAPO
"1. MEMORIA" dok.
"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"
ERANSKINAK
2020ko apirila



1. ERANSKINA.

Urretxuko udalaren 2019ko urtarrilaren 31ko osoko bileraren erabakia, Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentua eta bere ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa idazteko prozesuaren jarraipenean kontuan izan beharreko irizpide, helburu eta soluzioak berresteari buruzkoa, udalaren onspena jaso behar duena eta gero jendaurrean jarri beharrekoa.

URRETXUKO HAPO
"1. MEMORIA" dok.
"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"
ERANSKINAK
2020ko apirila



2. ERANSKINA.

Eusko Jaurlaritzaren (Barne Saila) txostena, arriskuei buruzkoa



URRETXUKO HAPO
"1. MEMORIA" dok.
"1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"
ERANSKINAK
2020ko apirila



3. ERANSKINA.

**Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituzten kokalekuak.
(IHOBEn inbentarioa)**

URRETXUKO HAPO

“1. MEMORIA” dok.

“1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN GAUZATZEA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA”

ERANSKINAK

2020ko apirila

IDPARCELA	CODIGO	AREA (m²)	MUNICIPIO	TIPO
15887	20051-00044	34,63	Legazpi	INDUSTRIAL
16087	20077-00001	9.016,38	Urretxu	INDUSTRIAL
16088	20077-00002	3.474,35	Urretxu	INDUSTRIAL
16089	20077-00003	2.385,42	Urretxu	INDUSTRIAL
16090	20077-00004	362,67	Urretxu	INDUSTRIAL
16093	20077-00007	656,53	Urretxu	INDUSTRIAL
16094	20077-00008	307,68	Urretxu	INDUSTRIAL
16095	20077-00009	971,81	Urretxu	INDUSTRIAL
16096	20077-00010	1.638,25	Urretxu	INDUSTRIAL
16097	20077-00011	173,69	Urretxu	INDUSTRIAL
16098	20077-00012	190,10	Urretxu	INDUSTRIAL
16099	20077-00013	392,03	Urretxu	INDUSTRIAL
16100	20077-00014	175,81	Urretxu	INDUSTRIAL
16101	20077-00015	767,37	Urretxu	INDUSTRIAL
16102	20077-00016	181,14	Urretxu	INDUSTRIAL
16104	20077-00018	189,83	Urretxu	INDUSTRIAL
16105	20077-00019	2.545,58	Urretxu	INDUSTRIAL
16106	20077-00020	414,60	Urretxu	INDUSTRIAL
16107	20077-00021	8.731,05	Urretxu	INDUSTRIAL
16108	20077-00022	408,01	Urretxu	INDUSTRIAL
16109	20077-00023	222,94	Urretxu	INDUSTRIAL
16110	20077-00024	9.826,63	Urretxu	INDUSTRIAL
16111	20077-00025	721,96	Urretxu	INDUSTRIAL
16112	20077-00026	1.086,32	Urretxu	INDUSTRIAL
16113	20077-00027	4.614,09	Urretxu	INDUSTRIAL
16114	20077-00028	2.441,21	Urretxu	INDUSTRIAL
16115	20077-00029	1.369,34	Urretxu	INDUSTRIAL
16118	20077-00032	6.407,38	Urretxu	INDUSTRIAL
16120	20077-00034	3.627,82	Urretxu	INDUSTRIAL
16121	20077-00035	914,84	Urretxu	INDUSTRIAL
16122	20077-00036	877,35	Urretxu	INDUSTRIAL
16123	20077-00037	363,15	Urretxu	INDUSTRIAL
16124	20077-00038	882,92	Urretxu	INDUSTRIAL
16125	20077-00039	2.917,73	Urretxu	INDUSTRIAL
16126	20077-00040	260,54	Urretxu	INDUSTRIAL
16127	20077-00041	1.238,06	Urretxu	INDUSTRIAL
16128	20077-00042	254,37	Urretxu	INDUSTRIAL
16129	20077-00043	360,32	Urretxu	INDUSTRIAL
16131	20077-00045	1.962,62	Urretxu	INDUSTRIAL
16132	20077-00046	473,81	Urretxu	INDUSTRIAL
16133	20077-00047	15.278,26	Urretxu	INDUSTRIAL
16135	20077-00049	355,58	Urretxu	INDUSTRIAL
16136	20077-00050	517,58	Urretxu	INDUSTRIAL
16137	20077-00051	239,74	Urretxu	INDUSTRIAL
16138	20077-00052	136,85	Urretxu	INDUSTRIAL
16139	20077-00053	112,02	Urretxu	INDUSTRIAL
16140	20077-00054	763,86	Urretxu	INDUSTRIAL
16141	20077-00055	672,28	Urretxu	INDUSTRIAL
16142	20077-00056	131,53	Urretxu	INDUSTRIAL
16145	20077-00059	668,74	Urretxu	INDUSTRIAL
16146	20077-00060	401,86	Urretxu	INDUSTRIAL
16148	20077-00062	206,46	Urretxu	INDUSTRIAL
16149	20077-00063	877,70	Urretxu	INDUSTRIAL
16151	20077-00065	745,15	Urretxu	INDUSTRIAL
16152	20077-00066	180,33	Urretxu	INDUSTRIAL
16153	20077-00067	182,76	Urretxu	INDUSTRIAL
16154	20077-00068	45.307,42	Urretxu	VERTEDERO
16155	20077-00069	20.315,06	Urretxu	VERTEDERO
26298	20077-00071	12.371,19	Urretxu	VERTEDERO
26297	20077-00072	3.999,98	Urretxu	VERTEDERO
26403	20077-00073	13.116,46	Urretxu	VERTEDERO
24676	20077-00074	401,16	Urretxu	INDUSTRIAL
24710	20077-00075	102,97	Urretxu	INDUSTRIAL
24687	20077-00076	200,33	Urretxu	INDUSTRIAL
24720	20077-00077	100,96	Urretxu	INDUSTRIAL
24718	20077-00078	199,35	Urretxu	INDUSTRIAL
24716	20077-00079	158,08	Urretxu	INDUSTRIAL
24714	20077-00080	281,81	Urretxu	INDUSTRIAL
24712	20077-00081	1.203,94	Urretxu	INDUSTRIAL
24711	20077-00082	718,74	Urretxu	INDUSTRIAL
26694	20077-00083	227,91	Urretxu	INDUSTRIAL
16205	20080-00007	48,07	Zumarraga	INDUSTRIAL
16206	20080-00008	27,64	Zumarraga	INDUSTRIAL
16234	20080-00036	36.305,83	Zumarraga	INDUSTRIAL
24606	20080-00089	8.309,81	Zumarraga	INDUSTRIAL



4. ERANSKINA

**LAGen araberako gehieneko bizitegi-ahalmena (2019).
(EJk bidalia 2019ko urriaren 8an)**



HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA URRETXU

2020ko apirila

“1. MEMORIA” dokumentua

“1.2. GEHIENEKO ETA GUTXIENEKO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA
ARAUZKEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA
INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA JUSTIFIKATZEKO
MEMORIA”.



TALDE IDAZLARIA:

ZUZENDARITZA:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

IDAZLARIAK:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

KOLABORATZAILEAK:

Endara Ingenieros Asociados, S.L.
- Igor Martín Molina, BUPetako ingeniaria
- Garo Azkue San Emeterio, BUPetako ingeniaria
Iñigo Peñalba Arribas, arkitektoa
Madalen Gonzalez Bereziartua, arkitektoa
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa

GAINBEGIRATZE TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA

Maria José Begiristain Zabalo, udal-idazkaria.
Iñaki Mendizabal, udal-arkitektoa.
Udal Zerbitzuak, oro har.



**"1.2. GEHIENEO ETA GUTXIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK
BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA
JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"**
2020ko apirila

I.- XEDEA.

Memoria honen xedea, batetik, gutxieneko eta gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna arautzeko estandarrak betetzen direla justifikatzea da eta, bestetik, dokumentuko proposamena indarreko lurralde-plangintzara egokitzen dela, Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrerako egiten den proposamenari dagokionez.

II.- GUTXIENEO ETA GEHIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO MUGAK BETETZEARI BURUZKO JUSTIFIKAZIOA.

Ekainaren 30eko 2/2206 Legean (77.5 artikulua) eta 15/2008 Dekretuan (15. artikulua) xedatutakoaren arabera, lurzoru hiritar nahiz urbanizagarrietan, bizitegitarako nahiz industriarakoetan aplikatu beharreko gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasunak xedatu dira Plan Orokorrek eratzeko orduan.

Eremu bakoitzari dagozkion Hirigintza Arau Partikularretan jasotako proposamenen azterketa xehatuan ikus daitekeen bezala, bizitegi-lurzorurako aurreikusitako jarduketa integratuei dagozkien garapen berrietarako proposatutako sestra gaineko (s.g.) eremu-eraikigarritasunek ez dute gainditzen hiri-lurrean baimendutako gehienekoa (2,3 m²(t)/m²). Bestalde, 0.4 m²(t)/m²-ko baimendutako gutxienekoaren gainetik kokatzen dira denak.

Ondorengo taulan garatu ahal izateko jarduketa integratuen xede izango diren bizitegi-eremuetan proposatutako eraikigarritasunen berariazko aipamena egingo da.

HAPOk berariaz mugatutako edo mugatu gabeko Jarduketa Integratuen xede diren bizitegi-garapen berriak	Eremuko bizitegi-azalera (m²(z))	s.g. eraikigarritasun antolatua (m²(s))	Eraikigarritasun-ratioa m²(s)/m²(z)
"2.2 Rodriguez" azpierenmua	1.721	3.827,50	2,22
"10.1 Altamira- Santa Barbara" azpierenmua	14.408	7.758	0,54
"11.1 Gainzuri komentua" azpierenmua	6.369	7.500	1,18
"15.2 Kamineroak" azpierenmua	4.547	3.200	0,70

**"1.2. GEHIENEO ETA GUTXIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO ESTANDARRAK
BETETZEN DIRELA ETA PLAN OROKORRA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA
JUSTIFIKATZEKO MEMORIA"**
2020ko apirila

Halaber, "5 Gerra" HErri dagokion lurzoru industrialean, hura garatzen denean, sektorearen % 30 gutxienez bat etorriko da partzela pribatuekin. Gutxieneko hori eremuaren antolamendu xehatua eta eraikuntza- eta partzelazio-baldintzak zehaztuko dituen Plan Partzialean justifikatu beharko da.

Beraz, betetzen dira zentzu horretan xedatutako lege-eskakizunak.

III.- PROPOSAMENA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEARI BURUZKO JUSTIFIKAZIOA.

Plan Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) zehaztaperentara egokitzen da, beroriek proposatutako oinarrizko komunikazio-azpiegiturak errespetatuz, eta lehendik dagoen edo proposatzen den hiri-ingurunetik kanpoko bizitegi-erakuntza autonomo berriak debekatuz, beste neurri batzuen artean.

LAGetara ere egokitzen da bizitegi-garapen berriak kuantifikatzeko orduan, dokumentuan deskribatutakotik ondorioztatzen den bezala, eta baimendutako gehienekoa (690) baino 391 unitate gutxiagora mugatzen den etxebizitza berrien eskaintza aurreikusten da, memoriako 4. Eranskinean jasota dagoen bezala.

Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionalak behin betiko onartutako Lurralde Plan Partziala du, Plan Orokorrak honek ere kontuan hartzen duena bien edukian kontraesanik sortu gabe, Planaren memoriako II.4 atalean xehetasunez azaltzen den bezala.

Bestalde, udalerrian eragina duten Lurraldearen Arloko Planen zehaztapenen arabera idatzi da Plan Orokorra; hain zuzen ere, Plan Orokorraren zonakatzek eta aurreikusitako baldintzatzaile gainjarriek zuzenean erantzuten diete Plan horien zehaztapen horietako askori eta ez da kontraesanik sortzen haien edukiarekin Planaren memoriako II.5 atalean xehetasunez azaldu den bezala.

Horren guztiaren arabera, Urretxuko Plan Orokorra aplikatu beharreko lurralde-plangintzara egokitzen dela esan daiteke.

Donostian, 2020ko apirilean

SANTIAGO PEÑALBA

MANU ARRUABARRENA

MIKEL IRIONDO



"1. MEMORIA" dokumentua

1.4. GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA

2020ko apirila

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentuaren xedea.	3. or.
II.-	Ebaluazioa egiteko esparru orokorra.	3. or.
III.-	Egungo egoeraren diagnostikoa genero ikuspegitik. Planteatutako neurriak.	4. or.
IV.-	Plan orokorraren ebaluazioa genero ikuspegitik.	9. or.
	1.- Plan Orokorraren deskribapena.	
	2.- Generoaren araberako eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.	
	3.- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.	
V.-	II. epigrafean (3. atala)aipatutako dokumentuetan planteatzen diren neurrien tratamendua Plan orokorrean.	27. or.

I.- DOKUMENTUAREN XEDEA.

Dokumentu honen xedea da Urretxuko Hiria Antolatzeko Plan Orokor berriak eta honen proposamenek genero kontuetan izan dezaketen inpaktuak ebaluatzea.

Ebaluazio hori II. epigrafean aipatutako esparru orokorrean egin da.

II.- EBALUAZIOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

Ebaluazioa xedapen eta dokumentu hauetan, besteak beste, dauden aurreikuspenek osatutako esparru orokor honetan egin da:

1.- Estatuko Administrazioak sustatutako xedapenak:

- * 2007ko martxoaren 22ko Legea, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako (3/2007 Legea).
- * Lurzoru eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina, 2015eko urriaren 30ekoa (7/2015 LED) ("20.1.c"...artikuluak.).

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutako xedapenak:

- * Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea).
- * Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 40/2012 ebazpenaren bidez onartutako jarraibideak.

Horietan adierazitakoaren arabera, aipatutako 2012ko Jarraibideak *Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere organismo autonomoek eta horri lotutako edo atxikitako erakunde publikoek* aplikatzekoak diren arren, horien aurreikuspenak ere espresuki hartu dira kontuan ebaluazio honetan, ebaluazioa egiteko egokiak diren baldintzetan eta irismenarekin.

3.- Beste dokumentu batzuk:

- * 2009ko hiri debekatuaren mapa.
- * Urola Garaia Mankomunitatearen genero-diagnostikoa, 2014koa.
- * Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako II. Eskualde Plana. Urola Garaia 2016-2019.
- * Hirigintza genero-ikuspegiarekin Urola Garaian.

III.- EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA GENERO IKUSPEGITIK.PLANTEATUTAKO NEURRIAK.

Aipatutako diagnostikoa eta iradokizunak, batetik, II. epigrafeko 3. atalean aipatzen diren dokumentuen eta, bestetik, horien eguneratzeen eta osaketan ondorio dira.Hauek dira testuinguru honetan nabarmentzeko modukoak diren alderdirik garrantzitsuenetako batzuk:

1.- Diagnostikoa.

1.1.- Populazioari dagokionez.

A.- Datu orokorrak.

- * Emakumeek eta gizonak udalerraren populazioaren %50 osatzen dute, hurrenez hurren.
- * 55-59 adin-tartera arte, %48,2 emakumeak dira eta %51,8 gizonak.
- * 60 urtetik aurrera, emakumeak gehiago dira (%55) gizonak baino (%45).

B.- Familia-mota.

- * Familien %29,6 (615) haurrik gabeko bikoteek osatuta daude.
- * Familien %53,6 (1.114) haurrak dituzten bikoteek osatuta daude.
- * Familien %13,6 (282) haurrak dituzten amek osatuta daude.
- * Ez dago haurrak dituzten aitek osatutako familiarik.

C.- Populazio etorkina.

- * Populazio etorkina udalerriko populazioaren %5 da.
- * Etorkinen %46,5 emakumeak dira.
- * Etorkinen %53,5 gizonak dira.

1.2.- Lan produktiboari dagokionez.

A.- Enplegu-eskaera.

- * Enplegu-eskatzaileen %57,7 emakumeak dira.
- * Enplegu-eskatzaileen %42,3 gizonak dira.

B.- Langabezia-tasa.

- * Langabezia-tasa orokorra %12,1 da.
- * Emakumeen langabezia-tasa %14,4 da.
- * Gizonen langabezia-tasa %10,1 da.

1.3.- Ugalketa-lanari dagokionez.

- A.- Etxeko lanak (lan fisiologikoak kanpo).
- * Lan horietan ematen den batez besteko denbora 2,25 ordu/egunean da.
 - * Emakumeek lan horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 2,50 ordu/egunean da.
 - * Gizonek lan horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,58 ordu/egunean da.
- B.- Pertsonen zaintza.
- * Lan horietan ematen den batez besteko denbora 2,00 ordu/egunean da.
 - * Emakumeek lan horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 2,26 ordu/egunean da.
 - * Gizonek lan horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,24 ordu/egunean da.
- C.- Gizarte-bizitza.
- * Zeregin horietan ematen den batez besteko denbora 1,23 ordu/egunean da.
 - * Emakumeek zeregin horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,07 ordu/egunean da.
 - * Gizonek zeregin horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,46 ordu/egunean da.
- D.- Aisialdi aktiboa eta kirolak.
- * Jarduera horietan orokorrean ematen den batez besteko denbora 1,55 ordu/egunean da.
 - * Emakumeek jarduera horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,44 ordu/egunean da.
 - * Gizonek jarduera horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 2,04 ordu/egunean da.
- E.- Aisialdi pasiboa eta zaletasunak.
- * Jarduera horietan orokorrean ematen den batez besteko denbora 3,04 ordu/egunean da.
 - * Emakumeek jarduera horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 2,36 ordu/egunean da.
 - * Gizonek jarduera horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 3,25 ordu/egunean da.
- F.- Ibilbideak/joan-etorriak.
- * Jarduera horietan orokorrean ematen den batez besteko denbora 1,30 ordu/egunean da.
 - * Emakumeek jarduera horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,27 ordu/egunean da.
 - * Gizonek jarduera horietan orokorrean ematen duten batez besteko denbora 1,34 ordu/egunean da.

1.4.- Mendekotasun-balorazioei dagokienez.

- A.- 2009an, 2011n eta 2013an Urola Garaia mankomunitatean egindako 1.352 mendekotasun-balorazioetatik, %61 emakumeei egin zitzaizkien, hiru urteetan udalerri guztietan baloratutako pertsonen artean hauek izanik ere gehiengoa. Gizonen eta emakumeen arteko ehunekoen diferentzia hau nabarmenagoa da baloratutako pertsonen adina handitu ahala.
- B.- Urola Garaian mendekotasun-prestazioak jasotzen dituzten populazioaren pertsona zaintzaile gehienak emakumeak dira. Nolanahi ere, nabarmendu behar da zaintza-lanak egiten dituzten gizonen ehunekoaren pixkanakako igoera (%26,8 2009an eta %35,1 2014an).
- C.- Eguneko zentroen erabilera handitu da mankomunitatean. Adinduei eta desgaitasuna duen pertsoneri zuzendutakoak dira erabilienak. Erabiltzaile gehienak emakumeak dira (%72,5 lehenengoetan eta %57,1 bigarrenetan), bertakoak, 65 urtetik gorakoak eta mendekotasun-maila altukoak (2 eta 3 batez ere, azken honek urtero pisua galtzen duen arren).
- D.- Egoitzak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua igo da. Adinduei (%70 inguru) eta desgaitasuna duen pertsoneri (%11 gutxi gorabehera) zuzendutakoak dira erabiltzaile gehien dituztenak. Mendekotasun handia duten eta 65 urtetik gora dituzten emakumeak dira erabiltzaile gehienak.

1.5.- Hezkuntzari eta euskarari dagokionez.

- A.- 2013-2014 ikasturtean, 4.629 ikasle ez unibertsitario zeuden guztira Urola Garaian; horietatik %47,6 emakumeak ziren eta %52,4 gizonak.

Emakumeen ehuneko handiena heziketa-mailaren arabera eskualdean bat dator Adinekoen Hezkuntzako ehunekoarekin (%54,4) eta Batxilergoaren ehunekoarekin (%53). Gainerako hezkuntza-mailetan, gizonen ehunekoa handiagoa zen, batez ere Lanbide Heziketan (%76,7 goi-mailakoan, %64,6 oinarrizkoan eta %63,4 erdi-mailakoan).

- B.- Ikasle ez-unibertsitarioen ia erdiak (% 46,2) Urretxun bizi ziren. Gainerakoak Zumarragan (%27,1) eta Legazpin (%26,5) bizi ziren batez ere.

Urretxun, emakumeen eta gizonen ehunekoak antzekoak dira (%50,2 lehenentzat eta %49,8 bigarrenentzat).

- C.- 2012-2013 ikasturtean, ikasle unibertsitarioak 532 zeuden Urola Garaian. Horietatik %52,4 emakumeak ziren eta %47,6 gizonak. %9,59 (51), berriz, Urretxukoa zen; horietatik, %44,1 emakumeak ziren eta %54,9 gizonak.
- D.- Euskarari dagokionez, Plan honen "1.5 Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentuan adierazitakoari lotzen gatzaizkio.

1.6.- Kulturari, gazteriarri eta kirolari dagokionez.

- A.- Zumarragako eta Urretxuko udalek baterako jarduerak eskaintzen dituzte, baliabide eta zerbitzu kulturalak bateratuz.

Zumarragako kultura-etxea (Zelai Aristi) udalerriko erreferentziatzko lekuetako bat da dudarik gabe, hor eskaintzen diren jarduerak eta zerbitzuak direla eta: liburutegia, KZ Gunea, elkarteentzako bilera-gelak, udalerriko kultura-saila. Leku hau Zumarragan ez ezik, inguruko udalerrietan ere erreferente bat da zalantzarik gabe.

- B.- Urretxun guztira 2.132 pertsona daude abonatuta kiroldegira. %56,52 emakumeak dira eta %43,48 gizonak.
- C.- Kiroldegiak antolatzen dituen kirol-jardueretan emakume gehiago daude (501) gizonak baino (32).
- D.- Kirol federatuan emakume gutxiago daude gizonak baino (252 eta 1.053, hurrenez hurren, Urretxun + Zumarragan).

1.7.- Indarkeria matxista.

- A.- 2006tik 2014ko otsailera, guztira, genero-indarkeria jasan duten 163 emakumeri arreta eman zaie eskualdean. Horietatik, ia erdiei (%48,8) 2013an zehar eta 2014ko lehen bi hilabeteetan eman zitzaizen arreta, eta gainerako %51,2ari 2006an, 2007an, 2008an zehar eta 2009ko lehen lau hilabeteetan eman zitzaizen arreta.
- B.- Arreta emandako emakumeen %58k 26 eta 45 urte bitartean dituzte. 18 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak dira salaketa gutxien egiten dituztenak.

C.- Eraso fisiko eta psikologikoak jaso dituzten emakumeen ehunekoa handia da (%56,3).Gainera, familia barruko indarkeria bai psikologikoaren bai fisikoaren ehunekoa handia da (%15,2).Aurrekoei izaera ekonomikoko indarkeria gehitzen zaie (%6,7).Nolanahi ere, arreta emandako emakumeen herenetik gora eraso fisikoak jasan dituzte.

1.8.- Hirigintzari dagokionez.

Plan Orokor berria idazteko egindako diagnostikora lotzen gatzaio, alderdi hauetan hori osatzeari utzi gabe:

A.- Urretxu udalerrri trinkoa eta dinamikoa da, eta sakabanatze baxua eta bizigarritasun altua du.

B.- Merkataritza-ehun sendoa dago, populazioaren gehiengoaren eskura.

C.- Mugikortasunari eta garraioari dagokionez:

- * Urola Garaiko emakume (%73,9) eta gizon (%75,7) gehienak oinez eta autoz ibiltzen dira.
- * Joan-etorriak garraio bidez (hiriarteko autobusa, trena, RENFE) edo oinez egiten dituztenen ehunekoa handiagoa da emakumeetan gizonetan baino, ia adin-talde guztietan.
- * Oinez joaten diren emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonena baino (emakumeen %29,3 eta gizonen %19,7).Horrek esan nahi du, gizonekin alderatuta, emakumeek euren eguneroko bizitzaren lekutik gertuago egiten dutela lan.
- * Erosketak egiteko, aisialdiaz gozatzeko eta dibertitzeko egin beharreko joan-etorriari dagokionez gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak handiak dira.Aisialdiaz gozatzeko joan-etorriak egiten dituzten gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino adin-talde guztietan, bereziko 65 urtetik gorako pertsonen kasuan.Aitzitik, 65 urtetik gorako emakumeak dira ehuneko handiago batean joan-etorriak egiten dituztenak erosketak egiteko, euren adin-talde bereko gizonengandik oso urrun.

1.9.- Prekarietateari eta krisiaren inpaktuari dagokionez.

A.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE).

- * 2013ko 117 onuradunetik %47,9 gizonak izan ziren eta %52,10 emakumeak.

B.- Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL).

- * 2013ko lehen seihilekoan 12.300,55 € banatu ziren GLL-tan.
- * 7.371,93 € (%59,9) uraren, argiaren eta gasaren fakturak ordaintzen laguntzeko izan ziren; 4.190,83 € (%34,1) alokairu-gastuak ordaintzeko; eta 737,79 € (%6) hipoteka-maileguak ordaintzeko.
- * Guztira 33 familiei eman zitzaizkien laguntza hauek. Laguntzen titularrak emakumeak izan ziren batez ere (26).

2.- Planteatutako esku-hartze neurriak.

Horietako neurri batzuk dira, zehazki, *Hirigintzagenero-ikuspegiarekin Urola Garaian* dokumentuan planteatutakoak.

Neurri horiek zeintzuk diren jakiteko eta horiei dagokienez Plan honetan planteatzen diren proposamenak zehazteko, dokumentu honen IV. epigrafean adierazitakoari lotzen gatzaio.

IV.- PLAN OROKORRAREN EBALUAZIOA GENERO IKUSPEGITIK.**1.- PLAN OROKORRAREN DESKRIBAPENA.****1.1.- Sarrera.**

Genero-inpaktuaren txosten hau egiteko, erreferentzia gisa hartu da *generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen I.* Eranskinean dagoen galdetegia. Jarraibide horiek Eusko Jaurlaritzaren abuztuaren 21eko 40/2012 ebazpenaren bidez onartu ziren.

Hori dela eta, bai epigrafe honetan bai hurrengo V. eta VI. epigrafeetan, galdetegi horretan planteatzen diren gai desberdinei erantzuten zaie.

1.2.- Planaren izena.

Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

1.3.- Administrazio sustatzailea.

Urretxuko Udala.

1.4.– Planaren helburuak, irizpideak eta proposamenak.

1.4.1.– Indarreko legerian finkatutako helburu orokorrak.

2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak hirigintzako planak zehazten eta arautzen ditu, Hiri Antolamenduko Plan orokorra barne. Horren zeregina da udalaren hirigintza-erregimen osoa zehaztea. Horretarako, honako hau egin behar du:

- * Kalitatezko hiri-ingurune bat antolatu, udalerriko hiri-ingurunean gauzatu beharreko pertsonen hiri-eskaerei erantzuteko egokia: etxebizitza, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak, espazio libreak, mugikortasuna, hiri-zerbitzuen azpiegiturak, etab. Eta, horretarako, honakoak zehaztu behar ditu:
 - Proposamenen edukia eta irismen kuantitatiboa eta kualitatiboa: etxebizitza-kopurua eta erregimen juridiko-ekonomikoa (etxebizitza babestuak, libreak...); jarduera ekonomikoen baldintzatzaileak, neurriak, tipologiak, etab.; ekipamenduak; espazio libreak, etab.
 - Proposamen horiek ezartzeko kokaleku egokia.
 - Udalerriko hiri-kalitatea hobetzeko eta aipatutako eskaerei erantzuteko asmoz udalerriko toki desberdinetan sustatu beharreko hiria leheneratzeko eta berritzeko proposamenak.
 - Aipatutako eskaerei erantzuteko asmoz, hala badagokio eta aurrekoak osatzeko, sustatu beharreko garapen berrien proposamenak.
 - Bai hiri barruan bai ingurunearekin (udalerriko gainerako tokiak, eremu funtzionala, lurralde historikoa, Autonomia Erkidegoa...) ondo komunikatuta egongo den hiri-ingurune bat sortzeko beharrezko neurriak.
 - Hiri-garapenen parametro materialak: eraikigarritasuna; dentsitateak; hiri-morfologiak eta eraikuntza-tipologiak; etxebizitzaren eta eraikinen bizigarritasun-baldintzak; eraikinen kokalekua, solairu-kopurua, altuera...; etab.
- * Kalitatezko ingurune natural/landatar bat antolatu, zeina, baliozko espazioak eta elementuak zaintzeaz eta babesteaz gain, gai izango den bai berezko eskaerei eta helburuei erantzuteko (lehen baliabideen aprobetxamendua: nekazaritza, abeltzaintza...; ingurumenarekin, aisiarekin, eta abarrekin zerikusia dutenak) bai hiri-ingurunearen birka izateko.
- * Udalerriko komunikazioen eta mugikortasunaren egitura zehaztu (oinezkoentzako eta txirrindularientzako sareak, kaleak...).
- * Neurriak hartu ingurumena babesteko, natura zaintzeko, duten balio kulturalaren arabera babestu beharreko elementu artifizialak (eraikinak...) eta naturalak babesteko, etab.
- * Udalerriko lurrak sailkatu lurzoru-mota hauetan sartuz: hiritarra, urbanizagarria eta urbanizaezina.

1.4.2.– Urretxuko Plan Orokor berriaren helburuak eta irizpideak.

Plan Orokorren esku-hartze irizpideak eta helburuak Plan Orokorrean azaldutakoak dira. Hona hemen horietako batzuk, labur azalduta:

A.- Planak premisa hauei erantzuten die:

- * Plan Orokorren eta bere proposamenen ondorio juridiko, ekonomiko edo sozial zuzen eta zeharkako garrantzitsuak berariaz aintzat hartzea, batez ere herritarren bizitzan.
- * Plan Orokorra eta bere proposamenak testuinguruan jartzea Urretxuko gizarte-, kultura-, ekonomia- eta lurralde-esparruan eta hirigintza-antolamenduaren berezkoak gainditzen dituzten erroka eta helburu orokorren esparruan.
- * Plan Orokor berriak tresna malgua izan behar du, etengabeko aldaketetara egokitzeko modukoa, eta baita gaur egungo errealitatearen berezko ziurgabetasun-maila altuetara ere.
- * Administrazioen arteko kolaborazio- eta lankidetzaren premia berariaz aitortzea, Planaren proposamenen eraginpean dauden administrazio guztien parte-hartze orokor eta koordinatuarekin.

B.- Hona hemen helburuetako batzuk, eta baita helburu horiek lortzeko finkatutako irizpide batzuk ere:

- * Etengabe berritu eta leheneratuko den hiri-ingurune konplexu, inklusibo eta seguru bat antolatzea, zeina gai izango den:
 - Gaur egungo hiri-ingurune hiri-izaerako eskaerei erantzuna emateko, ingurune naturalera hedatzea minimizatuz.
 - Lehendik dagoenaren erabilera optimizatzeke, hiriko lurzoru eta eraikinen posibilitateak eta aukerak maximizatuz, erabilera zaharkitua dutenak barne.
 - Hasiera emandako hiri-berroneratze eta -berrikuntza prozesuei jarraipena emateko, eta beste eremu batzuetara hedatzeko eta beste ekimen batzuekin osatzeko, esaterako, irisgarritasun unibertsala indartzeko, segurtasuna bermatzeko, hiriko oztopoak ezabatzeke, eraikinen birgaitzea eta erabilera sustatzeko, etab., egikaritatea dauden edo egikaritzen ari diren jarduketei jarraipena emanaz.
 - Erabilerak nahasteko, mugikortasuna murriztuz hiri-jasangarritasuna lortzen lagunduko duten eta, erakargarriago eta atseginoago bihurtuz, hiriko bizimodua aberastuko duten hiri-ehun konplexuak lortzeko ezinbesteko neurri gisa.
- * Ingurumenaren ikuspegitik jasangarria izango den udalerrri bat antolatzea:
 - Lurzoru naturalaren babesa, bere ingurumen-, paisaia-, nekazaritza- edo baso-ezaugarrien eta -baldintzatzaileen arabera.

- Intereseko espazioak eta espezieak babestea (landaredia, nekazaritza-balio handiko lurzoruak...).
 - Hirian berdeguneak lortzea hiri-parkeak indartuz eta handituz eta hiriko korridore ekologikoak indartuz.
 - Baliabide urria dela kontuan hartuta, lurzoru naturalaren kontsumoa murriztea.
 - Mugikortasun jasangarriaren sustapena, eguneroko joan-etorrietan automobilarekiko mendekotasuna eta/edo haren erabilera murrizteko behar diren neurriei jarraipena emanaz eta garraio publikoko eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako mugikortasun sistemen aldeko apustua eginez.
 - Baliabideen kudeaketa eraginkorra eta ingurumen-kalitatearen hobekuntza, bereziki aireari, zaratari, energiari, urari eta bioaniztasunari dagokionez.
- * Sozialki orekatua den udalerrri bat antolatzea:
- Hiri-zentraltasunak mantentzea eta handitzea.
 - Espazio libreen eta oinarriko ekipamenduen garapena orekatzea, inguruko zuzkidura mota hauen sare egokia planifikatuz.
 - Etxebizitza-eskariari erantzuna ematea.
 - Genero-ikuspegia txertatuta, hirigintza-proposamenak zehaztea (emakumea eta talde edo kolektibo bereziak eta/edo ahulak, adinari, arrazari eta abarri erreparatuta).
 - Plana osatzea genero-ikuspegitik ebaluatuz.
 - Udalerrri eta auzo seguruak sortzea emakume, haur eta abarrentzako egoera arriskutsuak prebenitzeko.
 - Irisgarritasun unibertsalaren sustapena udalerrri osoan.
 - Herritarren parte-hartzea indartzea, bai Plan Orokorra egiteko prozesuan nahiz hura garatu eta egikaritzekoan.

1.4.3.– Plan Orokorraren proposamenak.

Plan Orokorraren proposamenak Plan Orokorrean azaldutakoak dira. Hona hemen horietako batzuk, labur azalduta:

- * Guztira 422 etxebizitza berri antolatzen dira. Horietatik, 31 etxebizitzek eraitsi beharreko beste hainbeste ordezkutzen dituzte. Hori dela eta, egia esan, 391 etxebizitza berri proiektatzen dira.

Udalerrriko eremu hauetan ezartzen dira: Labeaga, San Martin, Gurutze auzoa, Nekolalde, Lilibaso-Gainzabal, Gainzuri-Mundo Mejor eta Ipar-Ipiñarrieta.

- * Jarduera ekonomikoko garapenen eskaintza 57.885 m²(t)-koa da, Hego Ipeñarrieta, Kaminpe eta Gerra eremuetan banatuta. Horiek guztiek Plangintzako Arau Subsidiarioetan dute beren jatorria.

- * Aurreko proposamenak oinezkoentzako, txirrindularientzako eta ibilgailu motordunentzako mugikortasun-sareen, espazio libreen eta ekipamenduen, hiri-zerbitzuen azpiegituren, eta abarren antolamenduari dagozkion proposamenekin osatzen dira.

Eta baita lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagozkion proposamenekin ere.

- * Erantzuna ematen zaie egungo hiri-ingurune hiri-eskariei eta premiei (etxebizitza, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak...), horren leheneratzea eta berrikuntza sustatuz.
- * Hiri-ingurune berean tipologia desberdineko lursailak eta espazioak (bizitegitarako, hirugarren sektorerako, produkziarako, ekipamenduak, espazio libreak...) egotea eta/edo elkarrekin bizitzea dakarren hirigintzako antolamendu estruktural eta xehatu bat zehazten da.
- * Hiri-ingurune berean edo baita eraikin berean ere erabilera- eta jarduera-mota desberdinen (etxebizitzak, hirugarren sektoreko eta produkziarako erabilerak, ekipamenduak, espazio libreak...) ezarpen-erregimena zehazten da, horien bateragarritasun-baldintza egokiak kontuan hartuz.
- * Bizikletentzako, haur-kotxeentzako, erosketa-orgentzako, gurpil-aulkientzako eta abarrentzako lekuak edo lokalakantolatzen dira (nahitaez bete beharreko hirigintza-estandar moduan) bizitegi-eraikinetan, hirigintza-eraikigarritasuna zenbatu gabe.
- * Eraikinetara eta lursailetara sartzeko bideak proiektatzeko eta diseinatzeko baldintzak zehazten dira, eraikinen atariak barne.

1.5.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak:

Planteatutako helburu eta irizpide guztietatik, jarraian aipatzen direnek eragin zuzena dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenean:

- * Sustatu beharreko hiri-ereduarekin zerikusia dutenak:
 - Kualitatiboki eta kuantitatiboki trinkoa den hiri-ingurune bat antolatzea, funtzionalki konplexua eta erabilerak nahasten dituen, inklusiboa, segurua...
 - Hiri-zentraltasunak mantentzea eta handitzea.
 - Oinarriko ekipamenduen garapena orekatzea, inguruko ekipamendu publikoen sare egokia planifikatuz.

- Ekipamenduen kalitatearen hobekuntza eta horien hedapena.
 - Irisgarritasun unibertsalaren sustapena udalerrri osoan.
 - Mugikortasun jasangarriaren sustapena, eguneroko joan-etorrietan automobilarekiko mendekotasuna eta/edo haren erabilera murrizteko behar diren neurriei jarraipena emanaz eta garraio publikoko sistemen aldeko apustua eginez.
 - Herritarren parte-hartzea indartzea, bai Plan Orokorra egiteko prozesuan nahiz hura garatu eta egikaritzekoan.
- * Genero-ikuspegiarekin espezifikoki lotuta daudenak:
- Genero-ikuspegia txertatuta, hirigintza-proposamenak zehaztea (emakumea eta talde edo kolektibo bereziak eta/edo ahulak, adinari, arrazari eta abarri erreparatuta).
 - Plana osatzea genero-ikuspegitik ebaluatuz.
 - Udalerrri eta auzo seguruak sortzea emakume, haur eta abarrentzako egoera arriskutsuak prebenitzeko.
 - Bizikletentzako, haur-kotxeentzako, erosketa-orgentzako, gurpil-aulkientzako eta abarrentzako lekuak edo lokalak antolatzea (nahitaez bete beharreko hirigintza-estandar moduan) bizitegi-eraikinetan, hirigintza-eraikigarritasuna zenbatu gabe.
 - Eraikinetara eta lursailetara sartzeko bideak proiektatzeko eta diseinatzeko baldintzak zehaztea, eraikinen atariak barne.
 - Lehendik dauden bizitegi-eraikinetara iristeko dauden arazoei erantzuna emateko neurriak zehaztea.

2.-

2.1.- **Aurreikusten al da emakumeek eta gizonak egingo den arauaren ondoriozko onuretan edo emaitzetan duten presentzia lagungarria izango dela sektoreko desberdintasunak murrizteko?**

Adierazitakoaren arabera, Plan Orokor berriaren helburua da Urretxuko hirigintza-erregimena datozen urteetarako (8 urte inguru) zehaztea.

Planaren proposamenek eragin zuzena izango dute udalerrian bizi eta lan egiten duten pertsonetan (emakumeak, gizonak, adinekoak, haurrak...) eta, zehazki, haien bizi-kalitatean, horiek ezartzen eta garatzen diren baliabideen eta/edo espazio eta eraikinen eskuragarritasunean (etxebizitza, lana, hezkuntza, osasuna, aisia, kultur, kirola, natura, merkataritza...), etab.

Horretarako, hirigintza-plangintzak kontuan hartu behar du gizonak eta emakumeak egoera desberdinetan egon daitezkeela esleitutako eta/edo onartutako genero-rolen arabera, dauden desberdintasunak minimizatzeko eta/edo areagotzeko.

Hori dela eta, Plan Orokorrean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako helburuak sartzeak desberdintasun horiek pixkanaka gutxitzen lagundu dezake.

Hori bai, Planaren proposamenak eraginkortasunez eta benetan gauzatzeko, eta baita horren onurak edo emaitzak emakumeei eta gizonei zabaltzeko ere, beharrezkoa da Plana neurri, jarduketa, plan eta proiektuen multzo dibertsifikatu baten bidez osatzea, eta horretarako, beharrezkoa da, era berean:

- * Administrazioen arteko kolaborazioa eta lankidetzeta, Planaren proposameneren eraginpean dauden administrazio guztien parte-hartze koordinatuaren bidez.
- * Administrazio, erakunde publiko eta sail bakoitzaren eskumeneren eta esku-hartze politiken garapena eta egikaritzapena Plan Orokorrean finkatutako helburu eta irizpide materialen eta programaziozkoen ildotik, egokiak diren planak eta proiektuak ginez eta inbertsio-erabakiak, etab. hartuz.

2.2.- Aurreikusten al da arauak desagerraraztea edo, gutxienez, murriztea baliabideetarako sarbidean dauden aldeak?

2.2.1.- Egungo egoera.

Emakumeei esleitutako eta/edo emakumeek beren gain hartutako genero-erolek lurraldearen, hiri-espazioaren eta horietan gauzatzen diren baliabideen erabilerari dagokionez premia eta/edo ikuspuntu desberdinak izatea eragiten dute. Hauek dira ikuspuntu edo jarrera desberdin horien premisa eta/edo kausa batzuk:

- * Sexuaren araberako lanaren banaketa, ordaindu gabeko lanari dagokionez emakumeen eta gizonen egoera berezia barne; lan hori izanik, pertsona helduek mendeko adinduak eta adingabeak zaintzeko eta etxea mantentzeko (etxea, seme-alabak, gaixo dauden senitartekoak eta adinekoak zaindu, etab. eta, hitz batez, eguneroko bizitza mantendu) eremu pribatuan egiten dituzten inolako konpentsazio ekonomikorik gabeko zereginak. Hauek dira jarraibideak:
 - Lan gehienak emakumeek egiten dituzte (gizonek zeregin horien zati txiki bat hartzen dute beren gain oraindik ere).
 - Ugalketa-lanari lotutako atazak gauzatzen diren lekuetan egiten dira: hezkuntza, osasuna, kirola, aisialdia, erosketak, izapideak eta administrazio-kudeaketak, etab.

- Leku horietara joateko, zaintza-erantzukizunak dituzten pertsonak eskura dituzten garraio-sistemak erabili behar dituzte leku batetik bestera joateko. Hori eginkizun bakoitzak eskatutako ordutegietan eta denboretan egin behar daiteke, egunean zehar, astean zehar edo hilabetean zehar.

Zeregin horiek guztiak egitea, beraz, zaila da. Eta are gehiago lanpostu bat duten pertsonen kasuan, horrek guztiak bateragarria izan behar baitu enplegu ordainduan fisikoak egitearekin.

Honek guztiak denboraren eta espazioaren erabilera desberdina dakar berekin emakumeen eta gizonen aldetik, beren eguneroko bizitzan beren gain hartzen dituzten genero-rolen arabera.

- * egunerokotasuna eta eginkizunen katea.

Pertsonen eguneroko premiak aldatu egiten dira egunean, astean, hilabetean zehar egiten dituzten edo egin behar dituzten zereginen (eginkizunen katea) arabera. Eta horrek hiri- edo landa-espazioaren erabilera baldintzatzen du aipatutako denbora-ziklotan.

Hori oso garrantzitsua da ordaindutako eta ordaindu gabeko lan-karga bikoitza gauzatzen duten pertsonentzat, egunerokotasuneko jarduerak eguneko aldizkotasunak izaten baitituzte, baina baita astekoak edo hilekoak ere; gainera, eginkizunen kateak desberdinak izaten dira, askotan, asteko egun batean edo bestean.

Horrek guztiak (bereziki enplegua zaintzarekin bateratzen duten pertsonen egunerokotasuneko eginkizunen kate horietatik eratorritako hiriko premia zehatzak) zuzenean eragiten du hirigintzako esparru sektorialetan: mugikortasuna, ekipamenduak, lantokiak, merkataritza, etxebizitza, espazio libreak... Horregatik, premia horiek behar bezala hartu behar dira kontuan hirigintza-plangintzan.

- * Hiri-eremuaren erabilera emakumeen aldetik mugatuta dago segurtasunagatik / segurtasun-gabeziagatik eta, zehazki, sexu-erasoak eta haien kontrako beste indarkeria-mota batzuk jasateko arriskuarengatik, pertsonaren erabateko garapenerako oztopo bat bihurtuz eta hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko eskubidea murriztuz.
- * Emakumeek gizonek baino gaitasun ekonomiko txikiagoa izateak (eta, hala badagokio, beste faktore batzuekin batera: familia-kargak, arraza, adina, genero-indarkeria) hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabili ahal izateko aukerak baldintzatzen ditu.

Faktore horiek guztiek hirigintza-plangintzak (plangintzakberak eta/edo hori garatzeko, egikaritzeko etab. sustatu beharreko planen eta proiektuen bidez) kontuan hartu beharreko ondorio espazialak dituzte.

Genero-ikuspegia hiri-plangintzan (Urretxuko Plan orokor berria barne) txertatuz gero, hiri-garapenaren eredua beste modu batera zehazten da eta etxebizitzan, jarduera ekonomikoetarako eremuen, ekipamenduen, espazio libreen eta abarren proposamenak beste modu batera antolatzen dira, familiaren zaintzarekin lotutako eguneroko eginkizunak bete eta lan ordaindua ahalegin eta zailtasun gutxiagorekin egin ahal izateko moduan, hain zuzen ere; era berean, eremu publikoek eta garraioak seguruak izan behar dute, emakumeen espazio- eta hiri-premiak, gaitasun ekonomikoarekin lotutako mugak barne, kontuan hartu behar dira, hala, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri seguruagoak eta bidezkoagoak sortzeko.

Helburu horiei hobeto erantzuten dien hiri-eredua hiri-ingurune trinkoarena da, honako hauek eskaintzen dituen: distantzia motzak eta gertutasuna, garraio-sistema publiko egokia, kalitatezko espazio publiko eta garraio seguruak, erabileren nahasketa, eta auzoetan ekipamendu-sistema egokia izango duena adingabeen eta mendeko pertsona zaharren zaintzarako beharrezko ekipamenduak izango dituen, betiko asistentzia-, eskola-, osasun-, hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduez gain.

Hori da Urretxuko Plan Orokor berriak nahi duen hiri-eredua. Enplegu ordaindua zaintza-lanekin bateragarri egitea ahalbidetzen du edo ahalbidetu dezake, izan ere, erantzukizun bikoitza beren gain hartzen duten pertsonen nabarmen lagunduko litzaieke lanpostuetara eta beharrezko ekipamenduetara sarbidea izaten, denbora-tarte txikietan, beharrezko ordutegietan, erosotasun- eta segurtasun-baldintzetan, eta kostu ekonomiko onargarrietan.

2.2.2.- Plan Orokorraren ondorio diren baliabideak.

Arestian aipatutakoari erreparatuta, Plan Orokorra tresna garrantzitsu bat da Urretxun eta, bereziki, bere hiri-ingurunean gauzatu behar diren baliabideen hirigintza-antolamendua zehazteko: etxebizitzak; jarduera ekonomikoak eta/edo lana garatzeko lekuak; ekipamenduak (besteak beste, irakaskuntza-, kultura-, kirol-, eta mendeko adinduen eta adingabeen zaintza-ekipamenduak); espazio libreak; mugikortasun- eta komunikazio-sistemak eta/edo -moduak; hiri-zerbitzuen azpiegiturak; etab.

Hori bai, eskaera eta premia horien benetako erantzuna ez dago soilik (hasieratik bukaerara) Plan Orokorraren baitan.

Hori bai, baliabide horiek antolatuko dituen hiri-eredua zehaztea dagokio, aipatutako eskaerei erantzun egoki bat emateko, kontuan hartuta, besteak beste, aurreko atalean adierazitako faktoreak.

Hortik aurrera, aipatutako erantzunak 5. puntuan aipatutako erabakien, neurrien, proiektuen eta abarren multzo konplexua hartzea eta abian jartzea eskatzen du, honako hauek barne: eraginpean dauden administrazio guztien esku-hartze aktiboa eta koordinatua; antolatutako etxebizitzaren garapen- eta egikaritze-politikak gaian planteatutako helburuetara egokitzea; hirigintzako garapen-planak eta urbanizazio-proiektuak helburu horiekin bat etorritik proiektatu eta gauzatu; udalerriko auzoetan inguruko zerbitzuak (ekipamendua, merkataritza...) benetan eta eraginkortasunez ezartzeko eta mantentzeko beharrezko neurriak abian jartzea eta gauzatzea; etab.

Zerbaitegatik, Plan Orokorra bakarrik ez da nahikoa erantzun horiek benetan eta eraginkortasunez gauzatzeko, beharrezkoa izanik: ondoriozko etxebizitzak (etxebizitza babesleak) esleitzeko erabakiak egokiak irizten diren irizpideetara egokitzea; Plana garatzeko sustatu beharrezko urbanizazio-proiektuak aipatutako irizpideetara, halaber, egokitzea; urbanizazioa eta espazio publikoa irizpide horiekin bat etorritik egikaritzea eta mantentzea; inguruko zerbitzuak (ekipamendua, merkataritza...) barrutietan eta auzoetan ezartzea eta mantentzea; etab.

2.3.- Erabakiak hartzeko garaian, gizonen eta emakumeen ordezkapen orekatua edo, gutxienez, esparruan duten ordezkapenaren antzekoa aurreikusten al du ematekoa den arauak?

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra udal hirigintza-tresna bat da, eta horren idazketa eta tramitazioa indarrean diren lege-xedapenetara egokitu behar dira (Lurzoruari buruzko 2/2006 Legea, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko Legea, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasunaren 2013ko Legea, etab.).

Lege-xedapen horiek Plana tramitatzeko eta onartzeko irizpideak erabakitzen dituzte, eta baita prozesu honetan beste administrazio eta erakunde publiko batzuen (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Administrazio Nagusia, etab.) esku-hartze irizpideak ere. Alde horretatik, Plana esparru arautu batean aritzen da, eta ondorioz, bere edukitik eta proposamenetatik ezin da inolaz ere eragin hori onartzeko erabakiak hartzean eta/edo erabaki horiek hartzeko organoetan emakumeek eta gizonen duten ordezkariaren eta presentziaren inguruan.

Nolanahi ere eta modu osagarrian, jarraian aipatzen diren hiru gaiak ondo nabarmendu behar dira.

Alde batetik, Urretxuko Udalbatza (Plan Orokorren hasierako eta behin-behineko onarpena dagokio) 13 pertsonen osatzen dute; horietatik 6 (%46) emakumeak dira eta 7 (%54) gizonak.

Bestalde, Plan Orokorra berrikusteko sustatutako herritarren parte-hartze prozesua.

Azkenik, Plan Orokorra tramitatzeko prozesuaren etorkizuneko faseetan parte hartzeko dinamika espezifiko horrekin jarraitzeko egokitasuna (Planaren hasierako onarpenaren ondoren jendaurreko fasea barne).

2.4.- Aurreikusten al da arau edo administrazio-ekintzak proposatutako helburu eta neurriak baliagarri izango direla emakumeei eta gizonei lotutako gizarte-arauak eta balioak gainditu edo aldatzeko?

Plan Orokorrak planteatzen du, besteak beste, jarraian azaltzen diren bi proposamen edo neurri motak emakumeei eta gizonei esleitutako gizarte-arauak edo balioak gainditzeko edo aldatzeko laguntzeko.

Alde batetik, kualitatiboki eta kuantitatiboki trinkoa izango den hiri-eredu baten aldeko apustu garbia eta irmoa, honako hauek eskaintzen dituena: distantzia motzak eta gertutasuna, garraio-sistema publiko egokia, kalitatezko espazio publiko eta garraio seguruak, erabileren nahasketa, eta auzoetan ekipamendu-sistema egokia izango duena. Helburu horiek lortzeko eredurik hoberena da. Apustu hori Plan Orokorrean horren inguruan espresuki sartutako proposamenetan eta neurrietan gauzatzen da, zeinak dokumentu hauen VI. epigrafean laburbiltzen diren.

Beste alde batetik, irizpide eta neurri batzuen zehaztapena, Plan Orokorren garapenean edo modu osagarrian sustatu beharreko etxebizitza-planetan, urbanizazio-proiektuetan eta abarretan ondoren sartzeko eta/edo garatzeko eta/edo Plan Orokorra horien arabera egiteko.

2.5.- Bermatzen al da diskriminazioa saihestea eta berdintasuna bultzatzea helburu duten arauak eta bestelako tresna juridikoak beteko direla eta haiek hobetzeko aukera izango dela?

Plan Orokorra jarraian aipatzen diren xedapenek, besteak beste, osatutako lege-esparruan sustatzen da, non adierazten diren irizpideak zehazten diren:

* Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea):

- 3. artikulua (aukera-berdintasuna).

Euskal agintariek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratzea eta kontrolatzea barne. Lege honen ondorioetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta beharden moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal agintariek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren balibideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).

- 19. artikulua (Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzea).
Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonen kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

- 46. artikulua (Ingurumena eta etxebizitza).
Euskal agintariek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen-, etxebizitza-, hirigintza- eta garraio-politiketan eta -programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, honako hauek hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familiarekin eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta egikaritzeko orduan emakumeen parte-hartze handiagoa sustatzea ere.

- * 2007ko martxoaren 22ko Legea, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako (3/2007 Legea) (31. artikulua: Hirigintza-politikak, lurralde-antolaketa eta etxebizitzari buruzkoak):
 - *Administrazio publikoetako politika eta planek, etxebizitza eskuratzeko gaien, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izateko neurriak barneratuko dituzte.*
Modu berean, hirigintzako eta lurralde-antolaketa politikak kontuan hartuko dituzte gizarte-talde desberdinen eta familia-egitura desberdinen beharrezkoak, eta ahalbidetuko dute berdintasun-baldintzetan jotzea hirigintzako zerbitzu eta azpiegituretara.
 - *Gobernuak, bere eskumenen esparruan, suspertuko du beharrezko-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeek, eta genero-indarkeriaren biktime izan diren emakumeek etxebizitza eskuratzeko, bereziki, emakume horiek, kasu batean zein bestean, adingabeko seme-alabak dituztenean euren ardurapean bakarrik.*
 - *Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.*

- * Lurzoru eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina, 2015eko urriaren 30ekoa (7/2015 LED) ("20. artikulua. Lurzorua erabiltzeko oinarrizko irizpideak):
Lurzoruaren erabileren antolamendua egiten dutenean, honako printzipio hauei erantzutea: irisgarritasun unibertsala, emakume eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna (...).

Plan Orokorraeta bere proposamenak berdintasunekolegezko helburu eta irizpide horietara egokitzeahaielaborazioaren eta zehaztapenaren premisen zati bat da.

Nolanahi ere, horri dagokionez eta esandakoari erreparatuz, jarraian adierazitako bi neurri mota hauek, besteak beste, bereizi behar dira:

- * Alde batetik, Urretxuko hiri-garapen ereduaren zehaztapenarekin eta horrek denboraren kudeaketaren, segurtasunaren eta abarren inguruko kontuetan eta helburuetan duen eragin zuzenarekin zerikusia dutenak.

Zehazki, eredu hau hiri-ingurunea ez zabaltzea, erabileren nahasketa, inguruko zuzkidurak eta zerbitzuak (espazio libreak, ekipamenduak, merkataritza...) antolatzea, mugikortasun jasangarria (garraio publikoa eta oinezkoen eta txirrindularien joan-etorriak sustatuz), irisgarritasun-arazoei erantzutea, etab. berekin dakartzaten esku-hartze jarraibideetara lotzeak zuzenean eragiten du kontu eta helburu horietan.

- * Bestalde, kontu eta alderdi desberdinei dagokionez, Plan Orokorren proposamenak osatzeko eta garatzeko beharra, eraginpean dauden Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Udala...) eta erakunde publikoen (URA...) ikuspegi eta tratamendu bateratu eta koordinatu batetik.

Hortaz, Administrazioaren esku-hartze bateratu eta koordinatu horren barruan, politika publikoak gai desberdinetan (etxebizitza, irakaskuntza-, osasun- eta laguntza-zuzkidurak, merkataritza...) Planaren irizpideei egokitzea, garapen- eta egikaritze-plan eta -proiektuak irizpide horien arabera formulatzea, etab. aipatutako helburuak lortzeko beharrezko esku-hartze gakoak dira.

2.6.– Beste kontu eta/edo neurri batzuk.

Orain arte azaldutakoaren osagarri modura, ebaluazio honen ikuspegitik planteatzen dabehar diren neurriak sustatzea, besteak beste:

- A.- Informazioa biltzeko sistemetan genero-ikuspegia sartzeko, halako moldez non, ondoren, kontuan hartu ahal izango den aldagai hori egoera ezagutzeko eta aztertzeke eta diagnostiko egokiak egiteko.
- B.- Etxebizitza publikoaren garapen-planak, egikaritzea, esleipena, etab. genero-ikuspegira noraino egokitzen diren aztertzeke.
- C.- Urbanizazio-proiektuen idazketaren jarraibideak eta/edo protokoloa zehazteke horiek genero-ikuspegira egokitu daitezzen.
- D.- Genero-ikuspegitik udalerrian azterlanak egiten jarraitzeke (orain arte Urola Garaia mankomunitatean garatu dira).

3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK.

3.1.- Genero-ikuspegia sartzea sustatzeko ezarritako neurriak.

3.1.1.- Emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen dute.

Horri dagokionez, bi neurri hauek, besteak beste, nabarmendu behar dira:

- * Lehen neurria:egoera desberdina ezagutzea Plan Orokorra egiten denean, eta baita horren proposamenak garatzeko eta egikaritzeko ondorengo faseetan ere.
- * Bigarren neurria:udalerraren eta bere auzoen bilakaera ezagutzea aipatutako egoera desberdinari dagokionez.
Horretarako lagungarri izango dira edo izan litezke:
 - Informazioa biltzeko sistemetan genero-ikuspegia sartzea, halako moldez non, ondoren, kontuan hartu ahal izango den aldagai hori egoera ezagutzeko eta aztertzeke eta diagnostiko egokiak egiteko.
 - Inguruko zerbitzuak mantentzearekin eta egotearekin zerikusia duten proposamenak benetan eta eraginkortasunez gauzatzeari buruzko azterketak egitea.

3.1.2.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio edo helburu gisa edota adierazpen nahiz azalpen moduan sartzen dute.

Hauek dira Plan Orokorrean horri dagokionez planteatutako irizpide eta proposamen batzuk:

A.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua berariaz sartzea Plan Orokorrean.

Hortaz, Planaren Hirigintzako Arau Orokorren 8. artikuluan honakoa adierazten da espresuki:

Plan Orokorrak lagundu egiten du bere proposamenekin emakume eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzen hiri- eta landa-inguruneen eta horietan antolatutako hirigintza-baliabideen erabileran, eskuragarritasunean eta gozamenean.

Hiriaren antolamenduan genero-ikuspegia kontuan hartuta, arloan indarrean dauden lege-xedapenetara egokitzen da.

B.- Aurreko V. epigrafean azaldutako helburu eta irizpideekin bat datorren hiri-eredu bat zehaztea, besteak beste, honakoak arautzen dituzten proposamenetan espresuki gauzatutakoa:

* Planaren Hirigintzako Arau Orokorren 12. artikuluan eta hurrengoetan araututako zona orokorren eraikuntza- eta erabilera-erregimena, zeinak eraikuntza- eta erabilera-mota desberdinak zona orokor berean ezartzea ahalbidetzen duen; esaterako, jarduera ekonomikoen, ekipamenduen eta abarren eraikinak eta erabilerak bizitegi-zona orokor batean ezartzea.

* Planaren Hirigintzako Arau Orokorren 48. artikuluan eta hurrengoetan araututako lursail edo azpierreku xehatuaren eraikuntza- eta erabilera-erregimena, zeinak erabilera-mota desberdinak lursail edo azpierreku xehatu berean ezartzea ahalbidetzen duen; esaterako, jarduera ekonomikoen, ekipamenduen eta abarren eraikinak eta erabilerak bizitegi-lursail edo -eraikin batean ezartzea.

C.- Udalerriko hiri-ingurunearen eta auzoen antolamendu xehatu edo zehatzaren proposamenak aipatutako hiri-ereduaren arabera zehatzea (kontuan hartuta hirigintza-eremuen Hirigintza Arau Partikularretan adierazitakoa, zonakatze xehatuaren planoa barne).

Horrek berekin dakar, besteak beste, bizitegiarako, jarduera ekonomikoetarako, ekipamenduetarako eta espazio libreetarako eta espazio libreetarako lursailak, esaterako, hiri-ingurune berean nahastea.

D.- Neurri eta proposamen espezifiko hauek, besteak beste, zehaztea:

- * Eraikuntza berriko bizitegi-eraikinetan, estandar edo zuzkidura modura, lokal eta/edo espazio komun bat aurreikusiko da *bizikletak, haur-kotxeak, ezinduentzako eta/edo adinekoentzako ibilgailu pertsonalak, erosketa-orgak eta abar* uzteko. Lokal horrek 10 m²-ko (erabilgarriak) gutxieneko azalera izango du, 1 m² (erabilgarria) gehituta aurreikusitako etxebizitza bakoitzeko (Hirigintzako Arau Orokorren 81. artikulua).
- * Lokal edo espazio horiek hirigintza-eraikigarritasuna zehazteko orduan konputagarriak ez direla berariaz aurreikustea (Hirigintzako Arau Orokorren 56. artikulua).
- * Hegal jakin batzuk hirigintza-eraikigarritasuna zehazteko orduan konputagarriak ez direla berariaz aurreikustea (Hirigintzako Arau Orokorren 56. artikulua).
- * Bizitegi-eraikinetara eta finketara sartzeko bideak (atariak...) segurtasun-baldintza egokietan proiektatzea eta gauzatzea (Hirigintzako Arau Orokorren 111. artikulua).
- * Etxebizitzatarako goiko solairu guztietan baimentzea bulego-erabilerak bulego profesionalen modalitatean (kontsultak, estudioak, bufeteak, irakaskuntza-jarduerak...), bertan bizi diren pertsonen (errolatuta) etxebizitzan garatzen dituztenak (Hirigintzako Arau Orokorren 49. artikulua).

E.- Espazio publikoaren tratamenduaren eta urbanizazioaren egokitzapena bermatzeko neurri egokiak zehaztea Plan Orokorra eta plangintza xehatua garatzeko sustatu beharreko Hirigintzako Ordenantzetan eta urbanizazio-lanen proiektuetan (Hirigintzako Arau Orokorren 7. artikulua, 49. artikulua, etab.).

3.1.3.- Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatzen dute.

- * Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonak sartzea Plan Orokorra egiteko profesionalen taldean.

3.2.- Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatu bat sustatzeko finkatutako neurriak.

- * Genero-ikuspegia sartzeari Plan Orokorra egiteko eta tramitatzeko sustatutako eta sustatu beharreko parte-hartze prozesuetan.
- * Genero-ikuspegia sartzeari Plan Orokorra garatzeko formulatu beharreko planetan sustatu beharreko parte-hartze prozesuetan.

3.3.- Ekintza positiboko neurriak.

"1.2". atalean azaldutako neurriak.

3.4.- Itxuraz neutroak diren baina genero-inpaktu positiboa izan dezaketen neurriak.

3.4.1.- Mendeko pertsonen zaintza beren gain hartzen dutenentzat.

- * Zonakatze orokorra, zonakatze xehatua eta erabilera-erregimena arautzen dituzten neurriak, erabileren nahasketa irizpideari, besteak beste, erantzuten dioten hiri-inguruneen sustatzaileak (Hirigintzako Arau Orokorren 12. artikulua eta hurrengoak, 48. artikulua eta hurrengoak, etab.).
Besteak beste, etxebizitzaren, ordaindutako lanaren eta mendeko pertsonen zaintzarako zerbitzuen eta instalazioen gertutasunaren aldekoak dira.
- * Bizitegitarako zona orokorretan eta, beraz, etxebizitzekin elkarbizitzan hirugarren sektorerako eta ekipamendurako lursailak antolatzeke proposamenak (Hirigintza Eremuen Hirigintzako Arau Partikularren zonakatze xehatuko planoak).

3.4.2.- Beste neurri batzuk.

- * Kualitatiboki eta kuantitatiboki trinkoak diren auzo eta hiri-inguruneak erabileren nahasketarekin eta garraio publikoko zerbitzuarekin antolatzea espazio publikoaren segurtasuna sustatzen duen uztartutako neurriak dira.
- * Plan honek ez du bestelako neurri-motarik (indarkeria-biktimei, familia gurasobakarrei, mendeko pertsonen zaintza beren gain hartzen dituztenei, eta abarrei dagokienez), ez baitu eraginik horrelako gaietan.

3.5.- Diskriminazioa jasaten duten emakumeen desberdintasunak gutxitzeko neurriak.

Plan honek ez du neurririk (adinagatik, gizarte-mailagatik, sexu-aukeragatik, minusbaliotasunagatik, etnia eta/edo arrazagatik, nazio-jatorriagatik, etab.) diskriminazioa jasaten duten emakumeen desberdintasunak gutxitzeko.

3.6.- Debekuzko edo zehapenezko neurriak.

Plan honek ez du debekuzko edo zehapenezko neurririk (sexua dela eta diskriminatzeagatik, hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik, eta abarregatik), ez baitu eraginik horrelako gaietan.

3.7.- Berdintasunerako Planaren helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatzeko edo areagotzeko neurriak, horren edukiaz harago.

3.7.1.- Estatistikak egokitzea eta azterketa espezifikoak egitea.

* Hori izan da, besteak beste, II. epigrafearen 3. atalean aipatutako dokumentuen helburua.

3.7.2.- Beste neurri batzuk.

* Plan Orokorra garatzeko eta/edo osatzeko planak formulatzea, Urretxuko auzoetan inguruko zerbitzuak ezartzeko eta mantentzeko neurriak abian zehazteko asmoz, auzo bakoitzean dauden beharrei erantzunez, ezarpen hauekin zerikusia duten eskaerak barne:

- Oinarriko edo inguruko ekipamendu-mota desberdinen ezarpena.
- Inguruko merkataritzaren ezarpena eta mantentzea.
- Beharrezkoak diren beste zerbitzu-mota batzuen ezarpena.

* Plan Orokorra garatzeko planak eta genero-ikuspegia.
Plan Orokorra garatzeko hirigintza-planetan (plan bereziak, partzialak...) genero-ikuspegia sartzea eta/edo horiek ikuspegi horretatik ebaluatzea.

* Urbanizazio-lanen proiektuak.
Urbanizazio-lanen proiektuak genero-ikuspegitik Plan honetan, aurreko ataletan adierazitako esku-hartze helburu eta irizpideetara, eta baita ikuspegi horretatik komenigarritzat jotzen diren gainerakoetara egokitzea, eta proiektu horien proposamenak helburu eta irizpide horietara egokitu izana justifikatzea.

- * Eraikuntza-proiektuak.
Eraikuntza-proiektuak genero-ikuspegitik Plan honetan, aurreko ataletan adierazitako esku-hartze helburu eta irizpideetara, eta baita ikuspegi horretatik komenigarritzat jotzen diren gainerakoetara egokitzea (ekipamenduetan erreprodukzio-lanetarako guneak prestatzea), eta proiektu horien proposamenak helburu eta irizpide horietara egokitu izana justifikatzea.
- * Beste proposamen-mota batzuk.
 - Hirigintza-antolamendua gauzatzeko proiektuetan (birpartzelazio-proiektuak...) merkataritza-lokalak Udalari esleitzeko proposamenak zehaztea, erakunde horrek udalerriko auzoetan inguruko zerbitzuen ezarpen- eta mantentze-helburuak sustatzeko eta gauzatzeko.
 - Aipatutako lokalak inguruko zerbitzu horiek prestatzera eta mantentzera benetan eta eraginkortasunez zuzentzeko beharrezko neurriak zehaztea.

3.7.3.- Beste kontu batzuk.

Plan honek ez du zabalkundea indartzeko ekintzarik, jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerarik, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzarik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko ekintzarik eta egiturak edo zerbitzuak sortzeko ekintzarik, ez baitu eraginik horrelako gaietan.

V.- II. EPIGRAFEAN (3. atala) AIPATUTAKO DOKUMENTUETAN PLANTEATZEN DIREN NEURRIEN TRATAMENDUA PLAN OROKORREAN.

1.- **Sarrera.**

Neurri horiek ondorengo 2. atalean adierazitakoak dira.

2.- **Neurriak eta horien tratamendua Plan Orokorrean.**

2.1.- Hiri-ereduari eta espazio publikoaren ereduari dagozkionak.

A.- 1. neurria.

- a) Neurriaren edukia: zaharkituta dauden industria-eraikinetan aldi baterako erabilerak sustatzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Neurri hau bateragarria da, esaterako, Sarralden (Hego Ipeñarrietan dagoen industria-gunea, egun erabiltzen ez den) jada egiten ari denarekin, zeinak Plan Orokorrak finkatzen duen.

Pabiloiak Udalarenak dira.Lurraren mailakako deskontaminazioa ekipamendu-erabileren ondorengo prestakuntzarekin osatzen da (horietako batzuetan musika-tailerrak, taldeen entsegurako guneak, etab. egokitu dira jada).

B.- 2. neurria.

- a) Neurriaren edukia:Jarduera ekonomikoen ezarpena erraztea bizitegi-eraikinen etxabeetan.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Horrela proposatzen da Plan Orokorrean, Rodriguez, Altamira-Santa Barbara, Gainzuri Komentua, Ipeñarrieta 28-30 eta Kamineroak garapen berrietan lokal gehiago aurreikusten direlarik.
Gainera, hirigintzako araudia bat dator neurri honekin eta bere egunean Dendarteaneekin izenpetutako hitzarmenean dauden jarraibideekin.

C.- 3. neurria.

- a) Neurriaren edukia:plazako jarduera ekonomikoetan ekonomia bultzatzea, Parte Zaharra birgaitzearekin eta Udaletxe Plaza topagune gisa sustatzearekin batera.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Plan Orokorrak Parte Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia finkatzen du eta hor esku hartzea sustatzea proposatzen du, neurri osagarriak finkatuz, hala nola etxebizitzetarako batez besteko tamaina minimo bat ezarriz eta Iparragirre plazatik eta kaletik igarotzen diren ibilgailuen trafikoak minimizatzea bilatzen duen mugikortasunerako proposamen berri bat eginez.
Proposamen horiek bat datoz Parte Zaharra birgaitzeko eta plaza topagune gisa sustatzeko neurriekin.

D.- 4. neurria:

- a) Neurriaren edukia:plazak sortzera zuzendutako lurzorua handitzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Planak Urretxuko espazio libre orokorren eta tokiko espazio libreen sistema berregituratzen du.Hortaz, hiri-eremuan sartzen ditu hiriko espazio libre orokorrak, eta aldi berean, tokiko espazio libreen zuzkidura orekatu bat aurreikusten du.
Ex-novo antolatzen dira Matxinporta, Institutua eta Pagoeta parkeak, eta Santa Barbara, Beko-errota/J. Mari Lasa plaza eta Kamineroak tokiko espazio libreak.
Plana tramitatzeko prozesuan zehar Barrenkaleko (San Martin) haurrentzako jolasak estali dira, eta haurrentzako jolasak jarri dira Ormazabalen (Labeaga).

E.- 5. neurria:

- a) Neurriaren edukia: ekipamendua eta espazio publikoak lotzea (horietara sartzeko plaza gisa).
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Gainzuri eskolako eta kiroldegiko aturreetan, Beko-errotan / J. Mari Lasa plazan proposatzen den trafikoa moteltzeko proposamena ekimen horri erantzuten dio.
Gauza bera gertatzen da lehengo espazio libreekin lotzen diren Altamirako eta Kamineroetako ekipamendu berrientzat egiten den proposamenarekin. Eta baita lehendik dauden beste ekipamendu batzuekin ere, hala nola Udaletxearekin, elizarekin, kultura-etxearekin eta liburutegiarekin, ikastolarekin Pagoetan, Ederrena pilotalekuarekin, gaztetxearekin...

2.2.- Eguneroko bizitzarako ekipamenduei eta azpiegiturei dagozkienak.

A.- 6. neurria:

- a) Neurriaren edukia: ekipamenduen eskaintza handitzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Udalerriko ekipamenduen zuzkidura handia da.
Duela gutxi, aire zabaleko udal igerilekuak birgaitu dira Pagoetan. Eta emakumearen etxea birkokatu da Pagoetan.
Gaur egun, gainera, Aspacerentzat zentro bat eta zuzkidura-bizitokiak proiektatzen ari dira Pagoetan.
Plan Orokorrak ekipamendu-lokal berriak proposatzen ditu, halaber, Elgean eta Kamineroetan, eta ekipamendu-lursail berriak Gurutze auzoan, Altamiran, Gainzabalen, Gainzuri Komentuan, Gerran eta Hego Ipeñarrietan. Eta baita lehendik dauden ekipamendu-zuzkidurak handitzeko aukera ere: Institutua, eguneko zentroa...

B.- 7. neurria:

- a) Neurriaren edukia: hobekuntzak anbulatorioaren kokapenean.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.
Anbulatorioaren egungo kokapena (Zumarragako hiri-eremuan dago, ADIFen geltokiaren eta Labeaga kalearen ondoan) egokia da, zentraltasun handia duelako eta, horik, bai Urretxuko bai Zumarragako beharrei erantzuten diolako (beste ekipamendu batzuekin ere gertatzen den bezala).

C.- 8. neurria:

- a) Neurriaren edukia: igerilekuak handitzea eta igerileku estali bat sortzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Igerilekuak handitzeko proposamenari jada erantzun zaio 2009aren ondoren horretarako egindako lanen egikaritzapena eta gero.

Une honetan ez da igerileku estali bat egitea aurreikusten, Plan Orokorrearen proiektzio-epan zehar gauzatze hipotetikoaren kalterik gabe.

D.- 9. neurria:

- a) Neurriaren edukia: Pagoeta suspertzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Planak Pagoetako espazio publikoa suspertzea proposatzen du, eta horretarako, ekipamendu berriak (emakumearen etxea, ikastola, Aspace, zuzkidura-bizitokiak...) ezarri nahi ditu horiek guztiek ematen duten plazaren aurrean.

Pagoetako plaza espazio libre gisa antolatzen da berariaz Plan orokorrean.

E.- 10. neurria:

- a) Neurriaren edukia: ekipamenduen banaketa hobetzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Planak ekipamenduen inguruan dituen proposamenek horiek hiri-eremuan hobeto banatzea ahalbidetzen dute, 6. neurriaren edukiaren arabera.

Gainera, Santa Barbarako aterpetxea landa-ingurunean handitzea ahalbidetzen da.

F.- 11. neurria:

- a) Neurriaren edukia: Ekipamenduetan erreproduktzio-lanak egiteko guneak prestatzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Plan Orokorrak lursailak ekipamendu-erabileratara eta -jardueratara zuzentzea zehazten du bere programa espezifikoa zehaztu eta baldintzatu gabe.

Hori dela eta, aipatutakoa bezalako neurri bati eman beharreko erantzuna programa hori eta hori garatzeko sustatu beharreko proiektua edo proiektuak zehaztean planteatu eta gauzatu behar da.

Nolanahi ere, neurri hori bat dator VI. Epigrafearen "7.2" atalean adierazitakoekin.

G.- 12. neurria:

- a) Neurriaren edukia: zaintza-azpiegituraren erabilera hirigintza-araudian aitortzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Azaldutakoaren arabera, Plan Orokorrek lursailak ekipamendu-erabileratara eta jardueratara zuzentzea zehazten du bere programa espezifikoak zehaztu eta baldintzatu gabe.

Gainera, espresuki adierazten du (Hirigintzako Arau Orokorren 51. artikulua) antolatutako ekipamenduek zaintza-ekipamenduen edo -zerbitzuen berezko izaera izango dutela, baldin eta helburu hauei erantzuteko gai baldin badira: Haurrak zaintzeko ikastetxeak; gaixoak, adinduak, mendeko pertsonak eta abar zaintzeko osasun- eta laguntza-ekipamenduak.

2.3.- Mugikortasunari eta garraio publikoari dagozkionak.

H.- 13. neurria:

- a) Neurriaren edukia: udalerriko leku desberdinetako urbanizazioa hobetzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Oro har, Plan Orokorren proposamenek, mugikortasun- eta irisgarritasun-kontuetan planteatutakoak barne, egun udalerriak dituen mugikortasun- eta irisgarritasun-planetan jasotzen dena nabarmen gainditzen dute, eta mugikortasun-jarraibideak drastikoki aldatzea proposatzen da; horrek hiri-eremua irizpidea horiekin berrurbanizatzea dakar berekin. Ildo berari jarraituz eta zehazki, honako hau esan daiteke:

- * Hau proposatzen da: Iparragirre kalean trafikoak murriztea, zirkulazio motordunaren noranzkoa aldatzea eta Gernikako arbolaren bidegurutzea eta dagokion seinaleztapena aldatzea, mugikortasun-proposamenaren planoan espresuki jasotzen den bezala, seinaleztapena eta pintura barne.
- * Kalerrota/J.Mari Lasa plaza/ Nekolalde hiri-continuumak osorik berrurbanizatzea proposatzen da, kiroldegiko jaitsiera problematikoari erantzuna emanez.
- * Santa Barbara inguruan urbanizazioa hobetzea proposatzen da.
- * Mundo Mejor auzorako igoera zati batean hobetu da bide berri bati esker; hala ere, lan osagarriak egin behar dira. Ildo horretan, Plan Orokorrek irisgarritasun-baldintzak hobetzen dituen igogailu publiko bat proposatzen du Elizalde eta Santa Barbara artean, eta udal Irisgarritasun Planak beste neurri osagarri batzuk planteatzen ditu.
- * Halaber, igogailu publiko berriak aurreikusi dira Altamira-Santa Barbaran, Ginzuri Komentuan (2) eta Ginzabalen.

- * Udalerriko hiri-ingurunearen irisgarritasun-arazoei eman beharreko erantzuna Plan Orokorren berriazko helburuen zati da. Helburu hori behar bezala burutu beharko da Planaren proposamenak gauzatu direnean. Eta gaur egungo hiri-inguruneari dagokionez, urbanizazio-lanen proiektuen bidez, arazo horren eraginpean dauden puntu zehatzak identifikatu ondoren. Gurpil-aulkiak ondo erabiltzeko neurrien zehaztapenari beharrezkoa den arreta jarriko zaio eta erantzuna emango zaio testuinguru horretan.

I.- 14. neurria:

- a) Neurriaren edukia: motoentzako plazak gordetzea.

- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Plan Orokorrek ez du proposamen espezifikorik planteatzen horri dagokionez, bere betekizuna gaitzen baitu.

Gai horrek Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea garatzeko sustatu beharreko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren xede izan beharko du, eta aurretik, horri dagokion diagnostikoa egin beharko da.

2.4.- Atzemandako segurtasunari dagozkionak.

J.- 15. neurria:

- a) Neurriaren edukia: industria- eta bizitegi-lurzoruen ukiguneen tratamendua.

- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Urretxuko hegoaldeko bidearen lotura berrantolatzea eta, horrekin batera, Hego Ipeñarrietatik (industria-gunea) Aparizio auzora (bizitegi-gunea) iristeko baldintzak hobetzea proposatzen da.

Halaber, Urretxu-Legazpi bidegorriaren eta Aparizioaren arteko lotura hobetzea aurreikusten da autobusen geltokiaren inguruan.

Eta Gurutze auzoan, iparraldean, lotura hobeago hori lortu nahi da.

K.- 16. neurria:

- a) Neurriaren edukia: udalerriko argi-premiak aztertzea.

- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Hiri-ingurune inklusibo eta seguru bat antolatzea Plan Orokorren beste helburutako bat da.

Zehazki, espazio publikoaren argiztapena egokia izateari dagokionez helburu hori gauzatzeko Planaren esku-hartze eta erabaki-esparru espezifikoak gaitzen du. Zeregin horri Udalak horretarako egokitzat jotzen duen esparruan heldu beharko zaio.

2.5.- Etxebizitzari dagozkionak.

K.- 16. neurria:

- a) Neurriaren edukia: etxebizitzak birgaitzeko beharrak identifikatzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Udalerriko etxebizitzaren egoera nahiko ondo ezagutzen den arren, Udalak azterketa espezifiko bat egiteko aukera planteatu du, baina oraindik ez da martxan jarri.

Gaur egun ekimen pribatuaren aldetik salmentan dauden babes publiko sozialeko etxebizitzak bultzatzen dira (Gurutze auzoa), eta baita Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren hitzarmen bidezko babes publiko sozialeko etxebizitzak alokairuan (Gainzabal) eta gazteentzako eta adinduentzako zuzkidura-bizitokiak ere.

Asko dira beren fatxadak birgaitu edo beren komunitateetan igogailuak jarri dituzten eraikinak (baita horretarako espazio publikoa okupatuz ere), baina lan asko dago oraindik egiteko horri dagokionez. Hortaz, interesgarria litzateke, ildo honetan, birgaitzeko esku-hartze gehiago bultzatzea bai hirigune historikoan bai, besteak beste, Santa Barbara, Mundo Mejor eta San Martin auzoetan.

L.- 17. neurria:

- a) Neurriaren edukia: etxebizitza babestuaren ehunekoa handitzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Plan Orokorrak 149 etxebizitza babestu (babes sozialekoak eta tasatuak) berri antolatzea aurreikusten du; jarduketa integratuetan aurreikusitako etxebizitza berrien (339) %44 hain zuzen ere. Beraz, Planak neurri hori sartu du bere edukian.

Nolanahi ere, esan behar da etxebizitza babestuaren ehunekoa handitzea ez dela, berez, irtenbide bat. Egungo errealitatea da ez dela etxebizitza babestu gehiago sustatzen eskatzailek ez dagoelako.

Neurriek, Udalak Pagoetan eta Gainzabalen bultzatzen duen bezala, alokairura edo beste modalitate mota batzuetara jo behar dute.

Hori dela eta, erronka nagusia kudeaketan dago eta ez etxebizitza-mota horien kopuruan.



Urretxu

Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala



M.- 18. neurria:

- a) Neurriaren edukia:segurtasun-irizpideak dituzten espazio komunitarioen sorrera erraztea (bizitegi-eraikinetan).
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Planak, eraikuntza berriko bizitegi-eraikinetan, estandar edo zuzkidura modura, *lokal eta/edo espazio komun bat aurreikusten du bizikletak, haur-kotxeak, ezinduentzako eta/edo adinekoentzako ibilgailu pertsonalak, erosketa-orgak eta abar uzteko. Lokal horrek 10 m²-ko (erabilgarriak) gutxieneko azalera izango du, 1 m² (erabilgarria) gehituta aurreikusitako etxebizitza bakoitzeko*(Hirigintzako Arau Orokorren 81. artikulua).

Halaber, Lokal edo espazio horiek ez dira konputagarria hirigintza-eraikigarritasuna zehazteko orduan (Hirigintzako Arau Orokorren 56. artikulua). Aldi berean, estandar-mota hauetatik harago doazen beste espazio komun batzuen (garbitegiak eta lehortegiak; jantokiak; egoteko eta jolasteko guneak;etab.) prestaketa hipotetikoa eta zehatza Planaren berezko betekizuna gainditzen du, eta, hala badagokio, eraikuntza-proiektua egitean zehaztu beharko da.Planak hori ezartzenuzten du eskatu beharrik gabe.

N.- 19. neurria:

- a) Neurriaren edukia: etxebizitzaren banaketari malgutasun-baldintzak finkatzea.
- b) Tratamendua Plan Orokorrean.

Planaren araudiak, oro har, aipatutako malgutasun-baldintzei erantzuten dio.Honako hauek dira adibide batzuk:

- Balkoi handi eta erabilgarriak ezartzea ahalbidetzen da, horien azalera ez baita konputagarria (kopuru jakin batera arte gutxienez).
- Irigarritasun-araudiak ez du onartzen igogailuraino eskailerarik edo oztoporik egotea.
- Esekilekuak nahitaezkoak dira.
- Ateak Eraikingintzaren Kode Teknikoan finkatutako irizpideetara egokitu behar dira.
- Zaborra biltzeko sistema udalerrian horri buruz finkatutako irizpide orokorretara egokitu behar dira, eta Planari ez dagokio modalitate jakin bat eskatzea (adibidez, bilketa pneumatikoa, zeina, orain arte gutxienez, ez da ezartzen edo hartzen ari; horrelako eskakizun batek Planaren proposamenak bidegabe zurrunduko lituzke.

- Beste gai batzuek (espazio malguagoen aurreikuspena; lan-eremu handiak dituzten sukalde handiak; garbitzeko produktuak biltegitratzeko lekuak; geletatik kanpo dauden bainugela handiak; azalera bereko gelak; etab.) Plan Orokorraren beraren esku-hartze eta erabaki esparrua gainditzen dute, eta, hala badagokio, etorkizunean egin beharreko eraikuntza-proiektuan kontuan hartu eta zehaztu beharko dira.

Horri dagokionez, etxebizitza-programa zehaztean (Hirigintzako Arau Orokorraren 114. artikulua eta hurrengoak), Planak aipatutako programa arautzeko baldintza minimoak zehazten ditu. Testuinguru honetan, Planak onartzen du espazio zabalago horiek prestatzea, baina ez dagokio horiek ezartzea edo eskatzea.

Nolanahi ere, horrelako iradokizunak hertsiki lotuta daude etxebizitzaren tamainaren inguruan dagoen etengabeko eztabaidarekin. Eta ez datoz bat etxebizitza handiagoak sustatzeko normalean nagusi diren tesiekin.

Donostian, 2020ko apirilean

SANTIAGO PEÑALBA

MANU ARRUABARRENA

MIKEL IRIONDO

“1. MEMORIA” dokumentua

1.5. HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA



AURKIBIDEA

Or.

I.- Dokumentu honen xedea.Aurrekariak.	2
II.- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egiteko esparru orokorra. Edukia eta metodologia.Irizpide orokorrak.	2
III.- Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta bere proposamenak.	3
IV.- Urretxuko egoera sozioekonomiko eta soziolinguistiko orokorra.	3
V.- Urretxuko Plan Orokor berriaren proposamenen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa.	9
VI.- Ondorioak.	15

ERANSKINAK.

- 1.- Urretxuko egoera sozioekonomikoa hainbat arlotan.
- 2.- Urretxuko egoera soziolinguistikoa.
- 3.- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egiteko parametroak (UEMA eredua).

I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.AURREKARIAK.

Urretxuko udalaren ekimenez, indarreko Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiteko lanak ari dira egiten.

Indarreko lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera (2016ko apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeko -2/2016 Legea- "7.7" artikulua), Plan Orokor hori bere proposamenek euskararen normalizazioan izan dezakeen inpaktu posiblearen ebaluazioarekin osatu behar dira.

Prozedura hori hasita, onartu berria da azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Era berean, kontuan hartu da prozeduran eta, horretarako, udal-zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin zuten apirilaren 8an.

Testuinguru horretan eginda, dokumentu honen helburua hizkuntza-ebaluazioa egitea da.

II.- HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA. EDUKIA ETA METODOLOGIA. IRIZPIDE OROKORRAK.

Plan Orokorraren hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa 2/2016 Legeak eta 179/2019 Dekretuak osatutako esparruan egin behar da. Eta dekretu horretan adierazitakoa kontuan hartuta, honako premisa hauek bete behar dira, besteak beste.

Testuinguru horretan, hizkuntza-ebaluazio hori honako premisa hauen arabera egiten da:

- * Hizkuntza-ebaluazioaren edukia eta norainoko materiala (bere kasuan zehaztu behar diren prebentziozko neurriak, neurri zuzentzaileak, etab. barne hartuta) Plan Orokorraren eta bere hirigintza-proposamenen esku-hartze eremuak eta erabaki propioak zuzenean baldintzatuta daude. Esku-hartze eremu horrekin zerikusirik ez duten eta, ondorioz, Plan Orokoretik kanpo dauden gaietara zabaltzeak ez luke justifikaziorik izango.

Horregatik eta norainoko horrekin aztertzen dira, besteak beste, ondoren aipatzen diren kontuak:

- Urretxuko egoera sozioekonomikoa.

Kontu horri dagokionez, arreta berezia jasotzen dute biztanleriak eta etxebizitzak eta aztertzen den aldia izan duten bilakaera.

- Urretxuko egoera soziolinguistikoa.
Kontu horri dagokionez, arreta berezia jasotzen du Urretxuko biztanleek euskarari buruz duten ezagutza-mailak eta aztertzen ari den aldian zehar izan duen bilakaerak.
 - Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko hirigintza-proposamenak eta bere eragin soziolinguistikoa posibleak.
Analisi horretan aipaturiko hizkuntza-ebaluazioa egitea sartzen da, V. epigrafean jasotako irizpide espezifikoen arabera.
- * Urretxuko udal-mugarte osoa (zehazkiago, hirigunea) hartu da kontuan, modu global eta unitarioan, hain zuzen ere, modu integral eta unitarioan, Plan Orokorrean arreta, analisi eta erabakiaren xede den lurralde-unitatea eratzen duelako.

III.- URRETXUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ETA BERE PROPOSAMENAK.

Bere proposamenak zehaztasunez ezagutzeko, Planean azaldutakoari lotuko gatzaizkio. Dena den, dokumentu honen xede-ebaluazioan kontuan hartu beharreko proposamen garrantzitsuenetako batzuk gogoratuko ditugu ondoren. Zehazki:

- * 422 etxebizitza berri antolatu dira guztira. Horietatik, 31 eraitsi behar diren beste horrenbesteren ordezkioak dira. Beraz, egia esan, 391 etxebizitza berri proiektatu dira.

Udalerriko honako eremu hauetan ezarriko dira: Labeaga, San Martín, Gurutze auzoa, Nekolalde, Lilibaso-Gainzabal, Gainzuri Komentua eta Ipar-Ipeñarrieta

- * Ekonomia-jardueren garapenen eskaintza 57.885 m²(s)-koa da, Hego Ipeñarrieta, Kaminpe eta Gerra eremuetan banatuta. Horiek guztiek dute jatorria indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioetan.
- * Aurreko proposamenak mugikortasun-sareen (oinezkoena, bizikletena, motordunena...), espazio libreen eta ekipamenduen, hirizko zerbitzu-azpiegituren eta abarren antolamenduari buruzkoekin osatzen dira.

Eta baita lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari buruzkoekin ere.

IV.- URRETXUKO EGOERA SOZIOEKONOMIKO ETA SOZIOLINGUISTIKO OROKORRA.

1.- Zenbait kontu orokor.

Honako hau da jaso eta aztertutako datuen jatorria:

- * Erakusten diren datu gehienak lortzeko iturria EUSTAT da.

Nolanahi ere, datu horiek beste iturri batzuetatik lortutakoekin osatu eta/edo birdoitu dira, honako hauek barne: udala, EIN, Soziolinguistika Klusterra, etab.

- * Aztertutako datu sozioekonomikoei eta soziolinguistikoei arreta berezia jartzen dute, alde batetik, planteatutako hizkuntza-ebaluazioarekin zerikusia duten gaietan eta, bestetik, Plan Orokorren berezko hirigintza-proposamenak.
Testuinguru horretan, datu sozioekonomikoei dagokienez, etxebizitzarekin eta populazioarekin zerikusia dutenek arreta berezia merezi dute. Planteamendu horrek erantzuna ematen dio dokumentu honetako hizkuntza-ebaluazioak Plan Orokorreko bizitegi-garapenetan arreta jartzeari.
- * Aztertutako aldiari dagokionez:
- Datu soziolinguistikoei 2001-2016 aldiari jartzen dute arreta 2016ko inkesta linguistikoa (Eusko Jaurlaritzak sustatutakoa) ustiatzeko baliatu diren kontu eta baldintzei dagokienez. Eta gainerakoetan 2001-2011 aldiari. Hori guztia, salbuespenen kalterik gabe.
 - Datu sozioekonomikoei 2001-2018 aldiari jartzen dute arreta, unean uneko salbuespenen baten kalterik gabe.
- * Batzuetan kontuan izan behar da iturri desberdinetatik jasotako datuak, edo baita iturri beretik jasotakoak ere, ez direla bat etortzen.
Testuinguru horretan eta egin beharreko analisiari behar duen koherentzia globala emateko xedez, distortsionatu gabe, EUSTATetik lortutako datuak eta informazioa hartzen dira erreferentzia orokor gisa (aipaturiko murrizketek zenbait gaitan ere eragiten dioten arren).
Hori dela eta, datu horiek, batzuetan, ez dira bat etortzen udaletik lortutakoekin.

2.- Urretxuko egoera sozioekonomikoa hainbat arlotan.

Egoera hori dokumentu honi erantsitako 1. Eranskinean azaldutako datuen ondorioa da. Honako hauek dira horietako batzuk eta/edo ondoriozko gogoeta batzuk:

2.1.- Biztanleak.

EUSTATen datuen arabera, populazioaren 2018ko egoera, eta 2001etik izandako bilakaera ondorengo taulan jasotakoak dira.

URTEA	BIZTANLEAK
2001	6.358
2006	6.655
2011	6.892
2016	6.850
2018	6.776

Datu horiek, arloan egindako analisiarekin osatuta, honako gogoeta hauek eragiten dituzte, besteak beste:

* Gogoeta orokorrak:

2001-2018 aldian, Urretxuko biztanleria egonkorra izan da, goranzko edo beheranzko aldaketa txiki batzuen eta % 6,57ko hazkunde orokor txiki baten kalterik gabe.

* Biztanleak eta horien jatorria edo jaioterria:

Kontu horri dagokionez ere, 2012-2016 aldiko eboluzioa ere egonkortasun handikoa izan da. Ondorengo taulan dago laburtuta eta/edo bateratuta bertan aipatzen diren 5 urteetako egoera.

SORLEKUA	2012 – 2013 – 2014 – 2015 – 2016 URTEAK
	Ehunekoak -%-
Araba	0,70
Bizkaia	0,80
Gipuzkoa	74,68
EAE, guztira	76,20
Espainiako beste probintzia batzuk	17,56
Atzerria	6,26
GUZTIRA	100,00

* Biztanleak eta euren adina:

- Nabarmentzekoa da 0 – 19 urteko biztanleen gorakada txiki bat 2001 – 2018 aldian, % 18tik % 21era pasatuz.
- Eta, aldi berean, 20 – 64 urteko biztanleen beherakada, % 65etik % 58ra pasatuz.

* Biztanleak eta sexua:

- Aztertutako datuek adierazten dute 2001 – 2018 aldian berdintasun eta egonkortasun handia egon dela kontu horri dagokionez.

2.2.- Etxebizitza.

EUSTATen datuen arabera, Urretxuko etxebizitza-kopurua 2016an, eta 2001etik izandako bilakaera ondorengo taulan jasotakoak dira.

URTEA	ETXEBIZITZAK –kop.-
2001	2.652
2006	2.992
2011	3.044
2016	3.015

Datu horiek, gaiaren inguruan egindako analisiarekin osatuta, 2001etik 2016ra, familien etxebizitza-kopurua 320 etxebizitzatan handitu dela adierazten du (% 13,6 2001eko guztiarekiko).

3.- Urretxuko egoera soziolinguistikoa.

Egoera hori dokumentu honi erantsitako 2. Eranskinean azaldutako datuen ondorioa da. Honako hauek dira datu horietako batzuk eta/edo horien ondoriozko gogoeta batzuk:

3.1.- Euskararen ezagutza.

* Honako hau zen 2016ko egoera:

EZAGUTZA - MAILA	PERTSONAK -kop-	PERTSONAK -%-
Euskaldunak	4.024	59,97
Ia euskaldunak	1.134	16,90
Erdaldunak	1.552	23,13
Guztira	6.710	100,00

* 2001etik 2016ra bitartean izandako bilakaera, besteak beste, honako parametro hauen ondoriozkoa izan da:

- Pertsona euskaldunen kopuruaren eta ehunekoaren gehikuntza. Hala, 2001ean kopurua 3.472koa zen (% 54,60). Eta 2016an 4.024koa (% 59,97). Aldi horretan % 5,37ko gehikuntza egon da.
- Ia euskaldunen artean kopuruaren eta ehunekoaren beherakada txiki bat egon zen. 2001ean ia euskaldunen kopurua 1.215ekoa zen (% 19,11). Eta 2016an 1.134koa (% 16,90).
- Erdaldunen artean ere kopuruaren eta ehunekoaren beherakada txiki bat egon zen. Hala, 2001ean, erdaldunen kopurua 1.672koa zen (% 26,29). Eta 2016an 1.552koa (% 23,13).

* Euskaldunen eta ia euskaldunen batura 2016an 5.158 pertsonakoa zen (% 75,97).

* 2011n pertsona euskaldunek zuten adinari dagokionez, ondorengo taulan jasotako datuak nabarmendu behar dira.

ADINA	EHUNEKOA -%-
2 – 14	23,45
15 – 34	28,51
35 – 64	34,75
= >65	13,29
GUZTIRA	100,00

3.2.- Ama-hizkuntza.

- * Honako hau zen 2016ko egoera orokorra:

HIZKUNTZA	PERTSONAK –kop-	PERTSONAK -%-
Euskara	2.483	36,29
Gaztelania	3.504	51,21
Biak	653	9,54
Beste hizkuntza bat	202	2,95
Guztira	6.842	100,00

- * Ama-hizkuntzat euskara duten biztanleen ehunekoa baxua da (% 36,29).Eta baxua izaten jarraitzen du ama-hizkuntzat bi hizkuntzak dituztenen ehunekoa batuta ere [euskara + gaztelania: % 45,83].
- * Pertsona euskaldunen (% 59,97) eta ia euskaldunen (% 16,90) ehunekoa ama-hizkuntzat euskara eta gaztelania duten pertsonen ehunekoa baino handiagoa da (% 45,83).

3.3.- Euskararen erabilera etxean.

- * Honako hau zen 2016ko egoera orokorra:

HIZKUNTZA	PERTSONAK –kop-	PERTSONAK -%-
Euskara	1.897	27,73
Gaztelania	3.627	53,01
Biak	1.165	17,03
Beste hizkuntza bat	153	2,24
Guztira	6.842	100,00

- * Etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa baxua da (% 27,73).Eta baxua izaten jarraitzen du bi hizkuntzak erabiltzen dituzten pertsonen ehunekoa batuta ere (euskara + gaztelania: % 44,76).
- * Euskaldunen (% 59,97) eta ia euskaldunen (% 16,90) ehunekoa etxean euskara erabiltzen duten pertsonen ehunekoa baino handiagoa da, bai modu berezitan (% 27,73), bai gaztelaniarekin batera (% 17,03).

Beraz, pertsona euskaldun askok ez dute euskara erabiltzen etxean.

3.4.- Euskararen erabilera kalean.

- * Kalean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa 2017an % 22,30ekoa zen.
- * 2001 – 2017 aldian, egoera egonkorra zen kontu horri dagokionez, beherakada txiki batzuen kalterik gabe.

- * Euskararen erabilera handitu egiten da umeak eta adinekoak edo horien nahasketa dagoen kasuetan. Eta asko murrizten da pertsona helduen presentzia soilik dagoen kasuetan.
- * Beraz, pertsona euskaldun askok ez dute euskara erabiltzen kalean.

3.5.- Hezkuntza-eredua.

2000-2001 eta 2012-2013 ikasturteetan zehar nabarmen txikitu da A ereduaren pisua eta, aldi berean, asko handitu da D ereduaren pisua. Ondorengo taulan dago jasota eboluzio hori.

IKASTURTEA	HEZKUNTZA-EREDUA							
	A EREDUA		B EREDUA		D EREDUA		X/G EREDUA	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
2001-2002	200	10,82	464	25,09	1.185	64,09	0	0,00
2012-2013	48	2,27	268	12,67	1.800	85,07	0	0,00

4.- Beste kontu batzuk.

4.1.- Euskararen Plan Estrategikoa.

Urretxuko udalak euskararen Plan Estrategikoa sustatu eta onartu du 2018 – 2022 aldirako. Honako hauek dira planean jasotako neurri batzuk:

- * Familia-transmisioko neurriak:
 - Hizkuntza-transmisiolari buruzko informazioa biltzea egungo egoera ezagutzeko eta orain arte martxan jarritako ekimenen arrakasta neurtzeko helburuarekin.
 - Euskararen erabilera sustatzea familia-esparruan.
- * Irakaskuntzako neurriak.
 - Ahozko mintzapraktika garatzea, bereziki esparru soziolinguistiko gaztelaniadunetan.
 - Ikastetxearen eta bere ingurune hurbilenaren artean euskarazko harremanak sustatzea.
 - Euskara ikasle etorkinei hurbiltzeko programak diseinatzea eta garatzea.
- * Euskalduntzeko – alfabetatzeko neurriak.
 - Euskararen erabilera eta mintzapraktika konbinatzen duten gelaz kanpoko ekimenak sustatzea.
 - Euskara pertsona etorkinei hurbiltzeko programak diseinatzea eta garatzea.
- * Aisiarekin eta kirolarekin zerikusia duten neurriak.
 - Aisia-jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.
 - Aisia-jardueretan erabilitako euskararen kalitatea zaintzea.
 - Euskararen erabilera sustatzen duten jarduerak antolatzea eta baliabideak optimizatzea.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea euskarak aisialdian izan dezakeen garapena sustatzeko.
- Gazteei zuzendutako modako jardueretan euskara lehenestea.
- Euskaraz aisia-programa egokiak antolatzea etorkinen integrazio zabal eta aberasgarria ahalbidetzeko.
- Kirol-esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.
- Euskal herritarrentzako kirol-esparruko jarduera, jardun eta zaletasunen euskarazko eskaintza handitzea eta horien eskaera sustatzea.
- * Kultura-jarduerarekin zerikusia duten neurriak.
 - Euskarazko kulturaren kontsumoa sustatzea.
 - Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.
 - Euskarazko kultura-produktuak modu egokian zabaltzea.
- * Informazioarekin eta komunikazioarekin zerikusia duten neurriak.
 - Euskarazko tresna teknologikoei buruzko informazioa bateratzea eta zabaltzea.
 - Interneten euskarazko edukiak sustatzea.

4.2.- Euskara-indizea.

Hainbat aditu eta erakunderen arabera (UEMA, Soziolinguistika Klusterra...), udalerrri bat euskalduntzat jotzeko, haren euskara-indizeak % 70etik gorakoa izan behar du. Urretxuko indizea % 68,42koa da. Beraz, parametro haren arabera, ez da udalerrri euskalduna.

Halaber, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuko proposamenak hartzen badira erreferentziatzat, ez da euskararen bizi-espazio edo arnasmune bat ere, hau da, *euskaraz dakiten pertsonen ehunekoak % 80 gainditzen duen eremu geografiko edo soziofuntzionala, harreman sozialetan erabilera arrunt eta orokorreko hizkuntza dena, gaztelaniaren erabilera-eskubidearen ezagutzaren eta bermearen kalterik gabe.*

V.- URRETXUKO PLAN OROKOR BERRIAREN PROPOSAMENEN HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA

1.- Zenbait kontu orokor.

Azaldutakoari erreparatuta, dokumentu honen helburua Urretxuko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriko (hasierako onspeneko dokumentua) hirigintza-proposamenek hizkuntza-arloan eta, zehazkiago, euskarari izan ditzaketan eraginak aztertzea da.

Azterketa hori, besteak beste, ondoren aipatuko diren premisetan oinarritzen da:

- * Erreferentziatzko hirigintza-proposamenak aipaturiko Plan Orokorrekoak dira eta, batik bat, plan horretan planteatutako bizitegi- edo etxebizitza-garapenak, bereziki eta bere kasuan hizkuntza-inpaktuak izan ditzaketanak horiek direla uste delako.

- * Bizitegi-garapenen gutxi gorabeherako kopurua 391 etxebizitza berrikoa izango da.

Halaber, Plan Orokor berria garatzeko epemugako ondoriozko biztanle-kopurua zehazte aldera, 2,48 pertsona/etxebizitzako ratioa hartzen da erreferentziatzat, bat datorrelako gaur egungo Urretxuko etxebizitza okupatuen ratioarekin.

Ratio horren arabera, aipaturiko 391 etxebizitzari lotutako biztanle-kopurua 970 pertsonakoa izango dela kalkulatu da, planteatutako hizkuntza-ebaluazioa egiteko erreferentziatzat hartzen dena.

2.- Metodologia.

Bere zorroztasuna eta ateratzen diren ondorioen konparaziozko analisia bermatzeko xedez, ebaluazioa ondoren azalduko diren bi metodologiaren bidez egingo da:

- * 1. metodologia.

Jaso eta dokumentu honetan azalduko datu sozioekonomikoak eta soziolinguistikoak zuzenean ebaluatzea eta ustiatzea da.

- * 2. metodologia.

Ebaluazioa UEMAK proposatutako parametroetara egokitzen da (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea; dokumentu honi erantsitako 3. eranskinean jasota), maila desberdineko birdoitze edo salbuespenen kalterik gabe. Parametro horiek, besteak beste, euskararen ebaluazio-indizea kalkulatzeko eta/edo zehazteko eskatzen dute, honako faktore hauetatik abiatuta:

- Euskararen hauskortasun-indizea.
Aurrerakineko proposamenek udalerriko egoera soziolinguistikoa zer neurritan hautsi edo alda dezaketen zehazteko da bere helburua. Horretarako, honako faktore hauek hartu dira erreferentziatzat:
 - . Biztanleak.
 - . Egungo biztanle euskaldunen ehunekoa.
 - . Ama-hizkuntza euskara duten egungo biztanleen ehunekoa.
 - . Etxean euskara erabiltzen duten egungo biztanleen ehunekoa.
 - . Euskara babesteko egungo egituraketa- eta programazio-neurriak.
- Proiekzio-indizea euskararen ezagutzari dagokionez.
Kalkulatutako populazio berriak biztanle euskaldunengan (egungo ehunekoaren gehikuntzarekin edo murrizketarekin) izango duen eragina zehazteko da helburua.

3.- Aurreikusitako etxebizitza berrien ondoriozko populazio-handitzearen hizkuntza-ebaluazioa 1. metodologiaren bitartez.

Deskribatutako testuinguruan ebaluazio hori egiteak, besteak beste, honako kontu hauek aztertzea eta/edo nabarmentzea dakar:

A.- Biztanle-kopuruaren gehikuntzaren kalkulua.

Adierazitakoari erreparatuta, biztanle-kopuruaren gehikuntza 806 pertsonakoa izango dela kalkulatu da.

B.- Egungo migrazio-joerak eta ateratzen diren euskaldunen zenbatespena.

EGUNGO MIGRAZIO-JOERAK		ONDORIOZKO EUSKALDUNEN ZENBATESPENA		
Jatorria	%	Pertsonak – kop-	Euskaldunak -%-	Euskaldunak –kop.-
Gipuzkoa	74,68	724	72,05	522
EAEko beste LH bat:	1,50	15	34,58	5
Espainiako beste AE batzuk	17,56	170	9,57	16
Atzerria	6,26	61	22,34	14
GUZTIRA	100,00	970	---	557

* Egia esan, 806 pertsonako biztanleria berri horren jakineko zati bat Urretxu bertakoa izango da. Horregatik, zati hori ez litzateke zenbatu beharko xede hauetarako. Nolanahi ere, une honetan ezin dira alde batera utzi ez dakigulako zein den Urretxun jaiotako egungo biztanleen kopurua edo ehunekoa.

* Taulan jasotako migrazio-joerak dokumentu honetan jasotako 2016ri buruzko azterketa sozioekonomikoaren ondoriozkoak dira.

* Taulan jasotako euskaldunen ehunekoak dokumentu honetan jasotako 2011ri buruzko azterketa soziolinguistikoaren ondoriozkoak dira.

Kalkulatutako pertsona euskaldunen ehunekoa kalkulaturako biztanle-kopuruaren gehikuntzaren % 57,57 izango da.

C.- Egungo migrazio-joerak eta ateratzen diren ia euskaldunen zenbatespena.

EGUNGO MIGRAZIO-JOERAK		ONDORIOZKO IA EUSKALDUNEN ZENBATESPENA		
Jatorria	%	Pertsonak – kop-	ia euskaldunak -%-	ia euskaldunak – kop.-
Gipuzkoa	74,68	724	19,96	145
EAEko beste LH batzuk:	1,50	15	39,25	6
Espainiako beste AE batzuk	17,56	170	30,20	51
Atzerria	6,26	61	28,43	17
GUZTIRA	100,00	970	---	219

* Egia esan, 806 pertsonako biztanleria berri horren jakineko zati bat Urretxu bertakoa izango da. Horregatik, zati hori ez litzateke zenbatu beharko xede hauetarako. Nolanahi ere, une honetan ezin dira alde batera utzi ez dakigulako zein den Urretxun jaiotako egungo biztanleen kopurua edo ehunekoa.

* Taulan jasotako migrazio-joerak dokumentu honetan jasotako (2016ri buruzkoak) azterketa sozioekonomikoaren ondoriozkoak dira.

* Taulan jasotako euskaldunen ehunekoak dokumentu honetan jasotako (2011ri buruzkoak) azterketa soziolinguistikoaren ondoriozkoak dira.

Kalkulatutako pertsona ia euskaldunen ehunekoa kalkulaturako biztanle-kopuruaren gehikuntzaren % 22,58 izango da.

D.- Aurreko tauletan azaldutakoari erreparatuta, besteak beste, honako ondorio hauek nabarmendu behar dira:

- * Planteatutako hirigintza-garapenei lotu dakiekeen euskaldunen kopurua eta ehunekoa, hurrenez hurren, 557 pertsona eta guztien % 57,47 dira.

Ehuneko hori 2011n kalkulaturako euskaldunen ehunekoa baino (% 56,58) zerbait handiagoa da. Eta 2016koa baino (% 59,97) zertxobait txikiagoa.

- * Planteatutako hirigintza-garapenei lotu dakiekeen ia euskaldunen kopurua eta ehunekoa, hurrenez hurren, 219 pertsona eta guztien % 22,58 dira.

Ehuneko hori 2011n kalkulaturako pertsona ia euskaldunen ehunekoaren (% 22,69) oso antzekoa da. Eta 2016an kalkulaturakoa baino (% 16,90) dezentez handiagoa.

- * Planteatutako hirigintza-garapenei lotu dakiekeen gainerako pertsonen (beste hizkuntza batzuen erabiltzaileak, batez ere gaztelania barne) kopurua eta ehunekoa, hurrenez hurren, 194 pertsona eta guztien % 20 dira.

Ehuneko hori 2011n kalkulaturako pertsona erdaldunen ehunekoa baino (% 20,53) txikiagoa da. Eta 2016an kalkulaturakoa baino (% 23,13) are txikiagoa.

- * Biztanle berrien % 80,05ak nahiko ondo jakingo du euskaraz (euskaldunak + ia euskaldunak).

E.- Beraz, planteatutako hirigintza-garapenek ez dituzte eragingo inpaktu negatibo bereziak euskararen ezagutzari dagokionez haiei lotutako biztanle berrien aldetik egungo egoerarekin alderatuta.

Nolanahi ere, komenigarria izango litzateke Euskararen Plan Estrategikoaren (ESEP) esparruan neurri osagarriak eta/edo zuzentzaileak zehaztea.

Gisa horretako neurriak zehazteak, ordea, ebaluatutako hirigintza-proiektuaren berezko esku-hartze eremua gainditzen du eta hizkuntza-arloan eta/edo euskara-arloan sustatu beharreko neurrien artean sartzen da.

Nolanahi ere, haien zehaztapena udalaren ikuspegi unitarioaren eta/edo sareko ikuspegiaren eta udalak esku hartzen duen arloan multzoan dituen politika eta neurrien esparruan planteatu behar da.

Gainera, adierazitakoari erreparatuta, etxeko nahiz kaleko euskararen erabilerarekin zerikusia duten egoera eta kontuak ere hirigintza-plangintzarekin zerikusirik ez duten faktore konplexuak dira, dagokien hizkuntza-politiken esparruan jorratu behar direnak.

4.- Aurreikusitako etxebizitza berrien ondoriozko populazio-handitzearen hizkuntza-ebaluazioa 2. metodologiaren bitartez (UEMA metodologia).

4.1.- Euskararen hauskortasun-indizea (HI).

Indize hori ondorengo taulan jasotako parametroen emaitza da, aurrerago adieraziko diren baldintzetan osatuta.

URRETXUKO DATUAK		BALORAZIOA
Biztanleak (2016)	6.850	2
Biztanle euskaldunak (%)	59,97	2
Euskara – ama-hizkuntza (%)	36,29	1
Euskara etxean (%)	27,73	1
Euskara (egituraketa-babesa)	ESEP	2

Halaber, honako hau da hauskortasun-indizea kalkulatzeko formula:

$$\frac{[(\text{euskara etxean} \times 2) + \text{euskaldunak} + \text{euskara-ama-hizkuntza}]/3}{\text{biztanleak} + \text{euskararen babesa}}$$

Euskararen hauskortasun-indizea 5,66koa da. Halaber, indize horri lotutako inpaktua honako parametro hauen ondoriozkoa da:

Hauskortasun-indizea (HI)	Indizearen inpaktua	
2 – 5	3	Txikia
6 – 9	2	Ertaina
10 – 13	1	Handia
14 – 18	0	Oso handia

Parametro horien arabera, inpaktua txikiaren (3) eta ertainaren (2) artekoa da.

4.2.- Euskararen ezagutzaren proiektzio-indizea (EPI).

A.- Etxebizitza berriei lotutako biztanle berrien zenbatespena:

- * Etxebizitza-kopurua: 391 etx.
- * Etxebizitzako pertsonen ratioa: 2,48 pertsona/etxeb.
- * Ateratzen diren biztanle berriak (325 x 2,48) = 970 pertsona.

B.- Egungo migrazio-joerak eta ateratzen diren euskaldunen zenbatespena.

EGUNGO MIGRAZIO-JOERAK		ONDORIOZKO EUSKALDUNEN ZENBATESPENA		
Jatorria	%	Pertsonak –kop-	Euskaldunak -%-	Euskaldunak –kop.-
Gipuzkoa	74,68	724	72,05	522
EAEko beste LH batzuk:	1,50	15	34,58	5
Espainiako beste AE batzuk	17,56	170	9,57	16
Atzerria	6,26	61	22,34	14
GUZTIRA	100,00	970	---	557

* Egia esan, 806 pertsonako biztanleria berri horren jakineko zati bat Urretxu bertakoa izango da. Horregatik, zati hori ez litzateke zenbatu beharko xede hauetarako. Nolanahi ere, une honetan ezin dira alde batera utzi ez dakigulako zein den Urretxun jaiotako egungo biztanleen kopurua edo ehunekoa.

* Taulan jasotako migrazio-joerak dokumentu honetan jasotako 2016ri buruzko azterketa sozioekonomikoaren ondoriozkoak dira.

* Taulan jasotako euskaldunen ehunekoak dokumentu honetan jasotako 2011ri buruzko azterketa soziolinguistikoaren ondoriozkoak dira.

C.- Ondoriozko euskaldunen ehunekoaren zenbatespena.

Zenbatespen hori ondorengo taulan jasotakoa da.

BIZTANLEAK (2016)		BIZTANLE EUSKALDUNAK (2016)	
---	Pertsonak –kop-	Pertsonak –kop-	Ehunekoa (%)
Egungoak (2016)	6.710	4.024	59,97
Berriak	970	557	---
Guztira	7.680	4.581	59,65

Beraz, 2016an biztanle euskaldunak biztanle guztien % 59,97 baziren, Plan Orokorrean proposatutako hirigintza-garapenei lotutako biztanleria-hazkundearen esparruan, biztanle euskaldunak % 59,71 izango direla kalkulatu da. Horrek % 0,26ko beherakada esan nahi du, egungo egoera mantentzearen baliokidea.

D.- Euskararen eboluzio-indizea:

* Kalkulatzeko formula: HI + EPI.

* Eraitza:

- Euskararen hauskortasun-indizean inpaktu txikia duela kontuan hartzeari lotuta:
 $3 - 0,32 = 2,68$

Kasu horretan, Plan Orokorreko proposamenek ondorio positiboak edo positibo samarrak dituzte euskararen bilakaeran.

- Euskararen hauskortasun-indizean inpaktu ertaina duela kontuan hartzeari lotuta:
 $2 - 0,32 = 1,68$
Kasu horretan, Plan Orokorreko proposamenek ondorio positibo samarrak dituzte euskararen bilakaeran.

4.3.- Ondorioak.

Plan Orokorreko proposamenek Urretxuko euskararen egoeran eta bilakaeran ondorio positiboa edo positibo samarra izateari erreparatuta, ez da beharrezkotzat jotzen ebaluazio-prozesuarekin jarraitzea eta inpaktuak zuzentzeko neurriak hartzea ere.

VI.- ONDORIOAK.

Dokumentu honetan azaldutako analisiak honako ondorio hauetara garamatza:

- * Hainbat aditu eta erakunderen arabera (UEMA, Soziolinguistika Klusterra...), udalerrri bat euskalduntzat jotzeko, haren euskara-indizeak % 70etik gorakoa izan behar du. Urretxuko indizea % 68,42koa da. Beraz, parametro haren arabera, ez da udalerrri euskalduna.
- * 179/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ez da euskararen bizi-espazioa edo arnagunea ere.
- * Plan Orokorreko proposamenek, edo ez dute eragin negatiborik euskararen udalerrriko ezagutzaren egungo egoeran eta eboluzioan (3. atalean analizatutako 1. metodologiaren arabera), edo eragin horiek positiboak edo positibo samarrak dira (atal bereko 2. metodologiaren arabera).

Nolanahi ere, euskararen ezagutza osatzeko eta/edo sustatzeko neurriak zehaztea komeni da Urretxuko euskara sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) esparruan.

- * Euskararen egoera etxeko, kaleko eta abarreko erabilerari dagokionez, aurrekoaren oso desberdina da. Kasu horietan guztietan, euskara hizkuntza ahulagoa edo horrenbesteko presentziarik gabea da.

Egoera horrek, hein handi batean, biztanle euskaldunek beraiek euskara ez erabiltzeari (etxean, kalean...) lotutako faktoreei erantzuten die. Horregatik, arazo horren jatorriak nahiz bere kasuan izan behar duen erantzunak ez dute hirigintza-izaerarik eta, ondorioz, gainditu egiten dute Plan Orokorrearen berezko egitekoa.

- * Gainera, hirigintza-plangintzaren erantzukizuna / zeregina da dinamika sozialak eta publikoak (azken batean bizitza soziala) sortzen duten eta pertsonen erlazionatzeko, jostatzeko, egoteko, solaserako, paseatzeko eta abarrerako erabil ditzaketen kalitateko eraikinak eta espazioak (ekipamenduak, espazio libreak, plazak, kaleak...) antolatzea.

Halaber, plangintza horren berezko egitekoak gainditzeko eraijin eta espazio horietan hizkuntza bat edo bestea erabiltzea baldintzatzen edo sustatzen duten neurriak zehaztea.

Gisa horretako neurriak zehaztea, beste gauza batzuen artean, udalerrian Euskararen Plan Estrategikoaren (ESEP) esparruan sustatu nahi diren hizkuntza-izaerako proposamen eta politika espezifikoari eta udalaren ikuspegi unitarioari edo sareko ikuspegiari eta udalak esku hartzen duen arloen multzoan dituen politika eta neurriei lotuta egongo da.


Donostian, 2020ko apirilean



SANTIAGO PEÑALBA



MANU ARRUABARRENA



MIKEL IRIONDO



1. ERANSKINA

URRETXUKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA HAINBAT ARLOTAN.





Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

1.- BIZTANLERIA ETA BERE BILAKAERA.

-1-

Biztanleriaren bilakaera orokorra eta sexuen araberakoa (2001 – 2018)

URTEA	SEXUA	BIZTANLEAK	
		Kopurua	%
2001	Emakumeak	3.168	49,83
	Gizonak	3.190	50,17
	Guztira	6.358	100,00
2006	Emakumeak	3.280	49,29
	Gizonak	3.375	50,71
	Guztira	6.655	100,00
2011	Emakumeak	3.384	49,10
	Gizonak	3.508	50,90
	Guztira	6.892	100,00
2016	Emakumeak	3.398	49,61
	Gizonak	3.452	50,39
	Guztira	6.850	100,00
2018	Emakumeak	3.382	49,91
	Gizonak	3.394	50,09
	Guztira	6.776	100,00

Iturria: EUSTAT

-2-

Biztanleen bilakaera euren jatorriaren eta/edo sorlekuaren arabera (2001 – 2018)

SORLEKUA	2001	2006	2011	2016	2018
	Araba	55	54	51	47
Bizkaia	65	64	58	58	54
Gipuzkoa	4.628	4.961	5.109	5.125	5.086
EAE, guztira	4.748	5.079	5.218	5.230	5.189
Beste probintzia batzuk (Espainia)	1.539	1.359	1.300	1.146	1.089
Atzerria	71	217	374	474	498
GUZTIRA	6.358	6.655	6.892	6.850	6.776

Iturria: EUSTAT



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

-3-

Biztanleen bilakaera euren jatorriaren eta/edo sorlekuaren arabera (2012 – 2018)

SORLEKUA	URTEA									
	2012		2103		2014		2015		2016	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Araba	48	0,70	47	0,70	48	0,70	50	0,70	47	0,70
Bizkaia	59	0,80	56	0,80	53	0,80	54	0,80	58	0,80
Gipuzkoa	5.170	74,60	5.180	75,10	5.163	74,50	5.178	74,40	5.125	74,80
EAE, guztira	5.277	76,20	5.283	76,60	5.264	75,90	5.282	75,90	5.230	76,40
Beste probintzia batzuk (Espainia)	1.268	18,30	1.237	17,90	1.221	17,60	1.205	17,30	1.146	16,70
Atzerria	385	5,60	380	5,50	447	6,50	471	6,80	474	6,90
GUZTIRA	6.930	100,00	6.900	100,00	6.932	100,00	6.958	100,00	6.850	100,00

Iturria: EUSTAT

-4-

Biztanleen bilakaera adinari erreparatuta (2001 – 2018)

ADINA	URTEA				
	2001	2006	2011	2016	2018
0 – 19	1.158	1.232	1.416	1.470	1.422
20 – 64	4.161	4.254	4.152	3.958	3.898
= > 65	1.039	1.169	1.324	1.422	1.456
GUZTIRA	6.358	6.655	6.892	6.850	6.776

Iturria: EUSTAT

2.- ETXEBIZITZA ETA BERE BILAKAERA.

-5-

Etxebizitzaren bilakaera orokorra (2001 – 2016)

URTEA	ETXEBIZITZAK –kop.-
2001	2.652
2006	2.992
2011	3.044
2016	3.015

Iturria: EUSTAT.

-6-

Etxebizitzaren bilakaera orokorra okupazioari erreparatuta (2001 – 2016)

URTEA	OKUPAZIOA	ETXE BIZITZAK	
		Kopurua	%
2001	Nagusia	2.352	88,69
	Gainerakoa (2. etxeb. + desokupatua)	300	11,31
	Guztira	2.652	100,00
2006	Nagusia	2.482	82,95
	Gainerakoa (2. etxeb. + desokupatua)	510	17,05
	Guztira	2.992	100,00
2011	Nagusia	2.661	87,42
	Gainerakoa (2. etxeb. + desokupatua)	383	12,58
	Guztira	3.044	100,00
2016	Nagusia	2.672	88,62
	Gainerakoa (2. etxeb. + desokupatua)	343	11,38
	Guztira	3.015	100,00

Iturria: EUSTAT



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

2. ERANSKINA
URRETXUKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA.



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

1.- EUSKARAREN MAILA / EZAGUTZA.

-7-

Bilakaera orokorra (2001 – 2016).

URTEA	EUSKARAREN MAILA - EZAGUTZA							
	EUSKALDUNAK		EUSKALDUNAK		ERDALDUNAK		GUZTIRA	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
2001	3.472	54,60	1.215	19,11	1.672	26,29	6.359	100
2006	3.492	54,58	1.302	20,35	1.604	25,07	6.398	100
2011	3.816	56,78	1.525	22,69	1.380	20,53	6.721	100
2016	4.024	59,97	1.134	16,90	1.552	23,13	6.710	100

Iturria: EUSTAT

-8-

Biztanleen bilakaera orokorra adinari erreparatuta (2001 – 2016)

(2 urte eta gehiagoko biztanleak)

ADINA	URTEA	EUSKARAREN MAILA - EZAGUTZA							
		EUSKALDUNAK		IA EUSKALDUNAK		ERDALDUNAK		GUZTIRA	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
2 – 14	2001	591	85,90	71	10,32	26	3,78	688	100
	2006	584	75,45	145	18,73	45	5,81	774	100
	2011	895	90,50	70	7,08	24	2,43	989	100
15 – 34	2001	1395	68,62	374	18,40	264	12,99	2033	100
	2006	1240	71,51	280	16,15	214	12,34	1734	100
	2011	1088	77,16	169	11,99	153	10,85	1410	100
35 – 64	2001	1067	40,33	640	24,19	939	35,49	2646	100
	2006	1199	43,49	721	26,15	837	30,36	2757	100
	2011	1326	43,68	1024	33,73	686	22,60	3036	100
=> 65	2001	419	42,24	130	13,10	443	44,66	992	100
	2006	469	41,39	156	13,77	508	44,84	1133	100
	2011	507	39,42	262	20,37	517	40,20	1286	100

Iturria: Euskararen Datu Basea (EDB). Ez dago 2016ko daturik urte horretako inkesta soziolinguistikoa ez delako ustiatu Urretxuko euskararen ezagutzaren bilakaerari dagokionez, adinari erreparatuta.



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

-9-

Biztanleen bilakaera orokorra sexuari erreparatuta (2001 – 2011).

URTEA	SEXUA	EUSKARAREN MAILA - EZAGUTZA							
		EUSKALDUNAK		EUSKALDUNAK		ERDALDUNAK		GUZTIRA	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	
2001	Emakumeak	1.808	57,20	587	18,57	766	24,23	3.161	100
	Gizonak	1.664	52,03	628	19,64	906	28,33	3.198	100
	Guztira	3.472	---	1.215	---	1.672	---	6.359	100
2006	Emakumeak	1.809	56,92	621	19,54	748	23,54	3.178	100
	Gizonak	1.683	52,27	681	21,15	856	26,58	3.220	100
	Guztira	3.492	---	1.302	---	1.604	---	6.398	100
2011	Emakumeak	1.945	58,78	710	21,46	654	19,76	3.309	100
	Gizonak	1.871	54,84	815	23,89	726	21,28	3.412	100
	Guztira	3.816	---	1.525	---	1.380	---	6.721	100

Iturria: Euskararen Datu Basea.EUSTAT.Ez dago 2016ko daturik urte horretako inkesta soziolinguistikoa ez delako ustiari Urretxuko euskararen ezagutzaren bilakaerari dagokionez, sexuari erreparatuta.

-10-

Bilakaera orokorra sorlekuari erreparatuta (2001 – 2011).

URTEA	SORLEKUA	EUSKARAREN MAILA - EZAGUTZA							
		EUSKALDUNAK		IA EUSKALDUNAK		ERDALDUNAK		GUZTIRA	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	
2001	Gipuzkoa	3.286	70,68	837	18,00	526	11,31	4.649	100
	EAEko beste LH bat	40	31,75	39	30,95	47	37,30	126	100
	Espainiako beste AE bat	129	8,57	321	21,33	1.055	70,10	1.505	100
	Espainiatik kanpo	17	21,52	18	22,78	44	55,70	79	100
	GUZTIRA	3.472	---	1.215	---	1.672	---	6.369	---
2006	Gipuzkoa	3.213	68,26	925	19,65	569	12,09	4.707	100
	EAEko beste LH bat	41	37,61	27	24,77	41	37,61	109	100
	Espainiako beste AE bat	169	12,11	307	22,01	919	65,88	1.395	100
	Espainiatik kanpo	69	36,90	43	22,99	75	40,11	187	100
	GUZTIRA	3.492	---	1.302	---	1.604	---	6.398	---
2011	Gipuzkoa	3.570	72,05	989	19,96	396	7,99	4.955	100
	EAEko beste LH bat	37	34,58	42	39,25	28	26,17	107	100
	Espainiako beste AE bat	121	9,57	382	30,20	762	60,24	1.265	100
	Espainiatik kanpo	88	22,34	112	28,43	194	49,24	394	100
	GUZTIRA	3.816	---	1.525	---	1.380	---	6.721	---

Iturria: Euskararen Datu Basea.Ez dago 2016ko daturik urte horretako inkesta soziolinguistikoa ez delako ustiari Urretxuko euskararen ezagutzaren bilakaerari dagokionez, sorlekuari erreparatuta.



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

2.- AMA-HIZKUNTZA.

-11-

Bilakaera orokorra (2001 – 2016).
(2 urte eta gehiagoko biztanleak)

HIZKUNTZA	URTEA							
	2001		2006		2011		2016	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskara	2.635	41,44	2.585	40,40	2.562	38,12	2.483	36,29
Gaztelania	3.322	52,24	3.326	51,99	3.496	52,02	3.504	51,21
Biak	369	5,80	412	6,44	520	7,74	653	9,54
Beste hizkuntza bat	33	0,52	75	1,17	143	2,13	202	2,95
GUZTIRA	6.359	100,00	6.398	100,00	6.721	100,00	6.842	100,00

Iturria: Euskararen Datu Basea + EUSTAT.

3.- ETXEAN HITZ EGITEN DEN HIZKUNTZA.

-12-

Bilakaera orokorra (2001 – 2016).
(2 urte eta gehiagoko biztanleak)

HIZKUNTZA	URTEA							
	2001		2006		2011		2016	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskara	1.619	25,46	1.982	30,98	1.853	27,57	1.897	27,73
Gaztelania	3.117	49,02	3.270	51,11	3.879	57,71	3.627	53,01
Biak	1.608	25,29	1.098	17,16	902	13,42	1.165	17,03
Beste hizkuntza bat	15	0,24	48	0,75	87	1,29	153	2,24
GUZTIRA	6.359	100,00	6.398	100,00	6.721	100,00	6.842	100,00

Iturria: Euskararen Datu Basea + EUSTAT.



4.- HIZKUNTZAREN ERABILERA KALEAN.

(Urretxu-Zumarragan 2017an egindako neurketetatik ateratako datuak).

-13-**Hizkuntzaren erabilera (2017).**

HIZKUNTZA	ERABILERA (%)
Euskara	22,30
Gaztelania	75,20
Beste hizkuntza batzuk	2,50
Guztira	100,00

-14-**Euskararen erabileraren bilakaera (2001 - 2017)**

URTEA	ERABILERA (%)
2001	22,70
2005	22,70
2009	18,90
2013	23,40
2017	22,30



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

-15-

Hizkuntzaren erabilera sexuen arabera (2017)

HIZKUNTZA	ADINA			
	2 – 14 urte	15 – 24 urte	25 – 64 urte	= > 65
Euskara	29,50	17,90	22,30	13,10
Gaztelania	66,30	81,10	75,10	86,70
Beste hizkuntza batzuk	4,20	1,00	2,60	0,10
Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00

-16-

Euskararen erabilera umeak aurrean direla edo ez direla (2017)

HIZKUNTZA	UMEAK SOILIK	HELDUAK SOILIK	UMEAK ETA HELDUAK NAHASIAN	UMEAK HITZ EGITEN DU	HELDUAK HITZ EGITEN DU
Euskara	20,90	14,90	36,50	37,70	32,90
Gaztelania	75,50	83,80	59,50	58,20	63,60
Beste hizkuntza batzuk	3,60	1,40	4,00	4,10	3,50
Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

5.- IRAKASKUNTZAKO EREDUAK.

-17-

Egoera (2012-2013 ikasturtea).

HEZKUNTZA-EREDUA	IKASLEAK	
	Kopurua	Ehunekoa
A eredia	48	2,27
B eredia	268	12,67
D eredia	1.800	85,07
X/G eredia	---	---
GUZTIRA	2.068	100,00

-18-

Bilakaera (1991-1992 // 2012-2013 ikasturteak).

IKASTURTEA	HEZKUNTZA-EREDUA							
	A EREDUA		B EREDUA		D EREDUA		X/G EREDUA	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
2000-2001	200	10,82	464	25,09	1.185	64,09	0	0,00
2001-2002	203	11,06	463	25,23	1.169	63,71	0	0,00
2002-2003	189	10,14	463	24,85	1.211	65,00	0	0,00
2003-2004	232	11,74	452	22,87	1.292	65,38	0	0,00
2004-2005	172	8,87	444	22,90	1.323	68,23	0	0,00
2005-2006	138	7,16	440	22,82	1.350	70,02	0	0,00
2006-2007	214	10,53	455	22,38	1.364	67,09	0	0,00
2007-2008	218	10,49	474	22,80	1.387	66,71	0	0,00
2008-2009	23	1,17	471	23,98	1.470	74,85	0	0,00
2009-2010	26	1,31	479	24,17	1.477	74,52	0	0,00
2010-2011	34	1,68	495	24,41	1.499	73,92	0	0,00
2011-2012	42	2,01	304	14,53	1.746	83,46	0	0,00
2012-2013	48	2,27	268	12,67	1.800	85,07	0	0,00



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

-19-

Egoera hezkuntza-mailen arabera (2012-2013 ikasturtea).

HEZKUNTZA-MAILA	HEZKUNTZA-EREDUA								
	A EREDUA		B EREDUA		D EREDUA		X/G EREDUA		GUZTIR
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
Haur H.	---	0,00	64	10,34	555	89,66	---	0,00	619
Lehen H.	---	0,00	159	19,92	639	80,08	---	0,00	798
Bigarren H.	10	2,11	45	9,49	419	88,40	---	0,00	474
Batxilergoa	---	0,00	---	0,00	161	100,00	---	0,00	161
Lanbide H.	36	58,06	---	0,00	26	41,94	---	0,00	62
Beste batzuk	2	100,00	---	0,00	---	0,00	---	0,00	2
GUZTIRA	48	---	268	---	1.800	---	---	---	2.116



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

3. ERANSKINA

HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA EGITEKO PARAMETROAK (UEMA EREDUA).



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

I.- HIZKUNTZA-EBALUAZIOAREN LANEKO FASEAK / URRATSAK.

- * Planaren esparruaren analisia.
Kasu honetan, analisi hori, batetik, dokumentu honetan jasotakoa da eta, bestetik, Plan Orokorren Aurrerakinean (bere informazio-dokumentuak barne), une honetan berrestea beharrezkotzat jotzen ez delarik.
- * Galdetegi laburra betetzea.
Kasu honetan, hizkuntza-ebaluazioa egiteak premisari erantzuten dio: Urretxuko Plan Orokor berriaren proposamenean, bere Aurrerakina barne, biztanle-kopurua handitzea eragin dezaketela.
- * Euskararen bilakaera-indizearen kalkulua.
- * Hizkuntza-inpaktuari buruzko galdetegi orokorra betetzea.
- * Hizkuntza-inpaktuari buruzko oinarriko galdetegi espezifiko batetzea.

II.- EUSKARAREN BILAKAERA INDIZEA.**1.- Definizioak.**

- * Biztanleriaren hazkunde-indizea (BHI).
Kasu honetan eta dokumentu honetan azaldutako arrazoiei erreparatuta, etxebizitzako 2,4 pertsonako indizea hartu da kontuan. Eta Aurrerakinean aurreikusitako etxebizitza berriei lotutako biztanleria, gehienez, 33.600 pertsonakoa izango dela kalkulatu da.
- * Euskararen proiektzio-indizea (EPI).
Bere helburua aurreikusitako bizitegi-garapen berriek (eta garapen horiei lotutako biztanleriak) euskararen egungo ezagutza-mailan edo -ehunekoan izan ditzaketen inpaktuak zehaztea da.
Horien kalkuluak ondorengo 2. atalean azalduko diren parametroei erantzuten die.
- * Euskararen hauskortasun-indizea (EHI)
Bere helburua udalerraren egungo egoera soziolinguistikoa eta bere hauskortasun edo sendotasun handiagoa edo txikiagoa zehaztea da, proposatutako hirigintza-garapen berriek egoera hori zer neurritan aldatu edo mantendu dezaketen ebaluatzeko xedez.
Horien kalkuluak ondorengo 3. atalean azalduko diren parametroei erantzuten die.
- * Euskararen bilakaera-indizea (EBI).
Bere helburua planteatutako garapen berrietatik etor litezkeen inpaktuen ondorioz euskarak izandako bilakaera zehaztea da.
Horien kalkuluak ondorengo 4. atalean azalduko diren parametroei erantzuten die.

Sigla horiek guztiek (ondorengo ataletan berretsita) aipaturiko euskara-indizeen adierazpenari erantzuten diote.



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala

2.- Euskararen proiektzio-indizea (EPI).

Lehen adierazi den bezala, bere helburua aurreikusitako bizitegi-garapen berriek (eta garapen horiei lotutako biztanleriak) euskararen egungo ezagutza-mailan edo -ehunekoan izan ditzaketen inpaktuak zehaztea da. Bere kalkuluak honako parametro hauei erantzuten die:

BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA

Udalerrria	Etxebizitza berrien kop.	Biztanle berriak (etxebizitzak x 2,48)
Urretxu	391	970

BIZTANLEEN SORLEKUA

(egungo migrazio-egoera eta/edo joerak)

Sorlekua	Migrazio-joerak	
	Egungo egoera (%)	Biztanleria berriari buruzko zenbatespena
		% Biztanleria berria

EUSKARAREN EZAGUTZA SORLEKUARI ERREPARATUTA

Hizkuntza	Sorlekua				
	Udalerrria (%)	Gipuzkoa (%)	EAEko beste LH batzuk (%)	Espainiako beste AE batzuk (%)	Atzerria (%)
Erdaldunak					
Ia euskaldunak					
Euskaldunak					

BIZTANLE BERRIEN EUSKARAREN EZAGUTZARI BURUZKO ZENBATESPENAK.

Udalerrria	Biztanle berriak (kop.)	Erdaldunak (kop.)	Ia euskaldunak (kop.)	Euskaldunak (kop.)

EUSKARAREN PROIEKZIO-INDIZEA (EPI).

A	B	C	D	E	F
Udalerrria	Biztanleria osoa (egungoa + berria)	Biztanleria euskaldun osoa (egungoa + berria)	ondoriozko biztanleria euskaldunaren % (C : B)	egungo biztanleria euskalduna (%)	Gehikuntza / Galera (%) (E-D)



Urretxu

Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala



3.- Euskararen hauskortasun-indizea (EHI)

Lehen azalduta bezala, bere helburua udalerraren egungo egoera soziolinguistikoa eta bere hauskortasun edo sendotasun handiagoa edo txikiagoa zehaztea da, proposatutako hirigintza-garapen berriek egoera hori zer neurritan aldatu edo mantendu dezaketen ebaluatzeko xedez. Formula honen arabera kalkulatu da:

$$[(\text{ama-hizkuntza} \times 2) + \text{biztanle euskaldunen \%} + \text{ama-hizkuntza}] / 3 + \text{biztanleak} + \text{euskararen babesa}$$

Halaber, faktore horietako bakoitzari lotutako balorazioa ondorengo taulan dago jasota:

FAKTOREAK	ESKALA	BALIOA
Udalerriko biztanleak	550 biztanle baino gutxiago	6
	501 – 1.000 bizt. artean	5
	1.001 – 3.000 bizt. artean	4
	3.001 – 5.000 bizt. artean	3
	5.001 – 20.000 bizt. artean	2
	20.000 bizt. baino gehiago	1
Biztanle euskaldunak (%)	% 90 baino gehiago	6
	% 90 / % 80 artean	5
	% 80 / % 70 artean	4
	% 70 / % 60 artean	3
	% 60 / % 50 artean	2
	% 50 baino gutxiago	1
Euskara ama-hizkuntza (%)	% 90 baino gehiago	6
	% 90 / % 80 artean	5
	% 80 / % 70 artean	4
	% 70 / % 60 artean	3
	% 60 / % 50 artean	2
	% 50 baino gutxiago	1
Euskara etxeko hizkuntza gisa (%)	% 90 baino gehiago	6
	% 90 / % 80 artean	5
	% 80 / % 70 artean	4
	% 70 / % 60 artean	3
	% 60 / % 50 artean	2
	% 50 baino gutxiago	1
Euskara babesteko / sustatzeko dagoen antolaketa / konfigurazioa	UEMAren parte izatea eta ESEP / EBPN izatea	0
	UEMAren parte izatea edo ESEP / EBPN izatea (bata edo bestea)	2
	Neurri horietako bat ere ez	4



Urretxu

Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala



4.- Euskararen bilakaera-indizea (EBI)

Bere helburua planteatutako garapen berrietatik etor litezkeen inpaktuen ondorioz euskarak izandako bilakaera zehaztea da. Bere kalkuluak honako parametro hauei erantzuten die:

- * Euskararen bilakaera-indizea (EBI) = EPI + EHIren inpaktua.
- * Euskararen hauskortasun-indizearen inpaktua ondorengo taulako parametroen emaitza da:

EHI	EHIren inpaktua
	3
	2
	1
	0

- * Euskararen ebaluazio-indizearen balorazioa ondorengo taulako parametroen emaitza da:

EUSKARAREN BILAKAERA-INDIZEA (EBI)	ONDORIO OROKORRAK	ONDORIO ESPEZIFIKOAK
10 <	Positiboak	Oso positiboa
3 / 9		Positiboa
0 / 2		Positibo samarra
0	Neutroa	Ez du ondoriorik
0 / -1	Kaltegarriak	Garrantzi gutxi
-2 / -6		Moderatua
-7 / -9		Garrantzitsua
-10 <		Kritikoa



Urretxu



Ayuntamiento de Urretxu - Urretxuko Udala